

POBREZIA ENERGETIKOA GIPUZKOAN



2013ko Iraila



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ingurumeneko eta Lurralde
Antolaketako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio

Siis Centro de
Documentación
y Estudios
Dokumentazio
eta Ikerketa
Zentroa
Fundación Eguía-Careaga Fundazioa

AURKIBIDEA

1. AZTERLANAREN HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA	4
1.1. Sarrera	4
1.2. Azterlanaren helburuak	6
1.3. Txostenaren egitura	6
1.4. Metodologia.....	7
2. POBREZIA ENERGETIKOA: DEFINIZIOA, KAUSAK ETA ONDORIOAK	9
2.1. Zer da pobrezia energetikoa?	9
2.2. Pobrezia energetikoaren kausak	11
2.3. Zeintzuk dira pobrezia energetikoaren eraginak?.....	13
2.3.1. Osasunarekiko eraginak	13
2.3.2. Bizi-kalitate eta ongizatearekiko eraginak	14
2.3.3. Ingurunearekiko eraginak.....	14
2.3.4. Eraikuntzen degradazioan dituen eraginak.....	15
2.4. Nola neurtzen da pobrezia energetikoa.....	15
2.4.1. Tenperaturaren neurtzea oinarri hartzen duen ikuspegia	15
2.4.2. Etxebizitzako gastua oinarri hartzen duen ikuspegia	16
2.4.3. Azalpen eta hautemateetan oinarrituriko ikuspegia	18
2.5. Pobrezia energetikoa: Nori eragiten dio gehien?.....	19
3. POBREZIA ENERGETIKOA GIPUZKOAN	21
3.1. Sarrera	21
3.2. Gipuzkoako pobrezia energetikoaren arazoa testuinguruan ulertzeko gako batzuek ..	25
3.2.1. Ekonomia-krisialdiko testuingurua: langabezia eta pobrezia hazten dira, eta beheratu egin dira diru-sarbideen maila	25
3.2.2. Efizientzia energetikoaren aldeko urrats garrantzitsuak egin arren, oraindik ere bada aurrerabidea egiterik	26
3.2.3. Etxebizitzetako kontsumoa mantendu arren, familia-gastua haztarazi egiten du energia-prezioen gorakadak	28
3.3. Pobrezia energetikoaren eragina Gipuzkoan.....	32
3.3.1. Etxebizitzako energia-gastuak kontuan hartzen dituen ikuspegia	32
3.3.1.1. Zenbat gastatzen dute energian gipuzkoar etxebizitzek?	33
3.3.1.2. Energia-gastuen garrantzia etxebizitzetako aurrekontuetan	34
3.3.2. Etxebizitzetako hautemate eta adierazpenetan oinarrituriko ikuspegia	40
3.3.2.1. Pobrezia energetikoaren adierazle sintetikoaren emaitzak.....	42
3.3.2.2. Egoera termiko optimo batean etxebizitza mantentzeko gaitasuna	44
3.3.2.3. Faktura energetikoa ordaintzean gertatzen diren atzerapenak.....	48
3.3.2.4. Etxebizitzetako hezetasun-, itogin- eta usteldura maila.....	53
3.3.2.5. Pobrezia energetikoari loturiko beste aldagai batzuen emaitzak	57
3.4. Kalkulurako bi ikuspegi nagusien araberako tasen konparazio eta doikuntza	64
3.5. Pobrezia energetikoa gehien eragiten dieten etxebizitzaren ezaugarriak.....	66

4. NAZIOARTEKO PANORAMA: POBREZIA ENERGETIKOAREN GUTXITZEAN ERAGINA DUTEN POLITIKA ETA NEURRIAK.....	71
4.1. Sarrera	71
4.2. Herrialdeka eginiko analisi laburra.....	72
4.2.1. Europar Batasuneko herrialdeak	72
4.2.1.1. Erresuma Batua.....	74
4.2.1.2. Irlanda	75
4.2.1.3. Frantzia	76
4.2.1.4. Belgika	78
4.2.1.5. Holanda.....	79
4.2.1.6. Alemania.....	81
4.2.1.7. Herrialde nordikoak	83
4.2.1.8. Espainia.....	84
4.2.1.8.1. EAE	86
4.2.1.8.2. Katalunia.....	87
4.2.1.9. Beste europar herrialde batzuek	88
4.2.1.9.1. Europa hegoaldeko herrialdeak: Italiako kasua	88
4.2.1.9.2. Europa ekialdeko herrialdeak: Hungariako kasua	90
4.2.2. Beste herrialde batzuek.....	92
4.2.2.1. Ameriketako Estatu Batuak	92
4.2.2.2. Kanada.....	93
4.2.2.3. Australia eta Zelanda Berria	94
4.3. Pobrezia energetikoaren tasetan eragina izandako politika eta neurriak	96
4.3.1. Efizientzia energetikoan zentratzen diren neurriak	97
4.3.2. Errenta-transferentzietan zentratzen diren neurriak	98
4.3.3. Gizarte-tarifetan zentratzen diren neurriak	99
4.3.4. Bestelako neurri batzuek	100
4.4. Energia-pobreziaren tasetan eragina duten politiken eta neurrien nazioarteko taula konparatiboa.....	102
5. LABURPENA ETA ONDORIOAK	133
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	143

1. AZTERLANAREN HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA

1.1. Sarrera

Pobrezia energetikoaren terminoa aipamen hartzen da etxebizitza batzuetan zerbitzu energetiko nahikoa ordaindu ezin denean erosotasun termiko egokia izateko edo etxeen diru-sarbideetatik diru gehiegi erabiltzeko behartuak daudenean energia kontsumitu izanaren ondorioz gertatzen den gastua ordaintzeko. Nahiz eta sarri lotura egiteko joera izaten den pobrezia energetikoa eta diru-sarbide apalen artean, kontua da hori gertatzen dela faktore batzuen konbinatzearen ondorioz, eta horien guztien artean kontuan hartu behar dira, familia-baliabideen mailaz gain, etxebizitzetako efizientzia energetikoaren maila edota energiaren prezioa zein den.

Nahiz eta gaur egun ez izan neurtzeko sistema bateratu eta orokorrean adostutako bat pobrezia energetikoa neurtzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak buruturiko pobrezia eta gizarte-bazterketaren txostenaren emaitzek azaltzen dutenez, gure lurraldeko etxebizitzetako %9k bizi omen dezakete pobrezia energetikoaren mailako egoera bat, dela faktura energetikoa ordaintzerakoan diru-sarbideen %10 baino gehiago gastatzen dutelako (%9,4), dela berauen etxebizitza urteko hilabete hotzetan tenperatura egoki batean mantendu ezin dutelako edo atzeratu egin direlako kontsumo energetikoaren ordainagiria ordaintzean. Horrela, aurretik arazo bakan edo komuna ez zela uste izatetik, emaitza horiek erakusten dute pobrezia energetikoa, ondorio ezkor oso garrantzitsuak dituen fenomeno, gure gizartearen sektore zabal batek pairatu dezakeela. Nahiz eta, europar esparruan, estatistika eta azterlanen eskasiak ez utzi fenomenoak eragindako pertsonen datuak eskaintzen, kalkulatzen da European 50 eta 125 milioi pertsona bizi direla horrelako egoera batean¹, eta ziurrenik, hazi egingo omen da bere eragin hori ekonomia-krisialdiaren eta energia-prezioaren hazkuntzaren ondorioz.

¹ Garcia, M. et al.(2009) *Tackling Fuel Poverty in Europe. Recommendations Guide for Policy Makers*. EPEE Consortium.

Pobrezia energetikoa oraintsu arte erabateko gai ezezaguna izan da, eta arazo gisako garrantzia hartzen joan da urte hauetan guztietan, eta horrela, sartzen joan da gutxika herrialde askotako agenda politikoan. Halaber, ikerketaren arloak ere urrats oso garrantzitsuak ibili ditu arazo hori mugarritu, kausak eta eraginak aztertzeko garaian.

Nazioarteko panoramari begiratzuz gero, Erresuma Batua da erreferentziazko herrialdea zenbait arrazoirengatik. Izan ere, herrialde hori izan zen aurrena arazo hori identifikatzen hirurogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran, zientifikoki aztertu eta agenda politikoari gehituz. Gaur egun, gainera, definizio ofiziala duen herrialde bakanetakoa da, eta neurtu eta jarraipen periodikoak egiteko sistema dute biztanleriari luzaturiko inkesten bidez, eta, batik bat, zehaztutako estrategia bati jarraitzen diote pobrezia energetikoari aurre egiteko.

Nahiz eta gaiaren azterlanek zenbait zailtasunei aurre egin behar izaten dioten, adibidez eta gehienbat, definizio komun bat eta hitzartutako neurtzeko sistema baten eskasari, eta Europan buruturiko azterlanetatik askok eta askok erakusten dutenez; batetik, pobrezia energetikoak eragiten die nabarmendu daitekeen etxebizitza-kopuru bati (gutxi gorabehera, EB-15 osatzen duten herrialdeetako biztanleen %10 eta %25ari), eta, bestetik, fenomenoaren ondorioak ez omen dira batere makalak, erakutsi baitute pobrezia energetikoak ez duela soilik pertsonen –bereziki, zaugarrienen artean– bizi-baldintza eta osasunean eragiten; baita ere eragiten baitu etxebizitzan bai egoera bai segurtasun-mailan eta ingurugiroaren gain, izan ere, etxebizitzek osatzen duten sektorea baita atmosfera kontaminatzen duen emisio-iturri garrantzitsuenetako bat.

Nahiz eta aurkikuntza horiek gertatu, arreta eskasa izan du pobrezia energetikoak erakunde publikoen partetik. Europan, adibidez, oso gutxi dira pobrezia energetikoari aurre egiteko ekimen zehatzak aurkeztu izan dituzten herrialdeak. Dena den, egiazkoa da gai honen inguruan hazten ari dela ardura, eta gero eta gehiago dira, nahiz eta ez diren beti oso zehatz izaten, pobrezia energetikoarengan eragina duten politika edo neurriak. Identifikatzeko errazenen artean daude baliabide urriko etxebizitzetara zuzenduriko energia-tarifa bereziak, baina zenbatu daitezke beste batzuek, adibidez, energia-errendimendu estandarrak zehaztea etxebizitza eraikitze edo birgaitzean, kenkari fiskal eta interes apaleko kredituak etxebizitza-parkeak birgaitzeko, faktura energetikoa ordaintzeko ekonomia-laguntza bereziak, edo etxebizitzetako kontsumo energetikoa gutxitu eta etxebizitzetako efizientzia energetikoa hobetzeko informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak.

1.2. Azterlanaren helburuak

Aurretik aipamen harturikoaren haritik, hauek dira Gipuzkoako pobrezia energetikoaren gaiaren inguruan azterlanak dituen helburuak:

- Pobrezia energetikoaren kontzeptua barruratu gure lurraldean, fenomeno horretaz ezaguera egokiagoa izateko bai azaltzen dituen alor askotariko oinarriko kausa eta eraginengatik bai kontzeptuaren jatorria eta neurtzeko garatu izan diren metodo eta ikuspegi dagokionez.
- Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren emaitzak (GPGBI-2012) oinarri harturik, azaldu pobrezia energetikoaren inguruko galdera-andana jasotzen duen estatistika-eragiketa, fenomenoaren eragina gure lurraldean, bere ezaugarriak, eta baita ere arazo horrengatik gehienez eragina izaten duten etxebizitzek osatutako profilaren alderdi sozial, demografiko eta berezitasunak.
- Nazioarteko panoramika bat eskaini gure inguruan diren herrialdeetan garatu izan diren pobrezia energetikoaren eragina gutxiarazteko politika eta neurriak azalduz, betiere xede delarik jakitea zein ekimenek izan duten arrakasta gehien eraginak gutxiaraztean.

1.3. Txostenaren egitura

Sei atalek osatzen dute honako txosten hau. Hauxe da beronen egitura eta edukia:

- Sarbide-izaera du lehenengo atal honek, eta azterlanaren aurkezpena da. Bertan zehazten dira bai azterlanaren helburuak bai egitura eta azterlana burutzean erabili izan den metodologia.
- Gure lurraldean pobrezia energetikoaren gaiak dituen berrikuntza-ezaugarriengatik, bigarren atalak eskaintzen ditu gaiaren zer-nolakoak egoki ulertzeko garrantzitsuenak. Helburu horri jarraikiz, aurkezten da lehenik pobrezia energetikoaren kontzeptua, horretarako, bai fenomenoaren sorrera izan zuen laurogeita hamarreko bukaerako testuingurua kontuan hartuz bai ostean izandako garapena eta neurtzean ematen diren ikuspegi horiek guztiak azalduz. Horretaz gain, atal honetan azalpen orokor bat ematen da arazoak eragin gehien izaten duten kausa edo faktoreen inguruan –batez ere, etxebizitzako diru-sarbideen maila, etxebizitzetako efizientzia energetikoaren maila eta hornitze energetikoaren kostua– eta askotariko arloetan izaten dituen ondorioetan, adibidez, pertsonen osasuna, etxebizitzetako finantza-egoera, etxebizitzaren hondatze edota negutegi-efektuko gasak isurtzen diren kasuetan.
- Hirugarren atalak erdiz erdiko gaitzat hartzen du pobrezia energetikoaren fenomenoaren eragina gure lurraldean, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren emaitzak (GPGBI-2012) berariaz aztertuz. Bertan kontuan hartzen dira, eskura dagoen

informazioa erabiliz, gaur egun arte neurtzeko erabili izan diren ikuspegi desberdinak. Gure lurraldeko pobrezia energetikoari loturiko egoerak lantzeaz gain, atal honetan aztertzen dira eragin gehien izaten duten etxebizitzetako ezaugarri sozial eta ekonomikoak. Bereziki hartzen zaio kontu pobrezia energetikoa eta etxebizitzetako ekonomia- eta finantza-gaitasunari loturiko bestelako aldagai batzuei faktura energetikoa ordaintzean (argindar eta gasaren fakturen zenbatekoa eta ekonomia-premiengatik ordainketak atzeratu edota gastu energetikoa murriztea); etxebizitzaren ezaugarriak (antzinatasuna, tamaina, mota, instalazioak eta hornikuntza); eta etxebizitzetako kontsumo energetikoa gutxiarazteko askotariko mekanismoen helmena (berokuntza-sistema erabiltzeko jarraibideak, etxebizitzan energia berritzaileak instalatzea, argia edo ura aurrezteko gailuen erabilera).

- Datuen azterketa kuantitatibo baten ondoren, laugarren atakak osatzen du azterlan honetako analisiaren bigarren ardatz nagusia, eta arreta jartzen da gaur egun pobrezia energetikoari aurre egiteko gure inguruko herrialdeetan bideratzen diren eta eragina izan duten politika eta neurrien aztertzean. Analisi horren laguntza gisako koadro bat aurkezten da, eta bertan jasotzen dira, bere izaeraren arabera antolatutako modu ordenatu batean, hamar bat herrialdeen ekimenetan berrikusitakotik hautatu diren neurri nagusiak.
- Bosgarren atalean jasotzen dira, Gipuzkoako PGGBI-2012 inkestako emaitzak eta pobrezia energetikoa gutxiarazteko baliagarri gertatu diren politika eta neurrien nazioarteko panorama berrikusi eta oinarri hartu ondoren, azterlana laburbildu eta oinarritzko ondorioak biltzen dira.
- Azkenik, seigarren atalak aurkezten ditu txosten hau idazteko erabili diren bibliografia-erreferentziak.

1.4. Metodologia

Honako hau da txostena osatzean jarraibide hartu den metodologia:

- Txosten honetako bigarren atalean sarbide teoriko gisara aurkeztutako testua osatu da gaiaren inguruan bildutako zientzia-literatura eta maila teknikoko berrikusketa batetik. Erabilitako dokumentuen bilaketa eta azterketa burutzeko, batez ere erabili da SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroaren Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Politiken inguruko Datu Base bibliografikoa. Berrikusketa hai osatzeko Internet bidezko bilaketa bat burutu da ikerketarako gaiaren inguruan harremana duten instituzio eta erakundeen webguneetatik.
- Estatistika-datuen analisia burutu da 2012ko urria eta azaroaren artean 1.193 etxebizitzetako lagin adierazgarri batek osaturiko Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta oinarri harturik. Nahiz eta estatistika-operazio horrek ez osatu berariazko pobrezia energetikoaren inkesta bat, behintzat, pobrezia eta gizarte-

bazterketa egoerei arreta jartzen die dimentsio anitzeko ikuspegi batetik, eta, baita ere, ikuspegi zabal batetik hartzen dira etxebizitzako energia-erabileraren jarraibideak. Zehazki, estratifikatutako lagin probabilitistiko batean oinarritu zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak sustatutako inkesta. Operazio horren ezaugarri tekniko eta metodologiko nagusiak eta inkestaren emaitza orokorrak ere kontsultatu daitezke aurtan Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratu duen emaitzen txostenean.

- Pobrezia energetikoarengan eragina izandako politika eta neurrien azterketa eta deskribapenerako, funtsean erabili da gizarte-politikan espezializatutako SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak buruturiko berrikuste bat, eta xede delarik gaiaren inguruan argitaratu den interes handieneko dokumentazioa kokatzea. Bilaketa hori osatu da pobrezia energetikoari aurre egiten dieten aztertutako herrialde bakoitzeko administrazio publikoek eta erakunde pribatuek eskainitako informazio-berrikuste baten bidez. Aipaturiko eragile batzuen Internetetik lorturiko informazio-iturria nahikoa izan ez denean, azterlaneko arduradunak zuzenean harremanean jarri eta saiatu dira neurrien inguruko deskribapenik zehatzena jasotzen laguntza horien arduradunekin. Bilaketa zentratu da dokumentu ofizial eta zientzia-literaturan pobrezia energetikoaren inguruko informazioa jasotzen.

2. POBREZIA ENERGETIKOA: DEFINIZIOA, KAUSAK ETA ONDORIOAK

2.1. Zer da pobrezia energetikoa?

Pobrezia energetikoa definitzeko adibidetzat hartu daitezke etxebizitza batean etxeko premiak asetzeko zerbitzu energetiko nahikoak lortu ezin daitezken egoerak edota etxebizitzetako faktura energetikoa ordaintzeko diru-sarbideen gehiegizko zati bat bideratu beharra izaten duten egoera horiek.

Nahiz eta jatorriko pobrezia energetikoaren kontzeptua etxebizitzetako tenperaturaren ezegokitasuna definitzeko erabili, gaur eguneko joera da kontuan hartzea, beroketa-sistemaz gain, bestelako premia energetiko horiek guztiak (argizatzea, ur beroa, hozketa-sistema, sukaldea, etxetresna elektrikoak, etab.). Aitzitik, definizio zabalago horrek ez du kontuan hartzen ibilgailuetarako erregairik, ez eta etxeko erabileratik kanpo dagoen bestelako kontsumo energetikorik.

Pobrezia energetikoaren terminoa (ingelesez, *fuel poverty* edo *energy poverty*) Erresuma Batuan sortu zen, hirurogeiko hamarkadan, eta garai hartako etxebizitzek, gaur egunekoak baino errenta apalgoak izanik, aurre egin behar izaten zieten kostu energetiko altuago bati; batetik, petrolio-krisialdiaren ondorioz, baina baita ere etxebizitzaren efizientzia energetikoaren maila eskasarengatik.

Hirurogeita hamargarren hamarkadaren bukaera eta laurogeiko hamarkadaren bitarteko egile batzuek arreta jarri zioten gaiari, eta proposatu egin zituzten zenbait definizio. Hala ere, ez da asetzeko moduko definizioa lortzen Brenda Boardmanen eragin handieneko 1991. urteko lana argitaratu arte². Boardmanen esanean, pobrezia energetikoa definitu daiteke "[etxebizitza bateko] eraginkortasun ezagatik tenperatura egokitzeko ezintasuna" nabarmenduz. Liburu horretan, Boardmanek proposatzen du neurketarako metodo bat, eta bertan aipamen hartzen du pobrezia energetikoaren egoeran daudela diru-sarbideen %10 baino gehiago gastatzen duten etxebizitzetako familiak.

Nahiz eta 1991. urtean kaleratu Boardmanen liburu hori, pobrezia energetikoaren kontzeptuak ez zuen arauen aldetik ifrentzurik ezagutu 2000. urtean *Warm Homes and Energy Conservation Act* izeneko ezarri arte. Arau horretan gobernu britainiarrari eskatzen zitzaion pobrezia energetikoa gutxiarazteko estrategia bat eta bere aplikaziorako helburu batzuek finkatzea. Horren ondorioz, 2001eko azaroan argitaratu zuten Pobrezia Energetikoaren aurkako I. Plangintza. Bertan jasotako definizio ofizialaren arabera, etxe batean pobrezia energetikoa dagoela ulertzen da estandar termiko egoki bat lortzeko diru-sarbideen %10 baino gehiago energian gastatzen denean. Estandar termikoari dagokionez, definizio horretan kontuan hartu ziren Osasunaren Munduko Erakundearen gaiaren inguruko iradokizunetan nabarmentzen diren egongeletarako 20°C eta beste geletarako 18°C. Horietaz gain, oinarrizko aldaketa bat egin zuten. Horrela, garai arte erabilitako etxebizitzetako gastu erreala kontuan hartu ordez, erabiltzen da etxebizitzako tenperatura egokiaren mantentzea bermatzeko premiako gastu energetikoaren datu teoriko bat. Gaur egun, definizio ofiziala aipatutako hori izan arren, pobrezia energetikoaren kontzeptua berrikuste-prozesu batean dago Erresuma Batuan bi hamarkada baino gehiago igaro ostean.

Erresuma Batuaz gain, Europar Batasuneko beste bi herrialdeetan, Irlanda eta Frantzia, garatu dituzte pobrezia energetikoaren definizio estandarizatuak. Irlandan gehien erabilitako definizioa gaur eguneko Energiaren Liburu Zuriak jasotzen du, baina baita ere 2007-2016 Gizarteratzeko Nazio Ekimenerako Plangintzak, eta bertan aipamen hartzen denez, pobrezia energetikoa gertatzen da "etxebizitza batean ezin denean mantendu tenperatura egoki bat, edota ezin badute tenperatura egokitu etxebizitzaren efizientzia energetiko eskasarengatik". Frantzia, pobrezia energetikoaren aurreneko definizioa jasotzen da 2010. urtean onartutako ingurugiroarekiko nazio-mailako konpromisoa hitzartutako II. Grenelle legean. Bertan definitzen den pobrezia energetikoak dioenez, pertsona batek zailtasuna badu etxebizitzako energia-iturri nahikoa lortzea bere oinarriko premiak asetzeko, dela diru-sarbide nahiko ezagatik, dela etxebizitzaren ezaugarrien ondorioz, pertsona horrek pobrezia energetikoa pairatzen du.

Europar-mailan definizio komun baten hutsunea izan da, eta oraindik ere hala da, oraintsu Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen Irizpen batek nabarmendu dituen arazoetako bat da pobrezia energetikoa³ egoki ezagutu eta ebaluatzeko.

² BOARDMAN, B. (1991) *Fuel Poverty: From Cold Homes to Affordable Warmth*. London: Belhaven Press.

³ COMITÉ ECONÓMICO Y SOCIAL EUROPEO (2011). *Dictamen del Comité Económico y Social Europeo sobre el tema «La pobreza energética en el contexto de la liberalización y de la crisis económica» (Dictamen exploratorio)*. Bruselas: Diario Oficial de la Unión Europea, 2011/C 44/09.

Gainera, irizpen honetan proposatzen da izaera orokorreko definizio bat Europar Batasunaren esparruan, eta honakoa da pobrezia energetikoaren definizio hori: "tenperatura-egoera egoki batean etxebizitza mantentzeko zailtasun edo ezintasuna (...) eta eskuragarri ez izatea oinarritzko bestelako zerbitzu energetiko batzuek, adibidez, argia, garraioa, Internet edo arazoizko prezio bateko gailu batzuetarako argindarra".

Nahiz eta gaur egungo eztabaidan pobrezia energetikoaren askotariko definizioak hartu, oro har, ikuspegi horiek guztiek ulertzen dute etxebizitzetako arloko arazotzat, eta pobrezia energetikoa aipamen hartzen dute etxebizitza egoki mantentzeko energia nahikoa ordaintzerik ez duten etxebizitzetako egoerak edota hori lortzeko gastu garrantzitsu bat egin behar dituzten kasuak definitzeko.

2.2. Pobrezia energetikoaren kausak

Nahiz eta pobrezia energetikoa kausa anitzeko fenomenoak izan –bestelako ikuspegi zabalago batetik pobrezia eta gizarte-bazterketa kausa anitzekoak diren bezalatsu–, nabarmena da pobrezia energetikoaren oinarriko kausa gisa hiru faktoreen inguruko kontsentsua –diru-sarbide apalak, etxebizitzaren efizientzia eskasa eta energiaren salneurri altuak–.

- **Diru-sarbide apalak.** Gaur egun, etxebizitzetan ur beroa edo beroketa-sistema bat izatea oinarritzko premien baitan dagoela ulertzen da. Hori dela-eta, diru-sarbide apalak izateak edo faktura energetikoak duen kostuari modu egoki batean ezin aurre egitea dira arazo honen oinarriko gaiak. Hori diote zenbait azterlanek, izan ere, pobrezia aurre egiten dieten talde zaugarriak baitira gehienez, diru-sarbide apalenak dituzten horiek (langabezian dauden pertsonak, gizarte-prestazioen jasotzaileak, lanaldi partzialak dituzten emakumeak, etab.).
- **Etxebizitza eta hornikuntza-gailuen efizientzia energetiko eskasa.** Energia-kontsumoari loturiko etxebizitza eta hornikuntza-gailuen efizientzia energetikoarekin kalitate-maila da pobrezia energetikoaren bestelako osagai nagusietako bat. Etxebizitzaren sektoreari dagokionez, etxebizitzako oinarritzko premia batzuek asetzeko (argindarra, gasa, etab.) ahalik eta energia gutxiena erabiltzea da efizientzia energetikoa. Zentzu honetan, badira osagai ugari, adibidez, eraikinen inguratzaile termikoan gertatzen diren gabeziak, errendimendu baxuko beroketa-sistemak edota efizientzia-maila gutxiko elektratasunak. Horiek guztiek kontsumo energetiko jasoegia ekarri dezakete, eta horren ondorioz etorririko diren faktura garestiak eta pobrezia energetikoa bizitzeko arriskuaren hazkuntza.
- **Energiaren salneurria.** Pobrezia energetikoaren baitan, eta energiaren salneurrien etengabeko hazkuntza ematen den testuinguru honetan, faktore horrek aipamen hartzen du etxebizitzek premiak asetzeko ordaindu behar izaten duten kostua. Lotura argia dago pobrezia energetikoa eta energia-salneurrian artean, izan ere, hazi egiten baitira energia-tarifak garestitzean, premia energetiko horiek asetzeko zailtasunak ere. Joandako urte

hauetan energiaren salneurriak hazkuntza nabarmena izan du –Eurostat⁴ erakundearen estatistiken arabera, 2008 eta 2012 urteen artean, Espainiako etxebizitzetako kontsumitzaileentzako argindarraren salneurria %57 hazi zen (zergak kontuan hartu gabe), eta gas naturala %16–, eta ulertu daiteke kontsumitzaile zaugarrien kopuruak ere gora egin duela.

Nahiz eta pobrezia energetikoa, zentzu zabal batean, uler daitekeen konbinaturiko hiru faktoreen eraginaren kausa gisara, arazo horrengan gehiago edo gutxiago eragiteko gaitasun nahikoa duten bestelako osagai batzuek hartu daitezke zientzia-literaturatik. Ondorengo hauek dira oinarritzko faktore gehigarri gisara sarritan espezializatutako literaturak nabarmentzen dituen gaiak:

- Baldintza klimatikoak. Garbiki, klima izaten da pobrezia energetikoaren baldintzatzaile azterketa konparatuak egiten direnean herrialdeen artean edo herrialdeetako eskualde-mailan. Noski, berealdiko tenperaturak eragin gehien egiten dieten herrialdeetako premia kontsumo energetikoa altuagoa izango da, izan ere, klima epeleko herrialdeetan errazago izaten baita tenperatura egoki bat mantentzea.
- Habitata. Erresuma Batuan buruturiko zenbait azterlanek nabarmentzen dute landa-eremuetan eragiten duela gehien pobrezia energetikoa. Etxebizitzen ezaugarriak – gehienean, gaur egunekoak baino etxebizitza handi eta zaharragoak izaten dira, eta premia eta efizientzia-arazo gehiago izaten da etxebizitza horietan–, gas naturala lortzeko zailtasunak eta gehienean garestiago eta efizientzia gutxiagoko erregaiak erabiltzen dituzte, eta gune urbanoaren aldean, hazi egiten dira landa-eremuan pobrezia energetikoaren tasak.
- Informazioaren eskasia. Nahiz eta aurreztu eta efizientzia energetikoaren aldeko gizartearen kezka hazi, oraindik ere ikusgarritasun gutxiko arazoa da gaur egun pobrezia energetikoa kontsumitzaile askoren artean. Ez da soilik etxebizitzako efizientzia energetikoa hobetzeko dauden neurrien informazio garrantzitsuaren hutsunea (etxebizitzak berritzeko laguntza publikoak, elektrotresna efizienteagoak erosteko diru-laguntzak, azturen aldaketa, etab.), baita ere horrek faktura energetikoan duen eragin zehatza ezezagun izatea.
- Horietaz gain, bestelako faktore batzuek azaltzen dira, eta pobrezia energetikoarekin erlazioa badu ere, gehienbat etxebizitzetako efizientzia energetikoa aipatzen dute, adibidez, etxebizitzako efizientzia energetikoaren baldintzak, erabilitako erregai-mota, etxebizitzen tamaina eta bertan bizi den pertsona-kopurua, etxebizitza eraikitzean erabilitako isolatze-sistema, etab.

⁴ <http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/energy/introduction>

2.3. Zeintzuk dira pobrezia energetikoaren eraginak?

Pobrezia energetikoa eragin larriak dituen arazoa da osasuna, bizi-kalitatea edo ingurugiroa bezalako alorretan.

2.3.1. Osasunarekiko eraginak

Pobrezia energetikoaren ondorio larrienetakoak dira osasun-arazoak. Egiaztatu egin denez, osasunari kalte egiten dio modu jarrai batean tenperatura desegokiak dituzten etxebizitzetan biziak, eta bereziki, egoera zaurgarrienean dauden pertsonen artean, adibidez, haur, nerabe, pertsona adindu edota gaixotasun kronikoak dituztenean.

Ondorengo hauek dira, zehatz-mehatz egiteko asmorik gabe, azterlanek nabarmentzen dituzten pobrezia energetikoa osasunarengan dituen eraginak^{5,6}:

- Etxebizitzan tenperatu hotza izateak epe luzean, estres termikoa sortarazi dezake, eta immunologia-sistemari eragiteaz gain (katarro eta gripeak gaixotzeko arrisku handiagoa), nabarmen eragiten dio osasun kardiobaskularrari, eta horren ondorioz haztarazten dira gaitz kardiobaskular edo bihotzekoak⁷.
- Hilabeterik hotzenetan tenperatura desegokian biziak okerrarazi ditzake hezur, giltzadura –arthritis, adibidez– eta gaixotasun erreumatologikoak.
- Hotz egiten duen etxebizitzetan biziak ondorio izan ditzake hezetan-arazoak (lizuna, usain txarra) edota akainak azalaraztea, eta zenbait arnasketa-eritasun –asma, adibidez– edo gaixotasun alergikoa.
- Etxebizitza heze eta hotzean biziak ere pertsonen buru-osasunari eragin diezaiokete, bereziki, antsietatea, depresioa edo isolatze soziala gertatzen denean.
- Era berean, zerbitzu medikuek⁸ erabiltzeko askoz ere arriskua gehiago dute luzaroan etxeko tenperatura hotzean bizi behar duten pertsonen, eta, bereziki, pobrezia energetikoa bizi duten etxebizitzetako haurren kasuetan, %30ean hazten da anbulatorio edo erietxe⁹ batera joateko arriskua.

⁵MARMOT REVIEW TEAM (2011) *The Health Impacts of Cold Homes and Fuel Poverty*. London: Friends of the Earth/ Marmot Review Team.

⁶LIDDELL, C. y C. MORRIS (2010) "Fuel poverty and human health: A review of recent evidence", *Energy Policy*, nº 38, 2987–2997.

⁷DEPARTMENT OF TRADE AND INDUSTRY (DTI) (2001). *UK Fuel Poverty Strategy*. London: HMSO.

⁸EVANS, J. et al. (2000) "An epidemiological study of the relative importance of damp housing in relation to adult health", *Journal of Epidemiology and Community Health*, nº 54, 677–686.

⁹LIDDELL, C. (2008) *The impact of Fuel Poverty on Children*. Belfast: Save the Children

Zenbait gaixotasun izan edo beste batzuek okertzeko arrisku gehiago izateaz gain, zalantzarik gabe, hilkortasunaren hazkuntza da baldintza termiko desegokien ondorioz pobrezia energetikoak dituen ondoriorik larriena, dela hotz, dela bero gehiegiagatik. Hori dela-eta, ikusarazi da etxebizitza tenperatura baxuan mantentzearen eta neguan gertatzen den hilkortasunaren %10¹⁰ inguruko hazkuntzaren arteko erlazioa pobrezia energetikoaren ondorioz gertatzen dela. Zehazki, Espainiaren kasuan, oraintsu buruturiko azterlan batek kalkulatu du pobrezia energetikoa dela urte oro gertatzen diren 2.300 heriotza goiztiarren arduradun¹¹. Gipuzkoako azterlanean erabilitako metodologia¹² bera erabiliz gero, emaitzek azaltzen dute %21,6koa izango litzakeela lurraldeko batz besteko neguan gehigarria den hilkortasun-tasa 1998-2010 aroan, eta zifra hori pixka bat altuagoa da Espainiako aro bereko batz bestekoarekin alderatuz gero (%20,5). Datu horietatik abiatzen, eta onartuz pobrezia energetikoari loturiko neguko hilkortasunaren gehiengoa %10ekoa dela, kalkuluek diote arazo horren ondorioz gure lurraldean urtero 40 heriotza goiztiar gertatzen direla.

2.3.2. Bizi-kalitate eta ongizatearenganako eraginak

Etxebizitzetako ongizate eta bizi-kalitaterako oso kaltegarria da pobrezia energetikoa. Eskuarki, pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzetan, arrisku gehiago izaten da tenperatura desegoki, hezetasun, lizun, zarata edo beste arazo batzuek izateko. Halaber, eta etxebizitzako energia-kontsumoaren efizientzia ezaren ondorioz, arrisku gehiago izaten da etxebizitza horietan aurre egiteko diru-sarbideen arabera faktura energetiko altu baten ordainketari, eta horren ondorioz, gutxitu egin daiteke beste ondasun eta oinarriko zerbitzuak erabiltzeko egindako gastua (jakiak, oinetakoak, garraioa, etab.), ez ordaintzeagatik arazoak, zorrak ugaritu eta batzuetan horniduraren eteteak gertatzea. Ondorio horiek guztiek sorrarazi dezakete pobrezia eta gizarte-bazterketako egoera horiek areago okertzea pobrezia energetikoa bizi duten etxebizitzetan.

2.3.3. Ingurumenarekiko eraginak

Etxebizitza-arloko energia-kontsumoa da atmosferaren berotze eta beste kutsatzaile batzuek eragin zuzena duten negutegi-gasen isuri-iturri nagusienetako bat (negutegi-efektua). Espainiar Estatuan, adibidez, kalkulatu da etxebizitza-sektoreak azken energiaren %17 kontsumitzen duela, eta horrek negutegi-efektua sortzen duten gas-isurkimenen %33ko portzentajearen arduradun dela¹³.

¹⁰ HILLS, J. (2003) *Getting the measure of fuel poverty. Final Report of the Fuel Poverty Review*. CASE report 72. London: Centre for Analysis of Social Exclusion. London School of Economics.

¹¹ TIRADO HERRERO, S. (dir.) (2012) *Pobreza Energética en España. Potencial de Generación de empleo derivado de la rehabilitación energética de viviendas*. Madrid: Asociación de Ciencias Ambientales.

¹² Erresuma Batuan estatistika ofizialetan erabiltzen den metodologia da. Heriotz goiztiarren kopurua ezagutzeko erabiltzen da neguko hilkortasun-tasa gehigarria, eta konparatzen da abendutik martxoa bitartean zendutakoen kopurua, data horien aurreko eta ondorengo lauhilabeteko aroekin.

¹³ WWF/ADENA (2012) *Retos y oportunidades de financiación para la rehabilitación energética de viviendas en España*. Madrid: WWF/ADENA.

Nahiz eta ezin baieztatu ingurumenaren kutsadura-maila pobrezia energetikoaren zuzeneko ondorioa denik, egia da etxebizitzaren efizientzia energetiko apalak energia-kontsumoa haztarazten duela, eta horren ondorioz hazten dira atmosferara isuritako gas-kutsatzaileak. Etxebizitzaren sektorearen baitan, gehienbat, berokuntza-sistema eta ur-berokuntza galdaren errekuntzak sortzen ditu isurkin horiek. Orokorrean, galdara-mota, erregaiaren kontsumoa, erregai-mota, galdararen errekuntza-teknologia eta efizientzia energetikoen araberakoak izaten dira isurkin horiek.

Hauek izaten dira gehienez isuritako kutsatzaile nagusiak: sulfuro dioxidoa (SO₂), nitrogeno oxidoak (NO_x), karbono monoxidoa (CO), konposatu organiko lurrunak, partikulak, metal astunak, hidrokarburo aromatikopoliziklikoak (HAP), dioxina eta furanoak (PCDD/PCDF) eta hexaklorobentzenoa (HKB). Gehienez osatugabeak diren errekuntzek sortarazten dituzte isurkin horiek.

2.3.4. Eraikuntzen degradazioan dituen eraginak

Kasu askotan, pobrezia energetikoaren egoeran bizi diren pertsonen etxebizitzek kalitate-maila eskasagoa izaten dute, eta arriskua hazi egiten da etxean betirako hezetan-arazoak gertatzeko, eta horrek eragin nabarmena izaten du degradazio-prozesu bizkor bat gertatu eta horma, ate edo leihoak kaskartzeko. Hori dela-eta, aipatzen da pobrezia energetikoaren alderdi bat dela, baldintza ezkorretara ohituriko etxebizitzetan, eraikuntzaren degradazio-prozesua gertatzea, eta horrekin bat izaten den pobrezia energetikoa areagotzea.

2.4. Nola neurtzen da pobrezia energetikoa?

Ez da batere erraza pobrezia energetikoaren fenomenoaren kuantifikatzea. Izan ere, eta alor honetako ikerkuntzak hiru hamarkada beteak dituen arren, oraindik ere ez baitago erabat fidagarria den egokitasun-maila bat lortzeko zerbitzu energetiko nahikoa izaterik ez duten etxebizitza-kopurua neurtzeko sistemarik. Horren adierazle da ez dagoela pobrezia energetikoa neurtzeko metodologia bakarra, eta horri arreta jartzen dioten ikuspegiak, gehiago edo gutxiagoan, muga teoriko eta metodologiko zehatzak dituztela.

Hauek dira pobrezia energetikoa neurtzeko eskura dauden ikuspegiak:

2.4.1. Tenperaturaren neurtzea oinarri hartzen duen ikuspegia

Erresuma Batuan hasi ziren ikuspegi hau erabiltzen laurogeigarren hamarkadan buruturiko lehenengo azterlanetan, eta tenperatura egoki bat asetzeko etxebizitzetako gaitasun ezari lotuta aipatzen zen pobrezia energetikoaren ideia hori.

Ikuspegi honek neurtzen du etxebizitzetako bataz besteko tenperatura zehaztu ahal izateko, ezarritako atalase termiko baten arabera, etxebizitzan pobrezia energetikoa bizi ote duten. Nahiz eta ikuspegi errazaren itxura izan, berehala frogatu zen arazo batzuek bazituela izaera teoriko eta metodologikoan.

Ikuspegi hau eraginkor bihurtzeko lehenengoa oztopo gertatu zen zientzia- eta teknika-mailan osasunarentzako tenperatura egokiena zein ote zen adosteko ezintasuna. Adibidez, Osasunaren Munduko Erakundeak erreferentziazko tenperatura gisara 21°Cko tenperatura ezartzen du bereziki zaugarri diren pertsona adindu eta ezgaitasunen bat duten pertsonentzat, eta mediku-literaturak gutxiengo 16°Cko tenperatura hartzen du aipamen pertsona osasuntsuentzat, baina 18°C gomendatzen ditu eguneko jardunetarako eta 21°C pertsona zaugarrientzako.

Estandar termiko bat zehazteko agerian dagoen adostasun ezaz gain, bestelako metodologia-zailtasun batzuek azalera ziren ikuspegi hori aplikatu ahal izateko. Horrela jakin zuten aplikazioa praktikara eramateak galdera ugari sortarazten zituela (zenbat edota nolako gelak neurtu behar dira?, Zer neurtu behar da etxebizitzako gela bakoitzeko tenperatura oso desberdina bada?), eta gainera, bestelako faktore batzuek hartu behar zirela kontuan datu termiko objektiboaz gain, adibidez, etxebizitzan zenbat pertsona egoten diren edota etxebizitzetan bizi diren ordu eta guneen erabilera zein den.

Gaur egun, gutxitan erabiltzen da ikuspegi hau pobrezia energetikoaren azterlanetan, eta horren ondorioz, gutxi izaten dira ikuspegi horri jarraikiz harturiko pobrezia energetikoaren tasen inguruko kalkuluak.

2.4.2. Etxebizitzako gastua oinarri hartzen duen ikuspegia

Batez ere, Erresuma Batua eta Irlandan garaturiko ikuspegi honek oinarri hartzen ditu etxebizitzetako kontsumo energetikoaren premiei loturiko gastua eta etxebizitzetako diru-sarbide garbia. Aplikatu ahal izateko, metodologia honek ezinbesteko du diru-sarbideen araberako gastuaren atalase bat ezartzea, eta kalkulu horretatik diskriminatzen dira pobrezia energetikoaren egoeran dauden etxebizitzak.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran Clinch eta Healy egileek Irlandako pobrezia energetikoaren inguruan eginiko azterlanaren oinarri metodologikoak hartzen ditu ikuspegi honek¹⁴. Bertan nabarmendu zuten, errenta-maila apala zuten etxeetan, diru-sarbideen proportzioan gastu handiagoa egiten zuten errenta altuko etxeekin alderatuta. Aurkikuntza horren ondorioz, pobrezia energetikoaren atalase bat ezarri daiteke, eta horren arabera kontuan hartuko da gastu energetikoak eragiten ote dion, diru-sarbidearen araberako proportzio zehatz batean. Geroago, atalase hori ezarri zen diru-sarbideen %10ean, Brenda Boardman egileak aurkeztu eta Erresuma Batuan buruturiko azterlan batean oinarri harturik¹⁵.

¹⁴ CLINCH, J.P. and HEALY, J.D. (1999) Housing standards and excess winter mortality in Ireland. Environmental Studies Research Series (ESRS). Working paper 99/02. Dublin: Department of Environmental Studies. University College.

¹⁵ BOARDMAN B. (1991) Fuel Poverty: From Cold Homes to Affordable Warmth. London: Belhaven Press.

Azterlan hori burutu zuten garaian, herrialde hartan tradizionalki erabili izan duten %10eko atalaseak bikoiztu egiten zuen etxebizitzetako bataz besteko gastu energetikoa eta diru-sarbide apalagoak zituztenen etxebizitzak %30ak eginiko gastua.

Ikuspegi honek maizen jaso izandako kritika eta, bereziki, atalase zehatz hori zehaztean, nabarmentzen da oinarri zientifikorik ez duela esaten duen kritika. Hori dela-eta, azterlanak ere ba omen dira mugitu ezinezkotzat ezarritako atalase hori urte eta urteetan ez dela egonkor izan aipatzen dutenak. Bestalde, ikuspegi horren muga argi gisara nabarmentzen da eginiko gastua kontuan hartzeak ezkutatu dezakeela, faktura energetikoa ordaintzeko diru-sarbideen %10 baino gutxiagoko gastua egiten duten etxebizitzak, besterik gabe, gastu hori ezin dutelako egin. Guztiaz ere, eta neurri horrek duen izaera arbitrario erlatiboaz beste, adierazle horrek erabilgarritasun handia du faktura energetikoa ordaintzean etxebizitzek egiten dute ekonomia-esfortzua azaltzeko. Halaber, nabarmendu izan da bere gaitasuna energia-prezioen hazkuntza-egoera batean etxebizitzetako balizko zaurgarritasuna neurtzeko adierazle gisara.

Hori izan da pobrezia energetikoa neurtzeko tradizionalki Erresuma Batuak erabili duen ikuspegia. 1991. urtean Brenda Boardmanek eginiko proposamen horretatik, herrialde horretako gobernuak 2001. urtetik abian jarritako Pobrezia Energetikoari aurre egiteko I. Plangintzaren baitan garatu zuen pobrezia energetikoaren definizio bat. Gaur egun oraindik indarrean dagoen definizio horren arabera, etxebizitza batean horrelako pobrezia pairatzen da maila termiko onargarri bat lortzeko diru-sarbideen %10 baino gehiago zuzendu behar denean, eta Osasunaren Munduko Erakundearen arabera, 21°C behar dira egongelarako eta 18°C etxebizitzako beste geletarako. Beharrekoa da azpimarratzea herrialde hartan garatu izandako definizio horrek ez duela kontuan hartzen etxebizitzetako egiazko gastua, baizik eta etxebizitzako tenperatura egoki batean mantentzeko premiakoa den gastu energetiko teoriko bat, eta neurri hori lortzen da osagai desberdin batzuek kontuan hartzen dituen kalkulu zehatz baten bidez, adibidez, etxebizitzaren tamaina, bertan bizi den pertsona-kopurua edo etxebizitzako efizientzia energetikoa.

Gaur egun, berrikuste-prozesu batean dago definizio hori. Hain zuzen ere, 2011ean herrialde honetako gobernuak eskatu zion *London School of Economics*-eko prestigiodun ikerlari bati berrikuste-azterlan bat burutzeko, eta azterlanak xede zuen bai kontzeptu horren definizioaren berrikuste bat egitea bai neurtu eta ebaluatzeko metodologia berrikustea. Azterlan hori 2012an¹⁶ argitaratu zuen John Hills egileak, eta bertan proposatzen du adierazle berri bat pobrezia energetikoaren eragina neurtzeko, eta horren bidez honako irizpide hauek betez gero etxebizitza bat pobrezia energetikoaren egoeran dagoela zehaztuko litzateke: a) medianaren mailatik gorakoa izatea egokitasun termikoa lortzeko gastua, eta b) gastu hori egin beharra izango balu, energiaz bestelako etxebizitzako gastuak kenduta, etxebizitzako errenta-maila eskuragarria den pobreziaaren atalasetik behera kokatzen bada (diru-sarbide baliokideen %60 ezarrita).

¹⁶ HILLS, J. (2003) *Getting the measure of fuel poverty. Final Report of the Fuel Poverty Review*. CASE report 72. London: Centre for Analysis of Social Exclusion. London School of Economics.

Proposamen honek pobrezia energetikoaren izaera kontzeptualean egiten duen oinarriko aldaketa da gehiegizko gastu bat egin beharra faktura energetikoa ordaintzeko eta diru-sarbide baxuak izatearen konbinazioa. Pobrezia energetikoaren arazoaren benetako helmena neurtuko lukeen adierazle horretaz gain, Hills-ek proposatzen du intentsitate-maila neurtzeko beste neurri bat (“fuel poverty gap” edota pobrezia energetikoaren arraila), eta horrek azalduko luke, terminologia ekonomiko batean, pobrezia energetikoa bizi duten etxebizitzetan nolako murrizketa egin beharko luketen egoera horri konponbidea aurkitzeko.

2.4.3. Azalpen eta hautemateetan oinarrituriko ikuspegia

Ikuspegi honek pobrezia energetikoa neurtzen du etxebizitzetan jasotako hautemate eta adierazpenak kontuan hartuz. Ikuspegi honek Peter Townsend edo David Gordon egileen pobrezia eta gizarte-bazterketaren ekarpenak biltzen ditu oro har, eta pobrezia energetikoa lotzen du sozialki premiakotzat jotzen diren etxebizitzako ondasun eta zerbitzu batzuen gabezia-fenomeno batekin. Aurrena, John D. Healy eta Peter Clinch¹⁷ irlandar ikerlariak proposatu zuten ikuspegi hori 2002an argitaraturako *Fuel poverty in Europe: A cross-country analysis using a new composite measure* azterlanean. Bertan erabilitako metodologiaren bidez, alde batetik, asmoa zuten etxebizitzako gastuan oinarri harturiko ikuspegia gainditzea. Izan ere, egileen esanean, ikuspegi mugatua eta zientzia-oinarri gutxikoa baitzen; eta, bestetik, asmoa zuten Europar Batasuneko herrialdeen konparazioa erraztea, urteetan estatistika-segida eginiko EBko Etxebizitza Paneletik hartutako datuak erabiliaz. Epe luzeko azterlan horretan aztertu zen 14 europar herrialdeetako pobrezia energetikoaren ikerkuntza-arloan landuriko aldagai objektibo eta subjektiboak oinarri harturik diseinaturiko sei adierazle sintetiko hauen bidez:

- Berokuntza-sistema egoki bat ezin edukitzea.
- Ekonomia-mailako zailtasunak izatea argia, ura edota argindarra ordaintzeko.
- Berokuntza-sistemaren instalazio egokia ez izatea.
- Berokuntza-sistema zentrala ez izatea.
- Etxean hezetasuna izatea.
- Lurzoru edo leihoetako usteldura agertzea.

Horren ostean, 2004an egile horiek proposatu zuten errazagoa den adierazle pobrezia energetikoa zehazteko garrantzia gehiago zuten hiru adierazletatik sorturiko adierazle konposatu bat, eta. Adierazle hori lantzean erabilitako hiru aldagai horiek hartu zituzten Europar Batasuneko Errenta eta Bizi-baldintzen Estatistikatik, eta ondorengo hauek dira: hilabeterik hotzenetan etxebizitza tenperatura egoki batean mantentzearen ezintasuna; joandako urtean ekonomia-zailtasunen ondorioz, etxebizitza mantentzeko erreziboen ordainean atzeratu izana (ura, gasa, argindarra, komunitatea, etab.); eta itoginak, pareta, lurzoru, sabai edo zimenduko hezetasuna, edota lurzoru, ate eta leihoen markoetako usteldura. Gaur egun, hori da erreferentziako adierazlea etxebizitzako pobrezia energetikoaren etxebizitzako adierazpen edo, literatura anglosaxoiak aipatzen duen moduan, kontsentsua irizpide hartzen duen ikuspegiarentzako.

¹⁷ HEALY, J. D. y P. CLINCH (2002) *Fuel poverty in Europe: A cross-country analysis using a new composite measure*. Environmental Studies Research Series, University College Dublin.

Oro har, ikuspegi-mota horietako zehaztasuna aipamen hartzean, nabarmentzen da izaera subjektiboko erantzunak hartzen direla oinarritzat. Hori bera gertatzen da, adibidez, etxebizitza tenperatura egoki batean mantentzeko gaitasunaz galdetzean. Izan ere, ez dute zergatik tenperatura berbera egokitzen jo beharrik etxebizitza horietako guztietako biztanleek. Aitzitik, bi abantaila nabarmen hauek ditu, metodologia ikuspegitik, proposaturiko adierazle sintetiko horrek: lehenik, hiru aldagairen eragina konbinatzen du adierazle horrek, eta horren ondorioz, hein handiago batean erlazionatzen da etxebizitzetan pobrezia energetikoa modu ezberdinean azaltzen delako ideiarekin, baina, baita ere, proposaturiko adierazle bakarra da, Eurostat erakundearen datu-basea erabiliz, Europar Batasuneko herrialdeen arteko pobrezia energetikoaren helmena konparatzeko.

2.5. Pobrezia energetikoa: Nori eragiten dio gehien?

Pobrezia energetikoaren inguruan eginiko azterlan-kopuru hori berrikusi ostean, nabarmentzen da zaugarritasun-faktore batzuek daudela etxebizitza batzuetan pobrezia energetikoa pairatzeko arriskua haztarazteko. Nabarmendutako oinarritzako faktore batzuen artean –horietako batzuek hertsiki daude erlazionaturik–, ondorengo hauek aipatu daitezke:

- Diru-sarbide apalak: faktore erabakigarria da pobrezia energetikoa gertatzeko, eta hori diote azterlan batzuek, izan ere, bereziki nabarmena omen da eragina baliabide urriak dituzten etxebizitzetan, langabezia dauden pertsonen artean, eta laguntza edo prestazioak jasotzen dituztenen artean.
- Tamaina: pertsona bakarreko etxebizitzetan, eta gehienez pertsona adinduak bizi diren etxe horietan, nabarmendu da pobrezia energetikoa pairatzeko arrisku handiagoa dutela, eta horren erantzule izan daiteke diru-sarbide baxuak izatea eta konparazioan etxebizitzako tenperatura egokitzeko energia-maila altuagoa erabili behar diren arteko konbinazioa.
- Etxebizitzaren osaera: frogatuenez, pobrezia energetikoaren eragina nabarmenki altuagoa izaten da familia gurasobakarren artean, bereziki 16 urte azpiko seme-alabak eta pertsona erretiratuak bizi diren kasuetan, eta baita ere banandu, dibortziatu edota alargundu diren pertsonen artean.
- Etxebizitzaren antzintasuna: orokorrean, pobrezia energetikoa askoz ere eragin nabarmenagoa du hirurogeita hamarreko hamarkadaren aurretik eraikitako eraikuntza edo etxebizitzetan.
- Etxebizitza edukitzearen erregimena: frogatuenez, pobrezia energetikoaren eragina hedatuagoa dago, nagusi diren etxebizitzaren aldean, errentan bizi diren etxebizitza horietan.

- Habitata: gune urbanoen aldean, landa-eremu batean bizitzeak haztarazten du pobrezia energetikoa pairatzeko arriskua.

Beste ikuspegi batetik, pobrezia energetikoaren helmenaz europar-mailan eginiko garrantzi handieneko bi azterlanen arabera nabarmentzen da arazo horrek ez diela maila berean eragiten herrialde guztiei. Nahiz eta klima epelagoan bizi, orokorrean, Europako iparraldeko herrialdeen aldean (adibidez, Alemania, Holanda edo Austria) eragin nabarmenagoa izaten du pobrezia energetikoak hegoaldeko herrialdeetan (Portugal, Grezia, Espainia eta Italia). Nahiz eta Frantzia, Belgika, Erresuma Batua edo Irlandako kasuetan ez den Europa hegoaldeko herrialdeen mailara iristen, eragin nabarmena erakusten du pobrezia energetikoak herrialde horietan¹⁸. Duela gutxiago, frogatu da, adibidez, Bulgaria, Zipre edo Errumania bezalako ekialdeko Europako herrialde batzuetako arazo horren eragina oso nabarmena dela¹⁹.

¹⁸ HEALY, J. D. y P. CLINCH (2002) Fuel poverty in Europe: A cross-country analysis using a new composite measure. Environmental Studies Research Series, University College Dublin.

¹⁹ THOMSON, H. y C. SNELL (2013) Quantifying the prevalence of fuel poverty across the European Union. *Energy Policy*, N° 52, 563-572.

3. POBREZIA ENERGETIKOA GIPUZKOAN

3.1. Sarrera

Pobrezia energetikoaren ikerketa-alarrean eginiko aurrerabidea nabarmena izan arren, oraindik ere berariazkoa eta zehatza den metodologia bat, eta definizio komun bat, ez izatea da gaur egun pobrezia energetikoa neurtzeko oinarrizko arazoa. Edonola ere, ez du horrek eragozten ikuspegi desberdinetatik pobrezia energetikoaren arazoa aztertzea, betiere kontuan hartzen badira informazio-iturri egokiak.

Gipuzkoako auzian, aukera ederra ematen du pobrezia energetikoaren analisia burutzeko, 2012an Foru Aldundiak buruturiko Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestak, izan ere, bertan hartzen baitira kontuan gaur egun arazoak duen eragina neurtzeko aldagaiak.

Beraz, atal honen oinarriko xedea da, inkesta horren datuak oinarri harturik, ikusketa bat eskaintzea arazoaren inguruan, eta zehazki, gure lurraldean duen eragin orokorra eta etxebizitza batzuetan gertatzen denaren inguruko analisi bat eskaintzea. Horretarako erabiltzen dira gaur egun neurtzeko daudenetik garrantzitsuen diren ondorengo bi ikuspegi hauek: etxebizitzako energia-gastuaren ikuspegia eta etxebizitzetan hautematen den energia-gastuaren ikuspegia.

Azterketa honetarako erabili dira elkarri loturiko hogeit hamar aldagai baino gehiago; batetik, pobrezia neurtzeko erabiltzen diren aldagaiak; eta, bestetik, etxebizitzetako alderdi sozial, demografiko, ekonomiko eta etxebizitzako baldintza materialen ingurukoak. Hurrengo taula honetan azaltzen da erabilitako aldagaiek dituzten ezaugarri nagusiak.

1. Taula – Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestan (GPGBI-2012) pobrezia energetikoa aztertzean erabilitako aldagaiak.

Aldagaiaren izena	Mailak	Ezaugarriak
Etxebizitzako tenperaturaren egokitzea ordaintzeko gaitasuna	1= Bai 2= Ez	Aldagai hori lortzen da ondorengo galderaren ondorioz: “Mesedez, aipatu ea zure etxea (...) tenperatura egoki batean mantentzerik ba al duzuen urteko hilabeterik hotzenetan”. Hori izaten da ikuspegi erabilienetako bat pobrezia energetikoa hautemate eta azalpenen bidez jasotzeko. Adierazle honek osagai subjektibo garrantzitsu bat du, eta guztiaz ere, hartzen da neguan etxebizitza bero mantentzeko kostuaz jabetzeko gaitasunaren hautematea ebaluatzeko oinarritzko neurritzat.
Joandako 12hilabeteetan gertaturiko energia-fakturen ordaintze-atzerapenak	1= Bai 2= Ez	Aldagai honek neurtzen du finantza-zailtasunen maila energiari loturiko fakturak garaiz ordaindu behar direnean. Hurrengo galderari erantzunaz lortzen dira aldagai horren emaitzak: “Joandako 12 hilabeteetan, etxebizitzako ekonomia-zailtasunen ondorioz izan al da atzerapenik etxebizitza nagusiari loturiko mantentzearen erreziboak ordaintzeko garaian (ura, gasa, argindarra, komunitatea, etab.)”. Hau izaten da aurrenetako aldagaia pobrezia energetikoa etxebizitzetako azalpenetan oinarrituriko ikuspegitik neurtzeko. Mugak ditu, izan ere, komunitate-gastuak kontuan hartzen baititu galdera egiterakoan.
Hezetasun, itogin eta usteltasuna duten etxebizitzak	1= Bai 2= Ez	Ondorengo galderaren ondorio da aldagai hori: “Ondorengo egoeraren bat pairatzen al du zure etxebizitzak? [...] Itoginak edo hezetasuna horma, lurzoru, sabai edota zimenduetan, edo usteldura lurzoru, leiho edo ateetako markoetan”. Etxebizitzetako itogin eta hezetasun-egoerak gertatzen dira isolatze eskas baten ondorioz, eta hori hartzen da efizientzia energetiko eskasaren arazo garrantzitsu gisara.
Etxebizitzako gastu energetikoen murrizpena	1= Bai 2= Ez	Ez da berezko pobrezia energetikoaren aldagai gisara hartzen, baina aldagai horrek ahalbidetzen du ekonomia-krisialdiaren eragina etxebizitzetako energia-kontsumoaren jarraibideak ebaluatzen. Emaitza hori ondorengo galderaren erantzunaren bidez lortzen da: “Araza ekonomikoen ondorioz, hurrengo arazoren bat pairatu izan duzuen azaldu: (...) Etxebizitzako gastu energetikoa murriztu beharra (argindar-erreziboak, ura, berokuntza-sistema, etab.)”.
Berokuntza-sistamarako aipatzen den tenperatura	1= 19°C baino gutxiago 2= 19°C eta 21°C artean 3= 22°C edo gehiago	Etxebizitzetako bizilagunek azaltzen duten berokuntza-sistemaren tenperatura jasotzen du aldagai honek. Hau da informazio hori lortzeko egiten den galdera: “Egunean zehar, berokuntza-sistema piztuta izatean, zein tenperaturan mantentzen duzue etxebizitzan bertan zaudetenean?”. Bistan denez, nabarmentzen da galdera horren erantzunean jasotakoak etxebizitzetako pertsonen azalpenak direla, eta ez etxebizitzetan hartutako neurtze zehatzak. Etxebizitzako tenperatura egokienaren inguruko iritzi batzuek badaude eztabaidan. Osasunaren Munduko Erakundeak erosotasun-tenperatura ezartzen du 21°C egongeletarako eta 18°C gainontzeko geletarako. Definizio hori aintzakotzat hartu eta etxebizitzako bataz besteko tenperatura galdetu denez, optimotzat jo da 19°C eta 21°C arteko tenperatura.
Kide nagusiaren sexua	1= Gizona 2= Emakumea	Kide nagusia da ikuspegi ekonomiko edota etxebizitzaren titulu izatearen arabera, etxebizitzako bizilagunek kide nagusizat hartzen duten pertsona. Gipuzkoan, hamar etxebizitzetatik batean emakumeak izaten dira kide nagusi (%29,6). Gizonak kide nagusi dituzten etxebizitzetan aldean, pobrezia eta gizarte-bazterketaren inguruko tasa altuagoak izaten dituzte etxebizitza horietan. Praktikoki, gurasobakar eta pertsona bakarreko familiak bizi dira horrelako etxebizitzetan %70ean.
Kide nagusiaren adina	1= <45 urte 2= 45-64 urte 3= 65 eta urte gehiago	Aldagai hau banatu da etxebizitzako kide nagusiaren adinaren arabera hiru talde handietan. Tamainaren arabera erlatiboki homogeneoak dira sorturiko talde horiek, eta hauek dira portzentajeak: etxebizitzetan %30,1an erlatiboki gaztea den pertsona bat da kide nagusia (45 urte edo gutxiago); %37,2 dira 45 eta 64 urteen arteko pertsonak; eta, azkenik, 64 urte baino gehiagoko pertsonak dira %32,5ean etxebizitzako kide nagusiak.
Kidenagusiaren jaioterria	1= EH 2=EB 3=EB Kanpokoak	Etxebizitzako kide nagusiaren jaioterria erabili da irizpide bezala hiru taldetan sailkatzeko etxebizitzak. “EH” kategoriaren baitan, kontuan hartzen dira Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa. “EB” kategorian sartzen dira EHTik kanpo Europar Batasuneko herrialdeetan jaiotako pertsonak. Azkenik, “EB Kanpokoak” Europar Batasunetik kanpo jaiotako pertsonak. Gipuzkoako etxebizitzetan %71,9ak du kidenagusi EAEn jaiotako pertsona bat, %22an Estatuko beste eskualderen batean jaiotako kide nagusia eta %6,1ak EB kanpoko jatorria duen kide nagusia.

[jarraitzen du]

[jarraipena]

<i>Aldagaiaren izena</i>	<i>Mailak</i>	<i>Ezaugarriak</i>
Familia-talde mota	1= Pertsona bakarrekoa 2= Seme-alaba gabeko ezkontideak 3= Seme-alabadun ezkontideak 4= Seme-alabadun aita edo ama 5= Beste egoera batzuek	Aipaturiko mailen arabera, aldagai honetako familia-taldeak bost taldetan banatzen dira.
Lan-merkatuko partaidetza	1= Pertsona aktibo guztiak lanean 2= Pertsona aktiboren bat lanean 3= Ez dago lan egiten duen pertsona aktiborik 4= Ez dago pertsona aktiborik	Etxebizitzak sailkatu dira bertako bizikideen lan-merkatuko partaidetza-funtzioaren arabera. Hori dela-eta, lehenik identifikatu dira pertsona aktiboak, hau da, aktiboak ez diren pertsonen gain, jardunean ari edo langabezian izena emandako pertsonak. Horren ostean, identifikatu dira pertsona aktiborik ez duten etxebizitzak. Azkeneko hauetan, nabarmendu dira pertsona aktibo guztiak lanean dituzten etxebizitzak eta laneratze-maila urriagokoen arteko aldeak.
Ezgaitasun- edo osasun-arazo larriak	1= Etxeko norbaitek 2=Etxeko inork ere ez	Aldagai honek erakusten du ea etxebizitzako bizilagunen batek edonolako ezgaitasun, gaixotasun kroniko edo osasun-arazo larririk ba ote duen, edo zailtasunak izaten ote dituen eguneko ohiko oinarritzko jarduerak –jan, jantzi, joan-etorri, besteekiko komunikatu edo komunera joatea– adin berbera duen beste pertsona baten antzeko baldintzetan.
18 urtetik gorako pertsonak	1= Etxeko norbaitek 2=Etxeko inork ere ez	Aldagai honek etxebizitzak banatzen ditu 18 urte edo gutxiagoko bizikideak izan edo pertsona helduek osatzen dituzten etxebizitzak.
65 urtetik gorako pertsonak	1= Etxeko norbaitek 2=Etxeko inork ere ez	Aldagai honek azaltzen du 65 urte edo gehiago dituen pertsonarik etxebizitzan bizi ote den.
Pobrezia larria (Eurostat)	1= Bai 2= Ez	Pobrezia larriaren tasak islatzen du pertsonen kontsumo-unitatearen araberrako errenta baliokidearen mediana baino %40 gutxiagoko errenta garbi baliokidea jasotzen duten etxebizitza-proporzioa. ELGA-OCDE antolakundeak garatu eta zuzenduriko baliokidetza-eskalaren bidez egiten da etxebizitza-errenta errenta pertsonal bihurtzeko kalkulua, eta neurriak sailkatzen dira kide nagusiei 1 emanaz, beste pertsona helduei 0,5 eta adingabeko pertsonen 0,3. Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestaren arabera, 2012an egoera hori pairatzen zuen etxebizitzetatik %4k. Adierazle honek pobrezia erlatiboa neurtzen du diru-ikuspegi bat harturik, eta Europar Batasuneko eremuan sendotu egin da pobrezia larriko egoerei loturiko adierazle gisara. Pobrezia larriaren tasak islatzen du pertsonen kontsumo-unitatearen araberrako errenta baliokidearen mediana baino %40 gutxiagoko errenta baliokide garbia jasotzen duten etxebizitza-proporzioa.
Gizarte Bazterketa (FOESSA)	1= Gizarteratzea 2= Bazterketa	Aldagai honek etxebizitzak banatzen ditu gizarteratze eta gizarte-bazterketaren maila baten arabera, horretarako erabiltzen delarik adierazle sintetiko bat, eta horrek azaltzen du, gabezia-egoerak neurtzeko 35 adierazle gehituaz, gizarte-bazterketaren etxebizitza eta pertsonen sailkatze bat. FOESSA Fundazioak diseinaturiko gizarte-bazterketa neurtzeko metodo honek kontuan hartzen ditu, alderdi ekonomiko eta materialez gain, gizarte-bazterketari eragiten dioten beste dimentsio horiek guztiak (osasuna, etxebizitza, partaidetza politikoa, gizarte-harremanak, etab.). Sailkatzean, “Gizarteratzea” deituriko kategorian hartu dira erabat integratu edo integrazio eskaseko egoerak; eta “Bazterketa” kategorian, gizarte-bazterketa moderatu eta larriko egoerak. Sailkapen horren arabera, 2012an gipuzkoar etxebizitzetako pertsonen %86,8 bizi da integratua, eta biztanleen beste %13,2k pairatzen du gizarte-bazterketa.
Etxebizitzako bizilagun-kopurua	1= pertsona 1 2= 2 pertsona 3= 3 pertsona 4= 3 baino pertsona gehiago	Aldagai honek jasotzen du etxebizitza batean bizi den pertsona-kopurua. Jakinekua da gero eta bizilagun gutxiago bizi diren etxebizitzetako pertsonako premia energetikoek altuagoak izateko joera dutela. GPGBI-2012 inkestaren arabera, 2,6 pertsonetako da batz besteko gipuzkoar etxebizitzetako pertsonen kopurua.

[jarraitzen du]

[jarraipena]

Aldagaiaren izena	Mailak	Ezaugarriak
Etxebizitzaren azalera erabilgarria	1= 70 m ² baino gutxiago 2= 70 eta 89 m ² artean 3= 90 m ² edo gehiago	Aldagai honek azalera-erabilgarriaren arabera banatzen ditu etxebizitzak. Azalera-erabilgarri hori etxebizitzako hormen baitakoa izaten da, eta gune komunak baztertu egiten dira kalkulurako. Erlatiboki homogeenak diren azalera-tarte erabilgarrietan banatzen ditu etxebizitzak. Gipuzkoan, 70m ² baino gutxiagoko azalera-erabilgarria dute etxebizitzak %24,9ko kasuetan; %38,5 bizi da 70 eta 89 m ² arteko etxebizitzetan; eta %36,6 bizi da 90 edo metro koadro gehiagoko etxebizitzetan. Orokorrean, etxebizitzaren premiak hazten dira etxebizitzaren azalaren hazkuntzaren arabera.
Etxebizitzaren eraikitze-urtea	1= 1979. Urtetik aurrekoa 2= Data horren ostekoa (barruan hartzen delarik 1979. urtea)	GPGBI-2012 inkestaren arabera, 1979. urtea baino lehenago eraiki zituzten etxebizitzak guztietatik %58,9; 1979 eta 2005 urteen artean eraiki zituzten %35,2; eta etxebizitzak %5,8 eraiki dira 2005. urtearen ostean. Emaizta horien arabera, bi kategoria dituen adierazle integratu horren bidez lortu daiteke jakitea pobrezia energetikoarengan 1979an onartutako Eraikuntzaren Oinarriko Arautegiak izango lukeen balizko eragina, prestazio termiko zehatz batzuek derrigorrezko bihurtzeari dagokionez.
Etxebizitzaren edukitze-erregimena	1= Jabetza 2= Alokairua (edo utzitakoa)	Ondorengo bi taldeetan banatzen dira, aldagai honen bidez, gipuzkoar etxebizitzak: alokairuan hartutako etxebizitzetan bizi diren biztanleak eta jabetza propioa duten biztanleak. Nazioarteko azterlan batzuek nabarmentzen dutenez, alokairuan hartutako etxebizitzetan maizago ematen dira pobrezia energetikoaren arloko kasuak, izan ere, kontrol murriztagoa izaten dute zein instalazio edo ekipamendu jarri behar den erabakitzean. Gipuzkoako kasuan, kontuan hartzekoa da orokorrean izaten den diru-sarbideen maila apalagoak ere eragin dezakeela fenomenoaren hazkuntzan. Hain zuzen, diru-sarbide apal edo pobrezia erlatiboaren tasak (kontuan harturik diru-sarbide baliokidearen medianaren %60ko atalasea) etxebizitzak %38,5 dira eta etxebizitzak propioan bizi direnak %14,5.
Etxebizitza-mota	1= Banakakoa 2= pisu eta apartamentuak	Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren Inkestaren arabera, Gipuzkoan %91,6 bizi da pisu eta apartamentuak. Beste biztanleetatik %8,4 banakako etxebizitzetan bizi da, dela baserria (%3,1), elkarri atxikitako etxe, landetxe edo txaletean (%5,3).
Berokuntza-sistema izatea	1= Bai 2= Ez	Aldagai honen bidez banatzen dira berokuntza-sistemak dituzten etxebizitzak (zentrala, eraikuntzako edo etxebizitzaren barruan dagoena) eta horrelako sistemarik ez duten etxebizitzak. Soilik, gipuzkoar etxebizitzetako %10ak dio ez duela berokuntza-sistemarik. Horietatik guztietatik %57ak ezin omen du horrelakorik instalatu, eta ondorioztatu daiteke, hein handi batean, berokuntza-sistemarik ez izateak lotura duela gabezia materialeko egoerekin.
Gas naturalaren instalazioa	1= Bai 2= Ez	Aldagai honen bidez banatzen dira gas naturala duten eta ez duten etxebizitzak. Aldagai honen emaitzak interpretatzean, batetik, premiazkoa da kontuan hartzea sistema elektrikoak baino merkeagoak direla gas naturaleko berokuntza-sistemak; eta, bestetik, instalazioaren gabezia horrek harremana duela, hein handi batean, gabezia materialeko egoerekin. Etxebizitzak %29,7an ez dute gas naturalik, eta horietatik %52ak azaltzen du ezin duela horrelako instalazioa eta kontsumorik ordaindu.
Eremua	1= Ekialdea 2= Mendebaldea	Adierazle honek lurraldearen arabera bi taldetan banatzen ditu etxebizitzak gipuzkoarrak. Ekialdeko Eremuak hartzen ditu Bidasoa, Oarsoaldea, Donostia eta Buruntzaldeako eskualdeak, hau da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren gune urbanoenak, eta Mendebaldeko Eremuak hartzen ditu Debagoiena eta Deba Behea, Goierri, Tolosaldea eta Urola Kosta.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestaren (GPGBI-2012) datuetatik azterlan honetarako egina.

3.2. Gipuzkoako pobrezia energetikoaren arazoa testuinguruan ulertzeko gako batzuek

Atal honetan deskribatzen dira, Gipuzkoako pobrezia energetikoaren emaitzen azterketa burutu aurretik, gure lurraldean pobrezia energetikoak duen eragina neurtzeko kontuan hartu beharreko faktore nagusiak. Aurreko atalean azaldutako pobrezia energetikoaren oinarriko hiru kausak hartzen ditu egituratzeko atal honek, eta bere xedea da fenomeno hori zenbait espezifikotasun dituen Gipuzkoako lurraldearen testuinguruan zehaztea.

3.2.1. Ekonomia-krisialdiko testuingurua: langabezia eta pobrezia hazten dira, eta beheratu egin da diru-sarbideen maila

- Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestaren arabera (GPGBI), 2012. urtean pobrezia-arriskua edo pobrezia erlatiboa pairatzen zuen Gipuzkoako biztanleen %16,8k (diru-sarbide baliokideen medianaren %60ko adierazlea erabiliz), beraz, 120.000 pertsoneri eragiten die fenomeno honek. Berez, ongizate eskasa edota diru-sarbide apalen adierazletzat ulertu daiteke erreferentzia gisara erabilitako adierazle hori; baina hori erabili ordez, kontuan hartzen bada pobrezia larriaren adierazlea, hau da, errenta-maila apalagoa bada diru-sarbide medianaren %40aren azpitik, horren emaitzak azalduko luke biztanle gipuzkoarren %4,3 maila horren azpitik dagoela.
- Nahiz eta urte berdinerako Estatu-mailako tasak baino askoz ere apalagoak izan –pobrezia erlatiboaren tasa da %21,1 eta pobrezia larria %10,1²⁰–, eta baita ere apalagoak dira alderatuz gero EB-27 herrialde-kideen eremuaren aldean –hurrenez hurren, %16,9 eta %5,7²¹–. Begien bistan da gipuzkoar familien diru-sarbideak oso modu garrantzitsuen beheratu direla, gehienbat, langabezia-tasaren hazkuntza –2008 eta 2012 urteen artean pasa da %3,3 izatetik %9²² izatera– eta lansariek izandako erosteko ahalmena gutxitzearen ondorioz.
- Egiaz, ikuspegi ebolutibo batetik, Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen 2012ko Inkestak (PGDI) nabarmentzen duenez, 1996. urtetik aurrekaririk izan gabeko moduan, ekonomia-krisiak etxebizitzetako zailtasunak haztarazi ditu ohiko betebeharrak eta gastuei aurre egiteko, eta horregatik gertatu da baliabideei loturiko pobrezia-arrisku eta prekaritatearen hazkuntza nabarmen hori. Inkesta horren arabera, ekonomia-krisia sortu zenetik pobrezia erreala hazi da 2008an %2,5 izatetik, 2012ko %3,8ko portzentajea heltzera.
- Gero eta gehiago okertzen ari diren etxebizitzetako ekonomia-egoerak, eta ondorioz gertatzen den gastua egiteko gaitasunaren gutxitzeaz gain, nabarmentzeko gertakaria izan da gero eta gehiago hazten ari dela etxebizitza gipuzkoarren faktura energetikoa bestelako ondasun edota zerbitzuen gastu orokorren baitan. Hori bera dio Eustatek buruturiko Familia Gastuen Inkestak ere, eta sei urteko aro labur batean (2006 eta 2012

²⁰ INE (2012). *Encuesta de Condiciones de Vida* (ECV).

²¹ EUROSTAT (2011). *European Union Statistics on Income and Living Conditions* (EU-SILC).

²² EUSTAT (2012). *Encuesta de Población en Relación con la Actividad* (PRA).

urteen artean), euskal etxebizitzetan hazi egin da argindarra, gasa eta beste erregai batzuetatik egin beharreko batzuetan besteko gastua, eta ondasun eta azken kontsumoko zerbitzuen gastu orokorren %2,3 izatetik, %3,5 izatera pasa da.

3.2.2. Efizientzia energetikoaren aldeko urrats garrantzitsuak egin arren, oraindik ere bada aurrerabidea egiterik

Pobrezia energetikoa gertatzearen oinarriko bestelako kausak dira etxebizitzetako diru-sarbide mailaz gain, instalazioetako efizientzia energetikoaren maila eta eraikuntza eta etxebizitzaren ekipamenduak. Ondoren, zenbait gako eta oinarriko datu eskaintzen dira gure lurraldean arazo honek duen eragina egoki ulertu ahal izateko.

- Batzuetan 40,3 urte ditu batzuetan besteko Gipuzkoako familia baten etxebizitza batek, eta bestelako euskal etxebizitzaren batzuetan bestekoa (39,7 urte) baino pixka bat zaharragoa da Gipuzkoako etxebizitza-parkea²³. Gaur egungo Gipuzkoako familia-etxebizitza horietatik guztietatik %59 dira 1979. urtearen aurrekoak²⁴, hau da, Eraikuntzetarako Oinarriko Arautegia onartu aurrekoa, eta oso maila apaleko eskakizunak egiten dituen horrek estalki, fatxada, ate eta leihoetako isolatze termikoa lortzeko. Energiaren Euskal Erakundearen arabera, kalkulatu da erreformarik egin gabeko 1979. urtearen aurretik eraikitako eraikin baten beroketa-sistemaren eskaria 2,8 biderretan hazten dela 2007tik aurrera eraikitako baten aldean. Izan ere, indarrean jarri zen urte horretan Eraikuntzarako Kode Teknikoa, hau da, ingurutzailerik termikoaren konfiguratzeari dagokionez, aurrekoa baino araudi askoz ere zorrotzagoa.
- Nahiz eta etxebizitza batzuetan baldintzak hobetzeko lanak egin diren, oraindik ere arlo zabala dago etxebizitzak berritzen lan egiteko. Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkestaren arabera, Gipuzkoako etxebizitzetatik %10,6k, hau da, 29.000 etxebizitza inguruk, premia dute berritze-lan batzuek egiteko²⁵. Familiek aitorturiko berritze-lanen premien artean ageri dira ate eta leihoen aldaketak (%28) eta fatxada-berritzeak (%22)²⁶.
- Gaur egun, eta Energiaren Euskal Erakundearen kalkuluen arabera, 2007. urtea baino lehenago eraikitako etxebizitzetako egituretan erreformak eginez gero, berokuntza-sistemaren kontsumoa %40 gutxitzerik omen dago. Eraikuntza-data desberdinetan eginiko eraikuntzen azterlanen arabera, nabarmentzen dute etxebizitzetako estalki, leiho eta atek direla aurrezki energetikorako ahalmen gehien duten egituretzako osagaiak.
- Bestalde, Gipuzkoako etxebizitza-parkeak zenbait osagaietan hoberanzko bidea egin du joandako 20 urteotan. 1991. urtean, adibidez, etxebizitza horietatik guztietatik soilik %28,9k

²³ EUSTAT (2011). *Censo de Población y Vivienda* (CPV).

²⁴ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA (2012). *Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta* (GPGBI).

²⁵ DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES (2011). *Encuesta de Necesidades y Demanda de Vivienda*.

²⁶ Adierazitako premien araberrako portzentajeak birgaitze-premia duten etxebizitzaren batura dira, ez dira bereziki Gipuzkoakoak.

zuen berokuntza-sistema bat, eta 1996. urtean, hodi bidez jasotako gas-instalazioa zuen etxebizitzetako %37,3k²⁷. Gaur egun, gehiengoak ditu bi osagai horiek: hodian bidez jasotako gasa du etxebizitzaren %61,1ak eta Gipuzkoako etxebizitzaren gehiengoak (%91) badu berokuntza-sistemaren bat, zentrala, banakoa edota puntuala²⁸.

- Berokuntza-sistemari dagokionez, Gipuzkoan gehienbat erabiltzen da kanalizatutako gasa (%57,5), eta horren ondoren gehien erabiltzen dira berokuntza-sistema elektrikoak (%31,9) –berogailu eta metagailuak, batik bat– eta gasolioa (%7,1). Berokuntza-sistema termostato baten bidez erregulatzen denean (kasuen %73,3), Gipuzkoako etxebizitzek, batzuek bestean, hautatzen dute 20°Cko tenperatura bat (oro har, ulertzen da etxebizitza baterako tenperatura egokia dela 20°C eta 21°C artekoa). Gipuzkoako etxebizitzetan termostatoa 21°Ctik²⁹ gora jartzen du, soilik, etxebizitza horietatik guztietatik %11ak³⁰. Berokuntza-sistema bat duten etxebizitza gipuzkoarretik %77k itzali egiten du sistema hori gauean, eta bere erabilera mugatzen da gehienez urteko 3 eta 6 hilabeteren artean³¹. Energiaren Euskal Erakundearen kalkuluen arabera, berokuntza-sistemak hartzen du etxebizitzetako energia-kontsumoaren %40.
- Leihoen isolatze termikoari dagokionez, Eustatek 2008an buruturiko Ingurumena – Familiak Inkestaren arabera, sareta edo kontraleihoak dituzte Gipuzkoako etxebizitza nagusien %95,9k, beira bikoitzeko leihoak ditu %69k eta zubi termikoaren haustura-sistema %36,6k. Horretaz gain, kontsumo apaleko bonbillak dituzte Gipuzkoako etxebizitzaren %66an³². Proporzio horrek hazkuntza nabaria izan du joandako urteotan, , eta Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestak ageri duen moduan, 2012. urtean, Gipuzkoako etxebizitzaren hiru laurdenetan erabiltzen dituzte (%77,8) horrelako bonbilla edo lanparak, eta, horrela, %8oraino aurrezten da³³. bonbilla inkandezente eta halogenoen aldean. Horretaz gain, eta iturri beraren arabera, gipuzkoar etxebizitzaren herenak baino gehiagok (%35,7) aldirien batean aldatu ditu leihoak aurrezteko asmoz.
- Aldaketa horiek guztiak ulertu behar dira Administrazioek energia-kontsumoa eta etxebizitza-parkearen efizientzia energetikoa sustatzeko ekimen ugari buruturiko testuinguru batean, adibidez, kontzientziazio-kanpainak; etxebizitza edota osagaiak berritzeko laguntzak (berrikuntzak, leihoak aldatzea, elektrotresnak ordezkatzeko, etab.); edo arautegia eguneratzea etxebizitza berri eta berriztuak efizienteagoak gertatzeko³⁴.

²⁷ EUSTAT (2011). *Censo de Población y Vivienda (CPV)*.

²⁸ EVE (2013) *Claves energéticas del sector domésticos en Euskadi. Ente Vasco de la Energía*. Marzo 2013.

²⁹ EUSTAT (2008). *Encuesta de Medio Ambiente-Familias*.

³⁰ EVE (2007). *La energía en el hogar*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco.

³¹ DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA (2012). *Encuesta de Pobreza y Exclusión Social de Gipuzkoa (EPESG)*.

³² EUSTAT (2008). *Encuesta de Medio Ambiente-Familias*.

³³ EVE (2007). *La energía en el hogar*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco.

³⁴ EVE (2013) *Claves energéticas del sector doméstico en Euskadi. Ente Vasco de la Energía*. Marzo 2013.

3.2.3. Etxebizitzetako kontsumoa mantendu arren, familia-gastua haztarazi egiten du energia-prezioen gorakadak

Pobrezia energetikoa gertatzeko oinarritzko kausetako bat da, diru-sarbide apal eta eraikinen efizientzia mugatuaz gain, energiaren salneurri altua. Ondoren osatzen da zerrenda bat faktura energetikoa, energiaren erabilera eta kontsumo arduratsuaren inguruko jarraibideak hartzen dituena.

- EAEko eskari energetikoaren %8 eta fakturaren %15 da etxebizitzaren sektoreak egiten duen kontsumo energetikoa, gutxi gorabehera 856 milioi euro³⁵, hau da, 2011. urteko BPGaren %1,3 inguru³⁶.
- Dударik gabe, gure bizimodurako energiaren premia dugu. Gipuzkoako etxebizitzetan bizi diren pertsonen %100ak erabiltzen dutenergia elektrikoa, eta, gainera, kanalizaturiko gasa du %62,5ak. Askoz ere baxuagoa da petrolioaren jatorria duten likidoturiko gasen erabilera, adibidez, butanoa edo propanoa (%17,7), gasolioaren tankerako erregai likido (%7,2) eta egurraren erabilera (%4,7)³⁷. Eremu murrizta dute (hazten ari den arren), oraindik ere, Gipuzkoako etxebizitzaren sektoreko energia berriztagarriek. Izan ere, soilik gipuzkoarren etxebizitzaren %1,8k baitu horrelako energia berriztagarrien instalazioren bat³⁸.
- Efizientzia energetikoaren bidean hobetu arren, bizimoduko ohitura eta kontsumoaren eboluzioak haztarazi du etxebizitzetako kontsumo energetikoa altuagoa izatea. Horretaz gain, kontsumoa hazteko faktoreak dira gero eta pertsona gutxiagoko familiak bititza etxebizitzetan eta erosotasun gehiago lortzeko energia-eskariaren hazkuntza.
- Gipuzkoako etxebizitza gehienez daukate oinarritzko elektrotresna handi hauek: hozkailua (%100), garbigailua (%99,8), sukaldea (%99,7), labea (%97,5) edo ke-xurgagailua (%92,5). Ontzi-garbigailuen erabilera ez da horren ohikoa, baina gipuzkoar etxebizitzetako %51k du horrelako elektrotresna bat³⁹. Halaber, Gipuzkoako etxebizitzetatik, soilik, aire girotua du %3,9k⁴⁰. Bestalde, etxebizitzaren %80k dio bestelako elektrotresna "txikiak" dituela, adibidez, arroparako lisagailua (%96,7), mikrouhin-labea (%88,9), ile-lehorgailua (%87,8), irabiagailu elektrikoa (%87,5) edo xurgagailua (%83,7). Elektrotresna horietaz gain, kontuan hartu beharko lirateke arruntak diren telebista (%99,8), DVD (%69,2), ordenagailua (%62,1) edo musika-katea (%60)⁴¹.
- Joandako urteotan nabarmen haztarazi da gure gizartean aurrezki energetikoaren kontzientzia, eta horretaz gain, kontuan hartu behar da energia-salneurriaren etenik gabeko hazkuntza eta ingurunearekiko dituen eraginaren gizartearen sentiberatzea (Euskal

³⁵ EVE (2013) *Claves energéticas del sector doméstico en Euskadi. Ente Vasco de la Energía*. Marzo 2013.

³⁶ EUSTAT (2011). *Cuentas Económicas*.

³⁷ EUSTAT (2008). *Encuesta de Medio Ambiente-Familias*.

³⁸ DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA (2012). *Encuesta de Pobreza y Exclusión Social de Gipuzkoa (EPESG)*.

³⁹ EUSTAT (2008). *Encuesta de Medio Ambiente-Familias*.

⁴⁰ DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA (2012). *Encuesta de Pobreza y Exclusión Social de Gipuzkoa (EPESG)*.

⁴¹ EUSTAT (2008). *Encuesta de Medio Ambiente-Familias*.

Autonomia Erkidegoko etxebizitzetako erabilerari loturiko energia-kontsumoak 3,6 milioi tona CO₂ isurtzen ditu⁴²). Hori dela-eta, eta 2012an Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestak argitaratutakoaren arabera, Gipuzkoako etxebizitzetatik erdiak (%50,9) elektrotresna bat erostean, kontuan hartu dute etiketa energetikoa, eta %15,7k dio baduela argindarra aurrezteko gailuren bat etxebizitzan, adibidez, argiaren intentsitate-kontrola edota presentzia-detektatzaileak.

- 2008an Eustatek buruturiko Ingurumena – Familia Inkestaren arabera, 16 eta urte gehiago dituen gipuzkoar biztanleen hiru laurdenak (%74,8) dio ingurumenak asko kezkatzen dituela, eta %76,8k nabarmentzen du ezaguera duela ura eta energia aurreztu eta birziklatzeko sentiberatze-kanpainen inguruan. Oro har, gipuzkoar biztanleen portzentaje zabal bat ingurugiroaren aldeko neurri zehatz batzuek hartzearen aldeko azaltzen da, adibidez, etxebizitzetako uraren gehiegizko kontsumoa murriztea (%69,6), ingurugirozerga bat ezartzea erregai kutsatzaileenentzat (%67,3) edo energia berriztagarrien parkeak ezartzea (%67,1). Aitzitik, soilik %21,8k azaltzen du energia berriztagarriak erabiltzeko gehiago ordaintzearen aldeko iritzia.
- Eustaten Familia Gastuaren Estatistikaren arabera, 1.145 eurokoa izan da Gipuzkoako etxebizitzako bataz besteko ura, argindarra, gasa eta beste erregai batzuetan eginiko 2012ko gastua. 2006. urtetik, %49,2 hazi da gastu hori, aitzitik, ez da aldatu ondasun eta azken kontsumoko zerbitzuetan gipuzkoar familiek eginiko bataz besteko gastu orokorra, eta, adibidez, jaitsi egin da bai bataz besteko gastua jateko produktuetan (%-3,4) bai janzteko produktuetan (%-24,8). Horietaz gain, nabarmen beheratu dira etxebizitzako mantenu eta konponketen inguruko gastu arruntak (%-47,5), eta baita ere berokuntza-sistamarako gailu edota sukalde, hozkailu, garbigailu eta bestelako elektrotresna handien erosketak⁴³.
- Gipuzkoako etxebizitzan bataz besteko argindarra eta gasaren urteko kontsumoa, hurrenez hurren, 3.370 kWh eta 6.100 kWh-koa izan zen⁴⁴. Argindarrari dagokionez, Arabakoa baino pixka bat altuagoa da Gipuzkoako bataz besteko kontsumoa (bataz beste, urteko 3.100 kWh), baina Bizkaikoa (3.500 kWh) eta Estatukoa baino baxuagoa (3.487 kWh)⁴⁵. Gipuzkoako gas naturalaren kontsumoa ere Bizkaia (5.130 kWh) eta Arabakoaren tartean (8.020 kWh) aurkitzen da.
- Azkeneko sei urteotan nabarmentzekoa da etxebizitzetako kontsumo energetikoaren mantentzea, eta beheratzea batzuetan ere; eta bitartean, euskal etxebizitzan kostu energetikoa hazi egin da. Gertakizun horren kausatzat jo daiteke euskal etxebizitzetan erabilitako energia-iturriek izandako garestitze nabarmena. Adibidez, %58 hazi da 2007 eta 2011. urteen artean kilowatt-ordu elektrikoaren bataz besteko kostua.


⁴² EVE et. al. (2006). *Guía de edificación sostenible para la vivienda en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jauriaritza-Gobierno Vasco.

⁴³ EUSTAT (2012). *Estadística de Gasto Familiar (EGF)*. Datos provisionales.

⁴⁴ EVE (2013). *Claves energéticas del sector domésticos en Euskadi*. Ente Vasco de la Energía. Marzo 2013.

⁴⁵ IDAE (2011). *Proyecto SECH-SPAHOUSEC. Análisis del consumo energético del sector residencial en España. Informe Final*.

1. Grafikoa – Etxebizitza-sektorearen kontsumo eta faktura energetikoaren eboluzioa (2001-2011)




Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE-EVE).

- Eurostat erakundeak eskaintzen dituen Energia Estatistiken arabera, Estatuan joandako lau urteotako argindar eta gasaren prezioen gorakada ikusgarria izan da etxebizitzaren sektorean. Argindarrari dagokionez⁴⁶, 2008 eta 2012 urteen artean batz besteko erabiltzaile domestikoarentzat %46,1 hazi da, 2008ko bigarren seihilabetekoan 0,1557 euro/kWh izatetik, 2012ko bigarren seihilabetekoan 0,2275 euro/kWh izatera pasa da. Aro berean, %32,2⁴⁷ hazi da prezioa 0,0653 euro/kWh 2008an izatetik, 2012ko 0,0863 euro/kWh izatera. Ikuspegi konparatibo batetik nabarmendu daiteke Espainiako argindar eta gas naturalaren prezioen igoera EB-27 Estatu-kideena baino askoz ere altuagoa izan dela, eta batz bestean erregistraturiko hazkuntza %17,9 eta %13,7koa izan da argindarra eta gasarentzat, hurrenez hurren. Gaur egun, azken prezio altuenetakoak dituzten herrialdeen artean kokatzen da Espainia. EB-27 eremuko herrialdeen prezioak erosteko ahalmenaren parekotasunaren (EAP) arabera alderatuz gero, prezio garestien zerrandan Espainiar Estatu kokatzen da, 2012an seigarren argindarraren prezioan eta zortzigarren gas naturalaren prezioan. Guztiaz ere, gogoratu beharrekoa da datu horiek ez dutela 2013an tarifa energetikoen izan dituzten igoerarik aipatzen.

⁴⁶ Argindarraren azken prezioa kontuan hartu da kalkulu honetarako, hau da, zerga eta beste tasak barne. Datuek adierazten dituzte 2.500 eta 5.000 kWh/urteko tartean dauden kontsumoak.

⁴⁷ Argindarraren kasuan bezala, hemen ere kontuan hartu da konsumitzailearentzako azken prezioa. Kasu honetan, kontsumoak 20 y 200 GJ bitartekoak dira, eta bat dator D2 deituriko banda horrekin.

2. Grafikoa - Europar Batasuneko argindar eta gas naturalaren prezioak (kWh EAP arabera). 2012ko bigarren sei hilekoa



Iturria: Eurostat. Energia Estatistikak. (2012)

- Askotarikoak dira etenik gabeko energia-prezioen igoeraren azalpenerako kausak, eta azterlan honen xedea horiek ikertzea ez izan arren, adibide gisara, nabarmendu daitezke ondorengo faktore hauek: argindarraren tarifa-defizita, ia erabatekoa den kanpoaldeko energiaren mendetasuna (2011. urtean, %94,2 da EAEn)⁴⁸ edo bai gasa bai argindarraren eskaintza maioristak duen kontzentrazio-maila altua⁴⁹.

⁴⁸ EVE (2013). Euskadi Energía 2011. Bilbao: Ente Vasco de la Energía.

⁴⁹ COMITÉ ECONÓMICO Y SOCIAL EUROPEO (2011) "Dictamen del Comité Económico y Social Europeo sobre el tema «La pobreza energética en el contexto de la liberalización y de la crisis económica» (Dictamen exploratorio)". Bruselas: Diario Oficial de la Unión Europea, 2011/C 44/09.

3.3. Pobrezia energetikoaren eragina Gipuzkoan

3.3.1. Etxebizitzako energia-gastuak kontuan hartzen dituen ikuspegia

Etxebizitzako gastu energetikoak kontuan hartzea da gaur egun pobrezia energetikoa neurtzeko gehien erabiltzen den ikuspegietako bat. Ikuspegi honek oinarriko premisatzat hartzen du “gehiegizko” esfortzu ekonomiko bat egin beharra dagoenean etxebizitzako premia energetikoei aurre egiteko ematen dela pobrezia energetikoa, eta funtsean, ebaluatzen du premia energetikoei loturiko etxebizitzako premiak asetzeko kontsumo energetikoa eta diru-sarbide garbiak. Aplikatu ahal izateko, metodologia horrek eskatzen du gastu-atalase bat ezarri eta hartatik diskriminatu ahal izatea pobrezia energetikoa pairatzen duten familiak. Gaur egun, hauxe da Erresuma Batuan pobrezia energetikoa modu ofizialean neurtzeko modua, eta baita ere, arazoaren helmena zehazteko beste herrialde batzuetan erabilitakoa.

Hamarkada bat baino gehiagoan, etxebizitzako tenperatura egoki bat mantentzeko diru-sarbideen %10 baino gehiago bideratu behar zuten egoerak hartu ditu Gobernu britainiarrak pobrezia energetikoa neurtzeko modu gisara. %10eko atalase hori ezartzen zuen portzentaje hori Brenda Boardman ikerlariak proposatu zuen, eta Erresuma Batuko Etxebizitzaren Gastuaren inguruko Inkesta batean oinarrituriko 1988ko datuak erabiliz, azterlan batean nabarmendu zuen balio horrek bitan biderkatzen zuela etxebizitzako kostuen mediana⁵⁰.

Pobrezia energetikoaren definizio horren ezaugarri nagusietako da, herrialde horretan adierazi den moduan behintzat, kontuan hartu izana premiako gastu energetikoaren datu teorikoa, gastu erreala kalkulatzeko duenaren orde. Hau da, definizio honen arabera, etxebizitza batean pobrezia energetikoa pairatzen du ez berokuntza-sisteman gastu handia egiten duelako, baizik eta egiaz etxebizitza bat tenperatura egoki batean mantentzeko gastatu beharreko lukeena gehiegizkoa izango litzakeelako bere diru-sarbideen mailarako. Erraza ematen duen ideia horrek gastu teoriko baten erabilera dakar praktikan, eta bai prezioa bai etxebizitza bakoitzeko kontsumoa zehazteko, askotariko faktoreak hartzen dira kontuan, adibidez, etxebizitzako bizikideen osaera, erabilitako erregai-mota, etxebizitzaren ezaugarriak, etab. Egiaz, erlatiboki konplexua den gastu-eredu baten aplikazioa da, eta Erresuma Batutik kanpora, etxebizitzako gastu erreala erabili da adierazle hori erabiltzeko joera gisara.

Aurreko atalean aipatu bezala, 2001etik Erresuma Batuan erabiltzen den definizio ofizial hori berrikusi egin du Gobernu britainiarrak oraintsu^{51,52}, John Hills⁵³ ikertzailearen ekarpenetan oinarrituta. Jada uda honetan, herrialde horretan pobrezia energetikoaren definizio berri hori erabiltzen hasi dira, eta berri horren iritzian, pobrezia energetikoa pairatzen dute etxebizitza batean, kasu hauetan:

⁵⁰ WALKER, R. et al. (2013) *Fuel Poverty. 1991-2012. Commemorating 21 years of action, policy and research*. University of Ulster.

⁵¹ DEPARTMENT OF ENERGY AND CLIMATE CHANGE (2013) “The Fuel Poverty Statistics Methodology and User Manual”. *Series: Fuel poverty statistics*. DECC.

⁵² DEPARTMENT OF ENERGY AND CLIMATE CHANGE (2013) “Fuel poverty report: annual report on statistics 2013”. *Series: Fuel poverty statistics*. DECC.

⁵³ HILLS, J. (2012) “Getting the measure of fuel poverty”, *Case Report*, nº 72. Londres: Centre for Analysis of Social Exclusion.

- Egin beharreko gastu energetikoa etxebizitza guztien gastuaren mediana baino gehiago denean (premiako gastu energetiko horrek balio desberdina hartzen du etxebizitza bakoitzeko, eta kalkulatzen da etxebizitza bateko energia-premia eta prezioen artean ematen diren faktore batzuen arabera. Gainera, neurriak kontu hartzen dio etxebizitzaren osaerari).
- Etxebizitza batek egiatan gastatuko balu zenbateko hori, pobrezia-atalasearen azpiko diru-sarbideak izango litzuke (atalase hori modu honetan kalkulatzen da: lehenik, kalkulatzen da diru-sarbide baliokidearen medianaren %60, etxebizitzaki loturiko gastuak deskontatuz, eta ondoren etxebizitza guztiei balio hori gehitzeko, eta balio hori izango litzake egokitasun-maila bat lortzeko etxebizitza batek beharrekoa duen gastu energetikoaren zenbatekoa).

Jakinekoa denez, ez dago hemen pobrezia energetikoa Erresuma Batuan neurtzeko modua simulatu beharrik. Izan ere, horren aplikazioak gastu energetikoaren eredu teoriko bat behar baitu, eta analisisa honen helburuak gainditu egiten ditu. Halere, atal honetan zenbait neurri proposatzen dira ikuspegi global honetatik gipuzkoar etxebizitzetan pobrezia energetikoak duen eragina neurtzeko.

3.3.1.1. Zenbat gastatzen dute energian gipuzkoar etxebizitzek?

Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestaren arabera, batzaz beste gipuzkoar etxebizitzaren gastua 750,4 eurokoa izan zen 2012an, eta gasa edota beste erregai batzuetako zifra ailegatzen da 549,8 euro izatera. Guztira, kontuan hartuz gero bi gastu horiek, gipuzkoar etxebizitzetan 1.300 euro gastatzen dira urteko, batzaz beste, 108,3 euro hileko.

Etxebizitza bakoitzaren faktura energetikoa ordaintzeko zenbatekoak jakiteko, oso zehatzak diren bi galdera hauek burutu ziren galdetegian: “*Esango al zenidake joandako hamabi hilabeteetan argindarrean eginiko gastua?*” eta “*Esango al zenidake joandako hamabi hilabeteetan gas edo bestelako erregairen batean eginiko gastua?*”. Bi kasuetan ere, eta galdera errarazteko, eskatzen zitzaion partaideari inguruko balio bat jartzeko, zenbateko zehatza jakin ezean.

Nahiz eta datu horiek lortzeko metodologia ez izan familia-gastua zehazki ezagutzeko bestelako estatistika-operazio batzuek bezain zehatzak –adibidez, Eustat erakundearen Familia Gastuaren Estatistika edota INEk egiten duen Familia Aurrekontuen Inkesta–, beste estatistika batzuen antzekotasuna lortu dute Gipuzkoako emaitzek.

2. Taula - Etxebizitzetako urteko batz besteko gastua. EAE eta Espainia. 2012

	GPGBI-2012	FGE-2012	FAE-2012
	Gipuzkoa	EAE	Espainia
Argindarra	750,4	--	796,9
Gasa edo beste erregai batzuek	549,8	--	402,2
Argindarra, gasa eta beste erregai batzuek	1.300,1	1.145	1.199,1

Iturriak: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012; Eustat. Familia Gastuaren Estatistika (FGE). 2012ko behin-behineko datuak; EIN. Familia Aurrekontuen Estatistikak (FAE).

Gipuzkoako faktura energetikoaren batz besteko gastuaren inguruan lorturiko emaitzak (1.300,1 euro/urteko), EAE (1.145 euro) eta Espainiako (1.199,1 euro) datuen aldean %13,5 eta %8,4 altuagoak dira, hurrenez hurren. Datu horien arabera, pentsatu daiteke elkarrizketaturiko pertsonen neurriak borobiltzean kalkulua goratu izana aipaturiko zenbatekoetan, eta Gipuzkoako datuek alborapen-mota bat izatea. Guztiaz ere, ezin daiteke baztertu gipuzkoar familien gastua Estatuak edo EAEk egiten duena baino altuagoa ez denik. Adibidez, Energiaren Euskal Erakundeak 2011an zehazten zuenez, Gipuzkoako familia baten batz besteko gastua (1.066 euro), praktikoki, EAEko batz besteko gastua baino %6 altuagoa omen zen (1.008 euro urtean).

3.3.1.2. Energia-gastuen garrantzia etxebizitzetako aurrekontuetan

Zein da gipuzkoar etxebizitzetako gutzirako diru-sarbideekiko egiten den energia-gastuen garrantzia zehatza? Gastu energetikoetan oinarrituriko ikuspegi hau harturik, Pobrezia eta Gizarte Bazterketa Inkestak azaltzen duenez, batz besteko neurrian, gipuzkoar etxebizitzetan bideratzen da gutzirako diru-sarbideen %5,3 argindar, gas naturala edo bestelako erregairen baten erreziboak ordaintzeko. Horretaz gain, emaitza horietan ere nabarmentzen da aurrekontuaren %4,4 bideratzen dutela betebeharrak horiek ordaintzera diru-sarbiderik gutxien duten etxebizitzetako erdiak.

Oro har, baieztatu daiteke gipuzkoar etxebizitzetan aurrekontuaren “erlatiboki” txikia den zati bat (%5 edo gutxiago) bideratzen dutela gehienek –hamarretik ia seik–; eta, gainera, etxebizitzetako laurden batek (25,5) %3 edo gutxiago bideratzen du ordain horietarako. Halere, datuak ere erakusgai jartzen dute etxebizitzetako ia hamarretik batean (%9,5) diru-sarbideen %10 edo gehiago bideratzen dutela gastu energetikoa ordaintzeko, eta horren ondorioz, 25.600 etxebizitzetako diru-sarbide horietarako gehiegizkoa den energia-gastuari aurre egin behar diote. Halere, tasa hori zerbait baxuagoa izango litzateke, adibidez, 2012an Estatu osorik hartutako %12,4ko datuaren aldean⁵⁴.

⁵⁴ TIRADO HERRERO, S. (dir.) (2012) Pobreza Energética en España. Potencial de Generación de empleo derivado de la rehabilitación energética de viviendas. Madrid: Asociación de Ciencias Ambientales.

3. Taula- Etxebizitzako guztirako diru-sarbide eta energia-gastuaren arteko erlazioa. Gipuzkoa 2012.

	Etxebizitzak		Pertsonak	
	Tasa (%)	N	Tasa (%)	N
Gastu energetikoa ≤ %3 guztirako diru-sarbideak	25,5	68.420	28,4	201.198
Gastu energetikoa ≤ %5 guztirako diru-sarbideak	59,8	160.502	65,8	465.704
Gastu energetikoa ≤ %10 guztirako diru-sarbideak	90,5	242.636	93,0	658.099
Gastu energetikoa > %10 guztirako diru-sarbideak	9,5	25.599	7,0	49.177
Gastu energetikoa > %13 guztirako diru-sarbideak	4,0	10.797	2,7	18.755
% guztirako diru-sarbideak	5,3	--	--	--
% guztirako diru-sarbideen arabera medianaren	4,4	--	--	--
Gastu energetikoa > %8,8* guztirako diru-sarbideak	12,5	33.441	9,4	66.666

*Balio hori lortzen da diru-sarbideen arabera medianaren energia-gastuaren bikoitza kalkulatuaz.


Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Erresuma Batuan pobrezia energetikoaren inguruan buruturiko lehendabiziko azterlanen arabera, diru-sarbide apalenak dituzten etxebizitzetan askoz ere esfortzu handiagoa egin behar izaten dute bestelako egoera erosoago batean bizi diren etxebizitzetan aldean. Horren oinarritzko arrazoia da diru-sarbide apaleko etxebizitzetan aurrekontu mugatuagoa izaten dutelako, eta oinarritzko premiazat hartzen da kontsumo energetikoa eta horren ondorioz, elastikotasun gutxiagoa da (hau da, saihestu ezineko gastua; gehienaz ere gutxiarazi daiteke, nahiz eta ez modu zorrotz batean, izan ere bizi-kalitatearen okertze bat ekarri baitezake). Horretaz gain, aipatu daitezke zenbait arrazoi, baina ez diru-sarbideetan baizik eta gastuen erlazioan. Izan ere, lotzen baita gastu energetiko altuago bat egitearekin eta diru-sarbide apaleko etxebizitzetan sarri gertatzen dela okerrago egokitu eta ekipatuak egotea, eta beraz, premia energetiko gehiago izatea.

Ondoren aurkezten den grafikoaren datuek erakusten dute, aipatutakoaren hari beretik, gipuzkoar etxebizitzetan egiten den energia ordaintzeko esfortzu ekonomikoa, diru-sarbide baliokideen arabera sailkatutako funtzioan. Bertan nabaritu daiteke argi alderantzizko erlazio bat familiako diru-sarbide eta etxebizitzek energia ordaintzeko egiten duten esfortzuaren artean. Datuak oso adierazgarriak dira, eta adierazten dute diru-sarbideen lehenengo dezil horretan kokatzen direla (hau da, diru-sarbide baliokide baxuagoa duten biztanleen %10aren artean) diru-sarbide altuenak dituen %10ak baino lau aldiz biderkatzen den energia ordaintzeko esfortzu ekonomikoa handiago bat egiten duten kasuak.

Diru-sarbide altuenak dituzten etxebizitzetako esfortzu nabarmenagoa egiteaz gain, grafiko beretik bestelako ondorio batzuek atera daitezke etxebizitzetan batz besteko gastuaren inguruan. Ohartzerik dagoenez, oro har, etxebizitzetako batz besteko energia-gastua hazi egiten da etxebizitzetako diru-sarbideen arabera. Halere, kasu honetan azaltzen diren etxebizitzetan diru-sarbideen arabera aldeak askoz ere txikiagoak dira, eta urteko 339 euroko aldea azaltzen dute datuek diru-sarbide apalenak dituzten etxebizitzak (1. dezila) eta diru-sarbide altuenak dituzten artean (10. dezila). Hori dela-eta, etxebizitzak pobretuenen faktura energetikoa, soilik, %23,8 beheratzen da, diru-sarbide altuak dituzten etxebizitzetako faktura energetikoaren aldean.

3. Grafikoa – Etxebizitzako faktura energetikoa ordaintzera bideratzen den diru-sarbideen proportzioa eta etxebizitzetako batz besteko gastua energian, etxebizitzetako diru-sarbide baliokideen arabera deziletan. Gipuzkoa 2012



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Ondoren aztergai hartzen da pobrezia energetikoaren eragina energia-gastuen ikuspegitik neurtua, eta, batetik, etxebizitzetako osagai sozial, demografiko eta ekonomiko batzuen arabera loturiko zenbait aldagaien funtzioan; eta, bestetik, etxebizitzetako zenbait ezaugarriengatik, adibidez, tamaina, antzinasuna, etab.

Azterketa honetan hautatu da pobrezia energetikoaren %10eko atalasea erabiltzea, hau da, pobretzat hartzea guztirako diru-sarbide garbien %10 baino gehiago etxebizitzako energia-gastuari bideratu behar duten familiak. Gipuzkoako etxebizitza guztietatik %9,5 eta biztanleria orokorraren %7 legoke, definizio hori aintzat hartuz gero, horrelako egoera batean. Erabaki arbitrarioa da, egiaz. Era berean, hautatu zitekeen diru-sarbideekiko bitan gastuaren batz bestekoa biderkatzearen ondorioz hartzen den atalasea. Kasu horretan, %8,8koa izango litzateke pobrezia energetikoaren lerroa, eta eragindako bai etxebizitza bai pertsonak, hurrenez hurren, %12,5 eta %9,4 izango lirateke. Guztiaz ere, murriztailegoa den adierazle hori hautatu da, izan ere, hori bera erabiltzen baita pobrezia energetikoaren arloan ikuspegi hori hartzen denean, eta horren ondorioz, ahalbidetu daiteke Gipuzkoan lorturiko emaitzak beste lurraldeko emaitzekin alderatzea.

Zein mailatan erlazionatzen da pobrezia energetikoa –gastuen ikuspegian oinarrituta– etxebizitzetako ezaugarri sozial, demografiko eta ekonomikoekin? Datuak aztertu aurretik egin beharreko gogoeta batek arrazoizkoa ematen du, adierazle hori diru-sarbide baxuko etxebizitzetan

bereziki hedatuta dagoen heinean, etxebizitzaren ezaugarri nagusi horiek eta horrela neurtutako pobrezia energetikoaren arteko egoera horrek baldintzatu egiten dituela.

4. Taula – Ezaugarri batzuen arabera, etxebizitzako gastu energetikoak ordaintzeko diru-sarbideen %10 baino gehiago bideratzen duten etxebizitza-proporzioa. Gipuzkoa 2012

		Tasa (%)	Banaketa bertikala (%)	N	Pertsonako batz besteko gastua (euro/urteko)
Kide nagusiaren sexua	Gizona	5,1	37,3	9.546	458,1
	Emakumea	20,2	62,7	16.053	613,9
Kide nagusiaren adina	<45 urte	5,5	17,2	4.406	425,7
	45-64 urte	7,0	27,3	6.977	463,5
	65 eta urte gehiago	16,3	55,5	14.216	627,6
Kide nagusiaren jaioterria	Euskal Herria	7,7	58,0	14.836	497,6
	EBko beste herrialdeak	14,9	34,3	8.771	532,5
	EB kanpoko beste herrialdeak	12,1	7,8	1.992	320,6
Familia-talde mota	Pertsona bakarra	21,4	44,6	11.411	1.009,5
	Seme-alaba gabeko ezkontide edo bikotea	7,9	19,2	4.916	614,2
	Seme-alabadun ezkontide edo bikotea	3,3	14,6	3.742	391,6
	Seme-alabadun aita edo ama	23,4	21,2	5.439	528,8
	Beste egoera batzuek	0,5	0,4	92	425,7
Lan-merkatuko partaidetza	Bizikide aktibo guztiak lanean	3,0	16,2	4.135	458,3
	Bizikide aktiboren bat lanean	6,8	9,9	2.535	405,4
	Bizikide aktibo guztiak langabezian	26,4	22,4	5.730	454,0
	Bizikide aktiborik gabe	18,3	51,6	13.199	729,5
Ezgaratasun- edo osasun-arazoak	Pertsonaren bat	13,1	7,0	1.782	650,1
	Pertsonarik ez	9,4	93,0	23.817	486,8
18 urtez azpiko pertsonak	Pertsonaren bat	5,7	17,2	4.393	379,5
	Pertsonarik ez	11,1	82,8	21.206	572,5
65 urte eta gehiagoko pertsonak	Pertsonaren bat	15,1	56,7	14.508	591,7
	Pertsonarik ez	6,4	43,3	11.092	449,9
Pobrezia larria (Eurostat)	Pobrezia-egoera larriak egotea	57,5	24,3	6.213	345,2
	Pobrezia-egoera larriarik ez egotea	7,5	75,7	19.386	499,8
Gizarte-bazterketa (FOESSA)	Gizarteratzea	7,6	69,5	17.799	499,7
	Bazterketa	22,0	30,5	7.801	446,6
Guztira		9,5	100,0	25.599	493,1

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Egiantan, Gipuzkoan jasotako 2012ko datuek azaltzen dute pobrezia larriak eragindako etxebizitzetan –beraz, kokatzen dira diru-sarbide baliokidearen medianaren %40ko atalasearen azpitik– pobrezia energetikoa pairatzen duela %57,5ak. Aurretik hartutako ildo beretik, pobrezia orokorraren kasuan gertatzen den bezala, horrela neurturiko pobrezia energetikoak bereziki eragiten die etxeko pertsona aktiboetatik batek ere lanik egiten ez duenean (diru-sarbideen %10 baino gehiago gastatzen dute etxebizitza horietatik %26,4k), gurasobakarren etxebizitzetara (%23,4), gizarte-bazterketa egoeran daudenei (%22) eta kide nagusi emakume bat duten etxebizitzetara (%20,2).

Nabarmendu behar da, edonola ere, ekuazio hori ez dela perfektua, hau da, pobrezia monetarioa bizi duten etxebizitza horiek guztiek ez dute betiere maila jasoagoan izaten pobrezia energetikoaren eragin larriago bat.

Hori da adibidez, pertsona adindu bat kide nagusi izaten den etxebizitzaren kasua. Etxebizitza horietako pobrezia larriaren tasa %2,6koa da, eta 45 eta 64 urteen arteko pertsonak dira etxebizitzaren buru %4,7ko portzentajearen, eta %4,8 dira 45 urte edo gutxiago dituzten kide nagusiak. Halere, ikuspegi horren arabera, hirukoitza da 45 urtetik beherako pertsona bat buru duten etxebizitzaren kopuruaren aldean, eta bikoitza baino gehiago 45 eta 64 urteen arteko pertsonak kide nagusi dituzten etxebizitzetan baino. Datu horien arabera, nabarmendu daiteke etxebizitza horietan konparatiboki energia-gastu altuagoa egiten dutela. Praktikan, batz besteko pertsonen energia-gastuaz kalkuluak egitean, emaitzen arabera, 65 eta urte gehiago buru dituzten pertsonen etxebizitzak batz bestean pertsonako (627,6 euro) eta beste etxebizitzaren %40a gainditzen du, eta batz besteko urteko gastua 447,3 eurokoa da. Noski, datu horiek interpretatzean kontuan hartu behar dira pertsona bakarreko etxebizitzak maizago agertzen direla (konparatiboki, altuagoa da etxebizitza hauetako batz besteko energia-gastua). Halere, kontuan hartu behar da, egiaz, etxebizitza horietan gastu altuagoa egiten dela.

Euskal Herritik kanpo jaiotako kide nagusia duten etxebizitzetan ere pobrezia energetikoaren tasa altuagoa izaten da. Hori gertatzen da bai Europar Batasunetik kanpoko jaioterrian duten etxebizitzetako kide nagusien kasuetan (%12,1) bai Europar Batasuneko beste herrialderen batean jaiotakoaren artean (%14,9). Halere, EB kanpo jaiotako kide nagusia duten etxebizitzetan besteetan baino energia-gastu murriztagoa egiten dute; 2012an horietako pertsona bakoitzaren batz besteko urteko gastua beste etxebizitza gipuzkoarrena baino %35 murriztagoa izan zen.

Horretaz gain, eta edonola ere, nabarmentzekoa da pobrezia energetikoa bizi duten etxebizitzetan gehien errepikatzen den profila ez dagokiola pobrezia orokorraren profil nagusiari. Egiatan, eta aipatu diren maiztasun-tasa handiagoak izan arren, pobrezia energetikoa pairatzen duen etxebizitzetatik %75,7 ez da pobre diru-sarbideen ikuspegitik. Zein ezaugarriek definitzen dituzte pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzak? Batez ere, kide nagusiaren sexu eta adinak, eta baita ere herritartasunak. Hirutik bi izaten dira kide nagusia emakume bat duten kasuak, %44,6 bakarrik bizi dira eta etxebizitzetatik %55,5 kasuetan buru dute 64 edo urte gehiagoko pertsona bat. Emakumea, autoktonoa, adindua eta bakarrik bizi dena izaten da arazo hori pairatzen duten pertsonen profilik ohikoena.

Etxebizitzetako ezaugarri sozial eta demografikoei arreta jarri ordez etxebizitzaren ezaugarriei kontu hartuz gero, argiro antzeman daiteke lotura bat dagoela etxebizitzaren okupazio-maila eta pobrezia energetikoaren artean. Hori dela-eta, nabarmendu daiteke pertsona bakarra bizi den etxebizitzetan bikoiztu baino gehiago egiten dela, gipuzkoar etxebizitza guztien aldean, pobrezia energetikoa pairatzeko arriskua.

Bestetik, horren indartsu ez izan arren, argia ematen du pobrezia energetikoa etxebizitzaren azalera-erabilgarria eta eraikitako dataren arabera duen lotura. Era honetan, zaharrago eta txikien diren etxebizitzetan handiagoa izaten da pobrezia energetikoaren tasa hori. Horretaz gain, maizago gertatzen da arazo hori alokairuan harturiko etxebizitzetan (%12,4) eta berokuntza-sistemaren instalaziorik ez dutenen artean (%12,6).

5. Taula - Etxebizitzaren ezaugarri batzuen arabera, etxebizitzako gastu energetikoak ordaintzeko diru-sarbideen %10 baino gehiago bideratzen duten etxebizitza eta pertsonen proportzioa eta kopurua. Gipuzkoa 2012

		Etxebizitzak			Pertsonak		
		Tasa (%)	% Bertikala	N	Tasa (%)	% Bertikala	N
Bizikideen kopurua	pertsona 1	21,4	44,6	11.411	21,4	23,2	11.411
	2 pertsona	10,9	34,9	8.942	11,1	36,4	17.884
	3 pertsona	5,6	12,2	3.135	5,7	19,1	9.406
	3 pertsona baino gehiago	2,7	8,2	2.111	3,2	21,3	10.476
Azalera-erabilgarria	70 m ² baino gutxiago	11,7	30,6	7.830	7,7	23,7	11.646
	70 eta 89 m ² artean	10,7	43,2	11.072	9,1	48,8	23.980
	90 m ² edo gehiago	6,8	26,2	6.697	4,6	27,6	13.551
Eraikuntza-data	1979. urte aurrekoak	10,7	66,2	16.935	7,9	63,5	31.233
	1979. urte ondorengoak	7,9	33,8	8.664	5,8	36,5	17.944
Edukitza-erregimena	Jabetza	9,0	80,5	20.600	9,0	41,9	20.600
	Alokairuan	12,4	19,5	5.000	6,0	58,1	28.577
Etxebizitzamota	Banako etxebizitzak	7,6	6,7	1.705	3,9	5,6	2.748
	Pisu eta apartamentuak	9,7	93,3	23.895	7,3	94,4	46.429
Berokuntza-sistema egotea	Badu	9,2	86,7	22.201	6,5	84,7	41.660
	Ez du	12,6	13,3	3.399	12,2	15,3	7.516
Gas naturalaren instalazioa	Badu	9,3	68,7	17.583	6,4	66,4	32.656
	Ez du	10,1	31,3	8.016	8,4	33,6	16.521
Eremua	Ekialdea	10,3	63,0	16.119	7,5	61,0	30.000
	Mendebaldea	8,5	37,0	9.481	6,2	39,0	19.176
Guztira		9,5	100,0	25.599	7,0	100,0	49.177

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Epigrafe hau bukatu aurretik, gogoeta bat egin beharrekoa da adierazle hori erabiltzeak pobrezia energetikoa neurtzeko dituen oinarriko mugen inguruan. Izan ere, modu erlatibo batean objektiboa baita adierazle horrek etxebizitzan jasotako gastu eta diru-sarbideen arabera oinarritzen delako, eta pentsatu daiteke modu zuzen batean identifikatzen dituela, dauzkaten diru-sarbideen arabera, “gehiagizko” energia-gastua egiten duten etxebizitzak.

Halere, eta gure ustean, garrantziko mugatze bat azaltzen du metodo horrek, izan ere, neurketa hori erabiliz, ez dira kontuan hartzen “gehiagizko” energia-gasturik ez egin arren, baina ez energia-eskasia egoera bat bizi ez dutelako, gastu hori ez dute egiteko ezinean daudelako eta gutxiago kontsumitzen dutelako derrigorrez. Adibidez, ikuspegi honen arabera, pobrezia energetikoa pairatzen kanpora gelditu arren (gutxi gorabehera 242.600 etxebizitza), oraindik ere %6,1ak azaltzen du hilabete hotzenetan ezin izaten dutela tenperatura egokitu, eta joandako urtean, arazo ekonomikoen ondorioz etxebizitzako gastu energetikoa gutxitu omen du %21,6k.

Jarraian azaltzen da pobrezia energetikoa beste aukera batzuek dituen ikuspegi bat, eta, hain justu, etxebizitzako energia-gastuetan oinarritutakoaren aldean, ikuspegi honek alderdi subjektibo edo pertsonak azaldukoak hartzen ditu kontuan.

3.3.2. Etxebizitzetako hautemate eta adierazpenetan oinarrituriko ikuspegia

Etxebizitzetan bizi diren pertsonen hautemate eta adierazpenak hartzen ditu ikuspegi honek etxebizitzetako pobrezia energetikoa neurtzeko, eta horren bidez nahi da ondorio batzuek edo deigarrien diren ezaugarrien ezauguera izatea, adibidez, etxebizitza neguan bero ezin mantendu edota gasa edo argindarraren fakturak ordaintzeko atzerapenak gertatzen direnean ekonomia-zailtasunengatik.

Ikuspegi honen baitako pobrezia energetikoaren eragina ebaluatzeko neurri nagusia sortzen da aldagai desberdinak kontuan hartzen dituen adierazle sintetiko baten osaeratik. Gehienez, hiru hauek dira kontuan hartutako aldagaiak: hilabete hotzetan etxebizitza tenperatu egoki batean mantentzeko ezintasuna; atzerapenen bat izatea ura, gasa, berokuntza-sistema edo argindarraren errezihoak ordaintzean; eta etxebizitzan itoginak edo hezetasun-arazoak izatea.

Europako herrialdeen arteko pobrezia energetikoaren prebalentziaren tasa konparatzeko diseinatu zuten ikuspegi hori jatorriz –baina ez horretarako soilik–, eta berberak dira aipaturiko hiru aldagaiak eta Europar Batasunaren Errenta eta Bizi-baldintzen Estatistiken inkesta komunean (*Statistics on Income and Living Conditions*, EU-SILC) agertzen diren hiru galdera. 2004an abian jarritako estatistika-operazio hori harmonizaturik dago Europar Batasunean (eta Islandia eta Norvegia), ordezkatzen du aurreko Europar Batasuneko Etxe Panela (EBEP) eta gaur egun eskaintzen du segida zabal bat arlo askotariko europar etxebizitzetako bizi-baldintza eta bizi-kalitatearen inguruan.

Azterlan honetako bigarren atalean jasotakoaren arabera, Jonathan D. Healy eta John Linch irlandar ikerlariak izan dira ikuspegi horren aitzindari. Bi adituek elkarlanean Europar Batasuneko 14 herrialdeen inguruan 2002an Europar Batasuneko Etxe Panela (EBEP) oinarri harturik buruturiko azterlan batean⁵⁵ –aurrena izan da arazoaren eragina Europan neurtzen– aztertzen zuten fenomeno honen helmena sei adierazle erabiliz, eta adierazle horiek osatu zituzten aldagai objektibo eta subjektibo batzuen konbinatetik. Halere, metodologia-proposamen hori azkar nahasten hasi zen, funtsean, Europar Batasunaren Errenta eta Bizi-baldintzen Estatistikek (EU-SILC) ordezkatu zutelako Europar Batasuneko Etxe Panela (EBEP), eta horren ondorioz, aldatu egin ziren adierazleak lantzeko oinarri egindako galderak.

Gaur egun, erlatiboki orokortutako kontsentsua lortu da pobrezia energetikoa neurtzeko aurretik aipaturiko aldagai horien inguruan (etxebizitza neguan bero ezin mantendu, faktura energetikoa ordaintzeko atzerapen eta etxebizitzetako hezetasun eta itoginak). Hori egin dute, behintzat, orain gutxi buru izandako Europar Batasunaren esparruko azterlan akademiko horiek guztiek^{56,57,58,59,60,61}. Halere, azterlan batzuen eta besteen artean badira alde nabarmenak, izan ere,

⁵⁵ HEALY, J. D. y P. CLINCH (2002) *Fuel poverty in Europe: A cross-country analysis using a new composite measure*. Environmental Studies Research Series, University College Dublin.

⁵⁶ EPEE (2009) *Evaluación de la pobreza energética en Bélgica, España, Francia, Italia y Reino Unido*. European Fuel Poverty and Energy Efficiency.

⁵⁷ TIRADO HERRERO y D. ÜRGE-VORSATZ, D. (2010) *Fuel Poverty in Hungary. A First Assessment*. Budapest: Center for Climate Change and Sustainable Energy Policy.

⁵⁸ THOMSON, H.R. (2011) *Qualifying and quantifying fuel poverty across the European Union using consensual indicators*. Department of Social Policy and Social Work. University of York.

horiek guztiek ere analisirako hiru aldagaiak erabili arren, desberdina izaten da bakoitzarentzat horiek duten garrantzia.

Azterlan honetan aldeztu dugu –azaldutako proposamenen aniztasun eta neurri sintetiko bat eskaintzeko premiagatik– pobrezia energetikoaren adierazle konposatu bat diseinatzea, eta oinarritzen da aipaturiko hiru aldagaien portzentajeen batuketa haztatu batean, eta berezitasun bat du adierazitako moduak, eta beste bi adierazleen aldean, bikoiztu egiten da etxebizitzako tenperatura egokitzeko ezintasunaren adierazleak.

$$\text{Pobrezia energetikoa} = (X + 0,5*Y + 0,5*Z) * 100$$

Horrela delarik:

X= Hilabete hotzenetan etxebizitza tenperatu egoki batean mantendu ezin duten etxebizitza edo pertsonen proportzioa.

Y= Ekonomia-zailtasunen ondorioz ura, gasa, argindar edo komunitateko ordainketan atzerapenak izandako pertsona edo etxebizitzen proportzioa.

Z= Ondorengo arazo hauek dituzten pertsona edo etxebizitzen proportzioa: itoginak; hezetasun-arazoak pareta, lurzoru, sabai edo zimenduetan; edo lurzoru, leiho- eta ate-markoetan usteldura azaltzea.

Gaur egun erabiltzen diren hiru aldagai horiek osaturiko adierazle sintetikoan oinarrituriko pobrezia energetikoa neurtzeko berariazko modu hau bera erabiltzen du Sergio Tiradok Espainiako Pobrezia Energetikoaren azterlanean, eta bat dator Harriet Thomson eta Carolyn Snell adituek pobrezia energetikoaren eragina neurtzeko agertzen dituzten lau gertalekuetako batekin. Hautaketa hori egiteko arrazoi nagusia da hiru aldagaietatik garrantzitsuen hartutako horrek, modu zuzenean pobrezia energetikoaren adierazpenik argiena azaltzen duelako, neguan etxebizitza bero mantentzea ezin dutenen kasuak kontuan hartzen dituela.

⁵⁹ BOUZAROVSKI, S. (2011) Energy poverty in the EU: a review of the evidence. School of Geography, Earth and Environmental Sciences. University of Birmingham.

⁶⁰ TIRADO HERRERO, S. (dir.) (2012) Pobreza Energética en España. Potencial de Generación de empleo derivado de la rehabilitación energética de viviendas. Madrid: Asociación de Ciencias Ambientales.

⁶¹ THOMSON, H. y C. SNELL (2013) “Quantifying the prevalence of fuel poverty across the European Union”. Energy Policy, nº 52, 563-572.

3.3.2.1. Pobrezia energetikoaren adierazle sintetikoaren emaitzak

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestako emaitzen arabera, 2012an 20.000 etxebizitza inguruko bizikideek diote (guztietatik %7,4) ezin dutela hilabete hotzetan etxebizitza tenperatura egoki batean mantendu, eta 11.000 etxebizitzetan (%4,1) atzerapenak izan dituzte energia-erreziboak ordaintzerako garaian. Horretaz gain, Gipuzkoako 24.700 etxebizitza inguruan (guztietatik %9,2) nabarmentzen omen da hezetasun edo itoginen ondorioz gertaturiko horma, lurzoru edo sabaiko kalteren bat.

Soilik, Gipuzkoako 1.000 bat etxebizitzetako bizikideek (%0,5) azaltzen dute aldi berean aipaturiko hiru egoera horiek bizi izan dituztela, halere, aztergai harturiko hiru item horietako bat etxebizitzen %17,2an jasotzen da, hau da, gutxi gorabehera pobrezia energetikoa neurtzean burutzen diren azterlanetan erabilitako faktore horietako batek eragindako 46.100 etxebizitza.

6. Taula – Etxebizitzetako hautemate eta adierazpenen ikuspegiaren arabera, pobrezia energetikoaren eragina etxebizitza eta biztanleen artean. Gipuzkoa 2012


	Etxebizitzak		Pertsonak	
	Tasa (%)	N	Tasa (%)	N
[1] Tenperatura egoki bat mantentzeko ezintasuna	7,4	19.819	6,1	43.489
[2] Energia-erreziboak ordaintzeko atzerapenak	4,1	10.899	4,5	31.909
[3] Hezetasun-egoerak	9,2	24.642	9,1	64.638
3 item egotea	0,5	1.236	0,4	2.652
Gutxienez 2 item egotea	3,0	8.023	3,5	24.248
Gutxienez item 1 egotea	17,2	46.101	16,0	113.136
Item horiek egotea [1] edo [2]	9,5	25.416	8,4	59.619
3 item horietatik bat ere ez egotea	82,8	222.134	84,0	594.140
■ Pobrezia energetikoaren adierazle sintetikoa	14,0	--	13,0	--

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Hiru adierazle horiek oinarri harturik, Gipuzkoako adierazle konposatuak 14ko balioa jasotzen du etxebizitzetan eta 13koa pertsonetan. Ohartu beharreakoa da adierazle sintetiko horren emaitzak ezin direla portzentajeetan bildu, eta, horren ondorioz, ez dutela berez azaltzen tasa edo prebalentzia bat (hau da, ezin da baieztatu Gipuzkoako biztanleen %13k pobrezia energetikoa pairatzen duenik), eta ahalmen konparatibo bat du gaitasun nagusi.

Modu horretan kalkuluak buruturiko ikuspegitik, zein da Europarekiko Gipuzkoaren egoera erlatiboa? EB-28 eremua osatzen duten herrialdeetako Eurostat erakundearen datu berrienen arabera, nabarmendu daiteke adierazle konposatu horren balioa Gipuzkoako kasuan (13), konparatiboki baxuagoa dela EB-28 eremuko herrialdeen baterako balioa baino (22,1). Balio hori ere baxuagoa da Espainiaren aldean (16,2), eta Alemania (14) edo Danimarkaren parekoa da (12,6).

4. Grafikoa – EB-28 herrialdeen araberako pobrezia energetikoaren indizea (2011/2012)



Iturria: Eurostat. EU-SILC (2011) eta Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren Inguruko Inkesta 2012.

Oro har, grafiko horren emaitzek azaltzen dutenez, Europa ekialde eta hegoaldekoak dira pobrezia energetikoaren arazoa gehien pairatzen duten herrialdeak. Lehendabiziko herrialdeen artetik bereziki nabarmentzen da Bulgaria (68,1), izan ere, herrialdeetako tasak hirukoizten baitu EB-28 eremuko batz besteko datua (22,1). Eslovakia (11,4) eta Estonia (18,5) salbu, praktikoki ekialdeko blokearen parte izandako herrialde guztiek hartzen dute ranking horren goialdea. Europako hegoaldeari dagokionez, berauen tasa altuarengatik bereziki nabarmentzen dira Portugal (40,8), Grezia (37,9) eta Italia (35,7). Horietatik tarte batera kokatzen da Espainia (16,2), eta emaitza hori Frantzia (15) eta Erresuma Batuen (17) antzekoa da.

3.3.2.2. Egoera termiko optimo batean etxebizitza mantentzeko gaitasuna

Ondorengo galdera hau hartzen da oinarri etxebizitza bero mantentzeko ezintasunaz ezaguera izateko: “Esan, mesedez, etxebizitzan ahalmena duzuen (...) hilabete hotzetan etxebizitza tenperatura egoki batean mantentzeko”. Aurretik sarri aipatu den bezala, aldagai hori erabat subjektiboa da, halere, oinarritzko neurritzat hartzen da etxebizitza bero mantentzeko kostua beregain hartzeko gaitasunaz duten pertzepzioa ebaluatzean.

Ondorengo taulak azaltzen du gipuzkoar etxebizitzaren portzentajea ezaugarri batzuen arabera, eta 2012an azaltzen zutenez, ezin zuten hilabete hotzetan etxebizitza bero mantendu. Jasotako emaitzen arabera, etxebizitza gehienetan ere modu honetako arazorik ez dute izaten (%92,6), orokorrean egoera horien eragina oraindik ere mugatua den arren (etxebizitzetako %7,4 eta pertsona guztien %6,1), bereziki altua izaten da etxebizitza-kasu zehatz batzuentzat.

7. Taula – Ezaugarri batzuen arabera, hilabete hotzetan ezin dute etxebizitza tenperatura egoki batean mantendu. Gipuzkoa 2012

		Tasa (%)	Banaketa bertikala (%)	N
Kide nagusiaren sexua	Gizona	5,5	52,5	10.405
	Emakumea	11,8	47,5	9.414
Kide nagusiaren adina	<45 urte	7,9	32,2	6.375
	45-64 urte	7,3	37,0	7.330
	65 eta urte gehiago	7,0	30,8	6.113
Kide nagusiaren jaioterria	Euskal Herria	5,4	52,5	10.408
	EBko beste herrialdeak	9,0	26,6	5.280
	EB kanpoko beste herrialdeak	25,0	20,8	4.131
Familia-talde mota	Pertsona bakarra	11,9	32,0	6.340
	Seme-alaba gabeko ezkontide edo bikotea	4,0	12,5	2.477
	Seme-alabadun ezkontide edo bikotea	4,3	24,3	4.825
	Seme-alabadun aita edo ama	18,5	21,8	4.316
	Beste egoera batzuek	10,9	9,4	1.860
Lan-merkatuko partaidetza	Bizikide aktibo guztiak lanean	4,0	27,5	5.454
	Bizikide aktiboren bat lanean	9,5	17,8	3.534
	Bizikide aktibo guztiak langabezian	22,6	24,8	4.907
	Bizikide aktiborik gabe	8,2	29,9	5.923
Ezgaitasun- edo osasun-arazoak	Pertsonaren bat	8,0	5,5	1.089
	Pertsonarik ez	7,4	94,5	18.730
18 urtez azpiko pertsonak	Pertsonaren bat	6,5	25,5	5.052
	Pertsonarik ez	7,7	74,5	14.767
65 urte eta gehiagoko pertsonak	Pertsonaren bat	6,6	32,0	6.336
	Pertsonarik ez	7,8	68,0	13.483
Pobrezia larria (Eurostat)	Pobrezia-egoera larriak egotea	29,9	16,3	3.232
	Pobrezia-egoera larririk ez egotea	6,4	83,7	16.587
Gizarte-bazterketa (FOESSA)	Gizarteratzea	4,0	46,6	9.245
	Bazterketa	29,8	53,4	10.574
Guztira		7,4	100,0	19.819

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Aldagai sozial, demografiko eta ekonomiko batzuen funtzioan eginiko arazo horren eraginaren inguruko azterketa batek azaltzen duenez, oso hertsia da neguan etxebizitza berotu ahal izateko finantza-ezintasunaren eta ekonomia-pobrezia eta gizarte-bazterketaren arteko harremana. Izan ere, arazo hori pairatzen dute pobrezia larria edo gizarte-bazterketa pairatzen duten hamarretik hiru pertsonak. Edonola ere nabarmendu daiteke, alderantzizko bidetik, pobrezia larria bizi dutenen etxebizitzaren %70ak ez duela horrelako egoerarik bizi, eta pobre ez direla pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzetatik bi heren edo gehiago. Hori dela-eta, errepikatu beharrekoa da etxebizitza pobreetan maizago gertatu arren, ez dela soilik pertsona pobre edo baztertuen arazoa.

Horretaz gain, lotura nabarmena antzematen da etxebizitza berotzearen ondorio diren gastuei ezin aurre egiterik duten kasuen eta etxebizitzako bizikideen lan-merkatuan duten partaidetza-mailaren artean. Hori dela-eta baieztatu daiteke bizikide aktibo guztiak ere langabezia daudenean 5,6 biderrean hazten dela arriskua pertsona landunak dituzten etxebizitzetako kasuen aldean. Etxebizitzako kide nagusiaren herritartasun eta sexuak ere harreman estua dute pobrezia energetikoaren adierazle honekin. Ikus daitekeenez, nabarmen da altuagoa arazo horren eragina kide nagusia EB kanpoan jaiotako etxebizitzetan (%25) Euskal Herrian (%5,4) edo EBko beste herrialdeetan jaiotako aldean (%9). Bertan alde nabarmena antzematen da aurretik aztertutako gastuaren adierazletik, izan ere, ez baitzuen horrenbesteko alderik EB kanpo jaiotako eta Gipuzkoa osoko etxebizitzaren erregistro guztiekin alderatuz gero.

Bestetik, baita ere nabarmentzen da emakume bat kide nagusi izaten den kasuetan bikoiztu egiten dela gizonezko bat kide nagusi den etxebizitzaren aldean, eta modu nabarmen batean hazten dela arazoa pairatzeko arriskua pertsona bakarreko etxebizitzetan (%11,9), eta bereziki gurasobakarren artean (%18,5). Azkenik, ez da antzematen garrantzizko lotura bat etxebizitza berotzeko kostuari aurre egin eta etxebizitzako kide nagusia den pertsonaren adinaren artekotik. Lotura hori ere ez da adierazgarria 65 eta urte gehiago dituzten pertsona adindu edota ezgaitasun edo gaixotasun larriak dituzten pertsonak kontuan hartzean.

Pobrezia energetikoaren alderik gardenetakoa da hotzik gehien egiten duen hilabeteetan etxebizitza bero mantentzeko zailtasuna, eta erlazio estua du horrek etxebizitza eta ekipamenduen ezaugarri batzuekin. Hurrengo taulan jasotzen dira arazo horrekin erlazionatzen diren aldagaiak, eta gehienez izaten da etxebizitzan berokuntza-sistema bat instalatua izatea (banakakoa edo zentrala) eta etxebizitza edukitzea-maila. Horrela, baieztatu daiteke berokuntza-sistema instalatu gabeko etxebizitzak (%26,6) eta alokairu-erregimenean dituzten maizterrak direla (%21,7) arazo horren eragina gehien nabarmentzen dutenak.

Bestetik, eta datuen arabera, arazo horrek harreman estua omen du etxebizitzako okupazio-maila eta azalera-erabilgarriarekin. Emaizten arabera, arazo hori pairatzeko arriskua hazi egiten omen da bizikide-kopurua eta azalera erabilgarri dituen metro koadroak gutxitzen diren heinean. Beste hitzez esanda, arrisku gehien dute etxebizitzako egokitasun termiko estandar bat mantentzeko kasuak egokitzen dira, hain zuzen ere, pertsona bakarra bizikide den kasu (%11,9) eta tamaina txikiena duten etxebizitzekin (%10,3). Nahiz eta azkeneko datu horrek teoria-mailako baieztapen bat gezurtatu, hau da, azalera gehiago izatean hazi egiten direla berotzeko premiak eta pobrezia energetikoa pairatzeko arriskua, erraza da hori azaltzea. Gipuzkoan behintzat, Pobrezia eta Gizarte

Bazterketaren inguruko azterlanaren arabera, orokorrean, baliabide urriko pertsonak bizi dira etxebizitza txikiagoetan, eta horiek 1979. urtea baino lehenago eraiki zituzten besteak baino proportzio askoz ere altuago batean.

8. Taula – Etxebizitzako ezaugarri batzuen arabera, hilabete hotzetan etxebizitza tenperatura egoki batean mantendu ezin duten etxebizitza eta pertsonen proportzioa eta kopurua. Gipuzkoa 2012


		Etxebizitzak		Pertsonak	
		Tasa (%)	N	Tasa (%)	N
Bizikideen kopurua	pertsona 1	11,9	6.340	11,9	6.340
	2 pertsona	8,2	6.737	8,1	13.049
	3 pertsona	6,3	3.531	5,8	9.589
	3 pertsona baino gehiago	4,2	3.210	4,4	14.510
Azalera-erabilgarria	70 m ² baino gutxiago	10,3	6.865	10,7	16.135
	70 eta 89 m ² artean	7,3	7.571	5,6	14.923
	90 m ² edo gehiago	5,5	5.383	4,3	12.431
Eraikuntza-data	1979. urte aurrekoak	9,7	15.319	8,6	34.125
	1979. urte ondorengoak	4,1	4.500	3,0	9.364
Edukutza-erregimena	Jabetza	4,9	11.084	4,9	11.084
	Alokairuan	21,7	8.735	6,8	32.406
Etxebizitza-mota	Banako etxebizitzak	8,1	1.812	4,5	3.214
	Pisu eta apartamentuak	7,3	18.007	6,3	40.275
Berokuntza-sistema egotea	Badu	5,2	12.649	4,4	28.283
	Ez du	26,6	7.170	24,6	15.206
Gas naturalaren instalazioa	Badu	5,0	9.392	3,5	17.780
	Ez du	13,1	10.427	13,0	25.709
Eremua	Ekialdea	8,8	13.729	7,2	28.592
	Mendebaldea	5,4	6.090	4,8	14.897
Guztira		7,4	19.819	6,1	43.489

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Etxebizitzan gas naturalaren instalazioa izatea eta eraikuntza-data dira etxebizitza batzuetako arazoaren eragin handiagoa azaltzeko kontuan hartu beharreko beste bi osagai. Datuen arabera, berokuntza-sistemaren instalaziorik ez dutenen artean, ezin du etxebizitza bero mantendu batz bestekoa ia bikoizten duen proportzio batek (%13), eta eragin handiagoa izaten dute 1979. urtea baino lehenago eraikitako etxebizitzetan (%9,7).

Azkenik, nabarmendu daiteke Gipuzkoako ekialdeko eremuan bizi dela arazo horrek eragindako biztanlerik gehien (%8,8), eta eremu horrek hartuko litzuzke Bidasoa, Oarsoaldea, Donostia eta Buruntzaldeako eskualdeak. Mendebaldeko eremukoak dira (%5,4) Debagoiena eta Deba Behea, Goierri, Tolosaldea eta Urola Kosta.

5. Grafikoa – Hilabete hotzetan etxebizitza temperatura egoki batean mantentzerik ez dutenen EB-28 eremuko proportzioa (2011/2012)



Iturria: Eurostat. EU-SILC (2011) y Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Ikuspegi konparatibo batetik, Europar Batasuna eta Gipuzkoako emaitzak kontrastatzen badira, baieztatu daiteke pobrezia energetikoarekin horrenbesteko lortura duen arazo horren eragina baxuagoa dela Gipuzkoan EB-28 eremuan baino (%9,8). Guztiaz ere, Gipuzkoako 2012ko datuen arabera, etxebizitza berotzerik ez dutenen urte horretako proportzioa altuagoa da Espainiako 2011 datuekin alderatuz (%5,9), eta baita ere Europa mendebaldeko herrialdeekin alderatuz gero, adibidez, Austria, Frantzia, Alemania, Luxemburg edo Holanda. Lehenagoko ekialdeko blokearen parte ziren herrialde gehienak nabarmentzen dira berriro ere tasa altuenak izateagatik (Bulgaria, Lituania, Letonia, Errumania, Polonia eta Hungaria), eta baita ere Europa hegoaldeko herrialdeak (Portugal, Zipre, Grezia, Italia eta Malta).

3.3.2.3. Faktura energetikoa ordaintzean gertatzen diren atzerapenak

Energia-fakturak ordaintzeko atzerapena ohiko izaten da pobrezia energetikoaren eragina aztertzerakoan kontuan harturiko beste aldagaietako bat. Gas- edo argindar-kontsumoak ordaintzeko garaian etxebizitzaren finantza-zailtasunak neurtzeko gaitasunak bihurtzen du garrantzitsu adierazle hori.

Zehazki, adierazle hori lortzen da galdera honen erantzunetatik: *“Zailtasun ekonomikoaren ondorioz joandako urtean etxebizitza nagusia mantentzeko erreziboak ordaintzean (ura, gasa, argindarra, komunitatea, etab.) atzerapenik izan al duzue?”*. Galdera horrek, begien bistan denez, kontua hartzen ditu energia-fakturak (gasa eta argindarra), baina baita ere ura eta komunitate-gastuak. Hori da adierazle horrek dituen mugetako bat, izan ere, orokorrean uraren kostua erlatiboki baxua izaten baita, baina komunitate-kuotak garrantzia du gaur egun. Edonola ere, uste izan daiteke energia-gastuak direla kategoria horien artean atalik garrantzitsuena.

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestaren arabera, etxebizitza bero mantentzeko kostuei aurre egiteko zailtasunen eragina baino baxuagoa da ordaindu gabeko argi- edo gas-erreziboaren eragina. Gipuzkoan, guztira, ia 11.000 etxebizitza dira (%4,1) faktura energetikoari loturiko ez ordaintzeak izan dituztela adierazi dute.

Erreziboaren ordainketa garaiz ez egitea eta familia horien zenbait ezaugarri sozial, ekonomiko eta demografikoei kontu hartuz gero, logikoki, nabarmentzen da adierazle horrek pobrezia monetario eta gizarte-bazterketa kasuetan duen lotura estua; eta, aldi berean, neurri handiago batean eragiten die kide nagusia Europar Batasunetik kanpo jaio edota bizikide aktiboetatik inork ere lanik ez dutenei.

Bertako emaitzen arabera, kide nagusi emakume bat denean eragina pixka bat gehiago nabarmentzen da kide nagusia gizonezko bat denean baino (%4,5 emakumezkoak eta %3,9 gizonezkoak kide nagusi dituzten etxebizitzak), eta baita ere horren maiztasuna hazi egiten dela etxebizitzako kide nagusiaren adinak behera egiten duen heinean. Alegia, 45 urte edo gehiago kide nagusiak dituzten etxebizitzetan (%7,9) izaten du eraginik gehien fakturen ordaintze ezak, eta arazo horren eragina minimoa izaten da kide nagusi 65 urte edo gehiagoko pertsona bat denean (%1,2). Baita ere, arazo horren eragin sakona nabarmentzen da gurasobakarreko familietan, izan ere, etxebizitza guztietatik soilik %8,7 izan arren⁶², gas- eta argindar-fakturen ez ordaintzeak aipatzen dituzte horietatik guztietatik %11,7k. Aurrekoaren hari beretik, emaitzek azaltzen dute arazo honen maiztasun handiago bat bizikide batzuek adingabeko diren kasuetan. Bestalde, ez da nabarmentzen estatistikoki nabarmentzekoa den erlazio bat ezgaitasun edo gaixotasun larria duten pertsona eta gas- edo argindar-fakturak berandu ordaintzearen gaiaren artean.

⁶² Ohartu beharreko gaia da etxebizitza horien arteko ezaugarri sozial eta demografikoen artean dauden desberdintasunak. Horietatik guztietatik %26,8k 45 urtetik azpiko pertsona bat du etxebizitzako kide nagusi, %41,5 dira 45 eta 64 urte bitarteko etxebizitzetako buru eta gainontzeko %31,7ak du kide nagusi 65 urte edo gehiago dituen pertsona bat. Etxebizitza horien kasuen gehiengoan izaten dute kide nagusi emakume bat (%87), baina kasu horietatik, soilik %34,1 izaten dira 18 urte azpiko pertsonak bizikide dituzten etxebizitzak.

9. Taula – Ezaugarri batzuen arabera eta joandako urtean, faktura energetikoaren erreziporen bat ordaintzerakoan atzerapenen bat izan dutenen adierazpenen proportzioa

		Tasa (%)	Banaketa bertikala (%)	N
Kide nagusiaren sexua	Gizona	3,9	66,9	7.291
	Emakumea	4,5	33,1	3.608
Kide nagusiaren adina	<45 urte	7,9	58,8	6.409
	45-64 urte	3,4	31,5	3.428
	65 eta urte gehiago	1,2	9,7	1.061
Kide nagusiaren jaioterria	Euskal Herria	2,3	40,4	4.402
	EBko beste herrialdeak	4,2	22,7	2.476
	EB kanpoko beste herrialdeak	24,4	36,9	4.021
Familia-talde mota	Pertsona bakarra	2,5	12,1	1.319
	Seme-alaba gabeko ezkontide edo bikotea	1,4	8,2	891
	Seme-alabadun ezkontide edo bikotea	4,9	50,1	5.457
	Seme-alabadun aita edo ama	11,7	24,9	2.716
	Beste egoera batzuek	3,0	4,7	517
Lan-merkatuko partaidetza	Bizikide aktibo guztiak lanean	2,7	33,4	3.644
	Bizikide aktiboren bat lanean	8,3	28,4	3.099
	Bizikide aktibo guztiak langabezia	15,9	31,6	3.448
	Bizikide aktiborik gabe	1,0	6,5	708
Ezgaitasun- edo osasun-arazoak	Pertsonaren bat	2,5	3,2	346
	Pertsonarik ez	4,1	96,8	10.553
18 urtez azpiko pertsonak	Pertsonaren bat	8,6	60,7	6.617
	Pertsonarik ez	2,2	39,3	4.282
65 urte eta gehiagoko pertsonak	Pertsonaren bat	1,2	10,2	1.108
	Pertsonarik ez	5,7	89,8	9.791
Pobrezia larria (Eurostat)	Pobrezia-egoera larriak egotea	16,2	16,1	1.752
	Pobrezia-egoera larririk ez egotea	3,6	83,9	9.147
Gizarte-bazterketa (FOESSA)	Gizarteratzea	2,5	52,5	5.724
	Bazterketa	14,6	47,5	5.175
Guztira		4,1	100,0	10.899

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Prebalentzia- edo maiztasun-tasak aztertu ordez, arazoa pairatzen dutenen profil orokor bat aztertzerakoan, nabarmentzen da ordaintzean atzerapenak izan dituzten etxebizitzaren %84ean ez dela pairatzen pobrezia-egoera larririk, eta %36,9 etxebizitzetako kide nagusia Europar Batasunetik kanpoko herritartasuna duen pertsona bat dela –etxebizitza guztietatik ia %6,1 dira–, eta etxebizitza horietako kide nagusi dira 45 urte edo gutxiago dituzten pertsonak.

Bestalde, emaitza horiek aztertzen badira etxebizitzako zenbait ezaugarrien arabera –aurreko epigrafean bezala–, antzeman daitezke nabarmentzeko joera batzuek. Alderik handienak ematen dira edukitza-erregimenean. Frogatu daiteke arazo horren eragina askoz ere altuagoa dela alokairuan dauden etxebizitzetan (%17,6), jabe-erregimenean etxebizitza duten pertsonen aldean (%1,7).

Gainera, nabarmentzen da erlatiboki argia den erlazio bat energia-erreziboen ez ordaintze eta gabezia materialeko egoeren artean. Berokuntza-sistema edo gas naturala instalaziorik ez duten etxebizitzetan bikoiztu egiten da praktikoki arazo hori gertatzeko arriskua.

Bestalde, eta neguan etxebizitza bero mantentzeko etxebizitzetako zailtasunak ematen diren kasuen antzera, etxebizitza zaharkitu eta azalera gutxienekoengan eragin handiagoa izaten du errezihoak ordaintzean izandako atzerapenek. Halere, kontrakoa gertatzen da etxebizitzetako bizikide-kopurua aztertzean. Kasu hauetan nabarmendu daiteke bereziki hiru edo pertsona gehiago bizitzen diren etxebizitzetan adierazten da gehien errezihoen ordainketak ez dituztela garaiz egin.

Azkenik, ez da nabarmentzen estatistika-erlazio garrantzitsurik etxebizitza kokatzen den lurralde-eremua eta faktura energetikoa ordaintzean izandako atzerapenetan.


10. Taula - Etxebizitzako ezaugarri batzuen arabera, joandako urtean faktura energetikoaren errezihoen bat ordaintzerakoan atzerapenen bat izan dutenen adierazpenen arabera etxebizitza eta pertsonen proportzioa eta kopurua. Gipuzkoa 2012

	Etxebizitzak		Pertsonak		
	Tasa (%)	N	Tasa (%)	N	
Bizikideen kopurua	1 pertsona	2,5	1.319	2,5	1.319
	2 pertsona	3,8	3.116	3,6	5.807
	3 pertsona	6,1	3.412	6,2	10.235
	3 pertsona baino gehiago	4,0	3.053	4,4	14.549
Azalera-erabilgarria	70 m ² baino gutxiago	6,7	4.480	9,0	13.498
	70 eta 89 m ² artean	4,7	4.824	4,7	12.536
	90 m ² edo gehiago	1,6	1.596	2,0	5.875
Eraikuntza-data	1979. urte aurrekoak	4,9	7.749	5,8	22.829
	1979. urte ondorengoak	2,9	3.150	2,9	9.080
Edukitza-erregimena	Jabetza	1,7	3.832	1,7	3.832
	Alokairuan	17,6	7.067	5,9	28.078
Etxebizitza-mota	Banako etxebizitzak	0,0	0	0,0	0
	Pisu eta apartamentuak	4,4	10.899	5,0	31.909
Berokuntza-sistema egotea	Badu	3,7	8.879	3,9	25.495
	Ez du	7,5	2.020	10,4	6.415
Gas naturalaren instalazioa	Badu	3,1	5.937	3,0	15.452
	Ez du	6,2	4.962	8,3	16.458
Eremua	Ekialdea	4,5	6.993	5,1	20.370
	Mendebaldea	3,5	3.906	3,7	11.539
Guztira		4,1	10.899	4,5	31.909

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Faktura energetikoak berandu ordaintzean, jaso al da gure lurraldeko etxebizitzetan izaten den eragina? Gipuzkoan eskuragarri diren 2012ko datuak beste europar herrialde batzuekin konparatuz gero, maila konparatibo batean arazo horren eragina EB-28 osatzen duten herrialde gehienena baino baxuagoa izaten da gure lurraldean; eta batz bestean, %9 da ordaintzean atzeratzen diren EBko etxebizitzak. Hori dela-eta, Gipuzkoa kokatuko litzateke EB-28 osatzen duten eremuko zazpi herrialderen artean (Luxemburg, Holanda, Danimarka, Alemania, Austria eta Txekiar Errepublika), eta horietan guztietan atzerapen horien maiztasun-tasa biztanleen %5 baino baxuagoa da.

6. Grafikoa – Joandako urtean faktura energetikoari loturiko erreziobotan atzerapenen bat izan dutela adierazten duten pertsonen proportzioa EB-28 eremuko herrialdeetan



Iturria: Eurostat. EU-SILC (2011), Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Portzentaje hori askoz baxuagoa da, adibidez, Europa ekialdeko beste herrialde batzuetan jasotako datuaren aldean (adibidez, Bulgaria, Errumania eta Kroazian biztanleen laurden batek baino gehiagok adierazten dute atzerapenak izan dituztela faktura energetikoa ordaintzean), eta Europa hegoaldean jasotako datuen aldean, adibidez, Grezia (biztanleriaren %23,3), Zipre (%16,9) edo Italia (%12,1).


Oro har, ezinezkoa da faktura energetikoa ordaintzean atzerapenen eragina eta etxebizitzari loturiko energia-prezioen artean zuzeneko erlazio bat ezartzea. Hurrengo grafikoan antzeman daiteke ez dagoela derrigorrezko erlazio bat prezio energetiko altuenak dituzten herrialde eta ez

ordaindu izana adierazten duten proportzio altuenekin. Konparazio hori burutzeko prezioak erosteko ahalmenaren parekotasunaren (EAP) arabera azaltzen dira, eta modu horretan orekatzen da herrialde desberdinen arteko erosteko ahalmena.

Egiaz, badira argindarraren prezioak bereziki altuak diren herrialdeak (adibidez, Alemania, Eslovakia edo Portugal), eta, halere, erlatiboki murrizta izaten da biztanleriaren atzerapenen helmena; edo, adibidez, Grezia bezalako herrialdeetan, prezioa oso baxua izan arren, altua izaten da arazo horren eragina.

Guztiz ere, eta horren ondorio zehatzik lortzea ezinezko gertatu arren, datuek erakusten dutenez, gasaren preziorik altuena duen herrialdean ordainketen atzerapen-tasa hori ere altuena izaten da (Bulgaria); baina bat dator prezio baxuenak dituen herrialdea (Luxemburg) eta atzerapenak dituztela adierazten duen beste muturreko pertsona-kopurua.


7. Grafikoa - Joandako urtean faktura energetikoari loturiko erreziobotan atzerapenen bat izan dutela adierazten duten pertsonen proportzioa eta etxebizitzetako kontsumitzailentzako argindarra eta gasaren azken prezioa* EB-28 eremuko herrialdeen arabera (2011)



*Datuek kontuan dituzte zerga eta tasak, eta adierazten dira eap (erosteko ahalmenaren parekotasuna) arabera. Iturria: Eurostat. EU-SILC (2011) eta Energy statistics-prices (S2-2011).

Energia-prezioak baino maila handiagoan ematen du erlazio argiagoa dutela atzerapen-tasek diru-sarbideekin. Bi aldagai horiek kontuan hartzean –gure kasuan, batetik, ez ordaintzeak adierazten dituztenen proportzioa, eta diru-sarbide baliokidearen mediana (erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera)–, bestetik. Hori dela-eta baieztatu daiteke faktura energetikoari loturiko atzerapenak dituzten lau herrialdeen artean daudela diru-sarbide mediana baxuena duten hiru herrialdeak (Errumania, Letonia eta Bulgaria); eta atzerapen-tasa baxuagoa duten herrialdeek modu nabarian gaintitzen dute Europar Batasuneko batz besteko diru-sarbideen maila.

8. Grafikoa - Joandako urtean faktura energetikoari loturiko erreziobotan atzerapenen bat izan dutela adierazten duten pertsonen proportzioa eta diru-sarbide baliokideen mediana* EB-28 eremuko herrialdeetan (2011)



*Herrialde bakoitzeko diru-sarbideak adierazten dira eap (erosteko ahalmen parekotasuna) arabera. Iturria: Eurostat. EU-SILC (2011) eta Energy statistics – prices (S2-2011).

3.3.2.4. Etxebizitzetako hezetasun-, itogin- eta usteldura-maila

Etxebizitzetako hezetasun eta itoginak ohikoak dira gaizki isolatzearen ondorioz. Oso deserosoak dira zuzeneko ondorioak (usain txarra, arropetako hezetasuna, lizuna, etab.) eta etxekoen egokitasun- eta osasun-mailarekiko ondorioak oso ezkorrak. Gainera, arazoari modu egoki batean erantzun ezean, etxebizitza azkarrago zaharkitu daiteke.

Pobrezia energetikoaren eragina neurtzean, etxebizitzako kalitate-mailarekin modu zuzenean erlazionatzen den aldagai hori izan da adierazle konposatua erabiltzen duten ikerleek hautaturiko aldagaietako bat.

Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestaren arabera, arazo horrek eragiten dio gure lurraldeko etxebizitzaren %9,2ko portzentajeari –gutxi gorabehera 24.600 etxebizitza eta 64.600 pertsona–. Beraz, hori da atal honetan aztertutako hiru adierazleen artean prebalentziarik altueneko adierazlea.

Aztertutako beste bi aldagaiekin gertatzen den bezala –hilabete hotzetan etxebizitzaren tenperatura egokia mantentzeko ezintasuna eta kontsumo energetikoaren errezibo-ordainketan atzerapenak izatea–, aldagai honek desberdina den eragina azaltzen du etxebizitzetako ezaugarri desberdinak kontuan hartzean.

11. Taula – Ezaugarri batzuen arabera, hezetasun-arazoak adierazten dituzten etxebizitzaren proportzioa. Gipuzkoa 2012

		Tasa (%)	Banaketa bertikala (%)	N
Kide nagusiaren sexua	Gizona	8,9	68,0	16.747
	Emakumea	9,9	32,0	7.895
Kide nagusiaren adina	<45 urte	12,8	41,9	10.332
	45-64 urte	9,5	38,7	9.526
	65 eta urte gehiago	5,5	19,4	4.785
Kide nagusiaren jaioterria	Euskal Herria	8,8	68,9	16.978
	EBko beste herrialdeak	9,3	22,1	5.451
	EB kanpoko beste herrialdeak	13,4	9,0	2.213
Familia-talde mota	Pertsona bakarra	7,1	15,4	3.800
	Seme-alaba gabeko ezkontide edo bikotea	9,0	22,8	5.618
	Seme-alabadun ezkontide edo bikotea	9,3	42,4	10.447
	Seme-alabadun aita edo ama	12,1	11,5	2.824
	Beste egoera batzuek	11,4	7,9	1.953
Lan-merkatuko partaidetza	Bizikide aktibo guztiak lanean	9,1	50,7	12.497
	Bizikide aktiboren bat lanean	11,0	16,6	4.098
	Bizikide aktibo guztiak langabezia	22,6	19,9	4.912
	Bizikide aktiborik gabe	4,3	12,7	3.135
Ezgaitasun- edo osasun-arazoak	Pertsonaren bat	8,4	4,6	1.137
	Pertsonarik ez	9,2	95,4	23.505
18 urtez azpiko pertsonak	Pertsonaren bat	9,3	29,0	7.153
	Pertsonarik ez	9,2	71,0	17.489
65 urte eta gehiagoko pertsonak	Pertsonaren bat	7,3	28,6	7.050
	Pertsonarik ez	10,2	71,4	17.592
Pobrezia larria (Eurostat)	Pobrezia-egoera larriak egotea	26,4	11,6	2.851
	Pobrezia-egoera larririk ez egotea	8,5	88,4	21.792
Gizarte-bazterketa (FOESSA)	Gizarteratzea	7,0	66,5	16.377
	Bazterketa	23,3	33,5	8.265
Guztira		9,2	100,0	24.642

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Kasu honetan ere, aurreko bien moduan, nabarmentzen da erlazio argi bat hezetasun, itogin eta etxebizitzako kalteen eta pobrezia monetario eta gizarte-bazterketa pairatzen dutenen artean. Eraitzen arabera, pobrezia-egoera larri eta gizarte-bazterketa pairatzen dutenen artean, 2,7 eta 2,5 aldiz biderkatzen da etxebizitzaren hezetasuna izateko arriskua. Errepikatu beharra dago, edonola ere, etxebizitzaren gabeziak dituzten %88,4 ez direla pobreak, eta pobreak diren lautik hiru familia ez dutela izaten horrelako arazorik.

Hezetasun eta itoginak ere sarriagoan ematen dira bizikideetatik inork ere lanik ez duenean (%22,6) eta 45 urte edo gutxiago dituztenean etxebizitzako kide nagusia. Bi kasu horietan ere, estatistikoki nabarmentzekoa den erlazioa azaltzen da etxebizitzako hezetasun eta itogin, eta kide nagusiaren adina edo bizikideek lan-merkatuan duten partaidetza-mailaren artean.

Aztertutako gainontzeko kasuetan, ez da horren erlazio argia ematen, eta alde batzuek nabarmendu arren –hezetasun-egoerak sarriagoan gertatzen dira, adibidez, EB kanpoko jatorriko kide nagusia duten etxebizitzetan (%13,4), gurasobakarren etxebizitzetan (%12,1) eta 65 urte ego gehiagoko bizikiderik ez duten etxebizitzetan (%10,2)–, baina ez dira estatistika-mailan nabarmentzekoak.

12. Taula – Etxebizitzaren ezaugarri batzuen arabera, hezetasun-arazoak adierazten dituzten etxebizitzaren proportzioa. Gipuzkoa 2012


		Etxebizitzak		Pertsonak	
		Tasa (%)	N	Tasa (%)	N
Bizikideen kopurua	pertsona 1	7,1	3.800	7,1	3.800
	2 pertsona	11,0	9.018	11,0	17.612
	3 pertsona	8,5	4.788	7,6	12.493
	3 pertsona baino gehiago	9,1	7.036	9,4	30.733
Azalera-erabilgarria	70 m ² baino gutxiago	13,7	9.175	14,3	21.503
	70 eta 89 m ² artean	8,4	8.623	8,9	23.439
	90 m ² edo gehiago	7,0	6.845	6,7	19.695
Eraikuntza-data	1979. urte aurrekoak	11,5	18.174	12,1	47.998
	1979. urte ondorengoak	5,9	6.468	5,3	16.640
Edukutza-erregimena	Jabetza	9,1	20.665	9,1	20.665
	Alokairuan	9,9	3.977	9,2	43.972
Etxebizitza-mota	Banako etxebizitzak	4,9	1.095	4,4	3.120
	Pisu eta apartamentuak	9,6	23.548	9,7	61.517
Berokuntza-sistema egotea	Badu	8,7	20.895	8,6	55.202
	Ez du	13,9	3.747	15,3	9.436
Gas naturalaren instalazioa	Badu	7,2	13.558	7,7	39.154
	Ez du	13,9	11.085	12,9	25.484
Eremua	Ekialdea	10,1	15.744	9,5	38.028
	Mendebaldea	8,0	8.898	8,6	26.609
Guztira		9,2	24.642	9,1	64.638

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Gertakizun batzuek nabarmentzen dira erlazioa aztertzen denean etxebizitzetako hezetasun, itogin eta harremana duten beste kalteak eta etxebizitza eta ekipamenduen ezaugarri batzuekin konparatzean. Etxebizitza tenperatura egoki batean mantentzeko gabeziaren kasuan bezalatsu, erlazio argia agertzen da, batetik, hezetasunak dituzten etxebizitza, eta, bestetik, eraikuntza-dataren eta berokuntza-sistema eta gas naturalaren instalazioaren artean. Berbera da erlazio horren zentzua, izan ere, maizago adierazten dute horrelako egoerak pairatzen dituztela etxebizitza zaharretan bizi eta berokuntza-sistema edo gas naturalik ez duten etxebizitzetan. Aldagai azalgarritzat har daiteke etxebizitzaren azalera-erabilgarriari loturikoa. Jasotako emaitzen arabera, etxebizitza-azalera gutxitzen den heinean, hazi egiten da arazo horren eragina.

Aitzitik, ez da erlaziorik nabarmentzen hezetasun-arazo eta etxebizitzako bizikide-kopuru edo edukitza-erregimenaren artean. Era berean, ez da erlazio argirik agertzen beste aldagaien artean, baina eragina nabarmenagoa izaten da pisu eta apartamentuetan (%9,6 eta %4,9 banakako etxebizitzetan) eta gipuzkoar ekialdeko etxebizitzetan (%10,1 ekialdean eta %8 mendebaldeko eremuan).

9. Grafikoa - Hezetasun-arazoak adierazten dituzten etxebizitzetan bizi diren pertsonen proportzioa EB-28 eremuko herrialdeetan (2011/2012)



Iturria: Eurostat. EU-SILC (2011) eta Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Europar Batasuneko herrialdeen aldean –2011. urtekoak dira eskuragarri dauden datu berrienak–, Gipuzkoan bereziki eragin baxua izaten dute etxebizitzetako hezetasun eta itoginek. Gipuzkoar herritarren %9,1ek bizi du arazo horren eragina (etxebizitzetan %9,2), baina bai Estatu-mailan (%15,6) bai EB-28 eremuan (%15,5), biek ere gainditzen dute %15a. Edonola ere, nabarmentzekoa da erlatiboki hedatua dagoela arazo hori europar-eremuan. Izan ere, hezetasun-arazoak dituzte, EB

osatzen duten hogeita zortitik, zazpi herrialdeetako biztanleetatik bosten batek –Italia, Portugal, Belgika, Eslovenia, Zipre, Letonia eta Hungaria–.

3.3.2.5. *Pobrezia energetikoari loturiko beste aldagai batzuen emaitzak*

Orain artean azterturiko aldagaiez gain, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestak (GPGBI-2012) barneratzen ditu etxebizitzako pertsonen adierazpenetan oinarritutako ikuspegitik beste mota bateko galderak, eta nabarmentzen da gure lurraldeko pobrezia energetikoaren eragina neurtzeko duten erabilgarritasun-maila.

Zehazki, bi dira atal honetan aztertutako gaiak. Batetik, krisialdiaren ondorioz oso gertaeraza da etxebizitzetako gastu energetikoak ekonomia-zailtasunengatik murriztea; eta, bestetik, egokitasun termikoa lortzeko gai nagusitzat har daitekeen egunean zehar berokuntza-sistemaren bidez etxebizitzetan zein tenperatura izaten dutenaren inguruan jasotako adierazpenak.


3.3.2.5.1. *Ekonomia-mailako arazoen ondorio den etxebizitzako gastu energetikoaren gutxitzea*

Berez, modu automatiko batean egiazko pobrezia energetikoarekin erabateko erlaziorik ez izan arren, zalantzarik gabe, oso nabarmena da ekonomia-krisialdiak kontsumo energetikoan duen eragina, eta eragin hori ulertu daiteke pobrezia energetikoa pairatzeko arrisku edo zaurgarritasun handiago baten neurri gisara.

Zehazki, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestan egindako galdera hauxe da: *“Ekonomia-arazoen ondorioz, ondorengo arazo hauetakoren bat izan al duzue joandako hamabi hilabetetan?: (...) Etxebizitzako gastu energetikoak gutxitu beharra (argindarra, ura, gasa, berokuntza-sistema, etab.)”*.

Arazo ekonomikoen ondorioz, 2012ko datuen arabera, gipuzkoar etxebizitzetatik %23,8k beheratu behar izan du argindarra, ura, gas edo berokuntzan egindako gastu energetikoa. Datu horien testuinguruan, gipuzkoar etxebizitzetatik %8,5ak gutxitu du oinarritzko jakien gastua (ia 22.900 pertsona); herritarren bosten batek gutxitu ditu jantzi eta oinetakoak erosten eginiko gastua (54.000 etxebizitza); eta aisialdiko gastuak herenak baino gehiagok (etxebizitzen %36,4).

10. Grafikoa – Arazo ekonomikoaren ondorioz, joandako 12 hilabeteetan gastu batzuek murriztu behar izan dituzten etxebizitzak. Gipuzkoa 2012



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Edonola ere, gardena da etxebizitzako gastu batzuek gutxitzerakoan gipuzkoarrek adierazten duten lehentasunen ordena. Lehentasunen arabera orden hori ere oso argia da faktura energetikoa mugatzeko premian egon diren etxebizitzetan, eta horietatik guztietatik %86,3k adierazten du astialdirako gastuak murriztu izana, eta %59,8 eta %29,2k gutxitu ditu, hurrenez hurren, jantzi eta jakietako gastuak.

Analisiak espezifiki hartzen baditu gastu energetikoak murrizteko premia direnen etxebizitzak, nabarmendu daiteke, batere zalantzarik gabe, adierazle hori parte dela pobrezia-egoera orokor, diru-sarbide baxu eta gizarte-bazterketa gertatzen den testuinguruetan.

Pobrezia larria bizi duten hamar etxebizitzetatik sei kasutan derrigorrez gutxitu behar izan dute gastu energetikoa, soilik pobre ez diren etxebizitzetan %22,3k hartu du gastua murrizteko aztura hori. Logikoki, pobrezia eta diru-sarbide baxuen eragin nabarmenagoaren ondorioz, gehiago eragin die kide nagusi Europar Batasunetik kanpoko pertsona bat duten etxebizitzetara (%58,3), gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonetara (%59,6), bizikide aktibo guztiak langabezian dituztenei (%55,4) eta gurasobakarrei (%47).

Halaber, emakume bat buru duten etxebizitzetan (%29,3) nabarmenagoa egiten da gastuaren aztura-aldaketa hori eta baita ere kide nagusitzat 45 urte edo gutxiagoko pertsona bat duten etxebizitzetan (%27,8). Bestalde, errazagoa izaten da arazo hori topatzea adingabekoren bat dagoen etxebizitzetan (%24,7), 65 urte edo gehiago dituen bizikide bat dutenen aldean (%19,4).

Azkenik, ez da erlaziorik nabarmentzen etxebizitzako gastu-murrizketa eta pertsona ezgaitu edo osasun-arazo larriak dituen pertsonen bat bizi den etxebizitzetan.

13. Taula – Ezaugarri batzuen arabera, joandako urtean etxebizitzako gastu energetikoak murriztu behar izan dituzten etxebizitzaren proportzioa (argindarra, ura, gasa eta berokuntza-sistemaren erreziboak). Gipuzkoa 2012

		Tasa (%)	Banaketa bertikala (%)	N
Kide nagusiaren sexua	Gizona	21,4	63,5	40.472
	Emakumea	29,3	36,5	23.296
Kide nagusiaren adina	<45 urte	27,8	35,2	22.438
	45-64 urte	24,8	39,1	24.915
	65 eta urte gehiago	18,8	25,7	16.415
Kide nagusiaren jaioterria	Euskal Herria	19,4	58,6	37.365
	EBko beste herrialdeak	28,5	26,3	16.776
	EB kanpoko beste herrialdeak	58,3	15,1	9.627
Familia-talde mota	Pertsona bakarra	27,6	23,0	14.673
	Seme-alaba gabeko ezkontide edo bikotea	16,1	15,7	10.006
	Seme-alabadun ezkontide edo bikotea	21,9	38,5	24.559
	Seme-alabadun aita edo ama	47,0	17,2	10.945
	Beste egoera batzuek	21,0	5,6	3.586
Lan-merkatuko partaidetza	Bizikide aktibo guztiak lanean	18,2	39,0	24.880
	Bizikide aktiboren bat lanean	33,0	19,2	12.270
	Bizikide aktibo guztiak langabezian	55,4	18,8	12.019
	Bizikide aktiborik gabe	20,2	22,9	14.599
Ezgaitasun- edo osasun-arazoak	Pertsonaren bat	24,7	5,3	3.353
	Pertsonarik ez	23,7	94,7	60.415
18 urtez azpiko pertsonak	Pertsonaren bat	29,2	35,3	22.535
	Pertsonarik ez	21,6	64,7	41.233
65 urte eta gehiagoko pertsonak	Pertsonaren bat	19,4	29,2	18.634
	Pertsonarik ez	26,2	70,8	45.133
Pobrezia larria (Eurostat)	Pobrezia-egoera larriak egotea	59,5	10,1	6.433
	Pobrezia-egoera larririk ez egotea	22,3	89,9	57.335
Gizarte-bazterketa (FOESSA)	Gizarteratzea	18,3	66,8	42.582
	Bazterketa	59,6	33,2	21.186
Guztira		23,8	100,0	63.768

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Arreta merezi dute etxebizitza eta ekipamenduei erlazioatuko beste aldagaiek. Hurrengo taulan egiaztatu daiteke bereziki altua dela alokairu-erregimena duten etxebizitzetan argindar, gas edo telefonoan eginiko gastu-murrizketa (%50,3).

Horretaz gain, egokia da nabarmentzea aldagai hori eta etxebizitzetako gabezia materialen inguruko adierazle batzuen arteko erlazioa, edo berokuntza-sistema edo gas naturalaren gabezien erlazioa. Horretaz gain, argi nabarmentzen da eragin horren aztura-aldaketaren ondorio hori azalera gutxieneko eta zaharrenak diren etxebizitzetan; eta, gehienez, horrelako ezaugarriak izaten dituzte etxebizitza pobreenek.

14. Taula - Etxebizitzaren ezaugarri batzuen arabera, joandako urtean etxebizitzako gastu energetikoak murriztu behar izan dituzten etxebizitza eta pertsonen proportzioa eta kopurua (argindarra, ura, gasa eta berokuntza-sistemaren erreziboak). Gipuzkoa 2012

		Etxebizitzak		Pertsonak	
		Tasa (%)	N	Tasa (%)	N
Bizikideen kopurua	pertsona 1	27,6	14.673	27,6	14.673
	2 pertsona	22,4	18.340	22,4	35.978
	3 pertsona	22,1	12.368	21,9	36.100
	3 pertsona baino gehiago	23,8	18.388	25,3	82.967
Azalera-erabilgarria	70 m ² baino gutxiago	30,1	20.134	34,7	52.240
	70 eta 89 m ² artean	25,5	26.373	26,3	69.423
	90 m ² edo gehiago	17,6	17.260	16,5	48.055
Eraikuntza-data	1979. urte aurrekoak	28,9	45.737	30,4	120.109
	1979. urte ondorengoak	16,4	18.031	15,9	49.609
Edukitze-erregimena	Jabetza	19,1	43.556	19,1	43.556
	Alokairuan	50,3	20.212	26,3	126.162
Etxebizitza-mota	Banako etxebizitzak	19,3	4.317	16,6	11.840
	Pisu eta apartamentuak	24,2	59.451	24,8	157.878
Berokuntza-sistema egotea	Badu	22,1	53.256	22,3	143.956
	Ez du	38,9	10.512	41,7	25.761
Gas naturalaren instalazioa	Badu	20,9	39.311	20,9	106.355
	Ez du	30,7	24.457	32,0	63.362
Eremua	Ekialdea	24,0	37.577	24,5	97.922
	Mendebaldea	23,4	26.191	23,3	71.796
Guztira		23,8	63.768	24,0	169.718

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Azkenik, erlazio moduko bat antzematen da, baita ere, etxebizitza okupazio-maila eta gastu energetikoa gutxitzeko joera nabarmenago baten artean (hiru edo bizikide gehiago dituzten etxebizitzak salbu). Halere, egoera zehatz hori azaltzean, ezin daiteke aipatu aldagai adierazgarri eta erabilgarri gisara kokagune geografikoa (ekialdea eta mendebaldea).


3.3.2.5.2. Berokuntza-sistema piztuta dagoenean adierazitako tenperatura

Epigrafe honetan aztertzen dira adierazpenetan jasotakoaren arabera, ezaugarri batzuen funtzioan berokuntza-sistemak izaten duen tenperatura. Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestak eta 2008ko Etxebizitza eta Ingurumenaren inguruko Inkestak ere galdera berbera egiten dute, eta modu honetan osatzen da: “Egunean zehar, berokuntza-sistema pizturik duzue, zein tenperaturaren mantentzen duzue etxebizitza zeuek bertan zaudetela?”.

Bistan denez, galdera horren mugetako bat da etxebizitzetan jasotako adierazpenak izaten direla eta ez etxebizitzetan eginiko egiazko tenperatura-neurketak; eta gaur eguneko hiru ikuspegietatik batek aldeztu du pobrezia energetikoa neurtzeko tenperatura ezagutzearen aldeko proposamena. Guztiaz ere, gutxi gorabeherako modu batean pentsatu daiteke galdera horrek baliagarritasun handiko neurri bat azaltzen duela egokitasun termikoa duten etxebizitzak lekutzean.

Gipuzkoako 2012. urteko datuen arabera, azpimarratzen da gipuzkoar etxebizitzetatik %10,1ak ez duela berokuntza-sistematik, eta instalazio hori dutenek, batz bestean, 20°C (19,99°C) izaten dituzte etxebizitzan. Bi heren baino gehiagoren kasuan (%64,5), adierazten dute 19°C eta 21°C arteko tenperatura izaten dutela, eta hori ontzat jo daiteke egokitasun termiko baten ikuspegitik⁶³. Horietaz gain, gipuzkoar etxebizitzaren %13,4ean berokuntza-sistema 19°C azpitik jartzen du, eta %11,5ak adierazten du 21°C baino gehiagoko tenperaturan izaten duela etxean.

21. Grafikoa – Egunean zehar etxebizitzan egoten direnean tenperatura zehatz bat izaten dutela adierazten duten etxebizitzaren proportzioa. Gipuzkoa 2012



Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Ba al dute erlaziorik berokuntza-sistemaren adierazitako tenperaturak eta hautaturiko aldagai sozial, ekonomiko eta demografikoen? Datuen arabera, berriz ere erlazio hertsia omen dago egokitasunaren inguruko adierazle eta pobrezia monetarioa edo gizarte-bazterketaren artean. Hori dela-eta, azpimarratzekoa da berokuntza-sistema duten pobrezia-egoera larria edo gizarte-bazterketa pairatzen duten etxebizitzaren %38ak adierazten du 19°C azpiko tenperatura izaten dutela, eta proportzio hori %23,2koa izaten da gizarte-bazterketa pairatzen dutenen artean. Nahiz eta pixka bat apalagoa izan, antzeko proportzioa jasotzen da kide nagusia EB kanpoan jaiotako pertsona bat denean (%22,8) eta bizikide aktibo guztiak ere langabetu dituzten etxebizitzetan (%26,2). Lau talde horiek bat datoz berokuntza-sistema gabezia dutenekin, eta baieztatu daiteke etxebizitza horietatik proportzio oso handi batek duela pobrezia energetikoa pairatzeko arriskua. Praktikan, ez dute berokuntza-sistematik edo adierazten dute egokitasun termiko baten azpitik

⁶³ Zenbait iritzi daude etxebizitzako tenperatura egokienaren inguruan. Osasunaren Munduko Erakundeak egokitasun-tenperatura gisa ulertzen du 21 °C salan egoteko eta 18 °C beste geletarako. Definizio hori oinarri hartu eta etxebizitzako batz besteko tenperatura galdetzen denez, ikuspegi zabal batetik ulertu da egokia dela 19 °C eta 21 °C bitarteko tenperatura finkatzea. Gainera, tarte horretako batz besteko tenperatura da (20 °C) etxebizitzarako medikuek azaltzen duten neurririk optimoena.

dagoen tenperatura izaten dutela etxean, eta hori gertatzen da pobrezia larria bizi duten etxebizitzetatik %61,7an; gizarte-bazterketa egoeran dauden %48,2; eta %47 inguru kide nagusia atzerritar herritartasuneko edo bizikide guztiak langabezia dituzten etxebizitzetan.

15. Taula – Ezaugarri batzuen arabera, egunean zehar etxebizitzan egoten direnean tenperatura zehatz bat izaten dutela adierazten duten etxebizitzaren proportzioa. Portzentaje horizontalak. Gipuzkoa 2012

		Ez du	19°C azpitik	19-21°C artean	22°C edo gehiago	Ez du erantzuten
		Guztiarekiko	Berokuntza-sistema dutenen baturarekiko			
Kide nagusiaren sexua	Gizona	9,1	14,2	72,2	13,4	0,2
	Emakumea	12,3	18,5	70,6	10,7	0,2
Kide nagusiaren adina	<45 urte	8,8	16,8	71,5	11,6	0,0
	45-64 urte	9,4	13,5	74,1	12,0	0,5
	65 eta urte gehiago	12,0	16,6	69,1	14,4	0,0
Kidenagusiaren jaioterria	Euskal Herria	9,3	13,6	74,0	12,1	0,3
	EBko beste herrialdeak	8,9	16,3	70,4	13,3	0,0
Familia-talde mota	EB kanpoko beste herrialdeak	22,8	37,1	46,2	16,7	0,0
	Pertsona bakarra	15,1	19,8	71,7	8,1	0,4
	Seme-alaba gabeko ezkontide edo bikotea	7,6	16,6	69,5	13,9	0,0
	Seme-alabadun ezkontide edo bikotea	6,6	11,8	76,1	12,0	0,1
	Seme-alabadun aita edo ama	15,8	11,1	68,6	19,7	0,7
Lan-merkatuko partaidetza	Beste egoera batzuek	18,4	30,8	52,3	16,9	0,0
	Bizikide aktibo guztiak lanean	6,8	13,3	73,5	13,0	0,1
	Bizikide aktiboren bat lanean	7,9	17,1	70,0	12,4	0,4
	Bizikide aktibo guztiak langabezia	26,2	28,5	64,8	5,9	0,8
Ezgaitasun- edo osasun-arazoak	Bizikide aktiborik gabe	12,5	15,8	70,7	13,6	0,0
	Pertsonaren bat	13,3	18,7	71,3	10,0	0,0
18 urtez azpiko pertsonak	Pertsonarik ez	9,9	15,3	71,7	12,8	0,2
	Pertsonaren bat	7,6	13,0	76,3	10,6	0,2
65 urte eta gehiagoko pertsonak	Pertsonarik ez	11,1	16,5	69,8	13,5	0,2
	Pertsonaren bat	11,9	16,4	69,1	14,6	0,0
Pobrezia larria (Eurostat)	Pertsonarik ez	9,1	15,0	73,1	11,6	0,3
	Pobrezia-egoera larriak egotea	38,3	38,0	50,4	9,4	2,2
Gizarte-bazterketa (FOESSA)	Pobrezia-egoera larririk ez egotea	8,9	14,8	72,3	12,7	0,1
	Gizarteratzea	8,1	13,3	73,8	12,9	0,0
Guztira	Bazterketa	23,2	32,6	55,4	10,4	1,6
		10,1	15,5	71,7	12,6	0,2

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Jasotako emaitzen arabera, kide nagusiaren adina eta adierazitako tenperatura erlazionatzen dira, eta modu horretan, adinak gora egiten duen heinean, hazi egiten da baita ere, tenperatura optimotzat hartu daitezkeenaren azpitik dauden adierazpenak. Bereziki aipagarria da 65 eta urte

gehiagoko etxebizitzetako kide nagusien kasua. Adin horietako pertsonen artean, etxebizitzan berokuntza-sistemaren 19°C azpiko tenperaturak adierazten dituzten proportzioak (%19) eta 21°C baino gehiago tenperaturak adierazten dituztenak (%14,7), betiere altuagoak dira etxebizitza guztien portzentajeen aldean.

Bestalde, Interes handiko datuak jasotzen dira berokuntza-sisteman adierazietako tenperaturaren eta etxebizitza eta ekipamenduen ezaugarrien arteko erlazioaren azterketatik.

16. Taula – Etxebizitzaren ezaugarri batzuen arabera, egunean zehar etxebizitzan egoten direnean tenperatura zehatz bat izaten dutela adierazten duten etxebizitzaren proportzioa. Portzentaje horizontalak. Gipuzkoa 2012

		Ez du	19°C azpitik	19-21°C artean	22°C edo gehiago	Ez du erantzuten
		Guztiarekiko	Berokuntza-sistema dutenen baturarekiko			
Bizikideen kopurua	pertsona 1	15,1	19,8	71,7	8,1	0,4
	2 pertsona	11,5	15,8	68,8	15,4	0,0
	3 pertsona	6,5	13,4	71,3	14,8	0,5
	3 pertsona baino gehiago	7,7	13,9	75,0	11,1	0,0
Azalera-erabilgarria	70 m ² baino gutxiago	14,8	18,0	67,8	14,1	0,2
	70 eta 89 m ² artean	9,3	14,2	74,6	11,0	0,2
	90 m ² edo gehiago	7,6	13,6	72,1	14,2	0,1
Eraikuntza-data	1979. urte aurrekoak	12,1	19,0	68,4	12,5	0,1
	1979. urte ondorengoak	7,2	9,6	76,6	13,5	0,3
Edukutza-erregimena	Jabetza	8,0	14,2	73,5	12,2	0,1
	Alokairuan	21,6	15,0	71,5	13,4	0,2
Etxebizitza-mota	Banako etxebizitzak	17,6	24,1	71,1	4,9	0,0
	Pisu eta apartamentuak	9,4	13,7	72,2	13,9	0,2
Berokuntza-sistema egotea	Badu	--	14,7	72,1	13,0	0,2
	Ez du	100,0	--	--	--	--
Gas naturalaren instalazioa	Badu	2,3	12,9	74,8	12,1	0,1
	Ez du	28,5	20,8	63,0	15,9	0,3
Eremua	Ekialdea	9,0	17,0	65,3	17,5	0,1
	Mendebaldea	11,5	11,7	81,3	6,9	0,2
Guztira		10,1	14,7	72,1	13,0	0,2

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Nabarmendu daitezkeen emaitza nagusienetakoa da, alokairu-erregimena dutenen kasuak salbu, bat datozela berokuntza-sistemaren gabezia eta azterlan honetan hartutako egokitasun minimotik beherako batz besteko tenperaturak izaten dituztela adierazten duten kasuak. Hori izaten da pertsona bakarrek osatutako etxebizitzako kasua (19°C azpitik mantentzen du etxebizitzan berokuntza-sistema duen %19,8k), banakako etxebizitzetako (%24,1), gas naturalik ez duten kasuak (%20,8), 1979. urte aurretik eraikitako etxebizitzetan (%19) eta 70 m² azpitik dituzten kasuak (18%).

3.4. Kalkulurako bi ikuspegi nagusien arabera tasen konparazio eta doikuntza

Orain artean, pobrezia energetikoaren tasak aztertu dira arazo hori neurtzeko ohiko diren bi ikuspegietatik.

Lehenik, eta etxebizitzako energia-gastuetan oinarritutako ikuspegitik, erabili da diru-sarbideen %10eko gastu energetikoaren atalase bat. Aurretik aipatu bezala, hitzarmen moduan onartutako atalase hori arbitrarioa gerta daiteke; hala eta guztiz ere, erabiltzen jarraitu eta uste da modu egoki batean definitzen duela zer den etxebizitzetarako gehiegizko energia-gastu bat egitea.

Bestetik, etxebizitzakoen artetik jasotako hautemate eta adierazpenen ikuspegiari dagokionez, aztertu diren hiru adierazleak ohikoak izaten dira europar-mailako azterlan konparatiboetan. Datu horiek lortu dituzte Europar Batasunaren Errenta eta Bizi-baldintzen Estatistiketatik (EU-SILC), eta aipamen hartzen dituzten pobrezia energetikoaren ondorengo hiru adierazpen zehatz hauek: hilabete hotzetan etxebizitza tenperatura egoki mantendu ezin dutela adierazten dutenak; joandako urtean ura, gasa edo argindarra ordaintzean atzerapenak izan dituztela adierazten duten etxebizitzak; eta, azkenik, hezetasun- edo usteldura-arazoak dituzten etxebizitzak. Ikuspegi honi egotzen zaion ohiko eragozpen nagusienetakoa da erantzunek duten izaera subjektiboa.

Gipuzkoako kasuko bi ikuspegiaren emaitzek ere pobrezia energetikoaren antzeko tasak jasotzen dituzte. Batetik, emaitzen arabera, gure lurraldeko etxebizitzaren %9,5ean (biztanleriaren %7) diru-sarbideen %10 baino gehiago bideratzen dute etxebizitzako energia ordaintzeko. Bestetik, datuen arabera, etxebizitzetatik %7,4k (biztanleriaren %6,1) ezin du hilabete hotzetan tenperatura egoki batean mantendu etxea; atzerapenak izan dute etxebizitzaren %4,1an energia-erreziboak ordaintzean (biztanleriaren %4,5); eta etxebizitzetatik %9,2k (biztanleriaren %9,1) ditu hezetasun- edo itogin-arazoak. Hiru adierazle horietatik bi lehenak hartuz gero, hau da, pobrezia energetikoarekin harreman zuzenagoa duten bi adierazle horiek hartuz gero, Gipuzkoako etxebizitzetatik %9,5ak adierazten du ezin duela modu egoki batean etxebizitza berotu edo atzerapenak izan duela etxebizitzako kontsumo energetikoari loturiko fakturak ordaintzean.

Begiratu batean, ulertu daiteke bi ikuspegiak antzeko tasak azaleratzen dituzten heinean, bien arteko doikuntza erlatiboki garrantzitsua izan zitekeela, baina datuen arabera, diru-sarbideen %10 baino gehiago energia-aurrekontuan gastatzen dutenen etxebizitzaren artetik, soilik %25,6k ezin du etxebizitza bero mantendu edo atzerapenak izan ditu argindar- eta gas-fakturak ordaintzean.

Aldi berean, oso antzeko proportzio batean (%25,8), etxea bero mantendu edo faktura energetikoak ordaintzean atzerapenak izan dituzten etxebizitzaren kasuan, diru-sarbideen %10 baino gehiago bideratzen dute argindarra edo gasa ordaintzeko aurrekonturako.

**17. Taula – Etxebizitzetako pobrezia energetikoa neurtzeko bi ikuspegien arteko doikuntza*.
Gipuzkoa 2012**

	Aurrekontuaren %10 baino gehiago bideratzen dute energia-gastuan	Ezin dute etxebizitza bero mantendu edota energia-faktoretan atzerapenak izan dituzte	Etxebizitzak guztira
Aurrekontuaren %10 baino gehiago bideratzen dute energia-gastuan	100,0	25,8	9,5
Ezin dute etxebizitza bero mantendu edota energia-faktoretan atzerapenak izan dituzte	25,6	100,0	9,5

*Goitik behera irakurri behar da taula. Bertan dauden balioek jasotzen dute zutabearen goiburuan adierazten den taldearen adierazleen prebalentzia.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Aurreko horrek ez du esan nahi aldagai bien arteko erlaziorik ez dagoenik. Aitzitik, estatistikoki nabarmena da bi aldagaien arteko erlazioa (khi karratua= 34,922; g.l.= 1; p>0,01). Hirutan bidertzen da Gipuzkoako etxebizitzetako pobrezia energetikoaren gehiegizko gastua egiten dutenen portzentajea ikuspegi subjektiboan oinarrituz gero; eta gauza berbera aipatu daiteke alderantziz.

Halere, hein handi batean ulertu daiteke pobrezia energetikoaren alderdi desberdinak neurtzen dituela ikuspegi bakoitzak. Batetik, eskuragarri diren diru-sarbideen arabera gehiegizko energia-gastua, eta, bestetik, zenbait premia edo betebeharrei aurre egiteko adierazten dituzten finantza-zailtasunak.

Hautemate horien arabera egokitu daiteke esplorazio-adierazle bat pobrezia energetikoa neurtu eta bi ikuspegi horiek integratzeko, eta adierazle horrek kontuan har dezake gutxienez, aipaturiko hiru kontingentzietako bat.

18. Taula – Pobrezia energetikoaren adierazle batzuen konbinazioaren emaitzak. Gipuzkoa 2012.

	Etxebizitzak		Pertsonak	
	Tasa (%)	N	Tasa (%)	N
[a] Gastu energetikoa>10% guztirako diru-sarbideak	9,5	25.599	7,0	49.177
[b] Tenperatura egoki mantentzeko ezintasuna	7,4	19.819	6,1	43.489
[c] Energia-erreziboak ordaintzean atzerapenak	4,1	10.899	4,5	31.909
Adierazle bakarraren presentzia	12,5	33.651	9,9	69.939
Bi adierazleren presentzia	3,6	9.785	3,4	23.780
Hiru adierazleen presentzia	0,4	1.032	0,3	2.359
Soilik gehiegizko gastua [a]	7,1	19.052	5,2	36.459
Soilik hautemate subjektiboa [b] edo [c]	7,0	18.869	6,6	46.901
Ikuspegi presentzia [a] eta [b]/[c]	2,4	6.547	1,8	12.718
Gutxienez adierazle baten presentzia[a] edo [b] edo [c]	16,6	44.468	13,6	96.078
3 adierazleatariko bat ez izatea	83,4	223.767	86,4	611.198

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Aurreko taularen emaitzak kontuan hartuz gero, nabarmendu daiteke 2012an 44.500 etxebizitzetan (guztietatik %16,6) eta 96.000 pertsonak adierazten dutela pobrezia energetikoaren inguruan garrantzitsuen diren hiru arazo hauetatik gutxienaz bat pairatzen dutela: diru-sarbideen %10 baino gehiago bideratzen dute energia-gasturako; ezin dute hilabete hotzetan etxebizitza tenperatura egoki batean mantendu; edo atzerapenen bat izan dute zailtasun ekonomikoen ondorioz fakturak ordaintzean.

3.5. Pobrezia energetikoa gehien eragiten dieten etxebizitzaren ezaugarriak

Zein ezaugarri sozial, demografiko eta ekonomiko dituzte pobrezia energetikoak gehien eragindakoen etxebizitzek? Azkeneko epigrafe honetan kontuan hartzen bada gorago definituriko esplorazio-adierazle hori pobrezia energetikoa neurtzeko, ondorengo hauek dira etxebizitzetan bizi direnen ezaugarri sozial eta demografiko nagusien analisiaren emaitzak:

- Sexua. Kide nagusi⁶⁴ emakume bat duten etxebizitzetako pobrezia energetikoa (%29,5) askoz ere altuagoak dira kide nagusia gizonetzko bat dutenen aldean (%11,1). Praktikan, pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzaren artetik, emakume bat izaten du kide nagusi %52,7k, baina %29,6 da Gipuzkoako emakumeen pisu espezifikoak. Halere, pobrezia energetikoaren eraginaren baturan, ez da nabarmentzen gizonetzko (%12,2) eta emakumezkoen (%14,9) arteko estatistika-desberdintasun handirik. Horrela gertatzen da etxebizitza hartzen delako analisiaren unitate gisara. Hori dela-eta, emaitzen arabera antzeko banaketa bat gertatzen gizon eta emakumeen artean, ez dute bata eta bestearen artean emaitzen alde nabarmenik erakusten.
- Adina. Besteek baino pobrezia energetiko arrisku handiagoa izaten dute 65 edo urte gehiagoko kide nagusiak dituzten etxebizitzetan. Horietan, %21,7koa da arazo horren eragina; 45 urte edo gutxiago dituzten kide nagusietako etxebizitzetan %14,5; eta 45 eta 64 urteen arteko kide nagusiko etxebizitzetan %13,8. Pobrezia energetikoa pairatzen duten hamarretik lau kasuetan baino gehiagoan 64 urtetik gorako pertsona bat dute buru. Orokorrean, ez dira estatistikoki nabarmentzeko aldeak aurkitzen pobrezia energetikoa pairatzen duten adingabeko diren pertsonetan (%15), 18 eta 64 urte artekoetan (%12,3) eta 64 urte baino gehiago dituztenen artean (%16,4). Halere, azpimarratzekoa da arazo horren maiztasun handiagoa bat pertsona adinduren bat bizikide duten etxebizitzetan (%20,2). Atal honetan eskainitako datuen analisiak azaltzen dute, gehienbat, gehiegizko energia-gastua egiten dutela pertsona adinduek izaten dituzten diru-sarbideekin konparatuz gero. Aitzitik, beste gipuzkoar etxebizitzetan baino eragin baxuagoa dute faktura-ordainketen atzerapen eta bero mantentzearen inguruko gabeziak etxebizitza horietan.
- Jaioterria. Pobrezia energetikoa pairatzen dute kide nagusia EB kanpoan jaio den hamarretik ia lau kasuetan. Nahiz eta etxebizitza horien pisu demografikoa %61ekoa izan arren, pobrezia

⁶⁴ Etxebizitza-buru edo kide nagusia den pertsonaren definizioa jasotzen du Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestak, eta horren arabera, ikuspegi ekonomiko edo etxebizitzaren izateagatik bizikideek nagusitzat hartzen duten pertsona da kide nagusia.

energetikoa pairatzen du etxebizitza horietatik %14,6k. Alde horiek ere nabarmentzen dira etxebizitzaren ordez, pertsonen ezaugarriak kontuan hartzen direnean. Bertako pertsonen aldean (%12,8), EB kanpoko jaioterrria duten lautik batek pairatzen du pobrezia energetikoa. 65 urte eta gehiagoko kide nagusiak dituzten etxebizitzetan ez bezala, askoz ere garrantzitsuagoak dira pobrezia energetikoaren adierazle konposatuarentzako aldagai subjektibo horiek energia-gastua eta etxebizitza aintzat hartzen duen aldagai objektiboaren aldean.

- Familia-mota. Etxebizitzetako familien osakerari kontu hartzean, nabarmentzen da eragin gehien duten etxebizitzak bat datozela pertsona bakarreko (%29,3) eta, bereziki, gurasobakarreko etxebizitzekin (%39,6). Demografikoki, soilik biztanleriaren %15,7 osatzen duten etxebizitza horietan bizi dira `pobrezia energetikoak eragindakoen %39,6. Familia horietan ematen den eragin handiago hori azaltzeko, nabarmena da familia gurasobakarrek duten pobrezia-egoera larriaren tasa eta beste etxebizitzaren aldean pertsona bakarrek osaturiko etxebizitzek egin beharreko esfortzu energetiko handiagoa.
- Lan-merkatuko partaidetza. Etxebizitza bateko pertsona aktiboen lan-merkatuko partaidetza eta pobrezia energetikoaren arteko erlazio argia ematen da. Bizikide guztiek ere landun dituzten etxebizitzetatik, soilik %7,1ak pairatzen du pobrezia energetikoa, baina bizikide aktibo guztiek lanik ez dutenean, 6,5 biderretan hazten da arazo horren eragina (%46,5). Biztanleriaren ezaugarrien arabera, langabezian daudenek pairatzen dute maiz arazo hori (%31,1). Gutxi gorabehera, Gipuzkoan pobrezia energetikoa pairatzen duen hamar pertsonatik bi dira langabetu.
- Pobrezia monetarioa. Aztertutako modu guztietatik, pobrezia-egoera larriek izaten dute erlazio gehien pobrezia energetikoa gertatzen den kasuetan (kontuan hartuz diru-sarbide baliokidearen medianaren %40ko atalasea). Datuen arabera, pobrezia-egoera larriak pairatzen dituzten hamar etxebizitzetatik zortzik pairatzen dute pobrezia energetikoa. Gipuzkoar biztanlerian gutxi batzuek pairatzen dute pobrezia-egoera larriaren bat (%4,3), halere, pobrezia energetikoaren eragina nabarmentzean %26,2ko pisu espezifiko du talde horrek.
- Gizarte Bazterketa. Pobrezia energetikoaren eragin modu berezi batean nabarmentzen da gizarte-bazterketa egoerak pairatzen dituzten etxebizitzak. Kasu horietan, ia lau biderretan hazten da pobrezia energetikoaren eragina (%46,3) gizarteratutako egoera batean dauden etxebizitzaren aldean (%12). Pertsona pobreen modu berean, pobrezia energetikoa eta gizarte-bazterketa pairatzen duten etxebizitzaren erlazioko datuek gehiegizko maila batean azaltzen direla azaltzen dute, izan ere, berauen biztanle guztiekiko portzentajea %12,4koa da, baina arazo hori bizi dute gizarte-bazterketa pairatzen duen %42k.

19. Taula – Pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzaren proportzioa. Gipuzkoa 2012

		Tasa (%)	Banaketa bertikala (%)		N
			Pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzak	Etxebizitzak guztira	
Kide nagusiaren sexua	Gizona	11,1	47,3	70,4	21.011
	Emakumea	29,5	52,7	29,6	23.457
Kide nagusiaren adina	<45 urte	14,5	26,4	30,1	11.740
	45-64 urte	13,8	31,2	37,4	13.869
	65 eta urte gehiago	21,7	42,4	32,5	18.859
Kide nagusiaren jaioterria	Euskal Herria	12,8	55,3	71,9	24.597
	EBko beste herrialdeak	22,7	30,0	22,0	13.357
	EB kanpoko beste herrialdeak	39,5	14,6	6,1	6.514
Familia-talde mota	Pertsona bakarra	29,3	35,1	19,9	15.590
	Seme-alaba gabeko ezkontide edo bikotea	11,5	16,1	23,2	7.142
	Seme-alabadun ezkontide edo bikotea	9,5	24,0	41,9	10.662
	Seme-alabadun aita edo ama	39,6	20,7	8,7	9.213
	Beste egoera batzuek	10,9	4,2	6,4	1.860
Lan-merkatuko partaidetza	Bizikide aktibo guztiak lanean	7,1	22,0	51,1	9.765
	Bizikide aktiboren bat lanean	19,3	16,1	13,9	7.171
	Bizikide aktibo guztiak langabezian	46,5	22,7	8,1	10.084
	Bizikide aktiborik gabe	24,1	39,2	26,9	17.448
Ezgaitasun- edo osasun-arazoak	Pertsonaren bat	21,1	6,5	5,1	2.870
	Pertsonarik ez	16,3	93,5	94,9	41.597
18 urtez azpiko pertsonak	Pertsonaren bat	14,7	25,6	28,8	11.382
	Pertsonarik ez	17,3	74,4	71,2	33.086
65 urte eta gehiagoko pertsonak	Pertsonaren bat	20,2	43,7	35,9	19.420
	Pertsonarik ez	14,6	56,3	64,1	25.048
Pobrezia larria (Eurostat)	Pobrezia-egoera larriak egotea	80,1	19,5	4,0	8.661
	Pobrezia-egoera larririk ez egotea	13,9	80,5	96,0	35.807
Gizarte-bazterketa (FOESSA)	Gizarteratzea	12,0	63,0	86,8	28.010
	Bazterketa	46,3	37,0	13,2	16.458
Guztira		16,6	100,0	100,0	44.468

*Pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzak kontuan hartzeko, ondorengo arazo hauetako bat bizi dute: a) diru-sarbideen %10 baino energia-gastu handiagoa egitea, b) hilabete hotzetan etxebizitzako tenperatura egoki bat mantentzeko ezintasuna, edo c) zailtasun ekonomikoen ondorioz, energia-fakturak ordaintzean izandako atzerapenak.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

20. Taula – Etxebizitza eta pertsonen ezaugarri batzuen arabera pobrezia energetikoan dauden pertsonen proportzioa. Gipuzkoa 2012

		Tasa (%)	Banaketa bertikala (%)		N
			Pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzak	Etxebizitzak guztira	
Sexua	Gizona	12,2	43,7	48,7	41.988
	Emakumea	14,9	56,3	51,3	54.090
Adina	<18 urte	15,0	19,5	17,6	18.712
	18-64 urte	12,3	56,1	62,2	53.899
	65 eta urte gehiago	16,4	24,4	20,2	23.468
Jaioterria	Euskal Herria	10,7	61,2	77,9	58.802
	EBko beste herrialdeak	18,2	21,0	15,7	20.163
	EB kanpoko beste herrialdeak	37,7	17,8	6,4	17.113
Familia-talde mota	Pertsona bakarra	29,3	16,2	7,5	15.590
	Seme-alaba gabeko ezkontide edo bikotea	10,9	15,0	18,8	14.446
	Seme-alabadun ezkontide edo bikotea	9,6	42,2	60,0	40.545
	Seme-alabadun aita edo ama	38,7	23,4	8,2	22.458
	Beste egoera batzuek	7,8	3,2	5,5	3.039
Jarduera	Landuna	7,4	22,8	41,7	21.914
	Langabetua	31,1	19,5	8,5	18.756
	Ez aktiboa (<16 urte barne)	15,7	57,7	49,7	55.407
Pobrezia larria (Eurostat)	Pobrezia-egoera larriak egotea	82,4	26,2	4,3	25.203
	Pobrezia-egoera larririk ez egotea	10,5	73,8	95,7	70.875
Gizarte-bazterketa (FOESSA)	Gizarteratzea	9,0	58,0	87,6	55.737
	Bazterketa	45,9	42,0	12,4	40.340
Guztira		13,6	100,0	100,0	96.078

*Pobrezia energetikoa pairatzen duten pertsonak kontuan hartzeko, etxebizitzan ondorengo arazo hauetako bat bizi dute: a) diru-sarbideten %10 baino energia-gastu handiagoa egitea, b) hilabete hotzetan etxebizitzako tenperatura egoki bat mantentzeko ezintasuna, edo c) zailtasun ekonomikoen ondorioz, energia-fakturak ordaintzean izandako atzerapenak.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

Bestetik, etxebizitza eta ekipamenduen ezaugarri dagokionez, nabarmendu daiteke etxebizitza batzuetan pobrezia energetikoaren eragin altuagoa azaltzeko aldagai batzuen garrantzia.

- Etxebizitzako okupazio-maila. Gipuzkoako datuen arabera, pobrezia energetikoa hazi egiten da etxebizitzan bizi diren pertsonen kopurua beheratzen den heinean. Pertsona bakarreko etxebizitzetan pobrezia energetikoaren eragina %29,3koa da, bi pertsonen osaturiko etxebizitzetan baino portzentajearen hamaika puntu gehiago (%17,9).
- Azalera-erabilgarria eta etxebizitza-mota. Etxebizitza txikietan pobrezia energetikoaren eragin jasoagoa gertatzen da. Gainera, antzematen da etxebizitzaren azalera handitu heinean, behera egiten dela pobrezia energetikoaren eragina. Ulertu daiteke egoera hori gertatzeko beste faktore batzuek ere eraginik izaten dutela, adibidez, etxebizitza txikietan diru-sarbidetza baxuak dituzten pertsonen maiztasun handiagoa. Orokorrean, ez dira oso alde nabarmenak izaten, baina pisu edo apartamenduetan bizi direnen artean altuagoa izaten da pobrezia energetikoa (%16,9), banakako etxebizitzaren aldean (%12,8).

- Antzintasuna. %68ko portzentajeaz hazten da 1979. urtearen aurretik eraikitako etxebizitzaren pobrezia energetikoaren eraginaren prebalentzia edo maiztasun-tasa (%19,9), urte hartatik aurrerantzean eraikitako etxebizitzaren tasaren aldean (%11,8)
- Edukitza-erregimena. Ia hirutan hazten da maizterrek pobrezia energetikoa pairatzeko arriskua etxebizitza propioan bizi direnen aldean. Gipuzkoako etxebizitza guztietatik %15 daude alokairu-erregimen batean, eta pobrezia energetikoa pairatzen duten hamarretik ia hiru modu horretan bizi diren familiak izaten dira.
- Berokuntza-sistema eta gas naturalaren instalazioak edukitzea. Gas naturala eta gehienbat berokuntza-sistematik ez duten etxebizitzetan antzematen da pobrezia batz bestekoa baino askoz ere pobrezia energetikoaren eragin nabarmenagoa (hurrenez hurren, %22,7 eta %35,4).
- Eremua. Pobrezia energetikoaren eragin nabarmenagoa antzematen da gipuzkoar mendebaldeko etxebizitzetan (%19) ekialdeko eremuko etxebizitzaren aldean (%16,6).

21. Taula - Etxebizitzaren ezaugarri batzuen arabera, pobrezia energetikoan dauden etxebizitzaren proportzioa. Gipuzkoa 2012

		Tasa (%)	Banaketa bertikala (%)		N
			Pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzak	Etxebizitzak guztira	
Bizikideen kopurua	pertsona 1	29,3	35,1	19,9	15.590
	2 pertsona	17,9	33,0	30,5	14.677
	3 pertsona	14,6	18,3	20,9	8.150
	3 pertsona baino gehiago	7,8	13,6	28,7	6.051
Azalera-erabilgarria	70 m ² baino gutxiago	20,8	31,2	24,9	13.879
	70 eta 89 m ² artean	18,1	42,1	38,5	18.708
	90 m ² edo gehiago	12,1	26,7	36,6	11.882
Eraikuntza-data	1979. urte aurrekoak	19,9	70,9	58,9	31.524
	1979. urte ondorengoak	11,8	29,1	41,1	12.944
Edukitza-erregimena	Jabetza	13,2	67,9	85,0	30.184
	Alokairuan	35,6	32,1	15,0	14.284
Etxebizitza-mota	Banako etxebizitzak	12,8	6,4	8,4	2.860
	Pisu eta apartamentuak	16,9	93,6	91,6	41.608
Berokuntza-sistema egotea	Badu	14,5	78,5	89,9	34.898
	Ez du	35,4	21,5	10,1	9.570
Gas naturalaren instalazioa	Badu	14,0	59,3	70,3	26.391
	Ez du	22,7	40,7	29,7	18.077
Eremua	Ekialdea	19,0	66,8	58,3	29.685
	Mendebaldea	13,2	33,2	41,7	14.783
Guztira		16,6	100,0	100,0	44.468

*Pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzak kontuan hartzeko, ondorengo arazo hauetako bat bizi dute: a) diru-sarbideen %10 baino energia-gastu handiagoa egitea, b) hilabete hotzetan etxebizitzako tenperatura egoki bat mantentzeko ezintasuna, edo c) zailtasun ekonomikoaren ondorioz, energia-fakturak ordaintzean izandako atzerapenak.

Iturria: Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkesta 2012.

4. NAZIOARTEKO PANORAMA: POBREZIA ENERGETIKOA GUTXIZARAZTEKO ERAGINA DUTEN POLITIKA ETA NEURRIAK

4.1. Sarrera

Atal honetan eskaintzen da, eskuragarri dagoen bibliografia eta dokumentazioaren bidez, pobrezia energetikoa gutxitzeko eragina duten eta aplikatzen ari diren politika eta neurriak. Bi zati hartzen ditu egitura gisara atal honek. Lehenengoan, berrikusten da fenomeno honen helmena hemezortzi herrialdeetan, eta pobrezia leku bakoitzean dituen ezaugarriak, eta baita ere arazoa ekidin edota gutxiarazteko herrialde bakoitzean ezarritako politika eta neurriak.

Pobrezia energetikoari aurre egiteko politiken deskribapena burutzeko, gizarte-politikan espezializatutako SIIS - Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko datu-base dokumentalaren berrikusketa bat hartu da oinarri, betiere xede delarik gaiaren inguruko interes gehien duen dokumentazioa biltzea.

Bilaketa hori osatu da aztertutako herrialde bakoitzeko pobrezia energetikoa berrikusiz bai administrazio publikoak bai erakunde pribatuek eskaintako informazioaren bidez. Aipaturiko eragileei eskaintako informazio hori nahikoa gertatu ez den kasuetan, laguntzen ardura duten erakundeengana jo da zuzenean, betiere lorrarazteko neurri bakoitzaren ahal bezain besteko deskribapenik zehatzena eskuratzea.

Pobrezia energetikoaren inguruan produzitu diren dokumentu ofizial eta zientzia-literaturan zentratu da buruturiko bilaketa. Dokumentu ofizialetan azaltzen den informazioaren analisiak ahalbidetu du neurrien inguruan eskuragarri dauden klasifikazio eta deskribapen osoak biltzea. Bestetik, azterturiko ikerketa eta azterlanek ahalbidetu dute arazoaren ebaluazioa eta aplikaturiko politikak ezagutzera (fenomenoaren definizioa, neurketarako adierazleak, estatistika-datuak, eraginaren ebaluazioa).

4.2. Herrialdeko eginiko analisi laburra

Nazioarteko analisiaren lehenengo zatia lantzeko, pobrezia energetikoaren aurkako politika garatuenak dituzten herrialdeak identifikatu. Europar Batasunaren eremuan, hautatu dira Erresuma Batua, Irlanda, Frantzia, Belgika, Herbehereak eta Alemania. Pobrezia energetikoaren tasarik baxuena izateagatik nabarmentzen dira, eta epigrafe bateratuan aztertzen dira dituzten ezaugarri komunak ondorioz. Logikoa gertatzen denez, baita ere zehazten da Espainiako kasua, azpimarratuz EAE eta Kataluniako autonomia erkidegoak. Europako panorama osatzeko, aztertzen dira profil singularra duten bi zona geopolitiko edo klimatikoak: Hegoaldeko herrialdeak, eta partikulariki, Italia; eta Ekialdeko herrialdeetako kasuetan, eredutzat jarri nahi izan da Hungariako kasua. Horretaz gain, panoramika hau haztarazteko xedez, bertaratu egin da pobrezia energetikoa gutxitzeko eragina izandako ikuspegitik nabarmentzeko politika eta neurriak hartu dituzten herrialde hauek: Ameriketako Estatu Batuak, Kanada, Australia eta Zeelanda Berria.

4.2.1. Europar Batasuneko herrialdeak

Europar Batasunaren eremuan argitaratzen ari diren azterlanek –oraindik urriak dira, baina hasi berri⁶⁵– nabarmentzen dute biztanleriaren zati garrantzitsu bat ez dela gai arazoizko kostu bat ordainduz etxebizitza tenperatura egoki batean mantentzeko, eta Ekialdeko eta Hegoaldeko herrialdeak dira –hurrenez hurren– fenomeno horren eragina gehien pairatzen dutenak. Arlo honetara aplikatzeko zenbait zuzentarau orokor diktatu dituzte, baina Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak nabarmendu duenez, “Herrialde-kide gutxik aplikatu dituzte aurrez harturiko derrigorrezko neurriak”⁶⁶.

Oraintsu eginiko analisi batzuek⁶⁷ nabarmentzen dute eragile instituzional gisara, gehienbat, Europar Batasunak modu tangenzial batean jarri diola arreta pobrezia energetikoari. Horrela, argindar-merkatua erregulatzen duen 2009/72/EK eta gas-merkatua erregulatzen duen 2009/73/EK

⁶⁵ Posiblemente el más completo sea el proyecto European Fuel Poverty and Energy Efficiency (EPEE), financiado por la Unión Europea, que compara la situación de cinco países: Bélgica, España, Francia, Italia e Inglaterra.

⁶⁶ COMITÉ ECONÓMICO Y SOCIAL EUROPEO (2013) *Documento de trabajo de la Sección Especializada de Transportes, Energía, Infraestructuras y Sociedad de la Información sobre ‘Por una acción europea coordinada para prevenir y combatir la pobreza energética’*. (Dictamen de iniciativa). Bruselas: Comité Económico y Social Europeo, TEN/516 - CES2517-2013.

⁶⁷ THOMSON, H. y C. SNELL (2013) “Quantifying the prevalence of fuel poverty across the European Union”. *Energy Policy*, nº 52, pág. 570.

europar irizpenek pobrezia energetikoa hazten ari den arazotzat jotzen dute, eta eskatzen diete Estatu-kideei arazoari aurre egiteko neurriak egokitzeko, adibidez, nazio-mailako ekimen-plangintzak edo ‘bezero zaurgarriaren’ figura ezarri, eta azken honen babesa bermatzeko, debekatu egiten da energia-zerbitzurik moztea garairik kritikoenetan. Bestalde, 2012/27/EB (aurreko lau xedapenak aldatu edo indargabetzen dituen) irizpenak kontu hartzen dio pobrezia energetikoari eraikuntzen efizientzia energetikoaren ikuspegitik. Aitzitik, ekimenerako gidalerro horrek eragin murrizta izango du ziur aski pobrezia energetikoaren gaian, izan ere, neurriak betiere eraikuntza berri eta administratiboetarako izaten baitira; eta bertakoen bizileku diren etxebizitzien berrikuntza aipatzean, proposatzen du zehaztasun gutxiko eta epe luzeko estrategia bat.

Aldiz, eta Thomson eta Snell⁶⁸ adituen esanean, Europar Batasunak ez dio ia konturik hartu modu zuzen batean pobrezia energetikoari. Eztabaidatu izan da gai⁶⁹ horrek eta gizarte-bazterketak duten erlazioa, baina benetako orduan ez da eman fenomeno horren definizio komun bat, ez eta ‘bezero zaurgarriaren’ definizio bat ere; gainera, ez da jardunerako urrats⁷⁰ zehatzik eskaini. Beraz, ia ez dira agertzen hasi Bruselak arazoari aurre egiteko asmoz hartutako ikuspegi integratuaren alderdi sozialenak.

Testuinguru horren baitan, heterogeneoa izan da gobernuen erantzuna, eta salbuespenezko kasu batzuek ezik –zehazki, Erresuma Batua–, oso mugatua. Hurrengo ataletan aztertuko dira horren inguruko xehetasunak, izan ere, oraindik gutxi baitira pobrezia energetikoa edo ‘bezero zaurgarriaren’ definizio ofizialik hartutako herrialdeak. Ezarritako neurrien betetze ezak –bereziki, pobretu eta gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonetan– behartu zuen Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialak 2011ean europar instituzioei subsidiarotasun-printzipioaren aplikazioan jarduteko⁷¹. Gainera, aurten kaleraturiko dokumentu batean, zenbait neurri zehatz proposatzen zituen⁷² Batzordeak, eta honako hauek zehazki:

- Segurtasun eta Elkartasun Energetikoarentzako Europako Hitzarmen bat, eta oinarri hartuko du “Europar Batasunaren politika energetiko komunaren xedeen artean izango den energia izateko eskubide unibertsal bat aitortzea”.
- Pobrezia energetikoaren definizio komun baten onartzea eta gai honen inguruan harmonizaturiko europar estatistikak osatzea.
- Europako Pobrezia Energetikoaren Behatokia sustatzea.
- Europar-mailako gizarte-tarifak ezartzea.
- Zeharkako politika-esparru batean ezartzea eraginkortasun energetikoaren garapena.

⁶⁸ THOMSON, H. y C. SNELL, *op. cit.*, págs. 563-572.

⁶⁹ COMISIÓN EUROPEA (2010) *Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones. La Plataforma Europea contra la Pobreza y la Exclusión Social: un marco europeo para la cohesión social y territorial*. Bruselas: Comité Económico y Social Europeo, COM(2010) 758 final

⁷⁰ BOUZAROWSKI, S. et al., 2002, pág. 3, cit. en THOMSON, H. y C. SNELL, 2013, 564.

⁷¹ COMITÉ ECONÓMICO Y SOCIAL EUROPEO (2011) “*Dictamen del Comité Económico y Social Europeo sobre el tema ‘La pobreza energética en el contexto de la liberalización y de la crisis económica’*”. Bruselas: Diario Oficial de la Unión Europea, 2011/C 44/09.

⁷² COMITÉ ECONÓMICO Y SOCIAL EUROPEO, 2013, *op. cit.*, 1-7.

4.2.1.1. Erresuma Batua

Erresuma Batua izan da pobrezia energetikoaren gaian erreferentziako herrialdea zenbait arrazoiengatik: hirurogeita hamarreko hamarkadan aurrena izateagatik arazo hori nabarmenarazten, aurrena izateagatik pobrezia energetikoaren aurkako estrategia zehatza diseinatzen eta arazo honi aurre egiteko ezarri izan duen politika-aniztasunagatik. Halaber, gaur egun herrialde gutxien artekoa da definizio ofizial bat eta aldian behingo fenomenoaren neurketa- eta jarraipen-sistemak biztanleriari luzatutako inkesta bidez lantzen.

Pobrezia energetikoaren (*fuel poverty*) definizioari dagokionez, orain gutxi arte, modu orokor batean ulertzen zen maila termiko egoki bat lortzeko etxebizitza batean diru-sarbideen %10 baino gehiagoko gastua egitea zela. Gaur egun, Gobernu britainiarra berrikusten ari da definizio hori, horretarako oinarri hartzen dutelarik John Hills⁷³ ikerlariak eginiko proposamena. Hills-ek ulertzen duenez, funtsean arbitrarioa da pobrezia-adierazle gisara hartzea atalase hori, eta baldintza batzuekiko gehiegiko sentiberatasuna du, adibidez, tarifa energetikoen aldaketekiko. Halaber, nabarmendu da irizpide hori betetzen zuten etxebizitzetan ez zela pobrezia energetikorik ematen, diru-sarbide jasoak zituztelako. Muga horiek eta beste batzuen ondorioz, Hills-ek proposatu du pobrezia energetikoaren neurketa berri bat, eta horren arabera, pobrezia energetikoa biziko lukete etxebizitza bateko pertsonen diru-sarbideak pobrezia-atalasearen azpikoak direnean –kontuan hartuz gastu energetikoak– eta duten kostu energetikoa ezaugarri bereko etxebizitza-tipo batena baino gehiago den kasuetan⁷⁴.

Erresuma Batuan arazoaren kuantifikazioari dagokionez, datuen esanean pobrezia energetikoak beherakada izan zuen 1996 eta 2004 urteen artean, eta 5,1 milioi etxebizitza izatetik 1,2 milioi etxebizitza izatera pasa omen da. Aitzitik, 2007. urtetik larritu egin omen da, izan ere, iturri batzuek pobrezia energetikoari loturiko arazoak hazi zirela nabarmendu zuten. *Pobrezia energetikoaren urteko txostenak*⁷⁵ azaltzen zuen 2010ean pobrezia energetikoa pairatzen zutela 4,75 milioi etxebizitzetan, gutxi gora behera biztanleen %19. 2011. urteko apirilean YouGov-ek eginiko inkesta batek iradokitzen zuen 6,3 milioi kasu izatera iritsi zela pobrezia energetikoa pairatzen zuten etxebizitza-kopurua, eta hori, gutxi gorabehera, Erresuma Batuko etxebizitzen %24ko portzentajea da.

Aipatu den moduan, hirurogeita hamarreko hamarkadan jakitera eman zen pobrezia energetikoaren arazoa, baina ez zuen arautegian eraginik izan 2000. urtean pobrezia energetikoa gutxiarazteko politika bat ezartzeko exijitzen zuen *Warm Homes and Energy Conservation Act* onartu arte. Agindu horren ondorioz, 2001eko azaroan argitara eman zuten pobrezia energetikoari aurre egiteko lehendabiziko plangintza (*The UK Fuel Poverty Strategy*).

Gaur egun, Erresuma Batuko Pobrezia Energetikoaren aurkako Ekimen Estrategiak egitura hartzen du honako lau neurrietan.

⁷³ HILLS, J. (2012) "Getting the measure of fuel poverty", *Case Report*, n° 72. Londres: Centre for Analysis of Social Exclusion.

⁷⁴ DEPARTMENT OF ENERGY AND CLIMATE CHANGE (2013) *Fuel Poverty: A Framework For Future Action*. London: Department of Energy & Climate Change.

⁷⁵ DEPARTMENT OF ENERGY AND CLIMATE CHANGE (2012) *Annual report on fuel poverty statistics 2012*. London: Department of Energy and Climate Change.

- Energia-kontsumoari aurre egiteko laguntza ekonomikoak: bi oinarriko laguntza daude, erregaiak ordaintzeko dirulaguntzak (Winter Fuel Payments) eta aro hotzetarako dirulaguntzak (Cold Weather Payments). Aurrenekoak zuzentzen dira pertsona adinduen faktura energetikoak ordaintzeko, eta bigarrenak garai zehatz batzuetako hotzaldietako faktura energetikoa ordaintzeko, eta ez dira soilik pertsona adinduentzat izaten.
- Gizarte-tarifak: kontuan har daiteke Etxebizitza Beroa: Deskontu Programa (Warm Home Discount scheme). Erresuma Batuko etxebizitza pobreenen argindarraren faktura ordaintzen laguntzea du xede ekimen honek, fakturretan eginiko beherapenen bidez. Konpainia elektrikoak bere kargura hartzen ditu beherapen horiek, eta geroago berreskuratzen dute ditu hori beste kontsumitzaileei jarritako tarifak igotzen.
- Efizientzia energetikoaren aldeko neurriak: hemen sartzen dira Fronte Epelaren Programa (Warm Front Scheme), Hitzarmen Berdea (Green Deal) eta Energia Enpresen Konpromisoa (Energy Companies Obligation, ECO). Horietako aurrenak dirulaguntzak eskaintzen ditu pobrezia-prestazioak jasotzen dituzten etxebizitzetan isolatze eta berokuntza-sistemako hobekuntza-premiak betetzeko. Hitzarmen berdeak berritze-lanak finantzatzen ditu efizientzia energetikoa hobetearren, eta biztanle orok du laguntza hori eskatzea. Bestetik, ECO konpromisoak xede du kontsumo energetikoan aurrezteko galdara efizienteak instalatzea eta isolamendu egokia bermatzea zaugarrien diren etxebizitzetan.
- Bestelako neurriak: gehienbat nabarmentzen dira energia-kontsumoa gutxitu eta efizientzia energetikoa hobetzeko aholkularitza-zerbitzu teknikoak; toki-mailako instituzioen arteko lankidetzaproiektuak (Warm Zones), eskaintzen dute gune zehatz bateko etxebizitza batzuen efizientzia energetikoa hobetzeko zuzenduriko neurrien detekzio, ebaluazio, aholkularitza eta kudeaketa integrala burutzea; eta baita ere, aurrez ordaindutako gailuen instalazioaren bidez (prepayment meters) etxebizitzako gastu energetikoa arrazoizko bihurtzeko ekimenak.

Nazioartean zalantzagabeko erreferente bilakatu arren, kritika zorrotzak hartu ditu pobrezia energetikoari aurre egiteko Erresuma Batuaren politikak. Zehaztasun eza egozten zaio pobrezia energetikoaren alderdi bakoitzerako bideratzen diren neurrien inguruan, edo zehaztasun eza bereziki zaugarri diren zein talde artatu behar diren jakitean. Azken batean, kritikatzan da askotariko neurrien batura bat dela, eta ez pobrezia energetikoari aurre egiteko estrategia bat⁷⁶.

4.2.1.2. Irlanda

Erresuma Batuaz gain, Irlanda da pobrezia energetikoa gutxitzeko berriazko neurriak dituen herrialde bakanetakoa. Halaber, Frantzia eta Erresuma Batuak egin bezala, pobrezia energetikoaren definizio estandarizatu bat onartu duen Europar Batasuneko herrialdeetako bat da Irlanda. Herrialde honen kasuan, gehien erabilitako pobrezia energetikoaren definizioa jasotzen du

⁷⁶ RAHO, B.A. (2012) *Fuel Poverty Related Policy: Lessons Learned in the UK and Other European Countries and Potentials and Possible Challenges for Fuel Poverty Policy Implementation in Austria*. Exeter: University of Exeter.

bai Energiaren Liburu Zuriak bai 2007-2016 Gizarteratzeko Ekimen Plangintza Nazionalak, eta aipatzen du “dela baliabide-eskasiagatik, dela etxebizitzako energia-efizientzia ezagatik, etxebizitzan tenperatura egoki bat mantentzeko ezintasuna” dela pobrezia energetikoa.

Modu honetan laburbildu daitezke gaur eguneko Irlandako pobrezia energetikoari aurre egiteko politika antolatzeko erabiltzen diren gidalerro nagusiak:

- Dirulaguntzak ematea energia-kontsumoari aurre egiteko: prestazio ekonomikoak izaten dira erregaiei kontsumoaren ondorio den gastu energetikoa (*Fuel Allowance*) edo gas naturala ordaintzeko (*Natural Gas Allowance*), eta laguntza horiek xede dituzte pertsona adindu eta diru-sarbide apaleko pertsonak.
- Efizientzia energetikoaren aldeko neurriak: Etxebizitza Beroagoetarako Energia Hobea Programa (*Better Energy Warmer Homes Scheme*) zuzentzen da baliabide urrien dituzten pertsonen etxebizitzetako efizientzia energetikoa hobetzen, eraberritze- eta instalazio-lanen ekinaldietan.
- Bestelako neurriak: gehienbat nabarmentzen dira aurrez ordaindutako gailuen instalazioen bidez etxebizitzetako gastu energetikoa arrazoizko bihurtzeko neurriak (*prepayment and pay-as-you-go meters*), eta bereziki egoera zaurgarrian diren zenbait erabiltzaile babestea (*Industry Special Services Register*) ez ordaintze eta hornidura-mozketak mugatzeko neurrien bidez.

Irlandako Osasun Publikoak⁷⁷ argitaratutako azterlan batek baieztatu zuenez, nahiz eta dirulaguntzek pobrezia energetikoa arintzen lagundu, ez zuten epe luzean soluziorik eskaintzen. Hori dela-eta, pentsatzen zuten tarifa energetikoen garestitzea areagotzerik zutela. Azterlanak pobrezia energetikoaren politika-ekimenen ardatz nagusitzat etxebizitzetako efizientzia energetikoaren hobekuntzan inbertsioak bideratzea zela atera zuen ondorioz.

4.2.1.3. Frantzia

Beste herrialde batzuen aldean, adibidez, Irlanda eta Erresuma Batua, erlatiboki berandu sortu arren Frantzian pobrezia energetikoaren inguruko eztabaida akademiko eta publikoa, joan diren urteotan areagotu egin da arazo horrekiko kezka, hein batean, energia-prezioen hazkuntzaren ondorioz. Eskasia energetikoaren kontzeptua 2009an⁷⁸ definizio baten xede izan arren, ez zen arautegian gauzatu hurrengo urtera arte, 2010eko uztailaren 10eko Ingurumenaren aldeko Nazio-mailako Konpromisoa 2010-788. zenbakia duen Legea, edo Grenelle legea deitzen diote. Gaur egun, pobrezia energetikoa (*précarité énergétique*) pairatzen da “[...] premiazko energia-hornikuntza asetzeko zailtasun larriak gertatzen direnean, dela baliabideen urritasunagatik, dela etxebizitzako bizi-baldintzengatik”.

⁷⁷ PUBLIC HEALTH POLICY CENTRE (2007) All-Ireland policy paper on fuel poverty and health. Dublin: Institute of Public Health.

⁷⁸ PELLETIER, P. et al. (2009) *Groupe de travail Précarité énergétique. Rapport*. Paris: Plan Bâtiment Grenelle.

Praktikan, Frantziak Erresuma Batuan ezarritako atalase bera erabiltzen du pobrezia energetikoa bizi duten etxebizitza-kopurua kalkulatzeko; eta horren arabera, pobrezia energetikoa ematen da etxebizitzako diru-sarbideen %10 baino gehiago energia-fakturak ordaintzeko erabiltzen denean. Estatistika eta Ikerketa Ekonomien Nazio-mailako Institutuak (INSEE)⁷⁹ argitaratutako azterlan batek azaltzen duenez, frantziar metropoliko 3,8 milioi etxebizitzetan pairatzen zuten pobrezia energetikoa 2006an –etxebizitzaren %13–. Urte berberean, hotza pasa izana aipatzen dute 3,5 milioi etxebizitzetako biztanleek –etxebizitzaren %14,8–. 1996 eta 2006 urteen artean, proportzio hori hazi egin omen da %10,9tik %14,8ko portzentajera.

Nahiz eta pobrezia energetikoaren gizarte-arazo izaera orain gutxi aitortutako gaia izan, energia-fakturak ordaintzeko izaten dituzten zailtasunen ondorioz, fenomeno hori aspaldi agertu zen Frantziako etxebizitza asko eta askotan. Hori dela-eta, aipamen hartu daitezke aspalditik ezarritako familia-laguntzarako neurri batzuek etxebizitzako tenperatura egokitzeko, betiere pobrezia eta gizarte-bazterketaren politika-esparruaren baitan. 1982. urterako abian jarri zituzten pobrezia- eta ezegonkortasun-egoerak arintzeko neurriak, adibidez, energia-ordainketarako fondo sozialak. Hasierako horietaz gain, gehitu egin dituzte izaera prebentiboa duten etxebizitzetako energia-kalitatea hobetzeko neurriak, adibidez, II. Grenell Legearen ondorioz, Etxebizitza Agentzia Nazionalak (ANAH) kudeatzen duen 2011. urtean abian jarritako *Habiter Mieux* programa.

II. Grenelle Legearen ondorioz bideratutako beste ekimen bat da 2011. urtean Frantziako Pobrezia Energetikoaren Nazio-mailako Behatokia (ONPE). Pobrezia energetikoari aurre egiten jarduten duten eragile batzuek inplikatu ditu behatokiak, eta xede du fenomeno honen ezaguera hobetzea bai etxebizitza bai garraioaren arloetan, eta informatu eta laguntzea politikaren publikoen orientazioan. Modu zehaztuago batean, hauek dira behatokiaren xede horietako batzuek:

- Pobrezia energetikoari loturiko adierazleak jaso eta aztertzea. Behatokiak ahalbidetu behar du datu adierazgarrien bilketa eta datu horiek erabiltzea ezaguera hobetu eta jarraipena egiteko eskasia energetikoari.
- Pobrezia energetikoari aurre egiteko ekimenetarako baliabide-zentro bat sortu eta elikatzea. Aurreikusten da zor energetikoa edo diru-sarbide apalak dituzten etxebizitzetako pertsonen indarrean dauden dirulaguntza publiko eta pribatuen inguruko informazioa banatzea, eta baita ere, bertan jasotzea pobrezia energetikoaren inguruko toki- edo nazio-mailako ekimenen berri.
- Eskasia energetikoari loturiko berriazko gaiei kontua hartzen dieten dokumentu tekniko eta txostenak lantzea.
- Ikerketarako bide izan eta esperientziak elkartrukatzeko mintegien antolaketa. Aurreikusitakoa, 2014ko urtarrilean burutuko da lehenengo mintegia.

⁷⁹ DEVALIERE, I. et al. (2011) “La précarité énergétique : avoir froid ou dépenser trop pour se chauffer”, *INSEE Première*, n° 1.351. Paris: Institut National de la Statistique et des Études Économiques.

4.2.1.4. Belgika

Pobrezia energetikoaren interesa hazten joan dela erakusteko, eredu gertatzen da Pobreziaren Kontrako Estatu Plangintzak (*Armoedebestrijdingsplan* edo *Plan de Lutte contre la Pauvreté*) pobrezia energetikoa arazotzat hartzen duela, eta bere xedeen arteko bat da energia-irrisgarritasuna bermatzea⁸⁰. Hala eta guztiz ere, zaila da zehazki jakitea, datu-eskasiaren ondorioz, herrialde horretako pobrezia energetikoan bizi den etxebizitza-kopurua. Erresuma Batuaren aldean, informazioa jasotzeko etxebizitza-kalitate eta bizi-baldintzen inguruko informaziorik ez egon arren, eskuragarri dauden estatistiken arabera, hazi egin omen da pobrezia energetikoaren fenomenoak. 1999 eta 2009 urteen arteko batz besteko gastu energetikoa pasa da diru-sarbideen %4,4 izatetik, %5,8 izatera. Diru-sarbideen maila kontuan hartzean, areagotzen da larritasun-maila, izan ere, diru-sarbide apaleneko etxebizitzetan %15 gastatu baitzuten faktura energetikoa ordaintzeko 2009an. Orokorrean, Belgikako biztanleen %6k dio ezin diela aurre egin lehen-mailako premiak ordaintzeko fakturei, adibidez, ura, energia edo alokairua.

Belgikako egoera ulertzeko, gogoan hartu behar da erabat dezentralizatutako herrialdea dela, eta eskumen federal ugari eskualdatu dituztela herrialdearen hiru eskualdeetan (Flandia, Brusela-Hiriburua eta Valonia), eta horren ondorioz ematen dira eskualdeen arteko alde oso nabarmenak. Adibidez, Gobernu federala arduratzen da tarifa energetikoak ezartzeaz, baina eskualdeek zehazten dituzte 'babesturiko bezeroen' aldeko politikak (*clients protégés*)⁸¹.

Hain zuzen ere, babesturiko bezeroa da Belgikako politika energetikoaren kontzeptu garrantzitsuenetako bat, izan ere, berariaz pobrezia energetikoa arintzeko osagaia ez izan arren, lagundu egiten duelako helburu hori betetzen. Babesturiko bezerotzat hartzen dira gizarte-prestazio batzuek jasotzen dituzten herritar eta ezgaitasunen bat duten pertsonak. Valonia eta Bruselan malgutu egin dituzte sarbiderako baldintzak, eta kontuan hartzen dituzte zor energetikoa duten etxebizitzetako biztanleak onuradun gisara, eta Bruselan kontuan hartu dituzte diru-sarbide apalak dituzten etxebizitzetako pertsonak. Babesturiko bezeroek, beste onura batzuen artean, izaten dute gas- eta argindar-tarifa merkeago bat. Berokuntza-sistemek gasolioa erabiltzen duten etxebizitzetan, Belgikako Gobernuak gizarte-laguntza batzuek eskaintzen ditu (*social verwarmingfonds* edo *Fond Social Chauffage*), eta berariaz zuzentzen dira diru-sarbide apalak edo energia-zorrak dituzten etxebizitzetan modu horretako erregaiak erosteko.

Bata eta bestea finantzatzen dira tarifa energetikoari gehituriko tasen bidez. Paradoxikoki, diru-sarbide baxueneko etxebizitzek finantzatzen dituzte, hein handi batean, gizarte-laguntza horiek, izan ere, diru-sarbide ertain edo altuko etxebizitzek baino kontsumo altuagoa izaten dute, etxebizitzako efizientzia energetikoan gutxiago inbertitzen dutelako.

Aurrez ordaindutako kontagailu eta potentzia-mugatzailleak dira gas eta argindarra lortzeko gizarte-politikako bestelako tresna nagusietakoak. Lehenengoei dagokionez, Valonia eta Flandian

⁸⁰ Funtsean, ondorengo erreferentzia hartzen du oinarri atal honek: STORMS, E. et al. (2012) "An introduction to fuel poverty in Belgium", EU Fuel Poverty Network.

⁸¹ HUYBRECHS, F. et al. (2011) *La précarité énergétique en Belgique*. Bruselas: Université Libre de Bruxelles; Amberes: Universiteit Antwerpen.

aukera ematen zaie aurrez ordaindutako gas- eta argindar-kontagailu bat instalatzea kontsumo energetikoaren ordaina errazteko –baita ere zorrak, ez ordaintze kasuetan–, eta modu honetan, hornidura-mozketei aurre hartzeko. Zenbait konplexutasun ditu sistemaren funtzionamenduak eta aldatu egiten da eskualde batetik bestera. Laburbilduz, diru pixka bat aurreratzen da etxebizitzako kontagailuan sartzen den aurrez ordaindutako txartel baten bidez. Gasa edo argindarra erabiltzen duen edozein bezerok eskatu dezake horrelako gailu bat instalatzea; eta zor energetikoa duten etxebizitzak kasuetan, zorra metatzen joatea ekiditeko konpainia hornitzaileak ezartzen ditu gailu horiek.

Erabiltzaileak zorrari aurre egiterik ez duenean, Belgikako hiru eskualdeetan eskaintzen dute argindar-potentzia mugatzeko gailu bat jartzea hornidura-mozketa gertatu aurreko baliabide gisara. Gailu horiek argindar-hornidura gutxiengo bat bermatzen dute oinarritzko premiak asetzeko; baina, logikoki, ez dira horren erabilgarriak izaten egokitasun termikoa gas-sistemen bidez egiten den etxebizitzetan.

Laburbilduz, honako bi maila hauetan bildu daitezke pobrezia energetikoari aurre egiteko Belgikan abian jarritako neurriak: alde batetik, prezioa eta energiaren irisgarritasunean eragiten duten neurriak; eta bestetik, kontsumo energetikoa eta ingurumenarekiko eragina gutxitzeko neurriak. Hala ere, ez da erlaziorik bi neurri horien artean, ez eta pobrezia energetikoari aurre egiteko epe luzerako estrategiarik. Neurri gehienek ere ez dute izaera prebentibo bat, eta zuzentzen dira – zeharkako modu batean, askotan– jada pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzetara.

4.2.1.5. Holanda

Holandak ez du pobrezia energetikoaren aurkako plangintzarik, baina eredugarri hartzen dira pobrezia energetikoari aurre egiteko nederlandar-ekimen horiek. 1973ko petrolioaren lehendabiziko krisialdian jada sortu ziren dirulaguntzak etxebizitzetako isolatze-egoera hobetzearren. 1979an abian jarri zuten antzeko nazio-mailako programa bat, eta horren bidez instalatzen zituzten kristal bikoitzeko leihoak, eta lurzoru, pareta eta teilatuak isolatu. Berriki eraikitako etxebizitzetan neurri horiek betebeharrekoak ziren, eta etxebizitza zaharretako jabeek eskatzerik zuten dirulaguntza bat neurri horietara egokitzearen lanak egiteko. 1987an berregituratu zuten programa hori edonolako etxebizitza-erreformak egiteko plangintza orokor batean, baina programaren erdiz erdiko ardatza izaten jarraitu zuen efizientzia energetikoa sustatzeak. Garai hartatik, politika energetiko holandarrak etengabe sustatu ditu etxebizitzako efizientzia energetikoa haztarazteko bideraturiko erreforma-lanetarako dirulaguntzak

Meer met Minder (Gutxiagorekin Gehiago) programa da horrelako moduko ekimenetako bat, eta 2008an sortu zuen aholkularitza energetikorako erakunde estatal batek (*Energieprestatieadvies*). Erakunde horrek, 2008 eta 2011 urteen artean, etxebizitzetako efizientzia energetikoa hobetzeko aholkularitza energetikoa eta dirulaguntzak eskaini zituen etxebizitza sozialeko enpresa, argindar-konpainia, eraikuntza-enpresa eta eskualde eta tokiko erakunde publikoekin lankidetzan. Aholkulari batek kudeatzen zuen Gutxiagorekin Gehiago programan hartutako kasu bakoitza, eta hasieran, programak hartzen zituen neurrien berri eskaintzen zieten erabiltzaileei. Horren ostean,

kontakturako pertsona horrek eskatzen zuen (ziurtagiria duen enpresa batek) txosten bat lantzea eraikuntzaren efizientzia energetikoaren egoeraz, eta bertan azaltzen ziren balizko esku hartzerako neurriak eta eskuragarri zituzten dirulaguntzak. Programaren aholkulariak izaera bikoitzeko betekizuna zuen, kontakturako pertsona eta langileen koordinatzaile izatea. Eraikuntzalanak burutzean, ebaluazio berri bat egiten zen etxebizitzaren hasierako efizientzia energetikoaren maila aldatzeko. Efizientzia energetikoaren arloko indizean jasotako hobekuntzen arabera jasotzen zuten dirulaguntza bat. Programaren oinarriko xedea zen %30ean haztea 500.000 etxebizitzetako efizientzia energetikoa 2008 eta 2011 urteen artean. Jasotako emaitza egokien ondorioz, luzatu egin zuten 2012ko bukaera arte programaren iraunaldia; aitzitik, dirurik gabe, ez du jarraibiderik izan programa horrek.

Testuinguru honetan, komenigarria da gogoaraztea gaur egun Herbehereetan egiten ari diren elektrotresnen (eta bestelako produktu batzuen) etiketa energetikoaren europar zuzentarauaren eragina hazteko esfortzua, Europar Batasunak onartutakoa baino sailkatze zorrotzagoa ezarritz.

Gainera, nabarmentzekoa da beste herrialdeen aldean askoz ere zorrotzagoa dela nederlandar arautegia elektrotresnen etiketa energetikoaren arloan, eta herrialde horretako Gobernuak konpainia energetikoak derrigortzen ditu bezeroen kontsumo energetiko efizientea sustatzen eta pobrezia energetikoaren prebentzioan lan egiten. Argindar eta Gasaren Hornidura Legearen 2011ko arau gehigarri batek, adibidez, debekatu egiten du ez ordaintzeagatik etxebizitzako hornidura moztea urriak 1 eta apirilak 1 bitartean⁸². Arautegi berberak ezartzen duenez, gas- eta argindar-hornitzaileak derrigortzen ditu ordainketak atzeratuta dituzten bezeroei zorpetzeari loturiko arazoen inguruko aholkularitza jasotzeko aukeraz informatzea.

Ekimen horiek guztiek laguntzen dute, diru-sarbide apal eta alokairu altuak dituzten maizterrentzako dirulaguntzez gain, Herbehereetako pobrezia energetikoa gutxitzen.

Azkenik, nabarmentzekoa da duen izaera berritzaileagatik, energia-erosketa kolektibo bat egin eta prezioa gutxiarazteko buruturiko ekimena. Interneterako soluzio berritzaileak bilatzen dituen Dutch Concepts Group BV taldearen marka erregistratua den Met de Stroom Mee (Korrontea Jarraitu) ekimena izan da hori. Kontsumitzaileen energia-kostua merkatzeko burutu zuten 2011n garaturiko proiektu hori. Xede hori betetzeko, webgune bat sortu zen Interneten, eta bertan izenemateko aukera zuten etxebizitza nederlandarrek. 10.000 erabiltzailearen izenematea jasotzean, energiaren hornikuntza-enpresekin negoziatu zuten salneurria. Argindar-konpainiek berauen eskaintzak azaldu zituzten, eta egokiena hautatu ostean, bezerogai berriek jaso zuten posta elektronikoko bat balizko kontratuaren baldintzen inguruan berri ematen. Batz bestean, urteko 300 € aurreztu zuten etxebizitzek hornidura-kontratu berria sinatu ostean. Esperientzia hori ez da Herbehereetan bakarra. Gaur egun, etxebizitza sozialeko WoonEnergie enpresak bitartekaritza-funtzioak betetzen ditu, eta argindar-tarifak bereziak lortzen ditu 'hitzarmen kolektibo' horren bidez.

⁸² MINISTER VAN ECONOMISCHE ZAKEN; LANDBOUW EN INNOVATIE (2011) *Regeling van de Minister van Economische Zaken, Landbouw en Innovatie van 27 juni 2011, nr. WJZ / 11076169, Houdende regels over afsluiten van kleinverbruikers van elektriciteit en gas en intrekking van de Regeling afsluiten elektriciteit en gas van kleinverbruikers*. La Haya: Minister van Economische Zaken, Landbouw en Innovatie.

4.2.1.6. Alemania

Alemanian ez dute pobrezia energetikoaren definizio ofizial bat, ez eta fenomenoaren eraginpean dagoen pertsonen zenbatekoa jakiteko estatistikarik ere. Hala ere, joandako urteotan modu nabarmenean hazi omen da etxebizitza alemaniarretako zorpetze energetikoa⁸³. Harrigarria gerta daiteke datu hori, gehienbat kontuan hartzen bada Alemaniak duela langabezia-tasarik baxuenetakoa Europan, eta diru-sarbideen batz bestekoa, erlatiboki, maila altukoa dela. Gainera, herrialde horretan etxebizitzarako dirulaguntza bat eta gizarte-transferentziak dituzte prestazio sozialak jasotzen dituzten etxebizitzetako berokuntza-sistemako kostuak finantzatzeko.

Zenbait faktorek sortarazten dute pobrezia energetikoa Alemanian. Batetik, nabarmendu beharrekoa da etxebizitza-parkea nahiko zaharkitua dagoela. Izan ere, Estatistika Bulego Federalak kalkulatu du etxebizitzaren %46k ez duela isolatze termiko nahikoa edo bestelako energiaren efizientzia ezak dituztela⁸⁴. Aipagarria da, bestalde, etxebizitza sozialen aspaldiko tradizioa duen herrialde honetan, aldaketa nabarmenak gertatzen ari direla merkatu horretan, higiezinaren pribatizatzearen bitartez. Lehenago alokairu baxua zuten etxebizitzak orain iritsiezin gertatzen dira pertsona askorentzat. Hori dela-eta, maizter asko eta asko etxez aldatzeko premian izaten dira, etxebizitza alokatzeko kostuak finantzatzeko gizarte-laguntzaren transferentziarekin ez dutelako alokairurako diru nahikorik izaten. Okerrago dauden etxeak alokatzearen aukera bila, diru-sarbide apaleko pertsonen 'nomadismo' moduko bat gertatu da, eta, gainera, etxebizitza horiek izaten dute efizientzia energetiko mailarik eskasena⁸⁵.

Prezio energetikoak dira herrialde honetako pobrezia energetikoari modu ezkorrean eragiten dioten bestelako faktore bat, eta modu drastiko batean hazi da joandako urteotan. Eragin hori arintzear burutu dituzte 2009 eta 2010ean indarrean egondako ohizkanpoko errenten transferentzien bidezko ahalegin batzuek. Halere, adostasuna ematen du dagoela ohizkanpoko estatu-mailako laguntza, ohiko dirulaguntza transferentzia eta ordainsarien mailaren igoerak ezin izan dutela hazten ari den energia-kostuaren eragina gutxiarazi.

Bestelako gertakizun bat ere nabarmendu daiteke, izan ere, CO₂ gutxitzeko (2020. urtean %40 gutxiago) Europako anbizio handieneko helburuak ezarri baitzituen orain dela urte batzuek; aitzitik, Fukushiman gertaturiko ezbeharraren ostean, erabaki zuten ezinbestekoa zela energia nuklearraren mendeko izateari uztea, eta oraindik ere modu indartsuago batean apustu egitea energia berritzaileen alde⁸⁶. Horrela, gaur egun oraindik ere nagusi diren energia-iturriak aldatzeko finkaturiko helburuek haztarazi dezakete kostu energetikoa, eta horren ondorioa den pobrezia energetikoaren maila haztarazi era berean.

⁸³ KOPATZ, M. et al. (2013) *Energiewende. Aber fair! Wie sich die Energiezukunft social tragfähig gestalten lässt*. Munich: Oekom Verlag, págs. 45-46.

⁸⁴ BUNDESMINISTERIUM FÜR VERKEHR, BAU UND STADTENTWICKLUNG (2012) *Wohnen und Bauen in Zahlen 2011/2012*. Bonn: Bundesministerium für Verkehr, Bau und Stadtentwicklung, pág. 161.

⁸⁵ KOPATZ, M. et al. (2013) *op. cit.*, págs. 147-149.

⁸⁶ BUNDESMINISTERIUM FÜR UMWELT, NATURSCHUTZ UND REAKTORSICHERHEIT (2012) *Die Energiewende. Zukunft made in Germany*. Berlin: Bundesministerium für Umwelt, Naturschutz und Reaktorsicherheit.

Pobrezia energetikoa gutxiarazten saiatzeko ezarri izan diren politika eta neurriei kontu hartzean, derrigorrezkoa da 2008ko Efizientzia Energetikoaren Nazio-mailako Plangintza⁸⁷ aipatzea. Bertan zehazten dira etxebizitzetara zuzenduriko zenbait neurri, eta horietako batzuek zuzentzen dira pobrezia energetikoa pairatzeko arriskuan dauden herritarrei, adibidez, aurrezki energetikorako ekipamenduaren banaketa (adibidez, aurrezki energetikorako bonbillak eta tenporizadoreak), aholkularitza energetikoa eta efizientzia energetiko altua duten elektrotresnak erosteko mikroredituak.

Ekimen horiek guztiak abian jarri dira, batzuetan modu esperimental batean eta behin-betiko beste batzuetan. Pobrezia energetikoa arintzeko ekimen horietaz gain, plangintzak kontuan hartzen ditu, maila orokorrean, pobrezia energetikoa gertatzean eragina izan dezaketen beste neurri hauek: eraikin berri eta erreforma-lanetarako efizientzia energetikorako estandar berriak sortzea, efizientzia energetikoaren ziurtagiriak ezartzea, estatu-mailako dirulaguntzak etxebizitzako efizientzia energetikoa hobetzeko edota efizientzia energetikoa hobetzeko eginiko erreformen inbertsioetarako zerga-kenkariak. Plangintza horretako anbizio handieneko programa bat da Kreditanstalt für Wiederaufbau (KfW) Garapenerako Gobernu Bankuak abian jarri zuen Efizientzia Energetikoa Hobetzeko Erreforma izeneko ekimena, eta horren bidez eskaintzen dituzte kreditu 'bigun' eta dirulaguntza batzuek etxebizitzetan erreforma energetikoak burutzeko.

Estatu-mailako pobrezia energetikoa arintzeko ekimena da, besteak beste, epe luzeko langabezia-egoeran eta diru-sarbideak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen berokuntza-sistema gastuak ordaintzeko transferentzia ekonomikoen kasua. Diru-sarbideak bermatzeko errenta edo langabeziaren dirulaguntzaren gehigarri hori hartzen da pobrezia energetikoari aurre egiteko tresna garrantzitsuenetakotzat.

Aurtengoan aldatu dute Alokairuan hartutako Etxebizitzen Legea familia anitzeko etxebizitzen eraikuntzetako efizientzia energetikoaren hobetzea sustatzeko. Gutxiarazi egiten du legeriaren aldaketa horrek etxebizitzako jabeentzako erreformaren eragin ekonomikoa, eta aurtengotik ez dute maizterren alokairua beheratu beharrik izango lanak hasi eta hirugarren hilabetea bete arte. Halere, maizterrak babestu egiten ditu indarrean dagoen araudiak. Erreforma-lanak burutzean, gehienaz urteko %11 igo daiteke alokairua.

Horietaz gain, nabarmendu daitezke herrialde honetako ekimen pribatu batzuek pobrezia energetikoan izandako eragina. EON argindar-konpainiak tarifa sozial bat jarri zuen indarrean. Aitzitik, produktu honekiko interesa apala izan zen –soilik, etxebizitzen %1ak kontratatu zuen tarifa sozial hori–. Beste argindar-konpainia batzuek mikroredituak bideratu dituzte bezeroentzat elektrotresna zaharkituak efizientzia energetiko altuko elektrotresnegatik trukatzeko. Argindar-konpainia batzuek ere parte hartu dute 'aurrez ordaindutako' kontagailuak jartzen. Horrelako proiektu pilotuak Alemaniako zenbait herritan jarri dituzte abian, adibidez, Völklingen (Sarre), Neustadt bei Coburg (Baviera) eta Olpe und Düren (Ipar Renania-Westfalia).

⁸⁷ BUNDESMINISTERIUM FÜR UMWELT, NATURSCHUTZ UND REAKTORSICHERHEIT (2007) *Eckpunkte für ein integriertes Energie- und Klimaprogramm*. Berlin: Bundesministerium für Umwelt, Naturschutz und Reaktorsicherheit.

4.2.1.7. Herrialde nordikoak

Nahiz eta klima oso hotzeko herrialdeak izan, bereziki baxua da pobrezia energetikoaren eragina herrialde nordikoetan, gehienbat, konparatzen badira askoz ere klima epelagoa duten Europa hegoaldeko herrialdeekin.

Faktore batzuen ondorioz gertatzen da ia pobrezia energetikorik ez izatea. Lehenik, nabarmendu daiteke politika energetiko aktiboek aspalditik duten garrantzia, izan ere, 1973. urteko lehendabiziko petrolio-krisialdiaren garaia baitu jatorri. Gobernu nordikoek anbizio handiko ingurumenaren aldeko helburuak ezarri zituzten negutegi-efektua sortarazten duten gas-isuriak gutxitzeko⁸⁸. Hori dela-eta, ELGA osatzen duten herrialdeen artean, efizientzia energetikoan aurrenak dira herrialde nordikoak. Nabarmentzeko garrantzia izan dute eraikuntza-estandarren arloan, eta oso zorrotzak dira isolatze termikoari dagozkion neurriak^{89, 90, 91, 92}. Zehazki, Suediako kasuan azpimarratu daiteke, baita ere, erlatiboki etxebizitza-parke berria duela; berrogeita hamar, hirurogei eta hirurogeita hamarrek hamarkadetan etxebizitza zaharkituak oso kopuru handian eraitsi zituztelako.

Bestetik, gogorazi beharrekoa da urteko batz besteko tenperatu baxua duten herrialdeak izan arren, egoera energetiko abantailatsua dutela horietatik bi herrialdek. Norvegiak gas- eta petrolio-erreserbak ditu, eta baliabide ugariak ditu energia hidraulikoaren alorrean. Islandian energia geotermikoaz baliatzen dira, eta horren ondorioz erlatiboki baxuak diren prezio energetikoak ordaintzen dituzte. Gainontzeko herrialde nordikoek ere badituzte energia-iturri naturalak (energia hidraulikoa, su gurra).

Hirugarrenez, azpimarratzeko moduko beste faktore batzuek eragina izan dezakete pobrezia energetikoaren datu adierazgarri horrengan. Horrela, derrigorrezkoa da nabarmentzea herrialde horietako diru-sarbideen batz besteko maila altua dela, eta gainera, gizarte-politikek ahalbidetu dute aberastasunaren birbanatzea. Herrialde horietan, adibidez, prestazio ekonomikoak dituzte diru-sarbide baxuak dituzten pertsonen etxebizitza-gastuak finantzatzen laguntzeko. Bestelako errenta-transferentzia batzuek, adibidez, Danimarkako diru-sarbideak bermatzeko errenta, oso eskuzabal izaten dira, bestelako herrialdeetako prestazioen aldean.

Zalantzarik gabe, aurrerabidean eragina izan dezakete herrialde nordikoetako etxebizitza-politikek. Aspalditik sustaturiko etxebizitza sozialak, eta bereziki Suediako etxebizitza-merkatuaren arautzeak bide eman zuen erlatiboki ekonomikoak ziren etxebizitzak egokitzeko. Suedian aukeran daude etxebizitzak alokairuan, eta kostu energetikoa gutxitzen saiatu dira etxebizitzaren jabeak (dela Udaletxe bat, dela kooperatiba edota pertsona bat) alokairua ordaintzean barnean baitago etxebizitzak duen kostu energetikoa. Horrela, alokairuaren prezioa jaitsi edo mantendu dezake

⁸⁸ PASQUIER, S. y SAUSSAY, A. (2012) *Progress Implementing the IEA 25 Energy Efficiency Policy Recommendations*. Paris, International Energy Agency.

⁸⁹ DANISH ENERGY AGENCY (2012) *Energy Efficiency Policies and Measures in Denmark*. Copenhagen: Danish Energy Agency.

⁹⁰ INSTITUTE FOR ENERGY TECHNOLOGY (2012) *Energy Efficiency Policies and Measures in Norway*. Kjeller: Institute for Energy Technology.

⁹¹ DANISH ENERGY AGENCY (2012) *Energy Efficiency Policies and Measures in Denmark*. Copenhagen: Danish Energy Agency.

⁹² SWEDISH ENERGY AGENCY (2012) *Energy Efficiency Policies and Measures in Sweden*. Eskilstuna: Swedish Energy Agency.

efizientzia energetiko handiagoa izateak, eta horrek lehiakortasuna hobearazten du etxebizitzamerkatuan.

Bestalde, energia-konpainiak ere oso inplikaturik daude pobrezia energetikoa gutxitzeko ahaleginean. Erabaki politiko eta iritzi publikoaren eraginez, energia-hornitzaileek behartua ikusten dute partaidetza CO₂ isuriak gutxiagotzeko ekimenetan. Hori dela-eta, sarritan bilakatzen dira partaide aktibo, eta batzuetan finantzatzen dituzte etxebizitzetako kontsumo energetikoa gutxiarazteko ekimen batzuek.

Azkenik, azpimarratzekoa da pobrezia energetikoa gutxitzeko teknologia berriak ezartzearen garrantzia. Horrela, herrialde nordikoek dirulaguntza batzuek banatu dituzte ekipamenduen (galdarak) erosketara sustatu edota etxebizitzako efizientzia energetikoa hobetzeko. Gainera, herrialde nordiko guztietan (Norvegian salbu) oso hedatua dago erlatiboki ekonomikoa den distritu-mailako berokuntza-sistema. Berokuntza-sistema zentral bat da, eta etxebizitza guztietara helduko den instalazio baten bidez berotu eta kanalizatzen da ura edo lurruna. Kogenerazio-zentralak (argindarra eta beroa) oinarri hartzen ditu, oro har, beroaren produkzioak; baina gero eta gehiago erabiltzen dira energia berriztagarriak, adibidez, biomasa, eguzki-energia eta baita ere zentral nuklear eta hondakin urbanoen erraustegietako bero-soberakinak.

Gaur egun, bost herrialde nordikoetatik batek ere ez du pobrezia energetikoa errotik kentzeko estatu-mailako plangintzarik. Suedian ezarritako pobrezia energetikoarengan eragina duten neurrien inguruan, aipagarria da herrialde hartako laguntza sozial gehienen antzera, suediar herritar orori zuzenduriko neurria dela. Txosten honetan deskribatzen diren Suediako ekimenen ezaugarrietakoa da gehienek ere ez dutela oinarritzko xedetzat hartzen pobrezia energetikoa eraztea. Hori da, adibidez, eskulanetako fakturei Suediako (eta baita ere Danimarkako) herritarrei egiten zaizkien zerga-kenkariak; jatorriz ezarri zituzten zerga-iruzurrak gutxiarazteko (ezkutuko ekonomia).

Aurretik esan bezala, biztanleria orokorrari zuzenduriko ekimen batzuek dituzte Danimarkan. Halere, bereziki zaugarritzat hartzen da pertsona adinduen kolektiboa, eta talde horri eragiten die txosten honetan aurrerago aipamen hartzen diren Danimarkako bi neurri bereziek.

Nahiz eta gaur eguneko pobrezia energetikoaren inguruko interesa erlatiboki urria izan arren, herrialde nordikoetako egungo eztabaidak islatzen du kezka nabarmen bat energia-iturri berritzaileak ezartzeko etxebizitzetako gaitasun energetikoa lortzeko gaitasunean.

4.2.1.8. Espainia

Espainiak ez du pobrezia energetikoari aurre egiteko estrategia zehatzik. Beraz, ez ditu biltzen adierazle ofizial eta berriazko metodologiak pobrezia energetikoaren eraginaren ezaguera izateko. Halere, gero eta gehiagoan ari da nabarmentzen gaiaren inguruko kezka. Interes horren eredu gisara nabarmendu daiteke fenomeno honen inguruan oraintsu argitaratutako azterketa⁹³

⁹³ TIRADO, S. (dir.) (2012) *Pobreza energética en España. Potencial de generación de empleo derivado de la rehabilitación energética de viviendas*. Madrid: Asociación de Ciencias Ambientales.

eta txosten⁹⁴ bana. Bertan azpimarratzen denez, Espainian bizi diren 4 milioi pertsona inguruk, hau da, etxebizitzaren %10, zailtasunak izaten dituzte premia energetikoak asetzeko, eta urteko diru-sarbidetaren %10 bideratzen dute energia ordaintzeko. Halaber, bertan egiaztatzen da pobrezia energetikoaren tasak hazi egin direla 2000. urtetik aurrerantzean. Gorakada hori funtsean azaltzen da etxebizitzetako energia-gastuaren hazkuntza ez delako berdindu diru-sarbidetaren mailan; eta gainera, gutxiarazi egin ditu diru-sarbidetaren horiek ekonomia-krisialdiak. Horretaz gain, kontuan hartzen da etxebizitzetako gastuaren hazkuntza nabarmen horren iturri dela, hein handi batean, tarifa elektrikoaren defizita arintzeko etxebizitzetan gertatu den gastu-gehikuntza; eta etorkizunean, ziurrenik, gorakaden bide berbera jarraituko du gastuak, arazoaren larritasuna areagotuz. Pobrezia energetikoaren eragina kontuan hartzean Espainian, azken faktore hau hartu behar da aintzat: etxebizitza-parkeak energetikoki dituen baldintza ez efizienteak. Espainiako etxebizitzetako %61 eraiki zituzten eraikuntzen efizientzia termikoaren lehenengo araudia onartu aurretik. Horren guztiaren ondorioz, oso pobrea da espainiar etxebizitzetako baldintza energetikoen efizientzia, eta hori da beste herrialde askoren aldean pobrezia energetikoaren maila altuagoak pairatzeko arrazoi nagusienetako bat⁹⁵.

Nahiz eta lehenago esan bezala, Espainiak pobrezia energetikoari aurre egiteko zehazturiko estrategia bat ez izan arren, zenbait politika eta neurriek eragina izaten dute, gutxi gorabeherako zuzeneko modu batean, pobrezia energetikoan. Neurri horietatik gehienak aipatzen dira jarraian, eta etxebizitza-parkearen efizientzia energetikoa hobetzeko bideratu arren, ondorengo helburu hauek ez dute helburutzat hartzen pobrezia energetikoaren gutxitzea:

- Etxebizitza eta eraikuntzek efizientzia energetikoaren irizpideen arabera berritzeko dirulaguntzak dituzte Etxebizitzaren Alokairua Sustatu, Eraikuntzak Berritu, Urbanismoa Birgaitu eta Berritzeko Estatuko 2013-2016 eta Aurrezki eta Efizientzia Energetikorako 2011-2020 plangintzek. Adituen esanean, sustatze-neurri horiek ezarri arren, gaur eguneko ekonomia-krisialdiaren ondorioz familia askok eta askok izaten dituzten aurrekontu-murrizketek ezinezko bihurtzen dute berritze-lan horiek gauzatzea.
- Leihoak ordezkatzeko RENOVE plana, argindar-instalazio, elektrotresna eta galdarak. Plangintza hauetan ez da kontuan hartzen pobrezia energetikoa jarduera-irizpide edo lehentasunak zehazteko; aitzitik, familientzat ekimen merkeagoak izaten direnez, abantaila eskaintzen dute diru-sarbidetaren urriago duten etxebizitzak onuradun bihurtzeko.
- Etxebizitzako efizientzia energetikoaren ebaluazio- eta egiaztatze-txostenak sustatzea. Neurri horiek agertzen dira Etxebizitzaren Alokairua Sustatu, Eraikuntzak Berritu, Urbanismoa Birgaitu eta Berritzeko Estatuko 2013-2016 Plangintzan eta eraikuntzen efizientzia energetikoaren egiaztatzea lortzeko oinarritzko prozedura onartzen duen 235/2013 Errege Dekretuan. Neurri horiek eragiten dute energetikoki efizienteagoak diren eraikuntzak egitea, eta horrek ekidin ditzake etorkizuneko pobrezia energetiko egoerak pairatzea.

⁹⁴ OBSERVATORIO DE SOSTENIBILIDAD EN ESPAÑA (2012) *Informe sobre la sostenibilidad en España*. Madrid: Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente.

⁹⁵ EUROPEAN FUEL POVERTY AND ENERGY EFFICIENCY (2008) *Diagnosis de las causas y de las consecuencias de pobreza energética en Bélgica, Francia, Italia, España y Reino Unido*. Serie: EPEE project, nº WP 2 - Deliverable 5.

Halere, etxebizitzaren etiketa-sistema horrek pobrezia energetikoarekiko eragin hutsala izango du epe motz eta ertain batean; edota ondorio ezkorra gerta daiteke, etorkizuneko etxebizitzaren etiketatzeak higiezinaren merkaturaren segmentuetan zatitu dezakeelako, eta efizientzia-maila apalenerako etxebizitzaren –merkeagoak– biziko dira diru-sarbiderik gutxien duten familiak.

- Etxebizitzako efizientzia energetikoa hobetearren berritze-lanetarako zerga-kenkariak. Interes gutxiko neurria izan daiteke pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzetako familientzat, izan ere, diru-sarbide apaleko familientzat gutxiegi izan daiteke eskaintzen den zerga-kenkaria.
- 2009an ezarri eta 2013an erreformatuko den bono sozialean azaltzen diren tarifa sozialak. Bono soziala kolektibo zaurgarrientzako beheraturiko tarifa bat da, eta aldi baterako aringarri gertatzen da etxebizitza batzuetako familientzako. Halere, datuen arabera, ez omen dira beti bono sozial horren onuradun izaten etxebizitza zaurgarrienetako pertsonak. Bestetik, soilik argindar-kontsumora ordaintzeko dirulaguntzak dira, eta gutxi batzuek erabiltzen dute etxebizitzakako berokuntza-sistema elektriko bat. Azkenik, aipatu behar da Gobernuak 2013ko bukaerarako aurreikusi duen erreformak kritikak jaso dituela, adibidez, 34.689 € baino gehiagoko diru-sarbideak dituzten familia ugari ez ematea bono sozial hori.

4.2.1.8.1. EAE

Espainiako neurri horien aplikazioak ezaugarri batzuek izaten ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, eta neurri horiek aplikatzeaz gain, EAEk badu pobrezia energetikoari ziurki eragiten dion neurri propio bat, hau da, gizarte-larrialdietarako laguntza. Noizbehinka jaso daitezkeen dirulaguntzak dira gastu zehatz batzuei aurre egiterik ezin duten baliabide urriko pertsonen laguntzeko, adibidez, energia, ohiko etxebizitzaren biziegokitasun eta oinarriko ekipamendua eskuratzeko laguntzak.

Halere, orain arte, Estatuaren beste erkidegoetan gertatu den bezala –aurrerago aipatuko den Kataluniako kasua salbu–, eskasa izan da pobrezia energetikoaren arazoaren inguruko kezka. Halere, nabarmentzen dira zenbait salbuespen, adibidez, oraintsu Gipuzkoako lurraldean argitaratu diren azterlan batzuek iradokitzen dute hazten ari dela gaiaren inguruko interesa.

Horren haritik, nabarmentzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politika Departamenduaren aginduz, SIIS–Dokumentazioa eta Ikerketa Zentroak buruturiko *Gipuzkoako pobrezia eta gizarte-bazterketari buruzko 2012. urteko Txostena*.⁹⁶. Azterlan horren emaitzen arabera, azpimarratzen da gipuzkoar etxebizitzaren %9k baino gehiagok pairatzen duela pobrezia energetikoa, dela diru-sarbideen %10 baino gehiago faktura energetikoa ordaintzeko erabiltzen dutelako (%9,4), dela etxebizitza tenperatura egoki batean mantendu edo kontsumo energetikoari loturiko ordainketan atzerapenak izan dituztelako.

⁹⁶ SIIS - CENTRO DE DOCUMENTACIÓN Y ESTUDIOS (2013) *Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012. Emaitza txostena / Encuesta de Pobreza y Exclusión Social de Gipuzkoa 2012. Informe de resultados*. Donostia-San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa.

Oraintsu burutu dute pobrezia energetikoaren inguruko beste azterlan bat Urola Erdiko eskualdean⁹⁷. Azterlan horretako datuek berresten dute pobrezia energetikoa pairatzen dutela eskualde horretako herritarren %10,85 inguruk. Ildo horretan, nabarmentzekoa da 2013ko uztailean eskualdean sortu den bulegoa dirulaguntza energetikoen informazioa, gas- eta argindar-fakturak ulertu edo etxebizitzetako efizientzia energetikoaren hobekuntzez berri izateko. Azpeitian (Gipuzkoan) kokatzen da zentroa, eta abian jarri da Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Berdearen programak lagunduta.

4.2.1.8.2. Katalunia

Arazo horrekiko, Katalunia izan da ziurrenik ardurarik gehien azaldu duen autonomia erkidegoa. 2009an jada, Generalitateak lagundu zuen pobrezia energetikoari aurre egiteko gidaliburu bat argitaratzen⁹⁸. Pobrezia energetikoaren ondorioz gertatzen diren arazoak nola konpondu azaltzen da bigarren aldiz 2011n argitaratu duten dokumentu horretan.

Kataluniako Hirugarren Sektoreko Erakundeen Mahaiak erakusgarri utzi du pobrezia energetikoaren inguruko dosierra⁹⁹ kaleratzean, Katalunian arazoak interesa sortzen duela. Bertan aztergai hartzen da fenomenoak, eta arazoa errotik kentzeko biltzen du gomendio-sorta bat, eta funtsean, honako hauek osatzen dute: egoeraren egiazko diagnosi bat egitea, politika eta esparru arautzailea hobetzea, eta Hirugarren Sektore eta gizarte zibilak politika-mailan eragina izatea.

Halere, oraintsu onartu dute pobrezia energetikoaren arazoa berariaz aztertzen duen *Plan de l'Energia i Canvi Climàtic de Catalunya 2012-2020*, eta hori da Kataluniak duen interes-mailaren zantzurik nabarmenena. Plangintza horrek "Ekonomikoki kaltetuen diren gizarte-mailetakako pertsonen gizarteratzea" deituriko azpi-estrategia bat ezartzen du, eta horren helburu orokorra da mekanismoak ezartzea ekidin eta zuzendu ahal izateko pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitza horietako pertsonen egoerak. Hori lortzeko, aurreikusten da pobrezia energetikoaren definizio eta ezaugarritzerako ekimenak garatzea, gaur egungo egoera aztertu eta politikak ebaluatzea, eta baita ere abian jartzea politika eta gomendio batzuek pobrezia energetikoari modu eraginkor batean aurre egiteko mekanismo berriak ezarri eta daudenak hobetuz.

⁹⁷ SOLABARRIETA, I. (2013) *Energiak Urola Erdiko etxebizitzengan duen inpaktu ekonomikoa*, Azpeitia: Ingurugiro Etxea Fundazioa.

⁹⁸ ECOSERVEIS (2011) *Guía práctica com actuar davant la pobresa energètica. Detecció, avaluació i seguiment*.

⁹⁹ MESA DE ENTIDADES DEL TERCER SECTOR SOCIAL DE CATALUNYA (2013) *La pobreza energética en Cataluña. Situación actual y propuestas de acción*. Barcelona: Mesa de Entidades del Tercer Sector Social de Catalunya.

4.2.1.9. Beste europar herrialde batzuek

Logikoki, ez da atal honetan jasotzen orain arte aztertu gabeko europar eremuko herrialdeen kasuistika zabala eta abian jarri izan diren pobrezia energetikoari aurre egiteko politika eta neurri zehatzen azterketa. Baina, halere, ahal bezain besteko ikuspegi zabal eta osatu bat eskaintzeko, gako batzuek aztertzen dira Europako bi eremu zehatzen inguruan. Beraz, aztergai hartuko da Europa hegoalde eta ekialdeko herrialde bana, Italia eta Hungaria.

4.2.1.9.1. Europa hegoaldeko herrialdeak: Italiako kasua

Begiratu batean, paradoxikoa eman dezake Europa hegoaldeko herrialdeen egoerak, baina klima atsegina izan arren, pobrezia energetikoaren maila jasoa azaltzen dute gaiaren inguruan eginiko azterlan urriek. Adibidez, Portugal ageri da aurrena Thomson eta Snell (2013)¹⁰⁰ adituek buruturiko etxebizitza bero mantentzeko zailtasunak dituzten familien inguruko azterlan batean (%35,8), eta Healy-k (2003)¹⁰¹ nabarmentzen zuenez, beste herrialde batzuetan baino gehiagoan hazten da Espainia eta Portugalgo neguko hilkortasun-tasa. Faktore batzuek laguntzen dute fenomeno azaltzen. Lehenik, sarri gertatzen da per capita errenta batz besteko maila komunitarioaren azpikoak direla eta etxebizitza-parke zaharkituagoa dutela¹⁰². Hori dela-eta, sarri izaten dute isolatze termiko¹⁰³ eskasagoa edo gabeziak dituzte etxebizitzako berokuntza-sistema efizienteak izateko, eta ohikoak dira berogailu elektriko, gas-berogailu edota etxebizitza berotzeko eraginkortasun urriko beste sistema batzuek¹⁰⁴. Santiago Tirado ikertzailearen esanarekin bat ondorioztatu daiteke “urtebetean zeharreko energia-faktorek etxebizitzako aurrekontu osoa kontuan hartzean garrantzia erlatiboa izaten duten arren, berez, etxebizitza askotan pobrezia energetikoa pairatuko lukete berokuntza-sistema bat premiakoa zen asteetarako”¹⁰⁵.

Gainera, kontuan hartu behar da udan ere pobrezia energetikoa pairatzerik badela, adibidez, etxebizitza fresko mantentzeko zailtasunak izanda. Adibidez, Robine et al. (2008)¹⁰⁶ egileen arabera, 2003ko udako bero-boladaren ondorioz, 14 herrialdetan zendutako 70.000 pertsonetan hazi omen zen ohiko hilkortasun-tasa. Nahiz eta alderdi horretan sakontzea ezinbesteko gertatu, ulertu daiteke Europako Mediterraneoko etxebizitza horietako isolatze termiko eskasaren ondorioz, iparraldeko biztanleen aldean, modu okerrago batean prebenitu zutela udamin hori.

Italia da, Espainiaz gain, pobrezia energetikoaren inguruan buruturiko berariazko azterlanen bat* aurkitu izandako Europa hegoaldeko Estatu bakarrenetakoa, eta horregatik hartzen da herrialde hori soil-soilik atal honetan¹⁰⁷.

¹⁰⁰ Thomson y Snell, 2013, *op. cit.*, pág. 567.

¹⁰¹ Cit. en Thomson y Snell, 2013, *op. cit.*, pág. 565.

¹⁰² *Ibidem*, pág. 568.

¹⁰³ Healy, 2003, cit. en Thomson y Snell, 2013, *op. cit.*, pág. 565.

¹⁰⁴ Tirado, 2012, *op. cit.*, págs. 61-62.

¹⁰⁵ *Ibidem*.

¹⁰⁶ Cit. en Thomson y Snell, 2013, *op. cit.*, pág. 565.

¹⁰⁷ La situación en España se ha analizado pormenorizadamente en un epígrafe anterior.

Europako herrialde gehienek antzera, ez dute Italian pobrezia energetikoaren definizio ofizialik¹⁰⁸, eta horrek erakusten du fenomenoari aurre egiteko zeharkako eta antolaturiko politika bat ez dagoela. Gainera, nabarmentzen dira lurraldeen arabera desberdintasunak, izan ere, pobrezia energetikoari aurre egiteko neurriak sustatu eta ezartzean berebiziko rola betetzen dute.

Alor honetako politika nagusia izan da argindar eta gas naturaleko gizarte-tarifak¹⁰⁹ ezartzea. 2001. urtean jarri zituzten abian neurri horiek, eta finantzatzen dira udalerrri bakoitzak osatu ditzaketen boluntarioki bildutako diruaz, eta horretarako erabiltzen dute administrazio zentralak (la Autorità per l'Energia Elettrica e il Gas) zergapetzen duen banaketa-tasaren %1. 2011ko datuen arabera¹¹⁰, 5,5 milioi etxebizitzetan erabiltzen zuten *bonus elettrico* deiturikoa eta 3,5 milioi etxebizitzetan *bonus gas* deituriko laguntzak.

Kontsumo murriztu, diru-sarbide baxu eta familia ugarietarako da *bonus elettrico* izeneko (3 eta 4,5 kW artekoa, pertsona-kopuruaren arabera), eta baita ere tresna elektrikoaren tratamendurako erabilera premiako duten gaixotasun larriko pertsonen etxebizitzetarako. Horren bidez, %20 beheratzen da argindarraren faktura, eta gaixotasunak dituztelako onuradun direnen deskontua kalkulatu da egindako kontsumoaren arabera, Udalari eskatu eta urtero berritu behar da, eta gaixotasuna izateagatik dirulaguntza jasotzen dute tratamenduak iraun bitartean.

Bestalde, diru-sarbide baxuko familia edo familia ugarietarako izaten dira *bonus gas* izeneko dirulaguntza horiek, eta fakturak izaten du %15eko beherapen bat (kontsumoa, familiaren tamaina eta etxebizitza dagoen eskualdeko klimaren arabera izaten da zenbateko hori). Udaletxean ere eskatu daiteke, eta urtero berritu beharrekoa da. Beharrezkoa da nabarmentzea bateragarriak direla argindar eta gasaren gizarte-tarifa mota desberdin horiek.

Efizientzia energetikoari dagokionez, europar oinarritzko zuzentaraua (2010/31/EB) barneratu zuen legeria italiarrak 2005. urtean, eta hartatik, eskualde desberdinetan estandar energetikoak ezartzen joan dira eraikuntza berri eta aurretik eraikitakoentzat. Zerga-sustapenerako programak dituzte etxebizitzak maila termikoan egokitzeko¹¹¹. Estatu-administrazioaren programak (Agenzia Nazionale per le Nuove Tecnologie, l'Energia e lo Sviluppo Economico Sostenibile, ENEA izenekoak kudeatzen du)^{112, 113} etxebizitzetan estalkien inguruko esku hartzeak barne hartzen ditu (isolatzea, leihoak) eta baita ere berokuntza-sistema efizienteen instalazioak (ur berorako eguzki-panelak barne direlarik). Joandako uztailaren 5ean eskaera-epea luzatu zuten (urtea bukatu arte), eta baita ere zerga-arinketaren zenbatekoa (%55 izatetik %65 izatera).

¹⁰⁸ EUROPEAN FUEL POVERTY AND ENERGY EFFICIENCY (2009) *Informe sobre los diferentes mecanismos existentes para abordar el problema de pobreza energética*. Serie: EPEE project, nº WP 3 - Deliverable 8.

¹⁰⁹ *Ibidem*.

AUTORITÀ PER L'ENERGIA ELETTRICA E IL GAS (s/d) *Un aiuto sulla bolletta elettrica / sulla bolletta del gas* [folleto], Autorità per l'Energia Elettrica e il Gas.

¹¹⁰ COMITÉ ECONÓMICO Y SOCIAL EUROPEO (2013) *Documento de trabajo de la Sección Especializada de Transportes, Energía, Infraestructuras y Sociedad de la Información sobre « Por una acción europea coordinada para prevenir y combatir la pobreza energética »*. (Dictamen de iniciativa). Bruselas: Comité Económico y Social Europeo, TEN/516 - CES2517-2013, págs. 4.

¹¹¹ EUROPEAN FUEL POVERTY AND ENERGY EFFICIENCY (2009) *Good Practices Experienced in Belgium, Spain, France, Italy and United Kingdom to Tackle Fuel Poverty*. Serie: EPEE project, nº WP 4 - Deliverable 11, pág. 11.

¹¹² RINNOVA ENERGIA (s/d) *Detrazione fiscale 65% - Riqualificazione energetica*.

¹¹³ GANDOLFI, N. (2013) "Detrazione fiscale del 65% per gli interventi di riqualificazione energetica", *Quotidiano.net*.

Azkenik, aipagarri dira diru-sarbide gutxien duten etxebizitzak babestera zuzenduriko bi ekimen. Batetik, indarrean dago joandako irailaren 1etik Autorità per l'Energia Elettrica erakundearen arau bat, eta horren bidez, argindar-konpainiek derrigorrekoa izango dute posta ziurtatuz abisua bidaltzea ez ordaintzearen ondorioz etxebizitzako zerbitzua moztu aurretik¹¹⁴. Bestetik, udalerrri batzuek hitzarmena lortu dute ura, argindarra eta gasaren fakturak osorik ordaindu edo beharrezko errenta oso baxuak dituzten familiei (Treviglio kasua, Bergamon)¹¹⁵, edo 65 urtetik gorako bizikideak dituzten etxebizitzetan (adibidez, Toskanako Lucca hirian)¹¹⁶.

4.2.1.9.2. Europa ekialdeko herrialdeak: Hungariako kasua

Thomson eta Snell (2013)¹¹⁷ adituen esanean, Europa hegoaldeaz gain, nabarmentzekoa da kontinentearen pobrezia energetikoak prebalentzia-mailarik altuena Ekialdeko Europan ematen dela. Tirado¹¹⁸ adituaren arabera, ondorengo lau faktore hauei erantzuten die fenomenoak:

- Erregimen komunisten agintetik ekonomia kapitalistara pasatzeko egiturazko erreformek markatu zituzten herrialde horietako trantsizio-prozesuak, eta horren ondorioz desagertu ziren energia-arloko monopolio eta dirulaguntzak, eta, besteak beste, merkatuak liberalizatu zituzten.
- Europar Batasunaren batz bestekoaren azpiko BPG per capita izatea.
- Etxebizitzek egiten duten batz besteko kontsumo altua, diruz lagunduriko prezio eta etxebizitza-parkearen zaharkitze-mailaren ondorioz.
- Komunismoaren ondorengo gobernu demokratikoek gaitasun eza erakutsi dute gizarte-babes maila egoki bat bermatu, eta efizientzia energetikoa hobetzearen izenean, diru-sarbide apalena dituzten etxebizitzak berrikuntza sustatzeko.

Ekialdeko Europa osatzen duen –egiaz anitzak diren– herrialde horien artetik, nabarmentzekoa da Hungariako kasuan, eta ez soilik oraintsu herrialde horren kasuan zentratutako ingelesez eginiko azterlan bat eskuragarri dagoelako (Tirado, 2013)¹¹⁹, baizik eta herrialde hartan arazoa nabarmen larritu delako. Egiaz, eta aipatu berri den azterlanaren arabera, 2001an pobrezia energetikoa (gastuaren arabera neurtuta) pairatzen zuen hungariar etxebizitzak %21eko portzentajeak, eta 2008an %34 izatera pasa zen, batetik, gas naturalaren prezioek goraka egin zutelako, eta lau aldiz biderkatu zen garai tarte horretan; bestetik, BEZa hazi egin zen (%20 izatetik %25 izateraino); eta, azkenik, baldintzak zorrotz zituzten 2007tik indarrean zeuden gizarte-tarifak eskuratzeko (*gázártámogatás*).

Herrialde horretako Administrazioaren pobrezia energetikorako prebentzio-politikak lortzen ari dira, hein batean, hungariar familien ekonomia arintzea; baina ez dute berariazko eta

¹¹⁴ RICCIARDI, A. (2013) “Morosità bollette elettriche. Nuove regole per i consumatori”, *Indebitati.it*.

¹¹⁵ TREVIGLIO (2013) *Bando Fondo Sociale Utenze Domestiche Anno 2013*.

¹¹⁶ LUCCA (2012) *Rimborsi e detrazioni su Acqua, Gas e Rifiuti (TIA) per nuclei con ultra64enni*.

¹¹⁷ Thomson y Snell, 2013, *op. cit.*, págs. 563-572.

¹¹⁸ TIRADO, S. (2013) *Fuel Poverty Alleviations as a Co-benefit of Climate Investments: Evidence from Hungary*. Budapest: CEU, Budapest College.

¹¹⁹ *Ibidem*. Oinarri gisara hartu da lan interesgarri hau atala honen gainontzeko zatia lantzeko.

koordinaturiko politikarik arlo honetan, eta kritikak ere izan dituzte orain artean garaturiko neurriek.

Tirado adituaren esanaren arabera, energia-prezio altuak orekatzeko neurri horiek dira garrantzitsuenak bai baliabideen zifragatik bai jasotzaile den pertsona-kopuruagatik. 2011an gehitu zituzten gas berokuntza-sistema urbano edo distrituetako¹²⁰ gizarte-tarifak etxebizitzaren mantentzerako dirulaguntzetara (*lakásfenntartási támogatás*)*, eta baliabide hori erabili daiteke etxebizitzako bestelako gastu batzuetarako –alokairua, komunitatea, ura, zabor eta estolderia–, aurretik zituzten prestazioek baino energia-mota gehiagorako dirulaguntza eskaintzen du, eta ahalbidetzen du diruan kobratzea. Halere, ez dago argi aurreko bono sozialen aldean, konparatzeko modukoa ote den dirulaguntza horren zenbatekoa.

Ildo berekoak dira berokuntza-sistema urbanoari egiten zaizkion eta %25 izatetik %5 izatera pasa diren BEZaren deskontuak, eta Gobernuak dekretu bidez 2011tik onartu behar dituen zerbitzu horren tarifekiko kontrolaren hazkuntza.

Zenbait kontrako argumentu erabili izan dira energia-prezioetan eginiko esku hartzeen ondorioz, eta horien artetik nabarmendu daitezke hauek biak: beharrezan dauden pertsona adinduen kolektiboari kontu gutxi hartzea eta sustagarria kentzea etxebizitzaren efizientzia energetikoa hobetzeko inbertsioei.

Bigarren maila batean biltzen dira, hain zuzen ere, etxebizitzaren errendimendu energetikoa optimizatzeko neurriak. 2001 eta 2008 urteen artean, abian jarri zituzten antzeko programa batzuek nazio- eta toki-mailan. Tiradok azaltzen duenez, kontsumoaren gutxitzean eragin murrizta izaten duten energiaren kostua orekatzeko programek baino baliabide urriagoak izan dituzte; eraikuntzetan egin beharreko esku hartzeak ez dira aukeratzen pobrezia energetikoaren irizpideen arabera; eta ia modu eskusibo batean zentratu dira etxebizitzaren tipologia batean (aurrez fabrikaturiko etxebizitzak)¹²¹.

Azkenik, laguntza-zerbitzuak dituzte zorren ordainketari (*adósságkezelési szolgáltatás*) aurre egiten laguntzeko, eta zerbitzu hori kudeatzen dute, udaletxe, fundazio eta argindar-hornidurako enpresek. Horrelako baliabideek saihesten dute oinarriko horniduraren etena, eta zorretan dituzten fakturak ordaintzeko gehiegizko kredituak kontratatu beharra. Halere, hiri handietan daude laguntza-zerbitzu horiek, eta ez dute prebentzio- edo larrialdi-izaerarik –sei hilabeteen ordaintzeke egon ondoren eskatu behar dira laguntzak–, eta mugatuak daude etxebizitza-mota eta zor batzuetarako.

¹²⁰ Horrelako berokuntza-sistemak nahiko ohiko izaten da ekialdeko herrialde eta herrialde nordikoetan.

¹²¹ Egileak nabarmentzen duenaren arabera, horrelako etxebizitza-motak erlatiboki hedatuak daude ekialdeko herrialdeetan, eta ezaugarri izaten dute errendimendu energetiko eskasa.

4.2.2. Beste herrialde batzuek

4.2.2.1. Ameriketako Estatu Batuak

Jada 1975. urteko Newman eta Day¹²² adituen azterlan batek azaltzen zituen energia-faktorei aurre egiteko estatubatuar etxebizitza batzuen zailtasunak, eta bertan nabarmentzen da diru-sarbideen maila etxebizitzaren erabilera energetikoaren adierazle dela. Azterlan horren arabera, gero eta diru-sarbide apalagoak izatean, hein berean hazten zen premia energetikoak ordaintzera bideraturiko portzentajea. Beharrezkoa da azpimarratzea, edonola ere, Estatu Batuetako Gobernuak ez duela pobrezia orokorraz albo batera dagoen fenomenotzat jo pobrezia energetikoa, eta horren ondorioz, diru-sarbide apaleko etxebizitzetara laguntza bideratu da estatu-mailako programek eragozteko dituzten neurrien bidez.

Bestetik, ez dago eragina neurtu eta kuantifikatu dezakeen datu ofizialik. Halere, 2005ean¹²³ Erresuma Batuko pobrezia energetikoaren definizioa oinarri izanda buruturiko azterlan baten kalkuluen arabera, nabarmentzen da diru-sarbideen %10 baino gehiago bideratzen dutela gastu energetikoa ordaintzeko 15,9 milioi etxebizitza estatubatuarrek, hau da, etxebizitza guztietatik %14k. Azterlan horrek ere azpimarratzen du pobrezia energetikoak bereziki eragiten diela diru-sarbide apaleko etxebizitzetara, eta lotura duela adina, etxebizitza-jabego eta etxebizitzaren kokapenarekin.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan, Estatu Batuek eta baita beste herrialde askok ere helburutzat hartu zuten berauen mendetasun energetikoa beheratzea, eta gaiaren inguruko bi ekimen onartu zituzten estatubatuarrek. 1973. urteko lehendabiziko petrolio-krisialdiaren ostean, Gobernu federalak sustatu zuen Klima egoki bat izateko Laguntza Programa (Weatherization Assistance Program, WAP)^{124, 125}, eta bideratzen zuten errendimendu energetikoa eta ongizate-maila hazteko diru-sarbide baxuetako etxebizitzetako isolatze, aireztatze eta ekipamenduaren berrikuntzaren bitartez. 1976. urtean jarri zen abian kostu baxuko neurriak finantzatzuz (ate eta leihoen isolatze termikoak) oraindik ere indarrean dagoen programa hori, eta progresiboki bideratu zituzten kostu eta eraginkortasunaren aldetik neurtutako hobekuntzak, adibidez, atikoen isolatzea (laurogeiko hamarkada hasieran), berokuntza-sistemak eta iturriko ura (1984) edo esku hartzeen aurretiko etxebizitzaren efizientzia energetikoaren inguruko ikerketak (laurogeita hamarreko hamarkada). Bestetik, bigarren petrolio-krisialdiaren ondoren sortu zuten Diru-sarbide Baxuko Etxebizitzetako Laguntza Programa (Low Income Home Energy Assistance Program, LIHEAP), eta horren bidez laguntzen zieten diru-sarbide apaleko etxebizitzetara faktura energetikoak ordaintzen.

Mark Silberg¹²⁶ adituaren arabera, nabarmendu daiteke eraginik gehien duten pobrezia energetikoari loturiko politika nagusiak bi erakunde hauek kudeatzen dituztela: etxebizitzetako

¹²² NEWMAN, D. y DAY, D. (1975) "The American energy consumer: A report to the energy policy Project of the Ford Foundation". Cambridge: Ballinger.

¹²³ POWER, M. (2006) "Fuel poverty in the USA: The overview and the outlook", *Energy Action*, nº 98.

¹²⁴ U.S. DEPARTMENT OF ENERGY (2012) *Weatherization Assistance Program*.

¹²⁵ U.S. DEPARTMENT OF ENERGY (2010) *History of the Weatherization Assistance Program*.

¹²⁶ SILBERG, M. B. (s/d) US and UK Policies to Address a Social and Environmental Injustice.

efizientzia energetikoaz arduratzen den aurretik aipaturiko Energia Departamenduaren mendeko (U.S. Department of Energy, DOE) Weatherization Assistance Program izeneko; eta familia zaugarrien kontsumo energetikoa ordaintzen laguntzeko Osasun eta Gizarte Ongizate Departamenduko (U.S. Department of Health and Human Services) Diru-sarbide Baxuko Etxebizitzetako Laguntza Programa (Low Income Home Energy Assistance Program, LIHEAP). Horren ondorioz, arreta urria jarri zaio bi neurrien arteko loturari, etxebizitzako klimaren egokitze eta dirulaguntzak eman eta koordinatzeari. Bi tresna horiek goitik beherako bidea egiten dute, izan ere, Gobernu federalak antolatzen du Estatu federatuei bideratzeko dirua, eta azken horiek dira laguntzak ezarri eta banatzeaz arduratzen direnak; eta horrek zailtzen du politika integratuen garapena.

4.2.2.2. Kanada

Gero eta etxebizitza-kopuru handiago bati eragiten dio pobrezia energetikoa Kanadan. 2006ko kalkuluen arabera, milioi bat kanadar etxebizitzetan (guztietatik %3,16) berauen diru-sarbideen %10 baino gehiago jarri behar dute tenperatura egoki bat lortzeko¹²⁷.

Beste herrialde batzuen antzera, Kanadan ere energia-prezioak haztea izan da pobrezia energetikoa gertatzeko kausa nagusienetako bat. 2000 eta 2008 urteen artean, %43,5 hazi zen herrialde horretako argindarraren prezioa, eta 2009an modu arin batean beheratu ondoren, kalkulu batzuen arabera, urteko %6,7 eta %8 bitartean hazi omen daiteke hurrengo bost urteetan. Energia-fakturen kostu altuaren ondorioz, diru-sarbide apaleko etxebizitzetan osasunarentzat eragin ezkorrak izan ditzakeen egoera desegokian bizi behar izaten dute. Hezetasun eta lizunaren eraginez (biak ere etxebizitzako isolatze-, berokuntza- edo aireztatze-sistema desegokien ondorioz sortzen dira) asma edo arnasketaren bestelako gaixotasun batzuek sor daitezke¹²⁸.

Bestetik, pobrezia energetikoa haztarazten du diru-sarbide apaleko familien etxebizitza-kaleratzea gertatzeko arriskua, eta horrek etxegabekoen fenomenoaren hazkuntza bultzatzen du Kanadan. Etxetik kaleratzeko bigarren kausa da, etxebizitza-alokairuen prezio goratuen ostean, energiaren kostu altua¹²⁹.

Nahiz eta herrialde horretan pobrezia energetikoaren aurkako estrategia zehatz bat ez izan, baditu zenbait neurri fenomenoari aurre egiten laguntzeko. Ondorengo hiru maila hauetan egituratzen dira kanadarren ekimen nagusiak:

- Pobrezia energetikoa pairatzen duten etxebizitzetarako dirulaguntzak eskaintzen dituzten ekimenak. Atal honetan nabarmentzekoa da Neguko Beroa Programa (*Winter Warmth*), Diru-sarbide Baxuetarako Energiaren Laguntza Programa (*Low Income Energy Assistance Program, LEAP*) eta Wellington Konderriko Energia Funtza (*County of Wellington Energy*

¹²⁷ LONEY, S. (2009) "The case for a national strategy on low income energy and water efficiency", *Fast Facts*, Canadian Centre for Policy Alternatives.

¹²⁸ CANADIAN HOUSING FOR RENEWAL ASSOCIATION (2005) *Affordable & Efficient: Towards a National Energy Efficiency Strategy for Low-income Canadians*. Canadá: Canadian Housing for Renewal Association.

¹²⁹ FORBES CAIRNEY, K. M. (2008) "Energy poverty as ideological poverty in Canada". *Esurio. Journal of Hunger and Poverty*, vol. 1, nº 1.

Fund). Hiru neurri horien bidez dirulaguntzak eskaintzen dira ordaindu gabeko fakturetarako. Horietatik lehenengoak kontuan hartzen ditu gas-fakturak soilik, eta beste biak erabiltzen dira gas eta argindarraren fakturak ordaintzeko. *Winter Warmth* eta LEAP programak nazio-mailakoak dira, eta hirugarrena Wellington Konderrikoa da (Ontario).

- Energia-prezioan eragina duten ekimenak, adibidez, Ontarioko Energia Batzordeak (*Ontario Energy Board, OEB*) argindarraren prezioak arautzeko sorturiko ekimena. Erakunde horrek ere sustatu du ordutegiaren tarteen arabeko argindar-tarifa bat kalkulatzeko, betiere prezio desberdinak ezarri kontsumo-ordutegiaren arabera. Erabiltzaileak jasotzen duen fakturan azaltzen da informazio hori, eta modu horretan laguntzen da kontsumoa hobe kontrolatu edo kostua beheratzen.
- Etxebizitzetako efizientzia energetikoa hobetzeko neurriak. Maila horretakoak dira biztanleria orokorrari zuzenduriko Efizientzia Energetikoaren Programak (*Home Energy Efficiency Programs, HEEPs*), eta xede dute errendimendu energetikoa hobetzeko etxebizitzetako ekipamenduak berritzea, adibidez, galdara eta elektrotresnak. Adituen esanean, neurri horiek eragin apala izaten dute etxebizitza zaurgarrientzat¹³⁰. Batetik, diru-sarbide apaleko etxebizitzetako biztanleek zaila izaten dute programa horien inguruko berri jasotzea, eta bestetik, bestelako premia batzuek lehenesten dituzte etxebizitzako ekipamenduak berritzen hasi aurretik.

4.2.2.3. Australia eta Zeelanda Berria

2015-2016 biurtekoan agertu daiteke lehendabiziko aldiz pobrezia energetikoa Australian. Hori uste dute Simshauser *et al.*¹³¹ adituek, eta berauen kalkuluen arabera, energia lortzeko diru-sarbideen %10 baino gehiago gastatu beharko du diru-sarbide baxuak dituzten familien %33k urte horietan. Elkarri hertsiki loturiko faktore batzuen ondorio izan daiteke egoera hori. Ekonomia-mailan 1992. urtetik ezagutu hazkundeak eta argindarraren salneurri baxuak ekarri du ongizate-mailaren hazkuntza familientzat; eta hazi egin da familia horiek erabilitako etxebizitza-azalera, elektrotresna-kopurua eta baita ere energia-kontsumoa. Halere, 2002 eta 2012 urteen artean bikoiztu egin da argindarraren prezioa, eta azterlanaren arabera, gora egingo dute prezioek merkatu-eskaria haztean. Hori dela-eta, azterlanean aurreikusten da etxebizitzako udako tenperatura egokitzeko familia batzuek zailtasunak izango dituztela.

Pobrezia energetikoari aurre egitean australiar Gobernuaren eragin gehien izandako ekimenetako gidalerroak aipatzean, nagusi dira etxebizitzako efizientzia energetikoaren hobetze eta faktura energetikoak ordaintzeko diru-sarbide apaleko etxebizitza apalenzako laguntzak. Lehenengo kasuan, nabarmendu daiteke efizientzia energetikoaren politikak garatzeko erabilgarriak diren azterlanak finantzatu, eta baita ere diru-sarbide apaleko familien etxebizitzetako efizientzia

¹³⁰ McEACHERN, M. y VIVIAN, J. (2010) *Conserving the Planet without Hurting Low-income Families. Options for Fair Energy-efficiency Programs for Low-income Households. A Report for the Energy Poverty Initiative and the Climate Justice Project*, University of Victoria Environmental Law Centre.

¹³¹ SIMSHAUSER, P. *et al.* (2010a) "The Boomerang Paradox, part I: How a nation's wealth is creating fuel poverty", *The Electricity Journal*, vol. 24, nº 1.

energetikoa bultzatuko duten proiektu pilotuak ezarri eta ebaluatzeko *Income Energy Efficiency*¹³² programa. Bigarren maila horretako neurrien adibide gisara aipatu daiteke energia-konsumoa gutxitzeko familiei berri eman eta orientatzen dituen *Home Energy Saver Scheme*¹³³ programa.

Zeelanda Berriaren kasuan, pobrezia energetikoa pairatzen dute etxebizitzaren %25ean¹³⁴. Faktore batzuen ondorioz eman da egoera hori, eta faktore horietako batzuek dira bizi-baldintza eskasak dituzten etxebizitza-kopurua, joandako urteotako argindarraren garestitzea eta diru-sarbiddeen desberdintasun-maila. Gainera, neguko hilkortasun-portzentaje altuaren kausetako bat izatea (zendutakoen %16, hau da, urteko 1.600 zendutako pertsona) eta neguan gertatzen den ospitaleratze-kopuru altua (urteko beste hilabeteetako baino %8 altuagoa) leporatzen diote pobrezia energetikoari.

Pobrezia energetikoari aurre egiteko herrialde horretako oinarrizko neurriak bideratzen dira, batetik, bizi-gokitasunaren baldintzak hobetzea etxebizitzetako kontsumo energetikoa gutxiarazteko, adibidez, *New Zealand Energy Efficiency and Conservation Strategy 2011-2016*¹³⁵ eta *Warm Up New Zealand: Heat Smart*¹³⁶ izeneko ekimenak. Horietatik lehendabizikoak aldeztu du estrategia global bat energiaren erabilera efizienteagoa gertatzeko etxebizitzetan; baina baita ere arlo publiko, industria eta garraioan. Lau urtean zehar garatu da bigarren ekimena (2009-2013), eta dirulaguntzen programa bat da familiek etxebizitzako isolatze termikoa hobetzeko. Bestalde, Zeelanda Berrian dirulaguntzak eskaintzen dituzte fakturen ordaintzea errazteko, adibidez, aurrez ordaindutako kontagailuen bidez.

¹³² DEPARTMENT OF INDUSTRY (s/d) *Low Income Energy Efficiency*.

¹³³ DEPARTMENT OF SOCIAL SERVICES (2013) *Home Energy Saver Scheme*.

¹³⁴ HOWDEN-CHAPMAN, P. et al. (2011) "Tackling cold housing and fuel poverty in New Zealand: A review of policies, research, and health impacts", *Energy Police*, nº 49.

¹³⁵ ENERGY EFFICIENCY AND CONSERVATION AUTHORITY (2011) *New Zealand Energy Strategy - New Zealand Energy Efficiency and Conservation Strategy 2011-2016*. Energy Efficiency and Conservation Authority.

¹³⁶ ENERGY EFFICIENCY AND CONSERVATION AUTHORITY (s/d) *Warm Up New Zealand: Heat Smart*. Energy Efficiency and Conservation Authority.

4.3. Pobrezia energetikoaren tasetan eragina izandako politika eta neurriak

Atal honetan sakontzen da pobrezia energetikoaren inguruan ondorengo hamar bat herrialdetan gaur egun garatzen ari diren eta sakonduriko politika, neurri eta esku hartzeetan: Erresuma Batua, Irlanda, Frantzia, Belgika, Holanda, Alemania, Danimarka, Suedia eta Estatu Batuak. Horiez gain, orokorrean aztertzen dira espainiar Estatuan ezarritako politika eta neurriak, eta bereziki EAEko kasuan. Aipatu behar da gehienez ere ekimen publikoak direla, izan ere, azterlanerako kontuan hartu da pobrezia energetikoari aurre egiteko gaitasun handiagoa dutela, baina horietaz gain aztertu dira, duten garrantziagatik, izaera pribatuko zenbait zerbitzu eta programa. Nahiz eta neurri horien guztien berariazko helburua ez izan aipaturiko fenomenoaren gutxitzea, kontuan hartzen da horiek guztiek lagundu dezaketela modu eraginkor batean prebenitu edo arintzen.

Neurri horiek azaltzean, jarraibide hartu da pobrezia energetikoaren inguruko azterlanen ohiko sailkapena¹³⁷, eta bereizten ditu fenomenoaren oinarritzko hiru kausekin bat datozen ondorengo hiru estrategia hauek: etxebizitzetako gabeziak, energia-prezioa eta familia-errenta. Horrela, etxebizitzetako gabeziei aurre egiteko neurriak bihurtzen dira etxebizitza edo ekipamendua berritu eta efizientzia energetikoa optimizatzeko zuzeneko laguntza eta zerga-kenkarietan. Energia-kostuari aurre egiteko daude gizarte-tarifak, eta horien bidez laguntzen saiatzen dira gizarte-prestazioen jasotzaile edo gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden diru-sarbide baxuko pertsona edo familiei. Horren ezean, zailtasun ekonomikoak izango lituzkete energia-merkatutik premiako hornidura bermatzeko. Azkenik, errenten eskasia arintzeko, premia-egoeran dauden pertsona eta familientzako zuzeneko dirulaguntzak daude energia-fakturak ordaindu ahal izateko.

Estrategia horietaz gain, nabarmentzekoak dira beste neurri interesgarri batzuek, adibidez, kontsumoa murrizteko gailuak, herritarrak partaide dituzten informazio- eta prestakuntza-programak, ez ordaintze, hornidura mugatze eta mozketen inguruan orientatzeko esku hartzeak, eta baita ere aurrekoen antzeko ez diren beste ekimen berritzaile batzuek.

Aurrekoak kontuan harturik, bitan banatzen da atal hau. Lehenik, egiten da neurri horien azterketa konparatibo bat, pobrezia energetikoaren inguruan –zuzenean edo zeharka– burutzen ari diren ekimenen panorama orokor bat eskaintzeko asmoz. Horren ostean aurkezten dira herrialdekako koadro batzuek, eta deskribatzen laguntzen dute, tipologiaren arabera sailkatuz, azterlan honetarako aurkitu diren oinarritzko neurriak.

Pobrezia energetikoarengan eragina lortzeko gaitasuna izan dezaketen eta indarrean dauden 61 neurri ezagutu dira. Epe luzeko ibilbidea eta baita ere oraintsu praktikan jarri berriak diren ekimenak dira, baina orokorrean, gero eta interes handiagoa pizten du arazoari modu eraginkor eta efiziente batean arreta jartzeak. Ekonomia-krisialdiaren ondorioz gertatu den etxebizitzetako diru-sarbideen mailaren beharrezkoak, energia-prezioaren hazkuntza eta klima-aldaketaren ondorio negatiboak dira, ziur asko, joera hori azaltzen duten faktoreetako batzuek. Bestalde, aurrez ikusi daiteke programa horien ebaluazioa ohiko bihurtzea praktikan –ez beti ohiko edo nahikoa sakon–, gaur eguneko aurrekontu publikoen murrizketa eta kuantifikatu eta kontrastatu daitezkeen emaitzetan oinarri harturiko esku hartzeen eskariaren ondorioz.

¹³⁷ TIRADO, S. (dir.) (2012) *Pobreza energética en España. Potencial de generación de empleo derivado de la rehabilitación energética de viviendas*. Madrid: Asociación de Ciencias Ambientales, pág. 97.

Gaur egungo ebaluazio eta datuek azaltzen dute badela pobrezia energetikoaren arazoei aurre hartzerik, eta ez dagoela hori gertatzeko jarraibide bakar bat. Gai honen inguruko herrialdeetako politika desberdinak definitzen laguntzen dituzte fenomeno hori sortarazteko oinarrizko faktoreei ematen zaien garrantziak (etxebizitzetako egokitze termikoaren gabezia, etxebizitzetako baliabide ekonomiko eskasak eta tarifa energetiko altuak), neurri zehatzen konbinazioak, izaera unibertsal edo fokua identifikatzeko neurriak, edo ekimenen eskalak.

Baina zeintzuk dira gure inguruko herrialdeetan garatzen ari diren pobrezia energetikoari aurre egiteko politika-motak? Aurretik azaldu den bezala, dimentsio anitzeko fenomeno da pobrezia energetikoa, eta honako hiru oinarrizko faktore nagusiek sortarazten dute: etxebizitzaren gutxiiegitasuna, diru-sarbide eta energia-kostuak. Horren ondorioz, arazo hori prebenitu eta zuzentzeko politikak sailkatu dituzte hiru talde nagusietan, eragina bideratu nahi den kausa zehatzari arreta jarritz. Hiru ekimen-ardatz horiek dira etxebizitzetako efizientzia energetikoaren hobekuntza, diru-sarbide gutxiagoko etxebizitzetako transferentzia egitea eta gizarte-tarifak.

4.3.1. Efizientzia energetikoan zentratzen diren neurriak

Literatura berezituak pobrezia energetikoa gutxiarazteko tresna egokientzat hartzen ditu baldintza termiko eta etxebizitzaren baliabide energetikoaren aldeko orientazioa eskaintzen duten neurriak. Horrelako neurriek “gizarte-bazterketa egoerei eragiteaz gain, gutxiarazten dute energia-kontsumoa eta premia energetikoak asetzeko familia batek behar duen energia-kontsumoa”¹³⁸, eta hauteman daitezke osasun eta bizi-itxaropenaren hobekuntzak¹³⁹. Gainera, azterlan batzuek nabarmentzen dute epe luze batean pobrezia energetikoari aurre egiteko esku hartze horiek duten gaitasuna¹⁴⁰.

Antzerako 24 neurri antzeman dira, eta berauen xede izaten da, adibidez, isolatzeko osagaiak, berokuntza-sistemak edo iturriko ura jarri edo konpontzea, efizientzia-maila energetiko altuagoko elektrotresnak eskuratzea edo energia berriztagarrien gailuak abian jartzen laguntzea. Laguntza ekonomikoak izaten dira gehienez –dirulaguntzak (zuzen edo zeharkakoak), baldintza onuragarriko mailegu edo zerga-kenkariak–, baina baita ere eskaintzen dituzte etxebizitzako energia-erabileraren inguruan aurrezteko diagnostiko- eta aholkularitza-zerbitzu batzuek. Neurri horien tipologia hartzen dira, baita ere, efizientzia energetikoaren inguruko ziurtagiriak.

Gaur egun, estrategia integratu bat du Erresuma Batuak, eta etxebizitzetako efizientzia energetikoa indartzeko bideratzen dira elkarri osatzen diren dirulaguntza eta zeharkako maileguak. Gizarte-talde zaurgarrienei lehenesten zaizkie laguntza horiek, eta jasotzaile izateko irizpideak doitzen joan dira helburu duten biztanleriarentzat onuragarri gertatzen dela ziurtatzearen. Rol garrantzitsu bat betetzen dute enpresa energetikoek politika horietan, izan ere, berauek finantzatzen dituzte gizarte-bazterketa egoeran dauden etxebizitzetako erreformak (*Green Deal*

¹³⁸ EUROPEAN FUEL POVERTY AND ENERGY EFFICIENCY (2009) *Good Practices Experienced in Belgium, Spain, France, Italy and United Kingdom to Tackle Fuel Poverty*. Serie: EPEE project, n° WP 4 - Deliverable 11, pág. 10.

¹³⁹ LIDDELL, C. y C. MORRIS (2010) “Fuel poverty and human health: A review of recent evidence”, *Energy Policy*, n° 38, págs. 2.987-2.997.

¹⁴⁰ HOUSEHAM, I. (2010) *Policies and Initiatives to Combat Fuel Poverty. Identifying International Best Practice*. Eco Ltd.; UNDP.

programa). Horietako ekimen batzuek ebaluatu dituzte –orain ari dira gainontzekoak ebaluatzen–, eta jaso dituzten emaitzak oso onak dira. Antzekotasuna dute, alderdi batzuetan, Irlandar eta britainiar politikek, eta biek ere bideratzen dute pobrezia-arriskuan dauden kolektiboak zuzenduriko ebaluazioetan aski emaitza onak emandako estrategia global bat (kasu honetan, gizarte-laguntzen jasotzaileak).

Bestetik, egiazko estrategia bat ez den arren, Frantzian, gehienez, fokua jartzen dute premiarik gehien duten kolektiboetan, eta bertan sortu da batzuetan konbinatu daitezkeen neurri zabalenaren eskaintza bat. Belgikako administrazio publikoek ere apustu egin dute neurrien aniztasunaren alde, nahiz eta kasu horretan ez diren horrenbestean zuzentzen arriskuan dauden biztanleei, eta hobetu daitezke abian jarritako neurri horiek.

Urriak izan dira Danimarka eta Suedian espezifikoki errenta gutxien duten pertsonen bideraturako efizientzia energetikoa sustatzeko politikak, halere pobrezia energetikoan gutxieneko tasak dituzte herrialde horietan. Alegiazko egoera paradoxiko hori azaltzeko kontuan hartu behar da etxebizitzaren efizientzia energetikoa indartzen aurrenak izan zirela, eta, horrez gain, erlatiboki berria eta publikoa den etxebizitza-parke zabala dutela. Betiere, nahiago dute pobrezia energetikoari aurre egiteko izaera unibertsaleko gizarte-politikak bideratzea, kolektibo zehatz batzuetan zentratzen diren politika berezituak landu ordez.

Bukatzeko, eta Espainiari dagokionez, hauteman daiteke pobrezia energetikoaren inguruan hazten ari dela interes hori, eta horren ondorioz neurri asko hartu dituzte lurralde horretan. Ugariak dira etxebizitza-erreforma eta elektrotresnak berritzeko dirulaguntzak –azkenengo hori ez da ohiko beste herrialdeetan–, eta errenta apalenak dituzten etxebizitzetara bereziki bideraturiko neurriak eskaini arren, ez dira nahikoak efizientzia energetikoaren arloko hobekuntzen gaitasuna orekatzeko. Nabarmenezkoa da Katalunian pobrezia energetikoaren fenomenoak kontuan hartzen duen estrategia energetikoa, Estatu-mailan horrelako neurri batek duen berritasunagatik.

4.3.2. Errenta-transferentzietan zentratzen diren neurriak

Pobrezia energetikoari aurre egiteko bigarren ekimen-ardatz dira errenta gutxien duten pertsonen bideratzen zaizkien transferentziak, izan ere, energiaren hornitzeko zailtasunak izan baititzakete. Gizarte-tarifen era berean, prestazio horiek ulertu izan dira epe motzegikoak direla, eta garai baterako pobrezia energetikoa arintzeko baliagarri izan arren, ez dute fenomenoak errotik kentzerik¹⁴¹.

Hori dela-eta, salatzen dute efizientzia energetikoaren inbertsioei pizgarria kentzen diela – etxebizitzak hobetu ordez, energia gehiago erosteko erabiltzen dutelako– eta higiezinaren alokairu-merkatuan praxi okerrak sustatzen dituztela¹⁴². Halere, eta aurretik testu honetan argudiatu den

¹⁴¹ EUROPEAN FUEL POVERTY AND ENERGY EFFICIENCY, 2009, *op. cit.*, págs. 9 y 11.

¹⁴² TIRADO, S. (2013) *Fuel Poverty Alleviations as a Co-benefit of Climate Investments: Evidence from Hungary*. Budapest: CEU, Budapest College, pág. 235.

moduan, ezinbestekoak dira esku hartze mota horiek bermatzea gizarte-maila pobretuenentzako energia bezalakoa den oinarritzko ondareaz hornitzeko, eta ikuspuntu horri kontu hartu beharko litzaioke arazoaren dimentsio horietan guztietan arreta jarriko dion politikaren bat bideratzeko asmoa izatean.

Berrikustean antzeman dira laguntza-tipologia horretako hamabi neurri. Herrialde guztietan ezartzen dituzte sarbide-irizpideak, eta errenta-maila da horien artetik erabilitako irizpide ohikoena. Horretaz gain, ohikoak izaten dira irizpide-gehigarri batzuek, adibidez, adina, pentsio edo gizarte-prestazioen jasotzaile izatea, etxebizitzako bizikide baten ezgaitasun-egoera, etxebizitzako tamaina eta ezaugarriak edo bizigunearen zona klimatikoa. Logikoki, hein handi batean mugatzen du batzuek edo besteak hautatu beharrak, izan ere, horrek baldintzatzen baitu egiazko premia duten talde sozial eta demografikoei laguntzeko gaitasuna. *Winter Fuel Payments* britainiarra kritikatu izan dute horregatik, izan ere, ez baitu errenta-maila erabiltzen sarbide-filtro gisara, nahiz eta pobrezia energetikoa pairatzen duten pertsona adinduei bideratu. Beste kasu batzuetan, adibidez, LIHEAP programa estatubatuarraren kasuan, emaitzen eskastasuna leporatzen diote programak eskainitako laguntzen zenbatekoen maila urriagatik.

Beste alderdi batzuen arabera ere aldatzen dira neurri horiek, adibidez, laguntza eskuratzeko modua (zuzenean onuradunari ordaintzen zaio edo faktura-kenkari bat egiten dio konpainia energetikoak), babesten duen energia-mota (argindarra, hiri-gasa, berokuntza-sistamarako gasolioa) edo duen aldizkakotasuna (batzuek izaten dira soilik neguko egun zehatz batzuetarako edo tenperaturaren arabekoak). Sarri, ez dituzte soilik faktura energetikoak ordaintzera mugatzen, izan ere, beste prestazio batzuen osagarri baitira, edo neurri-sorta zabalagoen baita aurkeztu ohi dituzte. Belgikako *Fonds d'énergie* deituriko neurriak joera hori argiro irudiztatzen du azkenaldiko, bertan bideratzen baitira zorpetze eta ordaindu gabeko fakturen bitartekaritza-zerbitzu batzuek.

4.3.3. Gizarte-tarifetan zentratzen diren neurriak

Gizarte-tarifen mekanismoaren erabilera oso nabarmena egiten da errenta apaleko etxebizitzetako energia-hornidura errazteko, eta horiek osatzen dute pobrezia energetikoaren inguruko politiken hiruko klasikoa. Epe motzerako¹⁴³ erabilgarri diren neurritzat hartzen dira, hori dela-eta, komeni da beste esku hartze batek laguntzea neurri horri, modu integraleko esku hartzeak burutzeko¹⁴⁴. Sorrarazi dituen kritiken artetik, bi nabarmendu daitezke. Batetik, finantzatzen dira konpainia energetikoen bezero guztien fakturazioaren batura bidez, baita ere, onuradunen artean ageri ez diren erreziiboak ordaintzean zailtasunak dituzten pertsona horien laguntzaz. Bestetik, transferentzia ekonomikoetan gertatzen den bezala, etxebizitzaren efizientzia energetiko hobetzeko inbertsioen pizgarriak kendu ditzakete.

¹⁴³ EUROPEAN FUEL POVERTY AND ENERGY EFFICIENCY, 2009, *op. cit.*, pág. 9.

¹⁴⁴ Horren erakusgarri da Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialak europar gizarte-tarifak ezartzeko eskaria luzatu duela (COMITÉ ECONÓMICO Y SOCIAL EUROPEO [2013] Documento de trabajo de la Sección Especializada de Transportes, Energía, Infraestructuras y Sociedad de la Información sobre 'Por una acción europea coordinada para prevenir y combatir la pobreza energética'. (Dictamen de iniciativa). Bruselas: Comité Económico y Social Europeo, TEN/516 - CES2517-2013).

Arlo honetan jasotako bederatzi neurriak aztertuz gero, gailentzen dira faktura energetikoan eginiko kenkariak, baina bereziturako prezioak ere izaten dira (Belgika eta Espainian), zerga-kenkariak (Danimarkan) edo energia-erosketa kolektiboak. Azkeneko lanabes hori hedatzen aritu da herrialde batzuetan, eta, gaur egun, Espainian bideratzen ari dira horrelako ekimen bat. Gizarte-tarifak bideratzen zaizkien gizarte-kolektiboak dagokienez, errenta-mailako irizpideak definitzen ditu, baina baita ere osagarri dituzten irizpide batzuek, adibidez, gizarte-prestazioak jasotzeak, familiaren tamainak edo ezgaitasuna duen pertsonaren bat bizikide izateak. Hori dela-eta, kritikatu dute Etxebizitza Beroa: Deskontu Programa britainiarra (*Warm Home Discount scheme*), pobrezia energetikoa bereziki pairatzeko kolektibo zaugarritzat ez dituelako hartzen familia ugariak. Espainiako bono sozialaren eraginkortasuna, aldiz, mugatua da argindarraren erabilera babesten duelako soilik, eta etxebizitza gehienez izaten dute beste mota bateko energietan oinarrituriko berokuntza-sistemaren bat.

Gizarte-tarifan nabarmentzen diren partaideei dagokienez, azpimarratzekoak dira gailuen arloan enpresek izandako protagonismoa, adibidez, aurretik aipaturiko *Warm Home Discount Scheme* kasuan –sarbide-irizpideak ezarri ditzake konpainia bakoitzak–,erosketa kolektiborako Korrantea Jarraitu (*Stroom Mee*) deituriko programa nederlandarra ondorengoaren tankerakoak diren ekimen sozialeko programa batzuek: Herbehereetan WoonEnergy eta Espainian Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundeak buru dituzten ekimenak.

4.3.4. Bestelako neurri batzuek

Azkenik, politika horien esparruko hiru ardatzetan oinarritzen ez diren bestelako hamasei neurriek osatzen duten sorta bat antzeman da. Neurri horien alor dira aholkularitza (sei programa), gastu energetikoa kontrolpean izateko gailuen instalazioa (bost) eta ez ordaintze eta hornidura-mozketak murrizteko neurriak. Bestalde, duen berezitasunagatik, aparteko aipamena merezi du pobrezia energetikoaren inguruan behatokiak sortzearen ideiak.

Esku hartze sorta zabala garatu dezakete aztertutako aholkularitza-zerbitzuek, eta bildu daitezke ondorengo hiru funtzio hauen arabera: bakoitzaren arabera diagnostikoak burutzea energia premia eta kontsumoaren inguruan; aurrezki energetikoaz orientazioa eskaintzea (aztura-aldaketak, efizientzia-maila energetikoaren hobekuntzak); edo energia-kontsumoa finantzatu (dirulaguntzak); eta, batzuetan, bitartekaritza egitea (faktura-tramiteak, ez ordainketen kudeaketa). Laguntzaile diren erakunde bulegoez gain (programa batzuetan aipatzen dute erakunde publiko, energia-konpainia eta hirugarren sektoreko erakunde arteko lankidetzak), bide desberdinetatik erraztu daitezke laguntza, adibidez, etxez etxeko bisita, telefono-arretarako linea edo dibulgazio-gidaliburuen bidez; eta, gainera, kasu batzuetan argia eta ur beroa aurrezteko gailu erraz batzuek banatzen dituzte informazioa ematean. Biztanleria orokorrari bideratutako ekimenez gain, badira talde zaugarri eta faktura energetikoak zorpetutako pertsonen bereziki bideratutako ekimenak.

Erlatiboki kostu baxua eta gaitasun nabarmena izaten dute aurrezkiak sortzeko kontsumoaren aztura-aldaketa gertatzeko informazio- eta sentsibilizazio-programek. Ekimen horien artean, Erresuma Batuan ezarritako Gune Epelak (*Warm Zones*) deituriko proiektua da azaleratzen den

interes handiko jarduera egoki bat. Ondorengo hauetan laburbildu daitezke proiektu horren ezaugarri nagusiak: estigmatizatzea gutxiarazten duen eskala komunitario batean esku hartzea, ez etxez etxe; malgutasuna izatea alorraren arabera egokitzeko; jarrera aktibo bat izatea, eskariari aurre hartuz; eta tartean sartu eragile sozial, publiko eta pribatu desberdin batzuek.

Bigarren maila batean daude argindarra edo gasaren arazoizkoagoa den kontsumoa egiteko gailu berezien instalazioa. Erresuma Batua, Irlanda eta Belgikan aurrez ordaintzeko sistemak ezarri dituzte, eta horien bidez etxebizitzak energian gastatzen duena kontrolpean izatea errazten du, eta modu horretan laguntzen da ordaintzeke dauden zorrak arintzen. Horretaz gain, zorpetuta dauden pertsonen etxebizitzetan ahalmen elektrikoaren mugatzaile batzuek ezartzen dizkiete, eta egoera konpondu bitartean, hornidura minimo bat bermatzen diete erabiltzaileei. Eta Suedian, etxebizitza guztietan dituzte 'kontagailu inteligenteak', eta argindarraren kontsumoaren denbora errealeko informazioaren ondorioz, errazten dute etxebizitzetako kontsumoaren ezaguera izan eta aurrezki-estrategiak ezartzea.

Bestalde, herrialde batzuetan bideratzen dituzte erreziboen ez ordaintze eta hornidura-mozketak ekiditeko neurri zehatz batzuek¹⁴⁵. Helburua da pobrezia energetikoa pairatzeko arrisku altua duten pertsonen babes eskaintzea, izan ere, kasu horietan ekonomia-mailako eskasiaz gain, gertatzen dira aldi bereko beste egoera batzuek, adibidez, adin altua edo zenbait aparatu elektriko bidez eskaintako tratamendu medikuak hartzea (hemodialisi-ekipamenduak, oxigeno-kontzentragailuak). Herrialde batzuetako 'bezero zaurgarri' deituriko estatus juridiko baten babesean, administrazio publikoek eskaintzen dute pertsona horientzako aholkularitza, eta garai berean, arautegi zehatz bat ezartzen diete egoera horien inguruan energia-enpresek hornidura kentzeko moduz, adibidez, urteko aro zehatz batzuetan mozketak egiteko debekua.

Neurri horiez gain, aipatzeko modukoa da 2010az geroztik Frantzia abian jarritako Pobrezia Energetikoaren Nazio-mailako Behatokia (*Observatoire National de la Précarité Énergétique*), eta bertako partaide dira erakunde publikoak eta konpainia elektriko nagusiak, eta bere funtzioen artean daude herrialdeko pobrezia hobe ezagutu eta informazioa eta aholkularitza erraztea politika publikoak lantzeko. Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialak eskaria luzatu du antzeko organismo bat Europar Batasunaren eremuan ezartzeko¹⁴⁶.

¹⁴⁵ Europar Batasunaren eremuan, Thomson ikerlariaren arabera, 'bezero zaurgarria' deituriko figura hori kontuan hartzen da hamabi herrialdeetan, eta ez dute ez ordaintzeko aurre egiteko babes-neurririk zortzi herrialdeetan (THOMSON, H. [2012] "Creating a typology of fuel poverty across the European Union" [mintegia agertoki]. European Energy Policy: Saving the Environment and Cutting Costs Conference, London, maiatzak 30).

¹⁴⁶ COMITÉ ECONÓMICO Y SOCIAL EUROPEO, 2013, *op. cit.*, pág. 6.

4.4. Energia-pobreziaren tasetan eragina duten politiken eta neurrien nazioarteko taula konparatiboa

4.4.1 Energia-eraginkortasuna ardatz duten neurriak

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobreziaren gaineko eragina
<p>Fronte Beroa Programa</p> <p>[Warm Front Scheme]</p> <p>Laguntza Energetikorako programa</p> <p>[Energy Assistance Package Scheme]</p> <p>Etxe Beroak Programa</p> <p>[Warm Homes Scheme]</p> <p>Habia Programa</p> <p>[Nest Programme]</p>	Erresuma Batua	<p>Warm Front Scheme programak diru-laguntzak eskaintzen dizkei pobrezia-laguntzak jaso eta isolamendu termikoko gabeziak dituzten etxebizitzak, edo berokuntza zentralako sistemarik ez dutenetan bizi diren familiei, isolamendu- eta berokuntza-sistemetan hobekuntzak egiteko. Programa 2000. urtean jarri zen abian. Etxebizitzak energiarekin ikuspegitik eraginkorragoak izatea da haren helburua. Esan beharra dago programa hori erreferentziazko programa izan dela Ingalaterran, energia-pobreziaren kontrako borrokan.</p> <p>Etxebizitza bat diru-laguntzaren onuraduntzat jotzen bada, Warm Front-eko profesional batek etxebizitzaren ebaluazioa egin, eta zein lan egitea komeniko litzatekeen jakinarazten du. Hobekuntza-lan horiek programak berak kualifikatutako hornitzaile batek egiten ditu. Programa hau pobrezia-laguntzak jasotzen dituzten eta berokuntza- edo isolamendu-sistemetan hobekuntzaren bat behar duten etxei zuzenduta dago.</p> <p>Etxebizitza onuradunak 6.000 libroko (6.925 euroko) diru-laguntza jaso dezake gehienez ere. Programa hau Ingalaterran dago ezarrita, baina Erresuma Batuko gainerako herrialdeek ere antzeko planak dituzte: Energy Assistance Package Scheme (Eskozia), Warm Homes Scheme (Ipar Irlanda); eta Nest Programme (Gales).</p> <p>2011. urtean aldatu egin ziren laguntzak jasotzeko irizpideak, zenbait gabezia saihesteko. Handik aurrera, aldagai hauek hartzen dira kontuan: diru-sarreraren maila, ahultasun-maila, eta energia-eraginkortasunaren estandarren araberako balorazioa.</p>	<p>Energia-pobreziari aurre egiteko espezifikoki diseinatutako neurri bat da.</p> <p>Ingalaterran, Warm Front Scheme planaren 5 urteko jarraipen-azterketa batek frogatu zuenez, eraikinetako berokuntza- eta isolamendu-sistemetan bultzatutako hobekuntzak lotura estua zuten eraikin horietan bizi ziren herritarren bizi-itxaropenaren gorakadarekin: hamar eguneko, batez beste, gizonezkoen artean, eta zazpi eguneko, emakumezkoen artean. Gainera, egin beharreko hobekuntzak egin eta gero, etxebizitzak hiru laurdenetan tenperatura-baldintzek hobera egin zuten, eta Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) estandarretara iritsi ziren. Hobera egin ez zuten etxeetan, hilkortasun-arriskuak %2,2 egin zuen gora, kanpoko tenperaturak behera egindako gradu bakoitzeko. Antsietatearen eta depresioaren prebalentzia-tasak behera egin zuen milako hirurehunetik milako ehun eta berrogeita hamarrera. Eta, hala, hobekuntza-lanak 10.000 etxebizitzetan egin zirela kontuan hartuta, depresio- eta antsietate-tasaren beherakadak 3.000 herritarri eragin zion.</p> <p>Ipar Irlandan, 2001. eta 2008. urteen artean Warm Homes programan inbertitutako 109 milioi librei esker, osasun-sisteman 213 milioi libra inguru aurreztu zirela kalkulatu zen, programak haur eta gazteen artean izan zuen eragina soilik kontuan hartuta; helduen eta 65 urtetik gorakoen artean aurreztutako dirua kontuan harturik, programan inbertitutakoaren erdia (% 42) berreskuratuko litzatekeela kalkulatu da.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia-eraginaren gaineko eragina
<p>Itun Berdea</p> <p>[Green Deal]</p>	<p>Erresuma Batua</p>	<p>Itun Berdea edo <i>Green Deal</i> programa 2012ko udazkenean jarri zen martxan. Programaren helburua energia-aurrezpina handitzea da, eta, horretarako, zera proposatzen da: etxeetan eta negozioetan birgaitze-lanak finantzatzea eta energia aurrezteko neurriak hartzea, baina, betiere, inbertsioaren hasierako kostua etxeen eta negozioen bizkar utzi gabe. Besteak beste, berrikuntza-lan hauek egin beharko lirateke: berokuntza-sistema eta teilatu eta hormetako isolamendua hobetu, leihoetan kristal bikoitza jarri, eta energia berriztagarriak ezarri.</p> <p>Lanen kostua <i>Green Deal</i> programaren esparruan legezko izaera aitortua duten enpresa pribatu, aholku-emaile eta sustatzaileen bidez finantzatzen da; eta kontsumitzaileak hilerok itzultzen du inbertsioa, bere energia-fakturaren eta energia-kontsumoan lortutako aurrezpenaren bitartez. Hau da, asmoa ez da erabiltzaileak berrikuntza-lanen kostua zuzenean ordaintzea, baizik eta argindarraren ordainagirian ekarpenak eginez finantzatzea, 25 urteko epean, gehienez ere. Ordainagiri bidezko ordainketa-mota horrek, beraz, etxebizitzari lotutako mailegu baten gisa funtzionatzen du. Etxebizitzaren jabea aldatuz gero, jabe berriak hartzen du bere gain laguntza itzultzeko erantzukizuna. Nolanahi dela ere, <i>Green Deal</i> programa diseinatua dago erabiltzaileak hobekuntza-lan horien bidezko ordaintzen duena sortutako energia-aurrezpenarengatik ordainagirian aurreratzen duena baino gehiago ez izateko.</p>	<p>Laguntza unibertsal bat denez, baliabide gutxiago dituzten etxeek gainerakoek baino laguntza txikiagoa jasoko dute seguruenik, haien inbertsio-ahalmena ere txikiagoa izango delako. Programaren eraginkortasuna aztergai dago, baina Gobernuak aurreikusten du, programa horrekin ECO Konpromisoarekin batera (ikus hurrengo neurria), 4,5 milioi tona ikatz aurrezteko eta baldintza zailetan bizi diren 100.000 etxebizitzari lagundu ahal izatea urtero, 2020 urtea arte (230.000 etxebizitza guztira).</p>
<p>Energia Enpresen Konpromisoa.</p> <p>[Energy Companies Obligation (ECO)]</p>	<p>Erresuma Batua</p>	<p>Energia Enpresen Konpromisoa (<i>Energy Companies Obligation, ECO</i>) izeneko programa 2013. urtean ezarri zen, <i>Green Deal</i> programarekin batera, eta, lehen batean, 2015eko martxoaren 31 arte egongo da indarrean. Programak energia-kontsumoan aurrezteko du helburu, familia ahulenen etxebizitzetan galdara eraginkorrak jarri eta beharrezkoa den isolamendua ezarri.</p> <p>ECO Konpromisoa delakoa sei konpainia energia-hornitzaile handietara zabaltzen da. Konpainia horiek energia aurrezteko helburuak bete behar dituzte, isuriak gutxitzeari dagokionez. Helburu horiek lortuko badira, etxebizitzetako energia-eraginkortasuna hobetu beharra dago, eta, horretarako, konpainiek (enpresa txikien kasuan salbuespenak izango dira) beren gain hartu beharko dute <i>Green Deal</i> programaren barruan aurrera eramandako berrikuntzen kostuari aurre egin ezinean aurkitzen diren familien zorra (osoa edo zati bat). ECO programaren laguntzak, beraz, ez zaizkio zuzenean onuradunari ematean. ECO programa diru-laguntza-multzo bat da funtsean, <i>Green Deal</i> delakoaren osagarria, familiarik baztertuenean ere energia-eraginkortasuna lortu ahal izatea helburu duena.</p> <p>Erresuma Batuko gas- eta argindar-merkatua arautzen duen OFGEM erakundeak bere gain du programa administratzeko eta helburuak betetzen diren edo ez ikuskatzeko ardura. Aurrezpen-helburu horiek honako xede hauetan zehazten dira:</p> <p>[Jarraitzen du]</p>	<p>Baliabide gutxiago dituzten herritarrei zuzendutako neurriak dira; <i>Green Deal</i> programa, berriz, biztanleriaren gehiengoari zuzenduta dago. Programaren eraginkortasuna aztergai dago.</p> <p>Kalkulatzen da neurri horiek 1.500 milioi euroko kostua izango dutela enpresa elektrikoentzat. Enpresa horiek hilerok jakinarazi behar diote OFGEM erakundeari helburuen betetze-maila zenbaterainokoa den.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>Energia Enpresen Konpromisoa.</p> <p>[<i>Energy Companies Obligation (ECO)</i>]</p>	<p>Erresuma Batua</p>	<p>[Jarraipena]</p> <ul style="list-style-type: none"> – <i>Affordable Warmth Obligation</i>. Helburua da, energia-hornitzaileen ekimene, errenta baxuko familiek etxea berotzeko duten ahalmena (berokuntzako eta ur beroko sistema) hobetzea. – <i>Carbon Saving Communities Obligation</i>. Ingalaterra, Eskozia eta Galeseko eskualde atzeratueneren % 15ari zuzenduta, etxebizitzaren isolamendua hobetzera bideratutako neurriez osatua dago gehienbat. Enpresek beren ahaleginen % 15 gutxienez landa-eremuetara bideratzea eskatzen da, gainera. – <i>Carbon Saving Obligation</i>. Programa honetan sartuta dauden neurri-sortek hormak isolatzeko moduak eta bero-galerarik ez izateko esku-hartzeak eskaini behar dituzte. <p>Nor izan daiteke ECO Konpromisoaren onuradun? Etxebizitza baten jabe izan edo etxebizitza bateko maizter izan eta prestazio jakin batzuk jasotzen dituzten pertsonak: adineko pertsonak (<i>Pension Credit</i>); seme-alabak ardurapean izan (<i>Child Tax Credit</i>) eta 15.860 libra baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsonak; eta diru-sarrera baxuak (<i>Working Tax Credit</i>) eta 15.860 libra baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsonak (<i>Income Support, Income-based Support Allowance</i> edo <i>Income-based Jobseeker's Allowance</i>), baldin eta baldintza gehigarri hauetakoren bat betetzen badute: adingabe baten arduraduna izan, <i>Premium</i> elbarritasun-prestazioaren onuraduna izan, edo 60 urtetik gorakoa izan.</p> <p>ECO laguntzak jasotzeko orduan, ez dago diru kopuru finkorik. Konpainiek aplikatutako neurrien araberako ekarpenak egiten dituzte. Laguntza-maila hainbat faktoreren araberakoa da: hartutako neurrien ondoriozko aurrezkiaren, birgaitze-lanak egiteko obligazioaren, edo beste bide batzuetatik (<i>Green Deal</i> programaren bitartez, adibidez) iritsitako finantzazio-kopuruaren araberakoa, besteak beste.</p>	

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>Energia Hobe Etxe Beroagoak Programa</p> <p>[<i>Better Energy Warmer Homes Scheme</i>]</p>	<p>Irlanda</p>	<p>Programa honen helburua da, esku-hartze batzuen bidez, baliabide gutxien dituzten pertsonen etxebizitzaren energia-eraginkortasuna hobetzea. Programa honetako eraberritze-zerbitzuak eta instalazio-zerbitzuak guztiz doakoak dira pertsona onuradunarentzat. Programa honen bitartez onuradunak ez du laguntza ekonomikorik jasotzen; laguntza etxebizitzan egin beharreko lanak egitean berean gauzatzen da. Birgaitze-lan edo instalazio horiek egiteaz arduratzen diren hornitzaileak administrazio publikoarekin adostutako organismoak dira.</p> <p>Eskaintzen diren zerbitzuen artean, honako hauek sartzen dira: hormak isolatzea, ur beroko depositua instalatzea, sabaia isolatzea, ur beroko zilindroetan babes termikoa jartzea eta energia-aholkularitza eskaintzea. Nolanahi dela ere, aurrekontu-murrizketak direla eta, eta ahalik eta onuradun gehien babesteko asmoz, programan ez da jasotzen fatxaden isolamenduari, berokuntza zentralari, ate-leihoei edota teknologia berriztagarriari buruzko esku-hartzerik.</p> <p>Nor izan daiteke programa honen onuradun? 2002. urtea baino lehen eraikitako etxebizitzaren jabe izan eta honako laguntza hauetakoaren bat jasotzen duten pertsonak: <i>Fuel Allowance</i> (erregaia ordaintzeko laguntza), <i>Jobseeker Allowance</i> (langabezia-laguntza, sei hilabetetik gorakoa, 7 urtetik beherako haurrak badituzte beren ardurapean) edo <i>Family Income Support</i> (familia diru-laguntzak).</p>	<p>Baliabide gutxien dituzten pertsonen zuzenean zuzendutako neurriak dira.</p> <p>Itxarote-zerrenda bederatzirako hilabetekoa da egun.</p> <p>2011. urtean zehar, 20.000 etxe inguruan egin ziren horrelako eraberritze-lanak (aurreko urtean ia 20.500 etxetan).</p> <p>Azterketaren emaitzek Effectiveness of Domestic Energy- Efficiency Programmes agerian utzi zuten, Better Energy Warmer homes Scheme programak nabarmenki lagundu zuen energia-pobrezia gutxitzen eta, energikoki eraginkorrak ez diren etxeetan, osasunarekin lotutako arriskuak urritzen.</p> <p>Azterketaren arabera, programan parte hartu zuten etxeetan hobera egin zuten osasunaren arloan, konfort termikoan, eta egoera ekonomikoan. Gainera, adierazle bidez neurtutako energia-pobrezia mailak behera egin zuten.</p>
<p>Energia-berrikuntzarako laguntzak: <i>Habiter Mieux</i> programak.</p>	<p>Frantzia</p>	<p>2011. urtean abian jarri zen estatu mailako programa hau etxeetako egokitzapen termikoa bideratzera zuzenduta dago. Habitataren Agentzia Nazionalak kudeatuta (ANAH), bereziki diseinatuta dago diru-sarrerara baxuak dituzten etxejabeek etxebizitzan % 25eko gutxienez- energia-hobekuntza gauzatzeko egin beharreko esku-hartzeak finantzatzeko laguntzeko. Hauek dira diruz lagun daitezkeen esku-hartzeetako batzuk: etxebizitza prekariora edo oso egoera txarrean dagoena tratatzeko esku-hartzeak, habitataren berrikuntza termikoa lortzera bideratutako esku-hartzeak, eta energia-prekarietateari aurre egiteko esku-hartzeak.</p> <p>Neurri hau etxejabeek dago zuzenduta, nahiz etxebizitza horretan bertan bizi, nahiz etxebizitza errentan jarria izan. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza bat da. Eskatzailearen diru-sarrerak zenbatekoak diren, diru-laguntzaren zenbatekoa egin beharreko esku-hartze guztien % 35 eta % 50 bitartekoa izan daiteke.</p>	<p>Baliabide gutxien dituzten biztanleei zuzenean zuzendutako neurriak dira.</p> <p>2013ko maiatza bitartean, 22.628 etxe baliatu dira programa honen diru-laguntzez. Esku-hartze gehienak etxebizitza nagusitan egin dira. Eraberritzeko zeuden etxebizitzaren erdia 1949. urtea baino lehen eraikiak ziren. Eraberritutako etxebizitzetako energia-kontsumoa % 38 murriztu da batez beste.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobreziaren gaineko eragina
<p>Energia kontrolatzen laguntzeko gizarte funtsa</p> <p><i>[Les Fonds sociaux d'aide aux travaux de maîtrise de l'énergie (FAME)]</i></p>	Frantzia	<p>Badira hamar bat urte Frantziako departamentu batzuk badutela gizarte funtsa bat familia behartsuenen etxeetan hobekuntza termikoa lortzeko egin beharreko esku-hartzeak finantzatzeko. Hauek dira diruz lagunduta dauden neurrietako batzuk: ziritu-zinta isolatzaileak jartzea, leihoak aldatzea, termostato programagarriak instalatzea, egurrezko berogailuak erostea, kontsumo urriko lanparak erostea, edo ur-isuriak konpontzea. Esku-hartze horiek etxebizitzaren energia-gastua murrizten dute, eta egin beharreko inbertsioa lortutako energia-aurrezpenarekin konpentsatzen da. Gaur egun, gizarte funtsa horiek hogeit bat departamentutan daude eskuragarri.</p> <p>Laguntzak era honetan egituratzen dira. Gizarte Zerbitzuek edo Ordaindu Gabeko Ordainagiriaren Batzordeak hala eskatuta, gizarte funtseko teknikari batek etxebizitzaren egoera ebaluatzen du, energia aurrezteko jarraibideak edo hobekuntza esku-hartzeak gomendatzen ditu, eta haiek gauzatzeko behar diren diru-laguntzak ematen ditu. Diru-laguntzaren batez besteko kopurua 770 eurokoa da etxebizitza bakoitzeko, eta onuraduna izan daiteke bai etxejabea, bai etxebizitzan bizi den familia, bai esku-hartzeak egiten dituen profesionala.</p>	<p>Diru-sarrera baxuak dituzten etxeetako energia-pobreziari esku-hartze simple, azkar eta kostu gutxiko batzuen bidez aurre egiteko laguntza bat da.</p> <p>Etxebizitzan etxejabea bizi denean, neurria oso eraginkorra dela ikusi da. Hala ez denean, berriz, etxejabearen eta maizterren arteko bitartekotza, esku-hartzeei dagokienez, zaila izaten da, eta etxejabeak, batzuetan, aurka egoten dira.</p>
<p>Etxebizitza hobetzeko mailleua, Caisses d'Allocations Familiales-ek (CAF) emana</p> <p><i>[Le prêt à l'amélioration de l'habitat (Pah) de CAF]</i></p>	Frantzia	<p>Diru-laguntza izaera duen estatu mailako neurri bat da, <i>Caisses d'Allocations Familiales</i>-ek (Frantziar familiei prestazioak emateaz arduratzen diren erakundeek) eskainia, eta familia-laguntzak jasotzen dituzten familiei zuzendua, etxebizitzan hobekuntza-lanak egiteko. Besteak beste, honako lan hauek finantzatzen dituzte: isolamendu termikoa jartzeko lanak, ur korrantea instalatzeko lanak, berogailu-sistemak instalatzeko lanak. Etxetresna elektrikoak erosteko gastuak ez dira sartzen.</p> <p>Neurria familia-laguntza jasotzen duten etxejabe zein maizterrei dago zuzenduta. Aurrekontuaren % 80 finantzatzen du, 1.067,14 euro gehienez ere, % 1eko interesarekin. Dirua itzultzeko epea hiru urtekoa da.</p>	<p>Diru-sarrera baxuak dituzten familietako energia-pobrezia arintzera zuzenduta dago bereziki.</p> <p>Nahiko neurri berria da eta oraingoz ez da hari buruzko ebaluaziorik ezagutzen.</p>
<p>Zerga-kenketak Garapen Iraunkorraren esparruan</p> <p><i>[Credit d'impôt développement durable]</i></p>	Frantzia	<p>Frantziako gobernuaren zerga-neurri bat da. 2005. urtean jarri zuten martxan, eta 2015. urtea arte egongo da indarrean. Neurri honen helburua etxebizitza nagusian energia hobetzeko egin beharreko esku-hartzeak egitea bultzatzea da. Zerga-kenketa esku-hartzeak egiten dituen enpresak erabiltzen dituen ekipamendu eta produktu jakin batzuen gainean aplikatzen da: kondentsazio-galdarak, isolatze-materialak, berokuntza-sistema erregulatzeko tresnak, edo kontraleiho eta ate isolatzaileak. Bi esku-hartze osagarri edo gehiago eginez gero, hala nola hormak isolatzea eta leihoak aldatzea, aplikatutako kenketa handiagoa izaten da.</p> <p>Neurri hau duela bi urte baino gehiago bukatutako etxebizitzaren jabeek edo etxebizitza horietan bizi diren maizterrei zuzenduta dago. Kenketaren gehieneko kopurua 8.000 eurokoa da pertsona bakoitzeko (16.000 euro bikoteko), gehi 400 euro gehiago ardurapeko pertsona bakoitzeko. Maizterren kasuan, murrizketa 8.000 eurokoa da etxebizitzako, eta urtean gehienez ere hiru etxebizitzetan egin ahaliko dituzte esku-hartzeak.</p> <p>Laguntza hau Interesik gabeko Eco-maileguaren laguntzarekin batera jaso daiteke (ikusi hurrengo neurria), baldin eta etxeko diru-sarrerak 30.000 eurotik gorakoak ez badira.</p>	<p>Laguntza unibertsal bat denez, baliabide gutxiago dituzten etxeek gainerakoek baino laguntza txikiagoa jasoko dute seguruenik, haien inbertsio-ahalmena ere txikiagoa izango delako. Desabantaila hori arintzeko, laguntza hau bateragarria da Interesik gabeko Eco-maileguarekin.</p> <p>2005. eta 2008. urteen artean, 4,2 milioi etxebizitza nagusi (hau da, etxebizitza nagusi guztien % 25) baliatu dira neurri honetaz</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobreziaren gaineko eragina
<p>Interesik gabeko Eco-mailegua</p> <p>[<i>Éco-prêt à taux zéro (éco-PTZ)</i>]</p>	<p>Frantzia</p>	<p>Interesik gabeko Eco-mailegua, 2009. urtean sortua, 1990eko urtarrilaren 1a baino lehen eraikitako etxebizitza nagusien energia-kontsumoa hobetzeko esku-hartzeak finantzatzera zuzenduta dago. Laguntza honen helburua da higiezinaren parkearen energia-kontsumoa % 38 murriztea gutxienez, hemendik 2020ra bitartean.</p> <p>Maileguak sabaiak, hormak eta leihoak isolatzeko lanak, edota berogailua instalatzeko edo berritzeko lanak finantzatzeko aukera ematen du, hala norberaren etxean nola errentan emandakoan.</p> <p>Gehienez ere 30.000 euroko laguntza ematen da etxebizitzako, hamar urteko epean itzultzeko, interesik gabe. Mailegua itzultzeko epea hamabost urte arte luza daiteke, aldi berean hiru esku-hartze edo hiru baino gehiago egiten diren kasuetan.</p> <p>Adierazi den bezala, mailegu hau bateragarria da Garapen Iraunkorraren Esparruko Zerga Kenketekin, baldin eta etxeko diru-sarrerak ez badira 30.000 eurotik gorakoak.</p>	<p>Laguntza unibertsal bat denez, baliabide gutxiago dituzten etxeek gainerakoek baino laguntza txikiagoa jasoko dute seguruenik, haien inbertsio-ahalmena ere txikiagoa izango delako. Desabantaila hori arintzeko, laguntza hau bateragarria da Interesik gabeko Eco-maileguarekin.</p> <p>Neurri honen bidez, Gobernuak 400.000 etxebizitzaren eraberritzea bultzatu nahi du 2013. eta 2020. urteen artean.</p>
<p>Energia aurrezteko inbertsioetarako zerga-kenketak.</p> <p>[<i>Déductibilité fiscale pour investissements économiseurs d'énergie</i>]</p>	<p>Belgika</p>	<p>Estatu mailako neurri honen helburua hau da: etxebizitzaren energia-eraginkortasuna optimizatzeko berrikuntza-lanetan egindako inbertsioei dagokien errentaren gaineko zerga murriztea. 2011/11/28 baino lehen kontratatu eta 2012an zehar ordaindutako esku-hartzeen kasuan, kenketa gehienez ere gastu-aurrekontuaren % 40aren gainean aplikatzen da. Laguntza honekin egin daitezkeen esku-hartzeen artean, honako hauek sartzen dira: galdara aldatzea edo konpontzea, leiho isolatzaileak instalatzea, edo teilatua isolatzea. Nolanahi dela ere, 2013. urteko ekitalditik aurrera, 2012an energia-eraginkortasuna hobetzeko egindako lanei dagokien kenketa ezeztatuko da, teilatua isolatzeko lanei dagokiena izan ezik. 2013. urterako, kenketa 2.930 eurokoa izango, gehienez ere, etxebizitza bakoitzeko.</p> <p>Neurri hau bai etxejabeek bai maizterrei zuzenduta dago. Etxebizitza bat baino gehiago izanez gero, etxejabeek energia-eraginkortasuna hobetzeko lanak egin diren etxebizitza bakoitzerako eskatu dezakete laguntza.</p> <p>Errenta-aitorpena egiteko obligazioa ez dutenek –aitorpena egiteko ezarritako atalasea baino diru-sarrera txikiagoak dituztelako, adibidez–, laguntza honetaz baliatu daitezke, etorkizuneko errenta-aitorpenetan itzuli beharreko kreditu eran.</p>	<p>Laguntza unibertsal bat denez, baliabide gutxiago dituzten etxeek gainerakoek baino laguntza txikiagoa jasoko dute seguruenik, haien inbertsio-ahalmena ere txikiagoa izango delako.</p> <p>Hau da, itxura guztien arabera, prekarietate-egoeran dauden etxeetan hobekuntzak egiteko diru-laguntzarik garrantzitsuenak. Izan ere, eskualde mailako beste laguntzak ez dira 1.000 eurotik gorakoak izaten.</p> <p>Ez dago daturik neurri honek energia-pobrezian izan dezakeen eraginari buruz.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>Energiaren Kostu Osoa Murrizteko Funtza (FRCE)</p> <p><i>[Fonds de Réduction du Coût global de l'Energie (FRCE)]</i></p>	<p>Belgika</p>	<p>2006. urtetik aurrera, Energiaren Kostu Osoa Murrizteko Funtzak (nazio mailan diharduen Zuzenbide publikoko sozietate anonimoa) interesik gabeko maileguak eskaintzen ditu, bost urteko epean itzuli beharrekoak, etxebizitzetako energia-gastua aurreztera zuzendutako esku-hartzeetan erabiltzeko. Besteak beste, honako esku-hartze hauek jaso dezakete diru-laguntza: leihotzeak, teilatua isolatzeko edo galdara bat instalatzeko.</p> <p>Laguntzak etxebizitza nagusi diren etxebizitza partikularretan egindako esku-hartzeak finantzatzera zuzenduta daude. Erakundeak gehienez ere 10.000 euroko mailegua egin diezaike etxebizitza bati. Laguntzak sarea osatzen duten tokiko erakundeen bidez eska daitezke.</p>	<p>Laguntza unibertsal bat denez, baliabide gutxiago dituzten etxeek gainerakoek baino laguntza txikiagoa jasoko dute seguruenik, haien inbertsio-ahalmena ere txikiagoa izango delako.</p> <p>2008. urteko abendurako, funtsak 350 mailegu-eskabide jaso zituen. Guztira, 300 onartu ziren, 2.367.255 euroko balioarekin. 2009. urteko lehen hiruhilekoaren bukaerarako, eskabideak 700 ziren. Guztira, 500 onartu ziren, eta 4.686.874 euro mailegatu.</p>
<p>Diru-sarrera baxuak dituzten etxeetako energia-inbertsiorako laguntzak</p> <p><i>[Aide à l'investissement – Energie pour les ménages à revenu modeste (MEBAR II)]</i></p>	<p>Belgika [Valoniako eskualdea]</p>	<p>Diru-laguntza izaerako neurri bat da, Valonian 2003tik aurrera indarrean dagoena, eta diru-sarrera baxuak dituzten familietara zuzenduta dago, etxebizitzan energia-erabilera eraginkorrago baten aldeko esku-hartzeak egitera bultzatzeko. Diru-laguntza jaso dezaketen esku-hartzeen artean, honako hauek sartzen dira: kanpoko ateetako kontramarkoaren ordez beste bat berria jartzea, isolatze-lanak egitea, berogailua instalatzea, edo galdara bat jartzea.</p> <p>Neurri hau etxejabeek eta maizterrei zuzenduta dago (maizterrak ados jarri beharko dira alde aurretik errentatzaileekin), eta, espezifikoki, gizarte integratzearako laguntza % 20 baino gehiago gainditzen ez duten familiei. Diru-laguntzaren gehieneko kopurua 1.365 eurokoa da familia bakoitzeko. Bost urteren buruan berriz egin daiteke diru-laguntzarako eskabidea.</p>	<p>Neurri honen asmoa da diru-sarrera baxuak dituzten etxeetako energia-eraginkortasuna hobetzea, eta kasu askotan, praktikan, etxebizitza beren lehen berokuntza-sistemaz hornitzeko ari dira baliatzen laguntza.</p> <p>Laguntzaren zenbatekoa ez da inondik ere nahikoa etxebizitzaren hobekuntza orokorrak berekin dakarren gastuari aurre egiteko. Ildo horretan, jaso daitezkeen diru-laguntzarik handienak teilatuko 30-50 bat m² isolatzeko lana, leihotzean 7 m² kristal bikoitz jartzeko lana eta galdara berri bat instalatzeko lanaren zati txiki bat estaliko lukeela kalkulatu da.</p> <p>2003. eta 2008. urteen artean, 8.015 etxek egin dute diru-laguntza hori jasateko eskabidea. Diru-laguntza horren aurrekontu-gastu osoa 9 milioi euro pasatxokoa izan da.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>Etxeko energia-eraginkortasuna hobetzeko lanak egiten dituzten erretiratuentzako laguntza.</p> <p><i>[Statstilskud til energibesparende foranstaltninger i pensionisters boliger]</i></p>	Danimarka	<p>Laguntza honek, 1992. urteaz geroztik eskuragarri dagoenak, etxebizitzako energia-gastua murrizteko egin beharreko eraberritze-lanen gastuak edo ekipamenduak erosteko gastuak finantzatzen ditu. Besteak beste, isolatze termikoa hobetzeko esku-hartzeak laguntzen dira diruz. Laguntza hau 1979. urtea baino lehen eraikitako etxebizitzetan bizi eta berokuntza-gastuak finantzatzeko gehigarri ekonomikoa jasotzen duten erretiratuei dago zuzenduta (ikus, etxeko berokuntza-sistemak sortutako gastuen zati bat finantzatzeko, erretiratuei zuzendutako laguntza ekonomikoa, errenta-transferentziei buruzko atalean). Udaleko etxebizitza-enpresek, etxebizitza-kooperatibek eta etxebizitzak alokatzen dituzten erakunde pribatuek ere eska dezakete goian aipatutako onarpen-baldintzak betetzen dituzten pertsonak bizi diren etxebizitzetako eraberritze-lanak finantzatzeko laguntza. Erretiratuek Udaletxean aurkez dezakete laguntza-eskabidea. Izan ere, Udalak bere oniritzia eman behar du lanak hasi baino lehen.</p> <p>Diru-laguntza honek energia-gastua gutxitzeko lanek edo ekipamenduaren erosketak sortutako gastuen % 50 finantzatzen du, eta gehienez ere 25.000 daniar koroakoa (3.352 eurokoa) izan daiteke etxebizitza bakoitzeko.</p>	<p>Gizarte laguntzak jasotzen dituen biztanle-talde zabal bat izan daiteke laguntza honen onuradun. Izan ere, Danimarkan, lau erretiratutik batek berokuntza-gastuak finantzatzeko diru-laguntza osagarria jasotzen du. Nolanahi dela ere, ez dira denak diru-laguntza honen hartzaile potentzialak.</p>
<p>Jabetzako etxebizitzetako energia-eraginkortasuna handitzeko ekipamenduak instalatzeko zerga-kenketa.</p> <p><i>[Håndværkerfradrag/Servicefradrag]</i></p>	Danimarka	<p>Zerga-kenketa honek aukera ematen du gehienez ere 15.000 daniar koroa (2.011 euro) deskontatzeko, pertsona heldu bakoitzeko, jabetzako etxebizitzak (ohiko bizitokia izan edo ez) eraberritzeko egindako lanen fakturan, lan-eskuari dagokion ataletik.</p> <p>Diru-laguntza hau era askotako esku-hartzeei aplikatu daiteke. Horien artean honako hauek dira etxebizitzaren energia-eraginkortasuna handitzera bideratutako esku-hartzeak: barrutiko berokuntza-sarera konektatzeko lanak, teilatua berritzeko lanak, eta bero-punpak, galdarak, eguzki-xaflak edota berokuntza-sistema geotermikoak instalatzeko lanak.</p>	<p>Laguntza unibertsal bat denez, baliabide gutxiago dituzten etxeek gainerakoek baino laguntza txikiagoa jasoko dute seguruenik, haien inbertsio-ahalmena ere txikiagoa izango delako.</p> <p>Ez dago daturik neurri honek energia-pobrezian izan dezakeen eraginari buruz.</p>
<p>Jabetzako etxebizitzetako energia-eraginkortasuna handitzeko ekipamenduak instalatzeko zerga-kenketa.</p> <p><i>[ROT(Reparation, Ombyggnad, Tillbyggnad)-avdrag]</i></p>	Suedia	<p>Zerga-kenketa hori 2008. urtea baino lehen eraikitako jabetzako etxebizitzetan (ohiko bizitokia izan edo ez) eraberritze-lanak egiteko lan-eskuaren zenbateko osoaren % 50ari dagokio.</p> <p>Diru-laguntza hau era askotako esku-hartzeei aplikatu daiteke. Horien artean honako hauek dira etxebizitzaren energia-eraginkortasuna handitzera bideratutako esku-hartzeak:</p> <p>barrutiko berokuntza-sarera konektatzeko lanak, teilatua berritzeko lanak, eta bero-punpak, galdarak, eguzki-xaflak edota berokuntza-sistema geotermikoak instalatzeko lanak.</p> <p>Gehienez ere 100.000 daniar koroakoa (11.493 euroko) laguntza jaso daiteke esku-lana ordaintzeko. Etxebizitza baten jabe diren pertsona guztiak dute zerga-kenketa hau baliatzeko eskubidea. Bi heldu bizi diren etxe batean, zerga-kenketa 100.000 daniar koroakoa izango da gehienez ere (11.493 euro/urtean).</p>	<p>Laguntza unibertsal bat denez, baliabide gutxiago dituzten etxeek gainerakoek baino laguntza txikiagoa jasoko dute seguruenik, haien inbertsio-ahalmena ere txikiagoa izango delako. Zerga-kenketak kritika batzuk jaso ditu, iruzurrezko jardueren inguruko arriskuarekin zerikusia dutenak gehienak. Enpresa kontratatatuak eta bezeroak, elkar hartuta, fakturan lan-eskuari dagokion zatia "gizendu" nahi izateko arriskua dagoela adierazten da. Enpresa askok, neurri hau, lan-eskuaren tarifak igotzeko aprobetxatu ote duten susmoa ere badago.</p> <p>Ez dago daturik neurri honek energia-pobrezian izan dezakeen eraginari buruz.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>xebizitza-alkairua, eraikinen birgaitzea, eta hiri-eremuak eraberritzea eta biziberritzea sustatzeko Estatu Plana (2013-2016)</p>	<p>Espainia</p>	<p>Etxebizitza-alkairua, eraikinen birgaitzea, eta hiri-eremuak eraberritzea eta biziberritzea sustatzeko Estatu Planak, etxebizitza eta eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzeko helburuen artean, honako hauek ezartzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Laguntza-sistema egungo gizarte-beharrizanetara eta eskuragarri dauden baliabideen urritasunera egokitzea, bi ardatz hauen inguruan bilduta: etxebizitza-alkairua sustatzea eta hiri-eremuak birgaitzea, eraberritzea eta biziberritzea sustatzea. – Eraikinen kalitatea eta, bereziki, eraikinen energia-eraginkortasuna eta irisgarritasun unibertsala hobetzea, eta hondakin-bilketarako eta behar bezalako kontserbaziorako egokitzapena hobetzea. <p>Plangintza osatzen duten zortzi programetarik bi eraikinen energia-eraginkortasunaren hobekuntzari dagozkio zuzenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Irisgarritasun, energia-eraginkortasun eta eraikinen kontserbazio-egoerari buruzko txostena ezartzeko laguntza-programa. Programa honen helburua da eraikinen ebaluazioari buruzko txostenaren ezarpena bultzatzea, eta, txosten horren barruan, eraikin horien irisgarritasun-baldintzen, energia-eraginkortasunaren eta kontserbazio-egoeraren azterketa egitea, txostena egiteko ordainsari gastuen % 50 gehienez estaliko duen diru-laguntza baten bidez, inoiz ez 500 eurotik gorakoa. Diru-laguntza horiek jaso ditzakete txostena 2016. urtea baino lehen egiten duten eraikinetako auzo komunitateak edo etxejabe bakarrak. Txosten hori egitea ez da nahitaezkoa, non eta ez den birgaitze-lanetarako laguntza eskatu nahi. – Eraikinen birgaitzea sustatzeko programa. Programa honen helburua da finantzatzea eraikinaren ebaluazio-txostenean atzemandako lanak; argindar-, ur- edo gas-instalazio komunetan egiten direnak; eraikinaren energia-eskaria gutxitzeko asmoz, eraikinaren inguratzaile termikoa hobetzeko egiten direnak; berokuntza-sistemak edo ur beroa sortzeko sistemak instalatzekoak; edota dagoeneko badauden sistemen energia-eraginkortasuna handitzeko lanak. <p>Esku-hartze horiek energia-kontsumoa aurreko egoeran baino % 30 txikiagoa izatea lortu behar dute, eraikinek 1981. urtea baino lehenagokoak izan behar dute, eta etxebizitzaren %70ek ohiko bizilekua izan behar dute. Etxebizitza-eraikinetako jabe-komunitateak edo jabe bakarrak izan daitezke onuradunak. Laguntzen zenbatekoa ez da inoiz aurrekontua baino % 35 handiagoa izango; eta energia-eraginkortasuna hobetzeko lanen kasuan, 2.000 eurorainokoak izango dira etxebizitza bakoitzeko, eta 5.000 eurorainokoak eraikinaren energia-eskaria % 50 murrizten bada.</p> <p>Aurreko planetan bezala, laguntza horien kudeaketa Autonomia Erkidegoen esku egongo da, Estatuko Administrazio Orokorrarekin egindako lankidetzaren hitzarmenaren eta dagokion kofinantziazioaren bidez.</p>	<p>Laguntza unibertsal bat denez, baliabide gutxiago dituzten etxeek gainerakoek baino laguntza txikiagoa jasoko dute seguruenik, haien inbertsio-ahalmena ere txikiagoa izango delako.</p> <p>Litekeena da laguntzak behar bezainbestekoak ez izatea diru-sarrera gutxiago dituzten familiak beren etxeko energia-eraginkortasuna hobetzeko lanetan inbertitzera bultzatzeko.</p> <p>Ez dago daturik neurri honek energia-pobrezian izan dezakeen eraginari buruz.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gainerako eragina
Energiaren Aurrezpen eta Eraginkortasunerako Plana (2011-2020)	Espainia	<p>Energiaren Aurrezpen eta Eraginkortasunerako Plana 2012/27/UE Zuzentarauak energia-eraginkortasunaren inguruan ezarritako betebeharrak erantzuten ditu. 2020. urtean energia-kontsumoa % 20 murriztea da planaren helburua.</p> <p>Energiaren Aurrezpen eta Eraginkortasun Planak (aurrekoak 2008-2012 bitarteko aldia hartzen zuen) Energiaren Aurrezpen eta Dibertsifikaziorako Institutuak (IDAE) prestatzen ditu. Era berean, Institutu horrek lankidetzak hitzarmenak ditu sinatuta Autonomia Erkidegoekin plana behar bezala kudeatzeko.</p> <p>Beste neurri batzuen artean, plan horiek honako hauek ezartzen dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eraikinen inguratzaile termikoa birgaitzea (estalkiak, fatxadak, leihoen berritzea). - Eraikinetako instalazio termikoetako energia-eraginkortasuna hobetzea eta ekipa terminalak berritzea - Etxetresna-parkearen energia-eraginkortasuna hobetzea. - Eraikin berriak eraikitzea eta daudenak birgaitzea goi mailako energia-kalifikazioarekin. <p>Planak sektore ekonomiko desberdinetarako neurriak aurreikusten ditu. Eraikuntza eta ekipamendua sektoreak, adibidez, barne hartzen ditu arestian aipatutako lau neurriak. Sektore horren barruan, etxeko sektorea ez ezik merkataritza sektorea ere sartzen da.</p>	<p>Ez da energia-pobrezia arintzera espezifikoki zuzendutako neurri bat, baina diru-sarreraren mailak baldintzatua dago.</p> <p>Litekeena da laguntzak behar bezainbestekoak ez izatea diru-sarrera gutxien dituzten familiak beren etxeko energia-eraginkortasuna hobetzeko lanetan inbertitzera bultzatzeko. 2011-20120 Planak aurreko planean ezarritako aurrezpen-helburuak berrikusten ditu. Ondorio gisa ateratzen duenez, neurri horiek esker azken energian egindako aurrezpenak, Autonomia Erkidegoek kudeatutako laguntza-programen esparruan, honela gauzatu ziren 2010. urtean:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekipa terminalak (galduak, aire egokitua) berritzeko programa: 61,1 ktep¹⁴⁷/urtean. - Hobekuntzak estalki eta fatxadetan (leihoak berritzea barne): 22,3 ktep/urtean. - Etxetresnak berritzea: 81,4 ktep/urtean. <p>2010. urtean lortutako aurrezpena aurreko bost urteetako kontsumoaren % 9,2koa izan zen (proposatutako % 9 baino handiagoa).</p>
Energia-eraginkortasunaren ziurtagiria	Espainia	<p>235/2013 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, eraikinen energia-eraginkortasuna ziurtatzeko oinarriko prozedura onartzen duena, indarrean sartu zelarik, 2013ko ekainaren 1etik aurrera, 2007. urtea baino lehen eraikitako higiezin guztiak, etxebizitza zein lokal, Energia Eraginkortasunaren Ziurtagiria izatera behartuta daude. Ziurtagiria dokumentu ofizial bat da, eraikin baten energia-ezaugarri buruzko informazio objektiboa (energia-kontsumoa eta CO₂ isurketa) eskaintzen duena. Eraikinak eskala baten arabera sailkatzen dira, A-tik (energiakoki eraginkorrenak) hasi eta G-raino.</p> <p>Gainera, energia-eraginkortasuna ziurtatzeko legezko aitorpena duten dokumentuen erregistro orokorra sortzen da, oinarriko prozedura hori betetzeko eginbidea errazteko. Industria, Energia eta Turismo Ministerioi Energiaren Estatu Idazkaritzara atxikia dago, eta ia zera publikoa eta informaziozkoa du.</p> <p>EAEko Erkidegoan, 240/2011 Dekretuak, azaroaren 22koak, arautzen du eraikuntza berriko eraikinen energia-eraginkortasunaren ziurtagia.</p>	<p>Epe labur eta ertainean, energia-pobrezian izango duen eragina hutsaren hurrengo izango dela aurreikusten da, baina epe luzean lagungarria gerta daiteke fenomeno honi aurre egiteko.</p> <p>Higiezinaren merkatuaren segmentazio batetik erator daiteke. Beraz, energia-eraginkortasunik handieneko etxebizitza bat erostea edo errentan hartzea errenta handieneko familien esku baino ez dago.</p>

¹⁴⁷ ktep: Mila tona petroliok sortutako energiaren unitate baliokidea.

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
Renove Planak	Espainia [EAE]	<p>Renove planak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak dira; Autonomia Erkidegoek kudeatzen dituzte, baina Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) sustatzen dituen aurrezpen eta ekintza planen zati dira. Programa horiek IDAEREkin eta Autonomia Erkidegoekin egindako hitzarmenen bidez kokudeatzen eta kofinantzatzen dira, Energiaren Aurrezpen eta Eraginkortasunerako Planen esparruan.</p> <p>EAEEn, 2013. urtean zehar, lau Renove Plan ezarri dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Leihoak berritzeko Renove Plana</i> Diruz laguntzen ditu ohiko bizileku den etxebizitza baten jabe, gozamedun edo maizter diren pertsona fisikoak energetikoki eraginkorrak diren leihoak jartzeko. Laguntzaren zenbatekoa diruz lagun daitekeen inbertsioaren kostuaren % 22koa izaten da, eta diruz lagun daitekeen kostua, gehienez ere, 400 eurokoa leiho m² bakoitzeko, eta 1.000 eurokoa etxebizitza bakoitzeko. - <i>Egoitza-erakinetako argindar-instalazioak berritzeko inbertsioetan laguntzeko programa.</i> Diruz laguntzen ditu bizilagunen komunitateak eta etxebizitza baten jabe, gozamedun edo maizter diren pertsona fisikoak argindar-instalazioak berritzeko. Laguntzaren zenbatekoa inbertsioaren % 50ekoa da, gehienez ere 500 euro banako etxebizitza bakoitzeko edo 1.000 euro jabe-komunitate bakoitzeko. - <i>Etzetresnak berritzeko Renove Plana</i> Diruz laguntzen du etxeko etzetresnak ordezkatzeko A++ energia-etiketa edo goragoko mailakoa duten beste batzuekin. Pertsona fisikoei zuzenduta dago, eta laguntzak 105 edo 125 eurokoak izan daitezke, zer etzetresna erosten den. - <i>Kondentsazio-galdarak jartzeko Renove Plana</i> Diruz laguntzen du etxeko galdarak kondentsazio motakoekin ordezkatzeko. Ohiko bizileku den etxebizitza baten jabe, gozamedun edo maizter diren pertsona fisikoei zuzenduta dago. Laguntza, gehienez ere, 200 eurokoa da onuradun eta galdara bakoitzeko. 	<p>Ez die lehentasunik ematen diru-sarrera baxuak dituzten etxeei, baina kostu txikiko esku-hartzeak direnez, inbertsioa aurre egiteko modukoa da haientzat ere.</p> <p>2013rako aurrezpen-programa eta aurreikuspen bakoitzerako diru-hornidura, guztira, honako hau da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Leihoak berritzeko Renove Plana: 1.500.000 euro laguntzetarako. Energiaren Euskal Erakundearen datuen arabera, programa honek eragiten duen energia-aurrezpena 800 tep¹⁴⁸-koa da urteko, hau da, 2.900 etxebizitzetan berokuntza-kontsumoaren baliokidea. - Argindar-instalazioak: 350.000 euro. - Etzetresna elektrikoak: 1.500.000 euro, hau da, guztira 13.184 etzetresna ordezkatu dira (7.159 Bizkaian, 4.564 Gipuzkoan eta 1.461 Araban). Euskal Energia Erakundearen arabera, ordezkaturako goi mailako eraginkortasuneko etzetresna elektrikoek ekarriko duten energia-aurrezpena 1.300 tep-ekoa izango da urteko, hau da, 1.000 bat etxebizitzetan urteko energia-kontsumoaren baliokidea. Horri esker, eguratsera 2.700 tona CO₂ isurtzea saihestuko da. - Kondentsazio-galdarak: 400.000 euro. <p>Eusko Jaurlaritzaren ustez, proiektu eta instalazio horiek guztiek guztira ekarriko duten energia-aurrezpena 41.000 tep-ekoa izango da urtean, hau da 30.000 etxebizitzek urte batean kontsumitzen dutenaren adinakoa.</p>

¹⁴⁸ tep: Tona bat petrollok sortutako energiaren unitate baliokidea.

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>Etxebizitza eta eraikinen birgaitze eraginkorri buruzko laguntza-programak, ondarean esku-hartzeko proiektuak prestatzeko (EAEko Etxebizitzak Eraberritzeko 2013-2016 aldirako Renove Planaren barruan sartuta).</p>	<p>Espainia [EAE]</p>	<p>EAEko Etxebizitzak Eraberritzeko 2013-2016 aldirako Renove Plana gauzatzeko programetako bat da. Bere aldetik, programa hori Europa 2020 Estrategiaren barruan sartuta dago, CO₂ isuriak eta energia-kontsumoa % 20 murriztea eta, aldiz, energia berriztagarrien erabilera % 20 handitzea helburu hartuta.</p> <p>Programaren helburua da irisgarritasunaren, suteen kontrako segurtasunaren eta energia-eraginkortasunaren baldintzak hobetzea eraikin-blokeetan edo etxebizitza-sailetan.</p> <p>Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza horiek ondoren zehazten diren proiektuen erredakzioa prestatzen eta egin beharreko lanak gauzatzen laguntzera zuzenduta daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Esku-hartze integralak: hala nola, energia-eskaria murrizte aldera eraikinen inguratzailearen gainean eginikoak, eta energia-kontsumoa gutxitze aldera ekoizpen termikoko instalazioetan eginikoak. - Barneko konfort termikoa eta berokuntzaren energia-kontsumoaren monitorizazio energetikoa, eraberritutako eraikinaren edo blokearen etxebizitza-lagin adierazgarri batean. <p>Laguntzen onuradunak izango dira 1980. urtea baino lehen eraikita dauden eta hiri- eta egitura-egokitzapena duten eraikinetako jabe-komunitateak, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan ezarritako baldintzei jarraiki. Laguntzen zenbatekoari dagokionez, ziurtagiria lortzeko aurkeztu beharreko txostenen eta egin beharreko prozesuen erredakzioak dokumentuak idazteagatik ordaindu beharreko sarien kostu garbiaren (zergak kenduta) % 70eko diru-laguntza jaso dezake, gehienez ere.</p>	<p>Ez da energia-pobrezia arintzera espezifikoki zuzendutako neurri bat, baina diru-sarreraren mailak baldintzatuta dago.</p> <p>Litekeena da laguntzak behar adinakoak ez izatea diru-sarrera gutxiago dituzten familiak beren etxeko energia-eraginkortasuna hobetzeko lanetan inbertitzera bultzatzeko.</p> <p>Eusko Jaurlaritzak aurreikusten duenez, Renove Planeko (ikus hurrengo neurria) aipatu bi programa horien bidez EAEko Autonomia Erkidegoko 52.000 etxebizitza birgaituko dira datozen hiru urteetan; aurrekontua 6,06 milioi eurotan zenbatetsita dago.</p>
<p>Eraikinak eta etxebizitzak eraberritu nahi dituzten herritarrei eta bizilagun-komunitateei bideratutako laguntza-programak (EAEko etxebizitzak eraberritzeko 2013-2016 aldirako Renove Planaren barruan sartuta daude)</p>	<p>Espainia [EAE]</p>	<p>EAEko Etxebizitzak Eraberritzeko 2013-2016 aldirako Renove Plana gauzatzeko programetako bat da. Bere aldetik, programa hori Europa 2020 Estrategiaren barruan sartuta dago. Programa hori bi ardatz hauen arabera dago antolatuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Etxebizitzak birgaitzeko laguntzak:</i> Etxebizitzak (inguratzaile termikoa barne) birgaitzeko bideratutako finantza-laguntzak dira. Laguntzak bi motakoak izango dira: itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak edo mailegu kualifikatuak. Diru-laguntza horiek 21.000 eurotik beherako diru-sarrera ponderatuak dituzten pertsonen ematen zaizkie, eta diru-laguntzaren zenbatekoa 1.110 eurotik 4.180 eurora bitartekoa izan daiteke, diru-sarrerak, familiaren tamaina eta zer lan mota egin nahi den kontuan hartuta. Edozein pertsonak egin dezake mailegu-eskaera, bere familiaren diru-sarrera ponderatuak 33.000 eurotik beherakoak badira. Laguntzaren zenbatekoa aurrekontu babesgarri osoa estaltzerainokoa izan daiteke, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzei dagokien zenbatekoa kenduta, halakorik balego behintzat. Mailegua ordaintzeko epea bost urtetik hamabost urtera bitartekoa izaten da, eta gabealdia hiru urtekoa gehienez ere. - <i>Eraikinak birgaitzeko bideratutako laguntzak:</i> Eraikinak birgaitzeko bideratutako finantza-laguntzak dira. Eraikin jakin bateko etxebizitza-jabeek eska ditzakete laguntza horiek, etxebizitza horiek bizileku ohikoak eta iraunkorrak badira. Laguntzak bi motakoak izaten dira: itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak edo mailegu kualifikatuak. Laguntzak eskatzeko baldintzak eta haien zenbatekoak etxebizitzak birgaitzeko ezarritakoen oso antzekoak dira. 	<p>Neurri honen eragina aurrekoaren antzekoa da.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
Etxebizitzagatiko zerga-kenketak	Espainia [eta Lurralde Historikoak]	<p>Espainia</p> <p>Urteko zerga-oinarria 71.007,20 eurokoa baino txikiagoa duten zerga-ordaintzaileek 5/2001 Errege Lege Dekretua indarrean sartzen denetik 2012ko abenduaren 31 arte ordaindutako zenbatekoaren % 20a kendu ahalko dute, bitarte horretan bere jabetzako edozein etxebizitzan –ez du zertan izanik ohiko etxebizitza–edo etxebizitza hori dagoen eraikinean egindako lanengatik, lan horiek energia-eraginkortasuna hobetzeko lanak badira, besteak beste. Kenkariaren gehieneko oinarria urtean 6.750 eurokoa izango da urteko zerga-oinarria 53.007,3 eurokoa baino txikiagoa duten zerga-ordaintzaileentzat.</p> <p>Lurralde Historikoak</p> <p>Hiru Lurralde Historikoetan, ohiko etxebizitza birgaitzeko kostuaren % 18ko zerga-murrizketak aplikatzen dira zergaldia bitartean (familia ugarien eta gazteen kasuan, zerga-murrizketa % 23koa izaten da). Urtean gehienez ere 1.800 euroko kenkaria aplikatu daiteke (2.300 eurokoa familia ugarien eta gazteen kasuan), baina, Gipuzkoan, kopuru hori 2.160 eurorainokoa izan daiteke (2.760 eurorainokoa familia ugarien eta gazteen kasuan). Bizkaiko kasuan, etxebizitza-kontu batean aurreztutakoa birgaitze horietan erabil daiteke.</p>	<p>Jardutako irizpideak edo lehenetsunak zehazteko orduan, kenkari horiek ez dute energia-pobrezia kontuan hartzen, baina, hori bai, ustez zailtasun handiagoak dituzten kolektiboetara zuzenduta daude (diru-sarrera baxuak, gazteak, familia ugariak).</p> <p>Energia-pobrezia pairatzen duten familientzat baliteke ez izatea oso interesgarria, eskaintzen den kenketa aski handia ez delakoan.</p> <p>Ez dago daturik neurri honek energia-pobrezian izan dezakeen eraginari buruz.</p>
Kataluniako Energiaren eta Klima Aldaketaren Plana 2012-2020	Espainia [Katalunia]	<p>Kataluniako Energiaren eta Klima Aldaketaren 2012-2020 aldirako Planak esplizituki aurreikusten du energia-pobrezia arazoa, eta azpi-estrategia espezifiko bat ezartzen du, "ekonomikoki baztertuen dauden gizarte sektoreen inklusioa" izenekoa. Planak honako hau aurreikusten du: energia-pobrezia definitzeko eta ezaugarritzeko ekintzak aurrera eramatea, egungo egoeraren azterketa eta egungo politiken ebaluazioa egitea, eta energia-pobrezia eraginkortasunez aurre egin ahal izateko politikak eta gomendioak abian jartzea.</p> <p>Plana honako sei ekintza estrategiko hauetan gauzatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Energia-pobrezia duten pertsonen kasuan, lehenetsuneko mekanismo espezifikoak sartzeko energia-gaietarako laguntza eta diru-laguntza sistemetan (adibidez, Renove planak). - Energiaren arloan fiskalitate-neurri bereziak aztertzea. - Energia-eraginkortasun altuko estandarrak eta energia berriztagarriak ezartzea babes ofizialeko etxebizitzetan, azken prezioa jaso gabe. - Gida praktikokoak eta bestelako zabalkunde- eta komunikazio-materialak prestatzea. - Benetako gizarte tarifak ezartzearen beharra defendatzea Espainiako gobernuaren aurrean. - Kataluniako Generalitatek prestatutako pobrezia aurkako planetan, energia-pobrezia aurre egitera espezifiko bideratutako ekintzak sartzeko. 	<p>Energia-pobrezia zuzenean heltzen dion estrategia publiko garrantzitsu bat da, Estatuan onartua izan den lehena.</p> <p>Planak aurreikusten du katalanen energia-faktura 6.078,1 milioi eurotan gutxitzea urtean, eta 33.580,5 milioi eurotan Plana indarrean dagoen bitartean (2012-2020).</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobreziaren gaineko eragina
<p>Energia-eraginkortasunerako programa diru-sarrera baxuak dituzten familientzat</p> <p><i>[Low Income Energy Efficiency Program]</i></p>	Australia	<p>Diru-sarrera baxuko etxeetan energia-eraginkortasuna hobetzeko proiektuak gauzatzen dituzten erakunde publiko, enpresa eta elkarteei diru-laguntzak eskaintzeko laguntzen lehiaketa bat, Australiako gobernuak antolatuta. Programa hau <i>Clean Energy Future</i> energia-eraginkortasuna hobetzera bideratutako planaren barruan dago sartuta. Diruz lagundutako proiektuen artean, diru-sarrera baxuko etxebizitzaren energia-egoera ebaluatzen dutenak eta energia-konsumoa hobetzeko prestakuntzak eskaintzen dituztenak daude.</p> <p>Diruz lagundutako kostua 7,5 milioi eurokoa da (hau da, 10 milioi dolarrekoa) proiektu bakoitzeko.</p>	<p>Energia-pobreziari aurre egiteko espezifikoki diseinatutako programa bat da.</p> <p>Australiako Gobernuaren aginduz 2006an egindako ebaluazio batek erakusten duenez, programa honi esker, gutxitu egin da bai ordaindu gabeko fakturen kopurua bai energia-gastua bera ere.</p>

4.4.2. Errenta-transferentzia ardatz duten neurriak

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>Erregaia ordaintzeko diru-laguntzak</p> <p>[Winter Fuel Payments]</p>	<p>Britainia Handia</p>	<p>Winter Fuel Payments izeneko diru-laguntza 1997. urteaz geroztik dago indarrean, etxebizitzako energia-fakturak ordaintzen laguntzeko. 60 urtetik gorako pertsona guztiek balia dezakete laguntza, haien diru-sarreraren maila dena dela. Laguntza automatikoki ordaintzen zaie, azaroa eta abendua artean, estatuaren aldetik erretiro-saria jasotzen dutenei (laguntza aurreko urtean ere jaso bazen, eta egoeran aldaketarik ez badago, automatikoki berritzen da). Laguntzaren zenbatekoa pertsona onuradunaren eta haren ezkonlagunaren adinaren araberkoa da. Adibidez, 60 urtetik gorako pertsona bakar batek 200 libra (231,1 euro) jasotzen ditu, eta 80 urtetik gorako pertsona bakar batek, berriz, 300 (346,6 euro).</p>	<p>Energia-pobrezia gutxitzea, eta, bereziki, giza talde jakin batengana, pobrezia maila altuko adineko pertsonengana, espezifikoki bideratutako neurri bat da.</p> <p>Neurri hau, baina, oso kritikatu izan da: batetik, ez delako eraginkorra, eta, bestetik, ez dituelako diru-laguntzaren premia handiena duten erabiltzaileak babesten. Neurri honen kontra daudenek diote onuradunetako askok ez dutela energia-pobreziarik, eta, hori dela eta, neurria, azken batean, erretiro-sariaren osagarri bat baino ez dela.</p> <p>Aitzitik, 2013ko azterketa batek egiaztatzen duenez, laguntzak eraginkorrak dira, hotzari lotutako gaitzak hartzeko arrisku handia duen giza talde jakin baten –adineko pertsonen, alegia– energia-kontsumoa areagotzen laguntzen dutelako. Datu horiek zeharo gezurtatzen dute adineko pertsonak, diru-laguntza horiek energia-gastuetarako erabili ordez, beste gastu batzuetarako erabiltzen dituztelako ideia. Azterketa horretan bertan iradokitzen denez, Winter Fuel Payments laguntzek hotzak eragindako heriotzen prebalentzia eta horrekin lotutako osasun-gastua gutxitzen dute.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia-aren gaineko eragina
Hotzaldietarako diru-laguntzak. [Cold Weather Payments]	Britainia Handia	<p>Hotz handiko aldietako energia-faktura ordaintzeko diru-laguntza bat da. Diru-laguntza hori jaso ahal izateko, hurrenez hurreneko zazpi egunetako batez beteko tenperaturak gradu batetik beherakoa izan behar du.</p> <p>Nor izan daiteke laguntza horien onuradun? <i>Pension Credit</i> saria jasotzen duten pertsonak, zahar-etxeetan bizi ez badira; pobrezia- eta langabezia-sariak jasotzen dituzten pertsonak (<i>Income Support, Income-Related Employment and Support Allowance</i> edo <i>Income-Based Jobseeker's Allowance</i>), baldin eta 5 urtetik beherako seme-alaben bat badute ardurapean, desgaitasunen bat duen seme-alabaren bat izan, eta, horregatik, laguntza osagarrien bat jasotzen badute, edo elbarritasunen bat izan, eta, horregatik, laguntza osagarriren bat jasotzen badute. Bereziki ahulak diren giza taldeei zuzendutako laguntza bat da, beraz: diru-sarrera baxuak, adineko pertsonak, adingabeak, desgaitasunen bat dutenak.</p> <p>Onuradunak 25 libra (28,9 euro) jasotzen ditu astero, Gobernuak hotz handiko alditzat jotzen duen denborabitarte guztian, hau da, urte bakoitzeko azaroaren 1etik martxoaren 31 arte. Dirua ez dago zertan erabilirik erregaia ordaintzeko, eta erabiltzaileak behar duenerako erabil dezake Diru-laguntza horrek ez dio eragiten jasotzen den beste ezin laguntzari.</p>	<p>Diru-sarrera baxueneko etxebizitzetako energia-gastuak ordaintzera zuzenean zuzendutako laguntza bat da.</p> <p><i>Winter Fuel Payments</i> laguntza ez bezala, <i>Cold Weather Payments</i> laguntza jardunbide egokitzat hartzen da, laguntza jasotzeko premia handiena duen biztanleria babestera iristen delako. Dena dela, bada kritikatzeko duenik ere, bere aurrekontua <i>Winter Fuel Payment</i> delakoarena baino askoz txikiagoa delako (bost aldiz txikiagoa, hain zuzen ere).</p>
Erregai ordaintzeko laguntzak [Fuel Allowance]	Irlanda	<p>Etxebizitzako berokuntza-gastuen zati bat ordaintzera bideratutako diru-laguntza bat da. Indarrean jarri zenetik (1988), Erregaiaren Nazio Programaren barruan dago sartuta (<i>National Fuel Scheme</i>), eta, gaur egun, 26 asteko iraunaldia du urtean. Hori bai, 2012. urtea baino lehen, laguntzaren iraunaldia 32 astekoa zen. Laguntza hauen zenbatekoa 20 eurokoa da astean. Gizarte laguntza jakin batzuen mende egonik gastu horiei aurre egitea ezina zaien pertsona guztiek eskura dezakete laguntza.</p> <p><i>Fuel Allowance</i> laguntza jasotzea bateragarria da argindar-gastuak edo gas-gastuak ordaintzeko laguntza jasotzearekin (ikus hurrengo neurriak), sasoi baterako osagarri bat bezala hartzen baita.</p>	<p>Energia-pobrezia arintzera espezifikoki bideratutako neurriak dira.</p> <p>2012. urtean, 211,4 milioi euro bideratu ziren laguntza horietara, eta 400.000 familiatik gora baliatu ziren haietatik. 2008. urteaz geroztik, handituz doa kopurua.</p>
Argindarra ordaintzeko laguntza [Electricity Allowance]	Irlanda	<p>Diru-laguntza hauek etxerako laguntza-multzoaren barruan sartzen dira (<i>Household Benefits Package</i>), argindar-fakturak ordaintzen laguntzeko dira, eta bereziki egoera ahulean dauden familietara daude zuzenduta. Laguntzaren zenbateko finkoa 35 eurokoa da hilean. Konpainia hornitzailea zein den, bi modutara jaso daiteke laguntza: erabiltzaileari zuzenean ordainduta, edo fakturatik zuzenean kenduta.</p> <p>Nor izan daiteke laguntza hauen onuradun? 70 urtetik gorako pertsonak; baita adin horretatik beherako pertsonak ere, baldin eta bakarrik bizi badira (salbuespenak salbu) eta gizarte laguntza jakin batzuk jasotzen badituzte edota diru-sarrera baxuak badituzte; eta zaintzaileentzako laguntza jasotzeaz gainera, zaindutako pertsonarekin bizi, eta fakturaren titularrak diren pertsonak.</p> <p>Argindar-gastuetarako laguntza jasotzen duen pertsonak <i>Fuel Allowance</i> laguntza ere jaso dezake neguan. Ez dira bateraezina, eta bai bata nola bestea sasoi jakin baterako diru-laguntza osagarritzat hartzen dira.</p>	<p>Energia-pobrezia arintzera zuzenean zuzendutako neurri bat da. Adin eta diru-sarrera irizpideak aplikatzen ditu.</p> <p>2012. urtean, argindarra ordaintzen laguntzeko gastua 176,8 milioi eurokoa izan zen. 360.405 pertsona baliatu ziren laguntzez.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
Gas naturala ordaintzeko laguntza [Natural Gas Allowance]	Irlanda	<p>Aurreko neurria bezala, laguntza hauek familiari zuzendutako laguntza-multzo zabalago baten barruan sartzen dira (besteak beste telefonoa edo telebista-lizentzia ordaintzeko laguntzak sartzen dira multzo horretan). Zehatzago esanda, laguntza hauek gas-fakturak ordaintzeko erabiltzen dira. Laguntzaren zenbatekoa 35 eurokoa da hilean. Laguntza hauek eskuratzeko irizpideak argindarra ordaintzeko laguntza jasotzeko bete beharreko berak izaten dira.</p> <p>Argindar-gastuetarako laguntza jasotzen duen pertsonak <i>Fuel Allowance</i> laguntza ere jaso dezake neguan. Ez dira bateraezinak, eta bai bata nola bestea sasoi jakin bateko diru-laguntza osagarritzat hartzen dira.</p>	<p>Energia-pobrezia arintzera zuzenean zuzendutako neurri bat da. Adin eta diru-sarrera irizpideak aplikatzen ditu.</p> <p>2012. urtean, gasa ordaintzen laguntzeko gastua 20,6 milioi eurokoa izan zen, eta onuradunen kopurua 44.346 lagunekoa.</p>
Etxebizitzarako elkartasun funtsa (FSL) [Fonds de solidarité pour le logement (FSL)]	Frantzia	<p>Estatuaren diru-laguntza hau, 1990. urtean sortua, diru-sarrera baxuak dituzten familiei etxebizitza-gastuak ordaintzen laguntzera zuzenduta dago. Diru-funtsa honek etxebizitza bat izateko edo mantentzeko gastuei aurre egin ahal izateko laguntza ekonomikoa eskaintzen du. 2005. urteaz geroztik, Energiarako Elkartasun Funtsa (FSL) delakoaren barruan sartuta dago. Beraz, ordaindu gabe dauden energia-, ur- edo telefono-fakturak ordaintzen laguntzera ere zuzenduta dago. Departamentuetako administrazioek kudeatzen eta finantzatzen dute funtsa.</p> <p>2006an, 226 milioi euro bideratu ziren Funts horretara. Familia bakoitzeko batez besteko laguntza 635 eurokoa da etxebizitza eskuratzeko, 946 eurokoa etxebizitza mantentzen laguntzeko eta 200 eurokoa argindar-, ur-, edo telefono-faktura ordaintzen laguntzeko.</p>	<p>2006an, 382.000 familiek eskatu zuten laguntza hori, eta 2009an, berriz, 624.389 familiek, Etxebizitza, Hirigintza eta Paisaien Zuzendaritzaren datuen arabera (DHUP).</p>
Berokuntzarako gizarte funtsa [Fonds social chauffage]	Belgika	<p>Estatuaren diru-laguntza bat da, beren baliabide urriak direla-eta gasolio, keroseno eta gas propanoko berogailuaren gastuaren fakturei aurre egin ezinean dauden pertsonen zuzendua. Ez dago diru-laguntza hau eskatzerik gas naturala, gas propanoko bonbona edo gas butanokoa erabiltzen duten berogailuen gastuaren faktura ordaintzeko.</p> <p>Gizarte Funts hau botere publikoen, Udaleko Gizarte Ekintzarako Zentro Publikoen (CPAS, oinarritzko gizarte zerbitzuen baliokideak) eta petrolioaren sektorearen arteko lankidetzat bat da.</p> <p>Laguntza hau giza talde ahulenei laguntzeko da bereziki: urtean gehienez ere 16.632,81 euroko diru-sarrera gordinak (gehi 3.079,19 euroko beste bat ardurapeko pertsona bakoitzeko) dituzten pertsonen; desgaitasunen bat izateagatik prestazio ekonomiko bat jaso, eta urtean gehienez ere 16.632,81 euroko diru-sarrera gordinak (gehi 3.079,19 euroko beste bat ardurapeko pertsona bakoitzeko) dituzten pertsonen; ordaindu gabeko fakturak ordaintzen laguntzeko zerbitzua erabili, eta zorrari aurre egin ezinik segitzen duten pertsonen.</p> <p>Laguntzaren zenbatekoa erregai litroaren prezioaren arabera izaten da, BEZ gabe, baina inoiz ez da izaten 300 eurotik gorakoa familia bakoitzeko, neguko denboraldian.</p>	<p>Energia-pobrezia arintzera zuzenean zuzendutako neurri bat da. Familiaren errenta- eta osaera-irizpideak aplikatzen ditu.</p> <p>2011. urtean, 112.000 familia baino gehiago baliatu ziren laguntza honetaz.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>Energiarako funtsa</p> <p><i>[Fonds d'énergie]</i></p>	<p>Belgika</p>	<p>Diru-laguntza hau 2001. urtean sortu zen, Argindarra eta Gasa Erregulatzeko Belgikako Batzorde Autonomoak kudeatzen du (CREG), eta energia-fakturetan egiten diren atxikipenen bidez finantzatzen da. Funtsak, CREG delakoaren funtzionamendua estaltzeaz gainera, Gizarte Ekintzarako Zentro Publikoen proiektu bat finantzatzen du (CPAS, oinarrizko gizarte zerbitzuen balioideak), zorpeturik dauden edo gasaren eta/edo argindarraren fakturak ordaintzeko zailtasunak dituzten familiei aholku eta laguntza ekonomikoa ematera zuzenduta dagoena. Proiektu horren barruan hau sartzen da: energiaren alorrean prebentziozko gizarte politika bat garatzea, zorpetze-egoeran dauden pertsonen diru-laguntzak esleitzea (etxeresna elektrikoak erosi ahal izateko, adibidez), eta ordaindu gabe utzitzeko fakturak ordaintzeko bitartekari-lana egitea.</p> <p>Laguntza hau zorpetze-egoeran dauden eta egon daitezkeen pertsonen zuzenduta dago. 2009. urtean, funtsa 55.894.103 eurokoa zen.</p>	<p>Energia-pobrezia arintzera zuzenean zuzendutako neurri bat da. Irizpide ekonomikoak aplikatzen ditu zorrak dituzten edo zorpetze-egoeran erortzeko arriskuan dauden familiak identifikatzeko.</p> <p>Laguntzaren zatirik handiena zorra kudeatzeko erabiltzen da, eta oso gutxi inbertitzen da energia-kontsumoaren alorreko arazoei aurrea hartzeko ekintzetan.</p> <p>Ez dago daturik neurri honek energia-pobrezian izan dezakeen eraginari buruz.</p>
<p>Iraupen luzeko langabetuei eta diru-sarrera bermatzeko errentaren hartzaileei zuzendutako gastuen finantzazioa</p> <p><i>[Übernehmung der Heizkosten des Hartz-IV-und Sozialhilfeempfängers]</i></p>	<p>Alemania</p>	<p>Alemanian araudiaren arabera, iraupen luzeko langabetuen eta diru-sarrera bermatzeko errentaren hartzaileen berokuntza-gastua "arrazoizkoa" den bitartean, konderriek gastuaren % 70 ordaindu behar dute eta estatuak % 30. Langabezia-zentroek eta gizarte zerbitzuetarako bulegoek dute laguntza hau kudeatzeko erantzukizuna.</p> <p>Berokuntza-gastua "arrazoizkoa" den ala ez ebaluatzeko orduan (izan ere, indarrean dagoen araudiak ez du ezer zehazten horri buruz), kontuan hartzen da familiarren egoera, etxebizitzaren tamaina eta bestelako ezaugarriak, eta etxea kokatuta dagoen inguruko klima-ezaugarriak. Nolanahi dela ere, konderriek berokuntza-gastuak kalkulatzeko erabiltzen dituzten irizpideak ezin izan dira bateratu, eta, hori dela eta, laguntza honen zenbatekoan alde handiak daude toki batetik bestera. 2009. urtean, laguntza honen zenbatekorik txikiena 33 eurokoa izan zen (berokuntza-gastuaren % 67,8) gutxienez ordaintzen zen konderrian, eta zenbatekorik handiena 86 eurokoa (berokuntza-gastuaren % 100 ia).</p> <p>2010. urtean, 7.364.423 pertsonen jaso zuten diru-laguntza bermatzeko errenta edo iraupen luzeko langabetuentzako langabezia-saria. Denek jo zezaketen berokuntza-gastuak finantzatzeko diru-laguntza horietara.</p>	<p>Diru-sarrera baxueneko etxebizitzetako energia-gastuak ordaintzera zuzenean zuzendutako laguntza bat da.</p> <p>Praktikan, diru-laguntza honek ez du berokuntzak sortzen duen kostuaren % 100a estaltzen. Gainera, argindar-tarifak azken urteotako izan duen igoerak ez du laguntza horien zenbatekoaren igoera ekarri berekin, eta hori gogor kritikatu izan da. Lanaren Agentzia Federalak 2013an aurkeztu zituen estatistika batzuen arabera, iraupen luzeko langabetuen berokuntza- eta alokairu-gastuak % 23,8 igo ziren 2005-2013 bitartean, eta alokairua eta berogailua finantzatzera zuzendutako diru-laguntzaren zenbatekoa, aldis, % 0,02 baino ez.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>Erretiratuei zuzendutako diru-laguntza, etxebizitzako berokuntza-gastuen zati bat finantzatzen laguntzeko</p> <p><i>[Varmetillæg til social pension (førtidspension og folkepension)]</i></p>	<p>Danimarka</p>	<p>Erretiro-sariaren osagarri ekonomiko moduko bat da, etxeko berokuntzak sortutako gastuen zati bat ordaintzeko erabiltzen dena, eta diru-sarrera baxuak dituzten erretiratuei zuzenduta dago gehienbat.</p> <p>Laguntzaren zenbatekoa etxebizitzako berokuntzak sortutako gastuen eta familiaren diru-sarreraren araberakoa izaten da. Atalase jakin batetik behera dauden pertsonak bakarrik izan daitezke onuradun: adibidez, bakarrik bizi, eta urtean 65.300 daniar koroa (8.757 euro) baino gutxiago irabazten duten pertsonak; edota norbaitekin bizi, eta bien artean urtean 131.000 daniar koroa (17.566 euro) baino gutxiago irabazten dutenak.</p> <p>Gainera, laguntza honek zenbateko jakin batetik gora dauden berokuntza-gastuak baino ez ditu laguntzen. Adibidez, bakarrik bizi diren pertsonen kasuan, laguntza hauek urteko 4.660 koroa (617 euro) gainditzen duen zenbatekoaren zati bat baino ez dute finantzatzen. Zenbateko horretatik aurrera, eta, betiere, gastua zenbatekoa den kontuan hartuta, laguntza horiek atalase hori gainditzen duen gastuaren % 25etik % 75era bitarteko zati bat estaltzen dute.</p> <p>Laguntza hau gehienez ere 10.349 daniar koroakoa (1.388 eurokoa) izan daiteke urtean, pertsona sozialen kasuan, eta 8.662 daniar koroakoa (1.162 eurokoa) urtean, beste norbaitekin bizi diren pertsonen kasuan. Osagarri hau jasotzen duten pertsonak hileroko kobratzen dute laguntza, erretiro-sariarekin batera.</p>	<p>Diru-sarrera baxuak dituzten erretiratuen energia-gastuak ordaintzera zuzenean zuzendutako laguntza bat da.</p> <p>Danimarkan, erretiratuta dauden lau pertsonatik batek jasotzen du, nonbait, berogailu-gastuak finantzatzeko diru-laguntza osagarri hau. 2013ko urtarrilean, 1.021.700 erretiratu zeuden Danimarkan. Horietatik 255.425k jasotzen zuten berogailuak sortutako gastuak finantzatzeko osagarria.</p>
<p>Gizarte Larrialdietarako Laguntzak</p>	<p>Espainia [EAE]</p>	<p>Diru-laguntza izaerako prestazio ez-aldizkako bat da, eta gizarte bazterketari aurrea hartzeko, hura saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren ohiko zein ohiz kanpoko gastuei aurre egiteko behar besteko baliabideak ez dituzten pertsonen zuzenduta.</p> <p>Urtarrilaren 18ko 4/2001 Dekretuaren 3. artikulua araberakoa, hauek dira diruz lagun daitezkeen gastuak: energia-, ur-, estolderia- zabor-gastuak, hiri- zein landa-izaerako higiezinaren gaineko zergak, eta etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren oinarritzko bizi-egokitasuna eta hornidura izateko beharrezkoak diren gastuak.</p> <p>Urteko gehieneko zenbatekoak finantzatutako kontzeptuaren araberakoa izaten dira. Adibidez, 2013. urterako, honako gastu hauek zehaztu dira: 1.110 eurorainoko laguntza, urtean, energia-gastuetarako, eta 1.850 eurorainoko laguntza, urtean, etxebizitzako oinarritzko bizi-egokitasun-, konponketa- edo instalazio-gastuetarako.</p>	<p>Baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen zuzenduta dagoen eta energia-gastuak espezifikoki kontuan hartzen dituen laguntza bat den neurrian, neurri egokia dirudi energia-pobrezia egoerak arintzeko.</p> <p>2013. urtean, laguntza 17.300.000 eurokoa izan zen. 2011an, laguntzak 15.331 onuradun izan zituen, baina ez dago benetan jakiterik zenbateko baliatu zuten laguntza energia-gastuak estaltzeko, ez baitago informazio banakaturik.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>Diru-sarrerak baxuak dituzten familientzako energiarako laguntza-programa</p> <p><i>[Low-income home energy assistance program (LIHEAP)]</i></p>	<p>Estatu Batuak</p>	<p>Programa hau 1981. urtean sortu zen, eta haren helburua da diru-sarrera baxuak dituzten familiei laguntzea, diru-sarrera horien zati handi bat energia-gastuak ordaintzeko erabiltzen duten familiei laguntzea batez ere. Programa hau Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren mende eta Energia Sailaren mende dago, baina estatu mailako agentziek kudeatzen dute. Gobernu federalak, estatu-, lurralde- eta eskualde-gobernuei funtsak ematerakoan, kontuan hartzen ditu bai tokian tokiko klima-baldintzak bai diru-sarrera baxuak dituzten familien kopurua. Estatu bakoitzak bere biztanleriaren beharizanen arabera diseinatzen ditu bere laguntza-programak, programa nagusiaren lerro orokorren barruan betiere.</p> <p>Laguntza hau diru-sarrerak pobrezia-maila federalaren % 15oren azpitik edo estatuaren batez besteko pobrezia-mailaren % 60ren azpitik dituzten familiei zuzenduta dago. Nolanahi dela ere, estatu batzuek aldaketak egin dituzte baremo horietan, onuradun-kopurua handitze aldera. Laguntzak hainbat motatakoak izan daitezke: arruntak, energia-fakturak eta klimatizazioaren eta energiarekin loturik dauden etxeko konponketak ordaintzera zuzendutako diru-laguntzak dira; energia-larrialdietarako laguntzak ere badira.</p> <p>Programa hau etxebizitzaren energia-gastuaren ordainketa bere gain hartzen duten pertsoneri (etxejabe zein maizterrei) dago zuzenduta.</p> <p>Laguntzaren zenbatekoa familiaren diru-sarreraren, osakeraren eta erabiltzen den energia-motaren mailaren arabera izaten da. Diru-laguntza zuzenean transferitu dakioko onuradunari, edo, bestela, energia-hornitzaileari, dagokion kenketa egin dezan erabiltzailearen fakturretan.</p>	<p>Diru-sarrera baxueneko etxebizitzetako energia-gastuak ordaintzera zuzenean zuzendutako laguntza bat da.</p> <p>2012. urtean egindako ebaluazio baten arabera, programa honek energia-pobrezia arriskua gutxitzen du hartaz baliatzen diren familietan. Nolanahi dela ere, argi dago programa honen laguntzak ez direla nahikoak ahultasun-egoeran dauden familia guztiei laguntzeko.</p> <p>2012. urtean, programaren inbertsio osoa 3,4 mila milioi dolarrekoa izan zen (2,5 mila milioi eurokoa), 2009 eta 2010. urteetako baino % 38 txikiagoa. Izan ere, urte horietako aurrekontua 5,1 mila milioi dolarrekoa izan zen (3,8 mila milioi eurokoa).</p>

4.4.3. Tarifa sozialetan oinarritutako neurriak

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gainerako eragina
<p>Etxe Beroa Deskontu Programa</p> <p>[Warm Home Discount Scheme]</p>	Erresuma Batua	<p>2011n abian jarritako ekimen bat da, lau urteko iraupena duena. Erresuma Batuko etxe behartsuenei faktura elektrikoetan deskontuak egitea du helburua. Konpainia elektrikoek beren gain hartzen dituzte deskontu horiek, eta, gero, berreskuratu egiten dituzte beste kontsumitzaileei aplikatzen zaien tarifen igoeraren bitartez.</p> <p>Programa horren onuradunak pobrezia egoeran dauden eta faktura elektrikoak ordaintzeko zailtasunak dituzten adindunak dira. Energiaren alorreko zenbait enpresa hornitzailek deskontuak eskaintzen dizkiete egoera ahulean dauden beste taldeei (esate baterako, ezintasunak eta diru-sarrera baxuak dituztenak, gaixo kronikoak edo haur txikiak dituzten etxeak). Herritar talde horiek onartzeko irizpideak konpainiaren arabera izango dira.</p> <p>Deskontuan 135 librakoa izango da (155,8 euro), eta hori gauzatzeko, fakturaren zenbatekoa murriztu egiten da eta bateragarria da <i>Cold Weather Payment</i> eta <i>Winter Fuel Payment</i> laguntzekin.</p>	<p>Energia-pobrezia arintzeko neurri bat da, baina lehentasuna ematen die adinekoen taldeari.</p> <p>Neurri horren kontrakoek kritikatu egiten dute ez dielako aukera ematen hainbat talde ahuli, hala nola familia ugari. Bestalde kritikatu dute era horretako tarifa sozialak ez direla, kasu guztietan, irtenbiderik egokiena energia-pobrezia arazoari aurre egiteko eta tarifa sozialen sistema horrek prezioak gardena direnean baino ez duela balio.</p> <p>2013ko txosten batek programaren eraginkortasun administratiboa egiaztatzen du –duen garrantziagatik-, nahiz eta oraindik goiz den adierazteko eraginkorra dela gaixotasunak murrizteko eta hotzari loturiko heriotzak urritzeko.</p> <p>Gobernuaren aurreikuspenen arabera, programak bi milioi etxe ingururi eman beharko die laguntza.</p>
<p>Premia biziko tarifa elektrizitatearentzat (PBT)</p> <p>[Tarif de première nécessité pour l'électricité (TPN)]</p>	Frantzia	<p>Neurri sozial bat da, 2004. urteko apirilaren 8ko dekretuaren bitartez martxan jarri zena. Elektrizitatearen konpainia hornitzaileak zuzenean bezeroaren fakturan aplikatzen du deskontua, bai elektrizitatearen kontsumoan bai hilean kontsumitutako lehenengo 100 kWh-etan. Tarifak urtebeteko iraupena izango du, eta hori amaitu ondoren modu automatikoan aktibatzen da, haren onuradun izateko baldintzak betetzen jarraitzen badira. Laguntza soilik etxebizitza nagusiei zuzenduta dago.</p> <p>Tarifa hori lortu ahal izateko, bezeroak ez du gainditu behar muga jakin bat urteko; muga hori etxearen osaeraren eta bere kargura dituen pertsonen arabera izango da. Bi seme-alaba dituen bikote batentzat, muga hori 1.875 euro garbikoa izango litzateke hilean.</p>	<p>Neurri hori ez da bakarrik energia-pobrezia egoeran dauden etxeentzat, baina horren onuradun izan litezke.</p> <p>Tarifa horren bitartez % 40 eta % 60 bitarteko aurrezkia lor daiteke, eta 140 euro bitartekoa urteko fakturazioan.</p> <p>2011n, 650.000 etxe izan ziren neurri horren onuradunak.</p>
<p>Gas naturalarentzako solidaritate-tarifa berezia (TSS)</p> <p>[Tarif spécial solidarité pour le gaz naturel (TSS)]</p>	Frantzia	<p>Neurri sozial bat da, 2008an ezarria eta elektrizitatearen konpainia hornitzaileek kudeatua. Laguntza horren arabera, banakako kontratuetan deskontua egiten zaie gas fakturatan edo urteko deskontu finko bat berokuntza sistema zentralerako etxebizitzetan. Tarifa hori etxebizitza nagusietan baino ez da aplikatzen.</p> <p>Tarifa hori lortu ahal izateko, bezeroak ez du urteko muga jakin bat gainditu behar; muga hori etxearen osaeraren eta bere kargura dituen pertsonen arabera izango da. Bi seme-alaba dituen bikote batentzat, muga hori 1.875 euro garbikoa izango litzateke hilean.</p>	<p>Neurri hori ez da bakarrik energia-pobrezia egoeran dauden etxeentzat, baina horren onuradun izan litezke.</p> <p>Aurrezkia aldatu egiten da etxebizitzaren eta kontsumo-ohituren arabera. Bi pertsonen edo gehiagoz osatutako etxe batean, urteko beherapena 156 eurora irits liteke (BEZa barne). 2011n, 313.000 etxe izan ziren tarifa horren onuradunak.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia eraginarik gabeko eragina
<p>Tarifa soziala elektrizitatean eta gas naturalean</p> <p><i>[Tarif social pour l'électricité et le gaz naturel (SOCTAR)]</i></p>	Belgika	<p>2004. urteaz geroztik, tarifa sozialari esker (gehieneko prezioa ere esaten zaio), hainbat familiak tarifa komertzialak baino gas- eta elektrizitate-tarifa onuragarriagoak izan ditzakete. Elektrizitatea eta Gasa Arautzeko Batzordeak urtean bitan kalkulatu du tarifa sozial hori, eta Belgikako gas- eta elektrizitate-tarifa komertzial baxuenaren balio berekoa izaten da.</p> <p>Laguntza hori, etxebizitza nagusietan baino ez da aplikatzen, eta laguntza sozial jakinak jasotzen dituzten etxeei (gutxienez % 66ko ezintasuna duten seme-alabekin) eta etxebizitza sozialetako maizterrei zuzendua da. 2010. urteaz geroztik, tarifa soziala modu automatikoki aplikatzen zaie horien hartzaila izateko baldintzak betetzen dituzten pertsonen.</p>	<p>Energia-pobrezian eragina duen neurria da, talde ahulenei bideratua baita.</p> <p>Lau kideko familia batentzat, elektrizitatearen tarifa sozialak % 5 eta % 22 bitarteko aurrezpena ekar dezake, ohiko tarifaren aldean, eta familia ugarien kasuan, % 40 eta % 48 bitartekoa.</p>
<p>Elektrizitatea doan ematea</p> <p><i>[Allocation gratuite d'électricité]</i></p>	Belgika [Flandesko eskualdea]	<p>Flandesko eskualdean, etxe bakoitzak kWh elektrizitate kopuru jakin bat jasotzen du doan urtero, etxearen osaeraren arabera. kWh horiek enpresa-hornitzaileak igortzen duen urteko erregularizazio-fakturatik deskontatzen dira zuzen-zuzenean.</p> <p>Neurri horrek eskualdeko etxe guztiei eragiten die, edozein direla ere horien diru-sarrerak. Etxe bakoitzari 100 kWh-ko deskontua egiten zaio, eta etxe kide bakoitzeko 100 kWh-ko deskontu osagarria.</p>	<p>Neurri hori ez da bakarrik energia-pobrezia egoeran dauden etxeentzat, nahiz eta neurri horren laguntza har dezaketen beren kontsumoaren arabera. Laguntza erabat doakoa ez delako gertatzen da hori, elektrizitatearen banaketa-tarifaren gaineko gaitzaren eraginez baita.</p> <p>Familia ugariak dira neurri horren onuradun nagusiak, eta, horien ondoren, elektrizitate gutxi kontsumitzen duten etxeak. Bakarrik bizi direnek ez diote neurri honi onura handirik ateratzen.</p> <p>Aldiz, elektrizitatearen kontsumitzaile handiak, zehazki berogailu elektrikoak dituztenak, zigortzen dituzte.</p>
<p>Energia taldean erostea</p>	Herbehereak	<p>2011. urtean sortu zen <i>Met de Stroom Mee</i> (Jarraitu Korronteari) ekimena, Dutch Concepts Group BV Interneten irtenbide berritzaileak sortzeko enpresak erregistratutako marka. Kontsumitzaileei energiaren kostua merkatuzko proiektua da. Helburu hori betetzeko webgune bat sortu zen Interneten, eta bertan Herbehereetako edozein etxe erregistra zitekeen. 10.000 erabiltzaile erregistratu zirenean, enpresa arduraduna Herbehereak energiaren hornitzean dituzten enprekin jarri zen harremanetan, aipatutako talde oso horren kostu energetikoa negoziatzeko. Konpainia elektriko bakoitzak eskaintzak egin zituen, eta onena aurkitu ondoren, erregistratutako pertsonen mezu bat jaso zuten posta elektronikoz, lor zezaketen kontratu berriaren baldintzekin.</p> <p>Bestalde, WoonEnergij etxebizitza sozialen enpresak bitartekari gisa jarduten du energiaren merkatuan, eta elektrizitate-tarifa bereziak bilatzen ditu 'taldeko negoziatioari' esker.</p> <p>Energia taldean erosteko antzeko ekimenak egin dira Alemania, Belgika, Ingalaterra edo Portugalen. Espainian, era horretako lehen esperientzia egin da eskala handian (ikus aurrerago)</p>	<p>Neurri hori ez da bakarrik energia-pobrezia egoeran dauden etxeentzat, baina horren onuradun izan litezke.</p> <p>Hasieran izena eman zuten 10.000 etxetatik 6.630ek erabaki zuten 'taldeko negoziatioaren' ondorioz lortutako emaitza onartzea. Hornidura-kontratu berriekin, etxeetan urtean 300 euro aurreztu zituzten batez beste.</p> <p>Ideen britainiar laborategi batek iradoki du, ekimen horretan oinarri hartuta, Erresuma Batuko tokiko administrazioak bitartekari gisa jardutea kontsumitzaileen eta konpainia elektrikoaren artean, energia-hornidura merkeagoa lortzeko.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
Txeke berdea. Energiaren prezioen igoerak konpentsatzeko zerga-dedukzioak (eta ingurumen-tarifak) [Grøn check. Skattefri kompensasjon for forhøjede energi- og miljøafgifter]	Danimarka	2009an ezarritako neurri horren arabera, zerga-dedukzioak aplikatzen zaizkie 18 urtetik gorako pertsoneri, energiaren eta ingurumenaren alorreko tarifen igoera konpentsatzeko. Dedukzio horiek aplikatzeko, diru-sarrerak hartzen dira kontuan. Urteko 411.000 daniar koroatik (55.113 euro) gora ez da inolako dedukziorik aplikatzen. Dedukzio horren zenbatekoa 1.300 daniar koroakoa da urteko (174 euro), 362.800 daniar koroatik (48.651 euro) gorako diru-sarrerak dituzten etxeetan izan ezik, horiek dedukzio txikiagoa izango baitute. Bestalde, etxe batean bizi den haur bakoitzeko, zerga-dedukzio osagarri bat aplikatzen da, urteko 300 daniar koroakoa (40 euro). Familia-osagarri horren gehieneko muga 600 daniar koroakoa da (80 euro).	Zuzenean diru-sarrera baxueneko etxeetako gastu energetikoak ordaintzeko ematen den laguntza da. Itxura denez, zerga-dedukzio honek badu ondorio gaiztoren bat. Badirudi laguntza honek, gaur egungo zerga-taularen arabera, urtean 362.800 eta 411.000 daniar koroa bitarte irabazten dutenei kalte egiten die. Praktikan, horrek esan nahi du, adibidez, hilean 33.000 daniar koroa irabazten duen norbaitek zergen % 48,4 ordaintzen du, eta hilean 35.000 daniar koroa irabazten dituenak, aldiz, zergen % 40,9 baino ez duela ordaintzen.
Gizarte Bonua	Espainia	Gizarte Bonoa 2009an jarri zen abian Espainian, TUR Azken Baliabideko Tarifak (6/2009 Errege Dekretu-legea) indarrean jarri zirenean, hain zuzen. Neurri sozial bat da, talde ahulenei laguntzeko diseinatua. Indarrean den tarifa izoztu egiten da TURa martxan jartzen den unean, 2012 arte. Neurri horrek abenduaren 31 arte iraungo zuela aurreikusi bazen ere, 2013ko uztailaren 13an luzatu egin zen gaur egungo gizarte-bonua (9/2013 Errege Dekretu-legea), eta tresnaren araudi berria onartu arte egongo da indarrean. Gobernuaren proposamena, dagoeneko aurkeztu dena, Energiaren Batzorde Nazionalaren txostenaren zain dago, onartua izateko. Neurri hau lau talde nagusi hauei zuzendua da: familia ugariak (2013ko erreformaz geroztik, 34.689 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenei baino ez aplikatzea proposatzen da), gutxieneko prestazioen hartzaileak (erretiroa, etengabeko ezgaitasuna edo alarguntza), kide guztiak langabezia dituzten etxeak edo 3 kW-tik beherako potentzia kontratatuta duten etxebizitzak.	Energia-pobrezia eragiten dion neurria da, horrek jo ditzakeen taldeei zuzendua baita. Edonola ere, elektrizitatearen kontsumoari laguntzen dio, eta etxeen ehuneko txiki batek baino ez ditu erabiltzen berogailu elektrikoak (Gipuzkoan, esaterako, % 31,9). Neurri horren aurrekia mugatua da. 2,3 kW-ko potentzia kontratatuta duten kontsumitzaileek hilean 4,55 euro aurrezten dituztela kalkulatu da, hau da 55 euro urtean (zergak barne). OCU erakundearen arabera, ohiko fakturan % 20ra iristen da beherapena. 2013ko urtarrilean, 2.535.985 kontsumitzailek zuten gizarte-bonua.
Energia taldean erostea	Espainia	Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundeak Argi Gutxiago Ordaindu Nahi dut ekimena jarri du abian, aurretik deskribatutako Met de Stroom Mee energia elektrikoa taldean erosteko ekimenaren bidetik.	Eskaintako tarifa azken baliabidekoa baino handiagoa izango denez, azken horren barruan sartzen ez diren etxeei baino ez die eragingo. 2013ko urriaren 3an, 300.000 pertsonak baino gehiagok egin zuten bat ekimen horrekin. Aurreikuspenen arabera, energia-hornitzaileen arteko enkantea aurtan, urriaren 16an, hasiko da.

4.4.4. Beste neurri batzuek

4.4.4.1. Aholkularitza teknikoa eta informazioa, energia-kontsumoa murrizteko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko			
Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
Eremu epelak <i>[Warm Zones]</i>	Erresuma Batua	<p><i>Warm Zones</i> proiektuak hirugarren sektoreko eragilean, energiaren alorreko konpainien (eta beste enpresa pribatu batzuen) eta sektore publikoaren arteko lankidetzaren proiektu malguak dira. Lankidetzaren komunitarioko proiektu horiek Gobernuak babestuak dira, baina, aldi berean, independenteak, eta eremu jakin bateko etxebizitzaren energia-eraginkortasuna hobetzeko helburua duten neurriak hautemateko, ebaluatzeko, aholkua emateko eta erabateko kudeaketa egiteko zerbitzuak eskaintzen dituzte.</p> <p>Lehenengo bost proiektu pilotuak 2000. urtean sortu ziren. Urtebete eta lau urte bitarteko iraupena duten programak izaten dira. <i>National Energy Action</i> izeneko irabazi asmorik gabeko erakundeak kudeatzen dituzte guzti-guztiak, eta tokiko erakundeetatik, estatutik eta Europar Batasunetik jasotzen dute finantzaketa.</p> <p>Beste programa batzuetan gertatzen denaren guztiz bestela, <i>Warm Zones</i> programetan ez da erabiltzailearen eskakizunen arabera lan egiten; aitzitik, modu proaktiboan identifikatzen dira eremu jakin baten eta bertako etxebizitzaren premiak. Etxeekin jartzen da harremanetan eta energiaren erabilera eraginkorrari buruzko aholkularitza eskaintzen zaie, eta baita dauden prestazioei eta neurriei buruzko informazioa ere. Funtsean, erantzun integral bat eskaintzea bilatzen da, bai etxebizitzari bai inguruneari dagokionez.</p> <p>Eremu horretako energia-eraginkortasunari buruzko datuak bilduta, <i>Warm Zones</i> proiektuek, halaber, laguntza ematen diete tokiko erakundeek egoera behatzeko eta tokian tokiko politika energetikoak aurrera eramateko.</p> <p>Praktikan, <i>Warm Zones</i> proiektuek ECO programen eta Green Deal neurrien barruan kokatzen diren ekimenak burutzen dituzte funtsean, hau da, etxebizitzaren isolamendua hobetzeko eta berokuntza-sistemak hobetzeko neurrien barruan.</p>	<p>Datuen arabera, tokiko egitura edukitzearen ondorioz, gaitasun oso positiboa dute etxe ahulenetara iristeko eta eremu bakoitzaren ezaugarri berezietara egokitzeak.</p> <p>Banakako etxeak ez estigmatizatzea da beste abantailak bat, esku-hartze zonalak baitira.</p> <p>Bestalde, garrantzizko zeregina betetzen dute lan-aukerak sortzeari dagokionez, bai <i>Warm Zone</i> proiektuetako bertako lanpostuen bitartez, bai instalatzeko eta berritze konpainietan sortzen den eskaeraren bitartez.</p> <p>Zenbait azterketek horien alde egiten badute ere, gaur egun hamalau proiektu baino ez daude aktibatuta Ingalaterrako hainbat eremutan, finantzaketarik ezaren ondorioz nagusiki.</p> <p><i>Warm Zone</i> proiektu baten zerbitzuak hartzen dituen etxe bakoitzak urtean tona bat murriztu ditzake ikatz-igorpenak.</p> <p>2001ean ezarri zirenetik, milioi bat etxetan baino gehiagotan egin dira ebaluazioak, 386.000 berrikuntza egin dira isolamendua hobetzeko eta 3.500 berokuntza-sistema baino gehiago instalatu dira.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>Aholkularitzarako eta informazioa emateko telefono-zerbitzuak</p>	<p>Erresuma Batua</p>	<p>Erresuma Batuan hainbat informazio-linea daude estatu mailakoak zein eskualde mailakoak. Herri Administrazioak irabazi asmorik gabeko erakundeei azpikontrataturako zerbitzuak izan dira gehienetan.</p> <p><i>Etxea Berotzeko laguntza-linea</i> [Home Heat Helpline] Telefono bidezko doako laguntza-zerbitzua, isolamenduari, energia-tarifa sozialei, fakturen izapidetzeari edo energia-kontsumoa murrizteari buruzko informazioa eta aholkularitza eskaintzen duena. Ez ditu laguntzak zuzenean izapidetzen, aitzitik, dagokion erakundera desbideratzen ditu, eskatzaileak azaldutako premien arabera. Zerbitzua doakoa da, baina deiak tokiko tarifaren kostua edukiko du. 2005. urteaz geroztik, abian jarri zen urtetik alegia, 300.000 dei hartu ditu guztira.</p> <p><i>Energia Aurrezteko Aholkularitza Zerbitzua</i> [Energy Saving Advice Service (ESAS)] Telefono bidezko aholkularitza-zerbitzua, doakoa, energia aurrezteko ekimenak egiteko har litezkeen neurrii buruzko informazioa eskaintzen diena partikularrei zein enpresei. Ez ditu laguntzak zuzenean izapidetzen, aitzitik, dagokion erakundera desbideratzen ditu.</p>	<p>Ez dira zuzenean energia-pobrezia aurre egiteko neurriak, herritar guztiei zabalik dauden zerbitzuak baitira. Hala ere, eta kontuan hartuta doako zerbitzuak direla, pentsatzekoa da zailtasun handiagoko egoeran dauden etxeak izango dira erabiltzaile nagusiak.</p> <p><i>Home Heat Helpline</i> zerbitzuak 300.000 dei jaso ditu 2005. urtean martxan jarri zenetik. Erabiltzaileen erdiak baino gehiagok adierazi du zerbitzua erabili eta gero murriztu egin dituela energiarekin zerikusia duten fakturak. Eta erdiak baino gehiagok lortu zituen eskura dauden laguntzak eta prestazioak, zerbitzuaren aholkularitza hartu eta gero.</p>
<p>Diru-sarrera baxuko etxeentzako aurrezki-txeke energetikoak</p> <p><i>[Stromspar-Check für einkommensschwache Haushalte]</i></p>	<p>Alemania</p>	<p>Ekimen honen helburua da diru-sarrera baxuak dituzten pertsonen energiaren alorrean aholkularitza edukitzeko aukera eskaintzea. Programaren barruan, halaber, argiaren eta uraren kontsumoa murrizteko materiala ematen zaie parte hartzen duten etxeei. Proiektuak abiapuntutzat hartzen du pobrezia egoeran dauden pertsonen energia aurrezteko ahalmen handia dutela; talde horrek orain arte ez zuen energia aurreztearen garrantziari buruzko kontzientzia handirik.</p> <p>2006an Frankfuteko Caritas erakundeak sortutako programa da. Ondoren, estatu osoan jarri zen martxan, eta Alemaniako Caritas, Aurrezki Energetikoko Agentzien Federazioa eta estatu mailako Babes Klimatikoa erakundeen baterako proiektua bihurtu zen. Programak erakunde hauen diru-laguntza jasotzen ditu: Ingurumen Ministerioa, Naturaren Babesa eta Segurtasun Nuklearra.</p> <p>Estatuko programaren antzeko beste proiektu batzuk ere badaude Alemaniako hainbat hiritan (Bonn, Nuremberg, Essen edo Berlin). Proiektu horietako batzuk programa nazionalarekin lankidetzan ari dira; beste batzuk, berriz, modu paraleloan gauzatzen ari dira.</p> <p>Programaren onura lortzeko interesa duten pertsonen, gehienetan, aholkulari energetiko baten bisita izaten dute beren etxean, eta harekin etxeko gastu energetikoa eta uraren kontsumoa aztertzen dute. Ondoren, aholkulariak aurrezteko plan pertsonalizatu bat osatzen du. Bigarren bisitaldian, aurrezpen energetikoa errazteko materiala eskaintzen du (esate baterako, energia aurrezteko bonbillak, uraren haizatzaileak, hozkailurako termometroak, termohigrometroak, tenporizagailuak eta deskonekta daitezkeen entxufeen erregletak), gutxi gorabehera 70 euroko balioa dutenak; gainera, haizeztapen-, berokuntza- eta higiene-ohiturak aldatzeko aholkuak ere ematen zaizkie.</p>	<p>2008ko abendua eta 2012ko abendua bitarte, energia aurrezteko 85.000 txeketik gora eman ziren.</p> <p>Proiektuaren ebaluazioak, 2008tik 2010era bitartean, nabarmendu zuen etxe bakoitzak batez beste elektrizitatean 413 kWh (87 euro) aurrezten zuela urteko, 10 m³ ur (40 euro) eta 321 kWh energia (24 euro) ura berotzeko.</p> <p>Dirudienez, elektrizitatearen kontsumoa eta CO₂ igorpenak murrizteko helburuak ere bete ziren.</p> <p>Aholkulari energetikoko luzaroko langabeak dira, zeregin hori betetzeko prestakuntza jaso dutenak; beraz, programaren bitartez enplegua ere sortu da. 2008. urteko abenduaz geroztik, 2.700 lagunek parte hartu dute ikastaro horietan.</p> <p>Energia aurrezteko txekearen programak izan dituen emaitzak oso positiboak izan dira; beraz, 2015. urtea arte luzatzea erabaki da.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>Finantzaren alorreko aholkularitza eta aholkularitza juridikoa</p> <p>[<i>Rechtliche und Wirtschaftliche Beratung</i>]</p>	<p>Alemania [Aachen, Bielefeld, Köln, Krefelt, Wuppertal, Bochum, Dortmund eta Mönchengladbach]</p>	<p>Programa honek aholkularitza eskaintzen die, alderdi finantzariotik zein alderdi juridikotik, energiaren kontsumoa dela eta zorrak dituztenei. Epe laburrera, larrialdiko laguntzak ematen ditu, eta energia gehiago aurrezteko aholkuak eta etxean aurreztu litezkeen beste gaietarako (energiarekin zuzenean lotura ez dutenak) gomendioak ematen ditu. Epe ertainera eta epe luzera, proiektuak etxeko ekonomia antolatzeko eta kudeatzeko trebetasunak eman nahi dizkie proiektuko parte-hartzaileei.</p> <p>Ipar Renania-Westfaliako Ingurune eta Kontsumo Ministerioak diruz laguntzen du ekimena, baina udalak eta herri bakoitzeko kontsumitzaile bulegoak dira proiektuen arduradunak, eta hainbat konpainia elektrikok eta tokian tokiko hainbat elkartek ere parte hartzen dute. Programa Wuppertal herrian jarri zen abian, proba moduan, 2010eko irailaren 1ean. 2012an, lau udalek bat egin zuten proiektuarekin eta 2013an beste hiruk. Zerbitzuaren erabiltzaile gehienak kide bat edo biko etxeak dira, batez beste 1.250 euroko zorrarekin.</p>	<p>Wuppertalen gauzatutako programaren ebaluazioaren emaitzek argi utzi zuten kasuen % 61 berehala konpondu zirela.</p> <p>Kasuen % 13tan zorra berrikusi eta horiek ordaintzeko ordainketa-plan bat egin zen.</p> <p>Beste alde batetik, kasuen % 15 ezin izan ziren konpondu, ez zelako adostasunik lortu Wuppertaler Stadtwerke (WSW) konpainiaren eta erabiltzailearen artean.</p> <p>Azkenik, ebaluazioak erakusten du aholkularitza-kasuen % 11n eten egin zela, erabiltzaileen lankidetzarik ezaren ondorioz.</p>
<p>Klimatizatzeko Laguntza Programa</p> <p>[<i>Weatherization Assistance Program (WAP)</i>]</p>	<p>Estatu Batuak</p>	<p><i>Weatherization Assistance Program (WAP)</i> ekimena da energia-pobrezia aurre hartzeko Estatu Batuetan denbora gehien daramana.</p> <p>1976an sortu zen eta diru-sarrerara gutxiko familietan kontsumo eta gastu energetikoa murriztea da helburua. Energia Sailak finantzatzen du programa eta estatu mailan koordinatzen da. Estatuak askatasuna dute beren herritarren premietara egokitutako programak sortzeko eta beraiek egokientzat hartzen duten moduan banatzeko laguntzak, nahiz eta gobernu federalak gehieneko laguntza-muga batzuk ezartzen dituen etxe bakoitzeko. Estatuak tokiko hainbat erakunderekin batera jarduten dute lankidetzan, eta horiek laguntza-eskaerak jaso, eskakizunak betetzen diren egiaztatu, kontu-ikuskaritzak egin eta eraginkortasun energetikoko neurriak gainbegiratzen dituzte.</p> <p>Estatuaren pobrezia mailaren % 150etik beherako diru-sarrerak dituzten etxeei zuzendua da programa. Programako teknikariek etxebizitza baten egoeraren ebaluazioa egiten dute eta dagozkien aldatetarik gomendatzen dituzte. Diru-laguntzaren helburu diren esku-hartzeen artean daude: horma eta leihoak isolatzea, beira hautsiak aldatzea edo aztertzea, errektuntza-ekipoak konpontzea eta/edo aldatzea.</p>	<p>Berariaz energia-pobrezia alorrari eragiteko neurri bat da.</p> <p>1976an hasi zenetik, 6,2 milioi etxe izan dira programa horren onuradun.</p> <p>Programa honen babesa duten etxeek 330 euro inguru aurrezten dituzte (437 dolar) urteko beren energia-fakturretan.</p>

Neurria	Herraldea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>Herritarrei oro har eta politikariei bereziki energia-pobrezia buruzko informazioa emateko eta sensibilizatzeko gidak banatzea</p>	<p>Europar Batasuneko hainbat herrialde [Belgika, Espainia, Frantzia, Italia eta Ingalaterra]</p>	<p>European Fuel Poverty and Energy Efficiency (EPEE) proiektua, Europar Batasunak finantzatua, 2006 eta 2009 bitartean gauzatu zen. Europako bost herrialdetan (Belgika, Espainia, Frantzia, Italia eta Ingalaterra) energia-pobrezia dagokion egoerari buruzko txostenak prestatzeaz gainera, dibulgazio bost gida egin ziren ekimenaren barruan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oro har herritar guztiei zuzenduak diren gidak oinarriko informazioa dute energia-pobrezia buruz, eta baita energia aurrezteko neurri sozialei eta teknologikoei buruz ere. Zenbaitetan, jardunbide egokiak ere deskribatzen dira. - Politikariei zuzenduak, energia-pobrezia buruzko kontzeptua labur-labur azaltzeaz gainera, horri aurre hartzeko urratsak azaltzen ditu eta modu kritikoan berrikusten ditu dauden neurriak, eta beste berri batzuk iradokitzen ditu. <p>Proposatutako ideiak ardatz hauetan bil daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Energia-pobrezia buruzko ezagutza hobetzea. - Herritarrak gai horri buruz sensibilizatzea. - Hainbat sektoretako profesionalei (gizarte-zerbitzuak, energia, eraikuntza eta etxebizitza) gertaera horren inguruko prestakuntza ematea. - Herritarrei energia-kontsumoa murriztu ahal izateko tresnak (gizarte-laguntzak, tresnak) ematea. 	<p>Ez da ezagutzen zer eragin izan duten gida horiek. Erakunde publikoek sustatuak izan direnez eta Interneten eskura daitezkeenez, pentsatzekoa da zabalkunde egokia izan dutela eta lagundu dutela energia-pobrezia eta hori arintzeko neurri buruzko ezagutza hobea edukitzea.</p>

4.4.4.2. Etxeetako energia-gastua arrazionalizatzeko neurriak, gailuen instalazioetan oinarrituak			
Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
<p>Elektrizitatearen eta gasaren eremuan aurreordainketa sistemak instalatzea</p> <p>[Prepayment meters]</p>	Erresuma Batua	<p>Konpainia elektrikoek edo gas-hornitzaileek aurreordainketa egiteko sistema bat eskaintzen diete energia-fakturen ordainketari ezin aurre egin dioten etxeei, eta, horretarako, erabat doakoa den gailu bat jartzen diete. Tresna horiek aukera ematen dute diru kopuru txikiak aurreratzen joateko, etxean energia kontsumitu baino lehen. Horretarako, kontsumitzaileak txartel bat erosten du eskatutako diruaren baliokoa eta etxean aurretik instalatutako gailuan sartzen du -zenbait gailuk dirua zuzenean sartzeko aukera ere ematen dute-. Erabiltzaileak ez du fakturarik jasotzen, gastua aurretik egiten du eta, daukan kredituaren arabera, energia kopuru jakin bat kontsumi dezake. Aurretik zorrak egonez gero, horiek poliki-poliki deskontatuko dira, aurreordainketa txartelei egotzitako kopuruen arabera.</p>	<p>Zuzenean energia-pobrezia egoeran dauden etxeei zuzendutako sistemak dira. Hala ere, ezin har daiteke pobrezia energetikoa murrizteko neurritzat, baizik eta etxeko aurrekontua kudeatzen laguntzeko neurritzat, faktura handien ordainketa eta zorraren pilaketa saihesten baita.</p> <p>Kontuan hartu behar da, gainera, sistema horren mende jartzen diren erabiltzaileak konpainia elektrikoak ezartzen dien tarifa izenpetu beharko dutela, eta nahitaez ez da merkeena izango; beraz, epe luzera, erabiltzaileak gastu energetiko handiagoa eduki dezake.</p> <p>Gaur egun, 5,9 milioi etxetan aurreordainketa energetikorako sistema bat dute instalatuta Erresuma Batuan.</p>
<p>Elektrizitatearen eta gasaren eremuan aurreordainketa sistemak instalatzea</p> <p>[Prepayment and pay-as-you-go meters]</p>	Irlanda	<p>Irlandan elektrizitatea eta gasa ordaintzeko dauden aurreordainketa-sistemek, oro har, Erresuma Batuan daudenen oso antzeko moduan funtzionatzen dute.</p>	<p>Energia-pobrezia egoeran dauden etxeei zuzenean zuzendutako sistemak dira. Hala ere, ezin har daiteke energia-pobrezia murrizteko neurritzat, baizik eta etxeko aurrekontua kudeatzen laguntzeko neurritzat, faktura handien ordainketa eta zorraren pilaketa saihesten baita.</p> <p>Ez da daturik aurkitu neurri horrek energia-pobrezian izandako eraginari buruz.</p>
<p>Potentzia mugatzaileak</p> <p>[Limiteurs de puissance]</p>	Belgika	<p>Elektrizitate-kontagailuaren potentzia 2.300 Wra mugatzen duen sistema bat da, eta horrek bermatu egiten du korrontearen gutxieneko hornikuntza jarraitua.</p> <p>Familiaren egoeraren arabera, muga hori igo daiteke, nahiz eta inoiz ez duen 4600 W gaindituko. Gutxieneko potentzia horrek ziurtatzen du hainbat aparatu erabiliko direla, hala nola, telebista, hozkailua edo kafegailu elektrikoak.</p> <p>Mugatzaile hori ordaindu gabeko fakturak dituzten erabiltzaileentzat da. Konpainia elektrikoak eskatuta instalatzen da eta bezeroak zorraren % 50 ordaintzen duenean edo gizarte-zerbitzuen laguntza jasotzen duenean kentzen da.</p>	<p>Berariaz energia-pobrezia egoeran dauden etxeetarako diseinatutako sistemak dira.</p> <p>Elektrizitate-kontagailuei baino ez die eragiten; beraz, ez da gas-tresnak dituzten etxeetarako pentsatua.</p> <p>2009an, 15.932 mugatzaile instalatu ziren, eta 2010ean, berriz, 12.966.</p> <p>Neurri horren ondorioz, murriztu egin da hornikuntza eten zaien kopurua.</p>

Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gainerako eragina
<p>Elektrizitatearen eta gasaren eremuan aurreordainketa sistemak instalatzea</p> <p><i>[Compteurs à budget]</i></p>	<p>Belgika</p> <p>[Valonia Eskualdea eta Flandes eskualdea]</p>	<p>Valonia eta Flandesen elektrizitatea eta gasa ordaintzeko eskura dauden aurreordainketa-sistemek, oro har, Erresuma Batuan dauden oso antzeko moduan funtzionatzen dute.</p> <p>Ordaindu gabeko fakturak dituzten pertsonak eta eskualde bakoitzak ezarritako irizpideen arabera bezero babestuzat hartzen direnak ez dute kontagailua jartzeagatik ezer ordaintzen. Kasu horietan, gailua 2300 Wko potentziara mugatuta dago, eta horrek bermatzen du gutxieneko hornidura egongo dela txartela berriro ezin kargatu denean. Elektrizitate- edo gas-fakturak ordaintzeko zailtasunak dituzten eta bezero babestuzat hartzen ez diren erabiltzaileek 100 euro ordaindu behar dituzte aurreordainketarako kontagailua jartzeagatik elektrizitatearen kasuan eta 150 euro gasaren kasuan. Aurreko bi kategoria horietan sartzen ez diren bezeroei dagokienez, bezeroak kontagailua instalatzearen kostua onartzen du, eta 500 euro ingurukoa izaten da.</p>	<p>Zuzenean pobrezia energetikoko egoeran dauden etxeei zuzendutako sistemak dira. Hala ere, ezin har daiteke pobrezia energetikoa murrizteko neurritzat, baizik eta etxeko aurrekontua kudeatzen laguntzeko neurritzat, faktura handien ordainketa eta zorraren pilaketa saihesten baitu.</p> <p>Ez da daturik aurkitu neurri horrek pobrezia energetikoa izandako eraginari buruz.</p>
<p>‘Kontagailu adimendunen’ instalazioa</p> <p><i>[Installation av smart-meters]</i></p>	<p>Suedia</p>	<p>Etxeetako kontsumoa urrutitik irakurtzeko (‘kontagailu adimendunak’) gai diren argi-kontagailuak jartzeko aukera eskaintzen da Suedian. Tresna horien helburua da fakturak benetako kontsumoan oinarritzea, ulertzen errazagoak izatea eta kontsumitzaileek, kontsumoari buruzko kontzientzia handiagoa dutenez, energia gutxiago kontsumitzea.</p> <p>Estatuko Vattenfall konpainia elektrikoak aurreko hamarraldiaren erdialdean proiektu pilotu bat egin zuen, eta, proiektu horrek iraun zuen bitartean, aurreordainketa chip txartel baten bitartez egiteko aukera eskaintzen duten kontagailu adimendunak instalatu ziren; teknologia horren ezarpena zabaltea erabaki zen.</p> <p>Proiektu pilotu horren kontagailuek kontsumitutako kWh-ak erakusten zituzten, eta baita kontratatutako tarifa mota, kostua eta CO₂ igorpenak ere. Proiektu pilotu horren emaitzak positiboak izan zirenez, suediar Parlamentuak erabaki zuen, 2009. urtearen uztailaren 1etik aurrera, argi-kontagailuen irakurketa gutxienez hilean behin egitea. Horren ondorioz, konpainia elektrikoek kontagailu zaharrak aldatu eta urrutitik irakurtzeko aukera ematen duten azken belaunaldiak jarri behar izan zituzten.</p>	<p>Suediar etxe guztiek dituzte, gaur egun, kontsumo elektriko urrutitik irakurtzeko aukera ematen duten gailuak. Edonola ere, horietako batzuekin baino ezin da aurreordainketa egin, eta gutxiak dute kontsumoa ordu ordu zenbatekoa den jakiteko behar den teknologia.</p> <p>Proiektu pilotuaren emaitzetatik abiatuta, bertan parte hartu zuten pertsonen % 20 murriztu zuten beren energia-kontsumoa.</p>

4.4.4.3. Hornidura etetea eta ez ordaintzea mugatzeko neurriak			
Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobrezia gaineko eragina
Zerbitzu Berezien Erregistroa [Industry Special Services Register]	Irlanda	Zerbitzu Berezien Erregistroak babesa eskaintzen die premia bereziak dituzten erabiltzaileei, besteak beste, energiaren alorreko fakturak ordaintzeko zailtasunak dituztenei. Erregistro horretan izena eman dezake energiaren hornidura eteteke egoeraren aurrean egoera ahulean dagoen pertsona orok; funtsean, bakarrik bizi diren 66 urtetik gorako pertsonak edo adineko beste pertsona batekin edo 16 urtetik beherako pertsonekin bizi diren 66 urtetik gorako pertsonak. Erabiltzaile ahultzat hartzen dira, halaber, mugitzeko, ikusteko edo entzuteko arazoak dituzten pertsonak edo tresna jakin batzuen tratamendu medikuak dituztenak (hemodialisako ekipoa, oxigeno kontzentratzaileak). Konpainiek “zentsuzko ahaleginak” egin beharko dituzte, elektrizitate- edo gas-fakturak ordaintzen ez dituzten eta Erregistroan izena emana duten pertsonen azarora eta martxoa bitartean hornidura ez eteteke. Erregistroan izena emanda edukitzearen beste abantaila bat matxura kasuan lehentasunezko laguntza edukitzea da. Erregistroan konpainien bitartez ematen da izena, eta horiek gobernuaren mendekoa den Electricity Supply Board (ESB) erakundeak kudeatutako Zerbitzu Berezien Erregistro Orokor batera eramaten dituzte datuak.	Talde ahulenak babesteko neurri bat da. Ez da daturik aurkitu neurri horrek energia-pobrezian izandako eraginari buruz.
Energia Bulegoa – Zorraren Bitartekaritza Zerbitzua [Cellule Énergie - Service de médiation de dettes]	Belgika	Banan-banako laguntza zerbitzu bat da, Valona Eskualdean eta Brusela Hiriburuan ezarria, ordaindu gabeko energia-fakturak dituztenei laguntzeko helburuarekin. Gizarte Ekintzako Zentro Publikoek (CPAS) kudeatzen dute eta zorraren bitartekaritza-zerbitzu zabalago baten barruan txertatzen da. Energia Bulegoak egiten dituen jardueren artean honako hauek daude: erabiltzailearen eta konpainia hornitzailearen artean zorra ordaintzeko epeak hitzartzea, zorpetze energetikoa saihesteko prebentzio-ekimenak egitea (kontsumo baxuko bonbillak eta etxetresnak erostea), eta energia aurrezteko laguntzei buruzko aholkularitza ematea.	Energia-pobrezia begirako zerbitzu bat da. Ez dago neurri horrek energia-pobrezian izandako eraginari buruz.
Argiaren eta gasaren hornikuntza neguan eteteke debekua	Herbehereak	2011. urteko arau batek, herrialde horretako elektrizitate- eta gas-hornikuntzaren legearen osagarria denak, energia-konpainiei galarazi egiten die hornidura etetea, hura ez ordaindu izanagatik, urriaren 1etik apirilaren 1era bitartean.	Talde ahulenak babesteko neurri bat da. Ez dago daturik neurri horrek energia-pobrezian izandako eraginari buruz.
Zorpetze arazoei buruzko aholkularitza	Herbehereak	2011ko arau batek, elektrizitate- eta gas-hornikuntzaren legearen osagarria denak, adierazten du energia-konpainiek ordainketak atzeratuta dituzten bezeroei jakinarazi behar diela zer aukera dauden zorpetze arazoei buruzko aholkularitza jasotzeko. Ordainketa gogorazteko agiriarekin batera, energia-konpainiek atzeratutako ordainketei buruzko datuak zorren aholkularitza-erakunde bati transferitzeko aukera eskaintzen die. Edonola ere, urteko hilabete hotzenetan (urriaren 1etik apirilaren 1era), konpainiek erabiltzaileen aurretiko onespenik gabe egin dezakete transferentzia hori.	Energia-pobrezia begirako zerbitzu bat da. Ez dago daturik neurri horrek energia-pobrezian izandako eraginari buruz.

4.4.4.4. Beste batzuek			
Neurria	Herrialdea	Deskribapena	Energia-pobreziaren gaineko eragina
Pobrezia Energetikoaren Behatoki Nazionala <i>[Observatoire National de la Précarité Énergétique]</i>	Frantzia	<p>Pobrezia Energetikoaren Behatoki Nazionala 2011. urtean sortu zen, ingurumenaren konpromiso nazionalerako 2010eko uztailaren 12ko 2010-788 legearen ondorioz (Grenelle II legea izenaz ezaguna). Behatokiaren helburua da Frantziako pobrezia energetikoa hobeto ezagutzea, bai etxeen sektorean bai garraioan, eta politika publikoak osatzeko informazioa eta aholkularitza ematea.</p> <p>Behatokian erakunde publikoek, Frantziako konpainia elektriko nagusiak, hainbat GKEek eta Observatoire National de la Pauvreté et de l'Exclusion Sociale delakoak osatzen dute. Behatokiaren funtzioen arabera, azpimarratzekoak dira eskasia energetikoarekin zerikusia duten gai bereziak aztertzeke txosten eta agiri teknikoak.</p>	<p>Pobrezia energetikora zuzendutako zerbitzu bat da.</p> <p>Ez da daturik aurkitu neurri horrek pobrezia energetikoa izandako eraginari buruz.</p>

5. LABURPENA ETA ONDORIOAK

- *Bertan aurkezten den azterlanak gure lurraldeko pobrezia energetikoaren arazoaren sarbide bat eskaintzen du, Gipuzkoan duen eragina neurtzen du, eta eskaintzen du eragina murrizteko beste herrialde batzuetan garatu diren oinarrizko politika eta neurrien nazioarteko panoramika bat.*
 - Azterlan honetako funtseko xedea da pobrezia energetikoaren kontzeptua sartzea gure lurraldean, betiere fenomeno horren ezaguera zuzenago bat izateko. Izan ere, modu eskas batean ezagutzen baitira oinarrizko kausa eta eraginak, eta baita ere kontzeptuaren jatorria eta neurtzeko garatu diren metodo eta ikuspegien arloko gaiak. Horietaz gain, azterlan honetan nahi da gure lurraldean fenomeno honek duen eragina neurtu, eta eskaini nahi da eraginak gutxitzeko asmoz gure inguruko herrialdeetan indarrean dauden oinarrizko politika eta neurrien nazioarteko panoramika bat.
 - Xede horiek betetzeko metodologiak oinarri hartu du gaiaren inguruan argitaratutako literaturaren analisi teoriko bat, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inguruko Inkestak (GPGBI-2012) gaiaren inguruan argitaratutako datuen azterketa bat, eta azkenik, dokumentuen bilaketa zabal baten bidez, hamar bat herrialdetan ezarri dituzten neurriak identifikatu eta aztertu dira.

- **Erresuma Batuan sortu zen 70eko hamarkadan pobrezia energetikoaren kontzeptua, eta erlazionatzen da gabezia-egoerekin. Gaur egun, kausak aski ongi ezagutzen dira eta ondorioak ere gero eta hobeto.**
 - Pobrezia energetikoaren terminoak jasotzen ditu egokitasun termiko batean etxebizitza mantentzeko premiako energia-zerbitzuak ordaintzeko ezintasunagatik edo diru-sarbideen arabera gehiegizko portzentaje bat energia-gastuetarako bideratu behar dituzten etxebizitzetako egoerak.
 - Jatorriz, etxebizitzako tenperatura egoki bat mantentzeko ezintasunak zituzten etxebizitzak identifikatzeko kontzeptu bat izan arren, gaur egun, kontuan hartzen dira berokuntza-sistemaz gain, etxebizitzako alorrekoak diren bestelako oinarrizko premia energetikoak.
 - Hirurogeita hamarreko hamarkadan sortu zen kontzeptua Erresuma Batuan, petrolio-krisialdiaren garai berean, eta gaur eguneko errenta-maila baino apalagoa izateaz gain, kostu energetiko altuagoak zituzten garai hartan; alde batetik, tarifen igoeragatik, baina baita ere etxebizitza-parkearen efizientzia energetiko eskasagatik.
 - Pobrezia energetikoa dimentsio anitzeko fenomeno bat izan arren, adostasun zabala dago oinarrizko kausa gisara ondorengo faktore hauek identifikatzeak: diru-sarbideen maila eskasa, etxebizitzaren efizientzia energetiko baxua eta energia-prezio altuak. Horietaz gain, arazoa sortarazteko zientzia-literaturan nabarmentzen dira, zuzenean edo zeharka, eragina izaten duten beste faktore batzuek. Horien artekoak dira klima, habitata eta gaiaren inguruko informazio eza.
 - Pobrezia energetikoak eragin larriak izan ditzake osasun, bizi-kalitate eta ingurumenean. Lehenik, gaixotasun batzuek izateko edo gaixo daudenak okertzeko arrisku gehiago izaten dute, eta baita ere erlazioa izaten du hilkortasunaren hazkuntzarekin. Halaber, eta energiaren kontsumoak duen efizientzia-gabezien ondorioz, hazi egiten da berauen diru-sarbideen araberako faktura energetiko altuagoak ordaintzeko probabilitatea, eta ohikoa izaten da beste ondasun eta zerbitzu batzuen kontsumoa gutxitzea, ez ordaintzeen arazo eta zorpetzeak ugaritu edota horniduraren mozketak gertatzea. Aldi berean, ondorio horiek guztiek sorrarazi dezakete etxebizitza horietako pobrezia eta gizarte-bazterketaren baldintza larriak are gehiagoan biziagotzea. Azkenik, kontuan hartu behar da etxebizitzaren sektoreak egindako energia-kontsumoa dela gas kutsagarrien isurien bidez, atmosferaren beroketan eragin zuzena duten oinarriko iturrietako bat.
